




“Oñatiko euskeria”

liburuko hiztegixa

2. ediziñua, 2025

Izenburua: *Oñatiko euskeria* liburuko hiztegixaren bigarren ediziñua.

Egilea: Roberto Altuna Erle

Azala: Joxan Iza

Argazkiak: Kepa Elortza
Plazaola argazkilaria
Diario de Noticias
Roberto Altuna
Inaturalist

Hau lanau cc-by-sa lizentziapean banatzen da.

Internetez soilik, 2025.

LAN HAU ONTZEEN ETA BURURAIÑO ERUATEN
NERE ARNASA ETA BABESA IZAN ZARAIÑOI,
ESKER ONEZ!

SARRERIA

Hiztegi guztiak aurrez egindako hiztegi eta bilketa-lanen zordun izaten dira gutxi edo asko. Hau be bai. Zorionez, Oñatin izan dira gure aurretik soro hau jorratu dauenak. Hor dogu Kandido Izagirre eta bere hiztegixa, benetako altxorra. Leonardo Zabaleta abadiak be eskuizkribua itzi oskun, 1920xan egindako berba-zirrindara luze batekin.

Inguruko herrixetakuak be kontuan hartu bihar dira, berbak bardintsuak izaten dira-eta ehuneko haundi batian. Batzuk aittaketiarren: Martin Ugarteren *Legazpi Barrutiko itzen bilduma* (1995), Jone Larrañagaren *Antzuolako Euskara* (1998), Serafin Basauri eta Asier Sarasuaren *Eibarko hiztegi etnografikoa* (2003), Juan Martin Elexpururen *Bergarako Hiztegia* (2004), Aitor Azpiazuren *Gipuzkoako Hegoaldeko Euskara* (2009).

Baiña ondoren datorren hiztegixa 2014an *Oñatiko euskeria* liburuan argittaratu zan hiztegixaren bigarren bertsia da, zuzendua eta garatua. Bixen itturri nagusixa Oñatiko agozko euskera bizixa da. Lehenengo bertsia hartarako Roberto Altunak eta Koldo Zumaldek urte askuan jardun euen berbak eta esaerak jasoten. Robertok Oñatiko kalia eta Aurrekomendi auzuan gehixen bat, eta Koldok Araotz aldian batez be. Bakoitzak zirriborro luze bana ondu eben, nun berbak, esaerak eta esapidia euren esanguriarekin azalketan ziran. Beste alde batetik, Oñatiko Natur Eskoliak argittu eta jantzi zittuen animalixa, piztixa eta landara-kontuak.

Juan Martin Elexpururen eginkizuna izan zan bi lan horreik batzeia, hutsunaak betetia eta hiztegi formia emutia. Kepa Elortzaren esku egon ziran koordinazio, oñatieraketa- eta orrazketa-lanak.

Berben esanguria Oñatiko berbaekin azaldu geben gehixenetan. Baiña euskera batura eta erderara be sarri jo geben, esplikaziñuak larregi ez luzaketiarren.

2025eko bertsia honetan beste jorratu bat emun xao Roberto Altunak, egozen errenkuraak zuzendu, falta ziran berba interesgarri batzuk gehitu, adibidiak ugaritu, berben eta hitanozko aditz formen generua zainttu eta berba guztien itzulpena egindda.

Eta horreik holaxe, esan bihar dogu hiztegi hau artian be eztala Oñatiko euskeriaren hiztegi osua. Holako zerbait egitteko, Umerez, Zabaleta, Izagirre, J. Elortzaren eta A. Lizarralderen lanak, Kontzejupetikeko gaiñetiko sailen artikuluak: *Ttirri-ttara*, *ITTEN ...*, *Ahotsak*-eko grabaziñuak eta abar luzia aztertu eta hustu biharko litzake.

Noizbait egin biharko da hori be! Sekulako lana; adoria, dedikaziñua eta dirua eskatuko dittuena ez bairik barik!

IZAN ZIRALAKO GARA; ETA GARELAKE, IZANGO DIRA!

IDAZTARAUAK

“Herriko euskeran eskribituko orduan, euskera baturako jarritta dagoen idaztarauak errespetaittia eta eredu horretatik larregi ez aldenketia da gure asmua. Aldi berian baiña, bertako berbetiaren nortasunari eustia, bere-beriak dittuen ezaugarri fonetiko eta morfologikuak zaindudaz eta agertuaz. Hau da azken fiñian, bixen arteko orekia mantenittia”

Oharra:

Testu hau idazteko ebali dittugun idaztarauen xehetasun guztiak jakin gura dittuenak irakurri degixela ‘Oñatiko euskera’ liburuko 8.2 kapitulua (303-319 or.)

Laburdurak

ad.: aditza

ad. lok.: aditz-lokuziñua

adb.: adverbixua

adj.: adjektibua

adj. (adkor.): adjektibo adierazkorra

ald.: aldaeria edo aldaerak

ANFI.: anfibixua

Ant.: antonimua

ARRAI. : arraiña

arrunk.: arrunkeria

bat.: batuan

em.: emakumezkua

er.: hitz elkartu eta eratorriak

esap.: esapidia

esr.: esaeria

euf.: eufemismua

fig.: figura erretorikua

giz.: gizakumia

gral. : general

HEGAZ.: hegatzixa

Ik.: ikusi

iz.: izena

junt.: juntagaillua

lagun.: lagunartekua

LAND.: landaria

l. inf.: lengüaje infantil

MIKOL.: mikologia

onom.: onomatopeia

pl.: plurala

Sin.: sinonimua

top.: toponimua

txik.: txikigarrixa

UGAZ.: ugatzuna

ume ber.: ume berbeeran

um. esr.: umien esaeria

v.gr.: verbi gratia: por ejemplo: adibidez

ZOMO.: zomorua

Ikurak

[]: entzuten dan formia adierazten dau.

HIZTEGIXA

Aabixa, -ia. Ahabia. ‘Arandano’.

Aafixo, -ua. *ald.* **aapixo**. Apioa. *Apium graveolens*. ‘Apio’. Esaera honetan agerketan da; sorgiñari desafixua: *Akixo, akixo. Hemen dakot erruda eta aapixo.* (Heldu horri! Hemen daukat erruda eta apioa, eta beraz ezingo dostazu txarrik egin). Bergaran: *el akixo, el akixo. Bai, ezpaleuka erruda ta apixo*

Aazkarri, -xa. Haundixa, izugarrixa, tremendakua. *Horrek dako pazientzia aazkarrixa! / Eruana aazkarrixa bihar dok/n horrekin!*

Abadegei, -xa. Abadetzarako dan estudiantia. *Orain eztago abadegeirik.*

Abadesa, -ia. Abadiaren kriadia.

Abadianeko, -ua. Abadiaren etxian bizi dana.

Abao, -u, -ua. Abaraska. *Ezti-abau bat.* ‘Ezti bagia’ edo ‘ezti bagekua’, barriz, hutsari, argizarixa bakarrik dakonari esaten xako.

Abar, -ra, abarrak. Arakittatik urteten dauein abar mehienak, eskuakin apurtu leikienak.

Abardui, -xa. Abar ugari daguen lekua.

Abare, -ia. Apaiza. *Jentia eliza aurrekaldian eta abaria falta.*

Abarka, -ia. ‘Albarca’.

Abarkagille, -ia. Abarkak egitten dittuena.

Abe, -ia: 1. ‘Viga’. 2. Etxe batekuak dakoin ohittura edo ezaugarriren batek, etxe horretan jarraiketia. Etxeko jenerua harrotasunez erakusteko ohitturia dakoin etxe batekuakaittik esan leike: *Horrek abiorrek jarraituko dau etxe horretan. / Horri abiak jarraiketan xau* (ohittura bera dakon etxe haretako baten bategatik-edo). Ohittura edo ezaugarri txar nahiz onakin ebalu leike.

Abendu, -a. ‘Diciembre’.

Aberats, -a. ‘Rico’.

Abixara, -ia. Abiada. ‘Velocidad’.
Abixaran. Abixara haundixan. *Pasau zan arioplanua tremendako abixaran..*

Abixau. 1. Abixua emun. ‘Avisar’ *Hau daguen moduan, etxeko baten bateri abixau biharko xaugu.* 2. Abiatu (Olabarrietan) ‘Ponerse en marcha, partir’. *Noiz abixauko gara? / Ama abixau da.*

Abixu, -a. Abisua. ‘Aviso’. *Nork emungo dau juntiarene abixua?*

Abonau. Ponderau. Goratu. ‘Valorar, alabar’. Baten baten gain ondo berba egin. *Zelakua ete da datorren emakume hori? Mielangelek abonau dau behintzat. / Iñork egindakua ez hainbeste, baiña eura majo abonau daue horreik.*

Abre, -ia. Haize hotza. ‘Corriente de aire frio’ Korrientia, afruentia. *Abre gaiztua. Abre gogorra. / Hau abria, hemen eztago kristaurik egoterik. / Hala, etxera, hemen daguen abriagaz!*

Abruziu. Gogait egindda itzi. Lur jota itzi. ‘Aburrir, hastiar, dejar sin fuerzas. Aturdir’ *Lagun horrek hainbeste berba egitten dau, jota abruziuta itzi nau.*

Adar, -ra. 1. ‘Cuerno’. **Adarra jo**. ‘Tomar el pelo’. *Hau dok hau adar jotia!* 2. Tantei, araki edo abar bat ebagi edo apurtu ondoren han geldiketan dan markiari esaten xako. ‘Nudo’. 3. ‘Sirena de fábrica’. *Frantzi-iparra jotene ebenian Patrizioneko adarra entzuten zan Koixkar aldian.* 4. Zakilla. ‘Pene, falo’.

Adar-azal, -a. 1. ‘Prepucio’. **Adar azala bota**. Adar-azala apurtu. 2. Desgarrar el prepucio.(fig.) *Kontuz gero, adar azala bota barik!*

Adarjole, -ia. Adarra jotene dauena, adarjolia, tronpajolia. ‘Bromista; tomador,-a de pelo’. *Hori lako*

adarjolerik!// Adarjolia da hori bikaiña.
Sin. **adarjoilla**.

Administradore, -ia. 'Administrador, -a'. *Dukiaren administradoria*.

Administrau. 'Administrar'. *Irabazten dozuna ondo administraitten badozu, aurrera egingo dozu!*

Afaloste, -ia. Afari ondorengo denporia. 'Tiempo después de cenar'.

Afaloste egin. San Juan sua egin. 1. 'La hoguera de San Juan'. 2. 'Fogata grande que se enciende en el monte'. *Han eguen afalostia!/: basuan su haundi bat ikusten danian.*

Afan, -a. Gogo haundixa. Amorrúa. 'Afán, empeño, deseo'. *Zuzatarako afana gehittuaz doia aspalditxuan./ Orain fubolerako daguen afana sinistueziña da.*

Afari, -xa. 'Cena'.

Afari-merienda, -ia. Zazpirak aldera edo egitten dan jatordua. 'Merienda-cena'.

Afraketa, -ia. Abarketa. 'Alpargata'

Afraketagille, -ia. Afraketak egitten dittuena. 'Alpargatero, -a'.

Afruente, -ia. Eguraldi txarra. Erasua, korrientia, erauntsixa. Haize hotza. 'Frente frío'. *Badakar afruentia.*

Agertu. 1. Azaldu, etorri. 'Aparecer'. *Iñork gutxien uste ebenian agertu zan Kandido./ Bixar danontzako lana izango dogu, zeintzuk agertuko zarai?* 2. Geratu. 'Quedarse'. *Honeiri lagunketara noiak/n, badakik/n zer egoeran agertu diran!*

Aginddu. 1. 'Mandar'. *Aginketako ona da ha!* 2. 'Prometer'. *Asko aginddu oskuein eta gero bapebe emun ez; lotsabage galantak!*

Agintzaille, -ia. Aginketakua, aginketia gustaitten xakona. 'Mandón, -ona' *Ni enaiz sekula agintzaillia izan.*

Agiri, -xa. iz. Ziurtagiria, egiaztagiria. 'Documento, justificante'. *Fan naiz bankura, egin dittut hango lan danak*

eta orain, berriz, agirixa falta! ad. 1. Agertu. 'Aparecer'. Gabeko hamarrak badira eta orainddiok eztira agiri, nun geratu ete dira? 2. 'Sobresalir, resaltar'. Ezta lurrian agiri-eta, zer esaten xabilk/n hori?

Ago, -ua. 'Boca'. **Agozabalka**. Arrosinka. 'Bostezando'. *Goiz osua agozabalka pasau dot. esr. Agua neurri euki edo izan.* Pentsau barik bota agora datorrena. 'Decir lo que le viene a la boca'. *Hori dok/n hori agua neurri eukittia!// Horrek bota xok/n botatekua! Agua neurri!*

Agobero, -ua. Harrokerixak esatia gustaitten xakona. 'Exagerado, -a; charlatán, -ana' *Agobero samarra da./ Makiña bat agoberokerixa entzun dogu.*

Agopeian berba egin. Norberarentzako, eta oso bajo berba egin. 'Hablar en voz baja, hablar al oído, susurrar'. Sin. **agopeian esan**

Agor, -ra. 1. Iraila. 'Septiembre' 2. Fruturik emuten eztauen. 'Estéril, que no da fruto'. *Ahalegin, saio, urte... agorra.*

Agortu. Hustu, lihortu. 'Secar(se)'. *Iturri hau udaran agortu egitten da.* 2. Fig. Emutiari itzi. 'Agotar(se)'. *Ameriketatik etorren iturririx agortu zanian gaizki pasau euen etxe hartan.*

Agozikin, -ña. Berba "zatarrak" esanzalia. 'Malhablado, -a, maledicente'. Sin. **agozikiñeko**.

Aguantau. 'Aguantar'. *Miñez aguantau ezindda!*

Aguazil, -la. Udaltzaina. 'Policía municipal, guardia municipal/urbano'.

Aguro. adb. Bizkor. 'Rápidamente, velozmente'.

Agustu, -a. Abuztua. 'Agosto'.

Ahardi, -xa. Txarri eme haundixa. 'Hembra del cerdo (cerda)'. Sin. **txerrieme, urdeme**.

Ahari, -xa. ald. **arai**, -xa. 'Carnero'.

Ahari-buru, -a, ak. (pl.). *ald. arai-buru*. Eguzkixa urteterakuan agertu eta eurixa dakarrein laino biribillak. ‘Los nubarrones redondos que aparecen a la salida del sol (señal de lluvia)’

Ahata, -ia, ahataak. Ahatea. ‘Pato, ánade’

Ahazkor, -ra. Gauzak ahazketan xakona. ‘Olvidadizo, -a’

Ahi, -xa. Esne, urun eta azukarrarekin egitten dan ore gozua. ‘Papilla, gacha’. *Ahixa janda, caballero!*

Ahizpa, -ia. ‘Hermana de hermana’. Alaben artian, bata bestiandako dana.

Ahuntz, -a. ‘Cabra’.

Ahuntzerla, -ia, ahuntzerlaak. Erlabixo txikixa. ‘Especie de avispa pequeña de color negro y blanquecino’. Ik. **erlabixo**.

Ahunztika, -ia. Sei bat hillabeteko ahuntza. ‘Cabrito, -a de seis meses’. Hona hemen txikiñenetik haundixenera: 1) antxuma 2) ahunztika 3) ahuntza.

Ahuzkera. ‘Celo de la cabra’. Ik. **arreske**.

Aidaatu. 1. Egurdixa edo erlainua jaso. ‘Levantar el tiempo’. *Aidaatuko dau? Bai, eguardirako aidaatuko dau, bai!* 2. Burua jaso, inddartu. ‘Fortalecerse’. *Aber udabarrixarekin batera aidaaketan garien!* 3. Aztoratu. ‘Alborotar(se), excitar(se)’. *Bakaziño aurtxuan ume danak aidaatuta ebiltzen!* 4. Garbittu, txukundu. ‘Limpiar, ordenar’ *Zer moduz Tunezen? Aidaatu baten biharrian ete daguen...* (zikinttasunaren gain esanda)

Aidante. *adb.* Tente, bizkor, gogor. ‘Firme, enhiesto, -a, fuerte, vigoroso, -a’. *Aidante gabiltz ba! / Azken bolara honetan oso aidante dabil gure gizona*

Aide baltz, -a. Ardixen gaitza; berihela hiltten dira. ‘Carbunco bacteriano (lipue o aide belza) (ref. a enfermedades padecidas por las ovejas)’.

Aide, -ia. 1. Haize apurra, airia, girua. ‘Clima, ambiente’. *Hango aidiak (Erriojakuak) ikaragarriko mesedia*

egin dost. Aidiak jota egon. Lepo ingurua gogortuta euki, ‘Estar encogido, -a’, adibidez. *Aidiak jota dau, burua mobiu ezinka.*

Aillegau. 1. Heldu. ‘Llegar’. *Papela aillegau da gurera.* 2. Esan-edo; ‘le llegó con que...’ esanguria euki leike. *Joxeaz zera aillegau ei xate: urten be eztauela egitten, etxian sartuta bizi dala.*

Aillorba, -ia. LAND. *Trigonella foenum-grecum*. ‘Alholva’. Bedar klasia, ganaduari emuten xakona.

Ailuska ibilli. Potruan saltaittera jolas egin, personia makurtuta edo belauniko. ‘Jugar al salto del potro’.

Aiña, -ia. Iñudia. ‘Nodriz’. Bi klase ei egozen: **aiña freskia**: titixa emuten ebena (que da pecho); **aiña sikua**: umia zainttu bai, baiña titirik emuten ez ebena (que no da pecho)

Aingeru lora, -ia. *Calendula arvensis*. Hilerri-lilia. ‘Caléndula, maravilla silvestre’

Aingeru, -a. ‘Angel’. *esr. Aingeruak dantzan/jolasian hasi dira.* Hodeixa datorrenian trumoe hotsa hasten danian esaten da.

Aiñubee, -ia. Laiotza. Leku itzaltsua; eguzkixak jotzen eztauen aldia. ‘Umbría, paraje sombrío’. *Paraje aiñubeia.*

Airoso. Airoski, ibillera bizkorraz ibiltia. ‘Airosamente, con garbo’. *Airoso asko fan dira Maritxu eta gizona arboledatik behera!./ Batzuetan airosuago, beste batzuetan motelago. Hauxe da gure ibillera!*

Aitta. ‘Padre’.

Aitta-amak. Gurasuak. ‘Los padres’

Aittaerran, -ak. ‘El suegro y la nuera’.

Aittagiñarreba, -ia. Senarraren edo emaztiaren aitta. ‘Suegro’. *Gure aittagiñarrebari pelotia asko gustaitten xako*

Aittaita. Aitona. Aittaj(a)una. ‘Abuelo’

Aittaitta-amamak. Aitona eta amona. 'Abuelos'

Aittajauna. *ald. aittajuna.* Aitaita. 'Abuelo' Lehenagoko ebaleria: *Aittajauna bat; hiru aittajauna* (Kandido Izagirre). Baiña gaur egun *aittajun bat, eta aittajuntxo bat.*

Aittakotzaar, -ra. Asko hazi danari esaten xako. 'Se dice por el que ha crecido mucho'. *Hi egin haiz aittakotzaarra!*

Aittamena emun. Ohar bat egin. 'Advertir'.

Aittaorde, -ia. 'Padrastra'.

Aittapuntako, -ua. Aita ponteko. 'Padrino'.

Aittatu. Aipatu. 'Mencionar, comentar' *Aittatu notsan zure kontua, e!*

Aitzakixa, -xia. *ald. atxakixa.* Aitzakia. 'Pretexto, excusa'. *Lanik ez egitteko aitzakixa billa ibiltten da betik.*

Aixai, -xa. Azeria. 'Zorro (común), raposo'. *esr. Aixaixak bustitteko eurixa.* Euri gutxitxo edo euri-lanbrua egin dauenian esaten da

Aixal-ar, -ra. Aixai arra. 'Zorro macho'

Aixalbuztan, -a. LAND. *Equisetum arvense.* Azeri-buztana. 'Cola de caballo'.

Aixal-eme, -ia. Aixai emia. 'Zorra'

Aixal-harrapatzaile, -ia. Aixaixak harrapaitten dittuena. 'Experto en cazar zorros'

Aixalko. *ald. Axelko.* Ipuiñetako pertsonajia. 'El señor zorro'. *Axelko eta Otsoko. Axelko ibilli.* Egixa gordeten eta igeskor ibilli. 'Andar de manera huidiza, sin querer decir la verdad'

Aixalkuma, -ia. Aixai kumia. Neska kaskariñari be esaten xako. 'Zorrillo, -a'

Aixal-txakur, -ra. Aixaixak harrapaiteko txakurra. '[Perro] para coger zorros'.

Aixar, -ra. Izutia, beldurtia. Sin. **uxaka, billurti.**

Aixeko bialekua. Bialeku haundixa. 'Gran quebradero de cabeza'. *Aixeko bialekua hartu bihar dozu.*

Aixen, -a. 1. Liana igokari danairi emuten xaten izena. 'Tallo trepador' 2. Mahatsonduaren adarrak. 'Sarmiento'. *Mahatsa be aixenian faten da.*

Aixkomente. Gehixenetan, normalian. 'Normalmente, generalmente'. *Hurrengo astian ama mokorretik operau bihar daue. Trankil egon zatez, operaziño horrek aixkomente ondo urteten dau-eta./ Ha aixkomente bazkalduta etorten da./ Santa Lutziara faten gara pasiaittera aixkomente, baiña gaur Zañartu aldera fatia pentsau dogu.*

Aixotu. Aditz honek haxe esan gura dau: aizkoria edo beste edozein erremintta konponketia prozesu honi jarraituaz: lehenengo burdiña gorritu egin bihar da; gero biharrik badago, ago barrixa egitteko kaltzairu pusketia eransten xako, gero forjau egin bihar izaten da eta azkenian zorroztu. Hau da, erremintta edo laneko tresna bat aixoketia haxe izango litzake: egin biharreko operaziñuak egittia erremintta hori lanerako ondo jarteko. Berba hau galduta dago. Kandido Izagirrek bi lekukori jaso osten aurreko gizaldiko berrogeita hamarreko hamarkadan: Soroandietako Pedro Urzelairi eta Begirolatzako Klaudio Zurutuzari. Harrezkero iñun ezta berba honen lekukotzarik jaso. Horregatik dixogu berba hau 'hápx' bat dala, hau da, corpus batian behin bakarrik agertu dan berbia dala. 'Arreglar una herramienta'. *Aixotu eta gero atxurra gaixotu. esr.* 'Si tocas y retocas la azada para arreglarla al final la estropeas. (dicho)

Aizkolari, -xa. Aizkora-jokuetan parte hartzen dauena. 'Hachero; leñador, -a'

Aizkora, -ia. 'Hacha'.

Akabau. *ald. akabo.* 1. Bukatu, amaittu. 'Terminar'. *Akabo dozu lana?* 2. Hil. 'Matar' *Harrapaitten badot, akaboko xuat/xonat!*

Akastu. Erremintta baten aguan akatsak edo koskak egin. ‘Mellar, calar el melón, quebrar borde o labio a alguna cosa’.

Akats, -a. Objeto edo animalixa bateri egitten xakon kaskia edo maillatua. Batez be aizkorai, atxurrai, aiztuai eta horrelakuai. ‘Tajo, mella, cacho’.

Aker, -ra. Ahuntzaren arra. ‘Cabrón, macho cabrio’.

Aketo, -ua, Takarra, bihotz gogorrekua. Gizonezkuakin ebalten da. ‘Rudo, adusto, zafio’. *Gizon aketo bat; gizon aketo samarra da!* Ik. **aketona**.

Aketona, -ia. Takarra, bihotz gogorrekua. ‘Mujer brava, ruda, adusta, zafia.’ *Emakume aketonia, gero!*

Akitixan. Saltoka eta atxintxika jolasian letxe. Ganaduak egitten daue. ‘Dando saltos, brincando’. *Edur hau kendu dauenian apur bat, bihorrak hasi dira akitixan! / Txahalak be zelaira etaratakuan akitixan hasten dira.*

Akobardau. Koldartu. ‘Acobardar(se)’. *Jausi zanetik akobardauta dago.* Ant. **balientetu**.

Akordau. 1. Gogoratu. ‘Recordar’. *Akordaitten zarai soldau denporan zela ibiltten giñan?* 2. Konturatu. ‘Darse cuenta’. *Akordau barik nenguen horrekin./ Denporia akordau barik faten da.*

Akulo, -ua. Ganaduai eragitteko puntan ultze zorrotza dakon makillia. ‘Aguijada, aguijón, pincho’.

Alanbra, -ia. ‘Alambre’. **Alanbre-kiski,** -xa. Arantzak dittuen alanbria. ‘Alambre con púas’. **Alanbraan ibilli.** *Juxtu-juxtuan, larri ibilli.* ‘Estar a punto (o al borde, o en un tris)’. Aurtengo eskolia alanbraan ikusten dot./ Milosevic-en gobernua alanbraan xagok/n.

Alatu. 1. Demanda egin, hasarre egin. ‘Reñir, reprender’. *Egin eztozulako alatu dotsu./ Zuk alatu dostazu neri baiña azkenian horrelaxe urten dau.* 2. Hotzak gogortu. Hotzak minddu.

‘Entumecerse de frío’. *Eskuak alatuta geratu xat./ Ezin dot ezer egin eskuak alatuta dakot-eta./ Eskuak alaketan xat* 3. Behin baiño gehixagotan esan. ‘Insistir’. *Alatu xaot ez ekarteko.*

Albaitte, -ia. Arnasestua. ‘Jadeo, sofoco, resoplido’. *Harek dako albaittia! Albaitte txarra dakozu. Albaatan, albaitten.* Arnasestuka. ‘Jadeando, resollando’. *Albaitten dagoz* (ardixak, behixak...).

Albandorraatz, -a. Zakuak josteko orraatza. ‘Aguja de coser colchones, sacos, etc’.

Albardau. Urun-arrautzaatu prejitteko. ‘Albardar’. *Penkak albardauta oso gozuak geraketan dira.*

Albazara bat emun. Buruarekin golpia emun albotara. ‘Golpear con la cabeza a los lados’.

Albeera fan. Sigi-saga fan. ‘Ir haciendo eses’. Sin. **xaguka-xaguka fan, bihurka fan.**

Albenittu. ‘Hilvanar’.

Alberga, -ia. Uraska. ‘Abrevadero, pilón’.

Alberretxiko, -ua. LAND. *Prunus armeniaca.* Albertaina. ‘Albérchigo’.

Albista, -ia. Notizia. ‘Noticia’. *Albista bat bialdu./ Albista bat ekarri.*

Albitz, -a. LAND. *Brachypodium pinnatum.* ‘Lastón’. Lur pobreetako bedar arrunta. Sin. **zezen bedar.**

Albiztui, -xa. Albitza ugari dagon lekua. ‘Terreno abundante en lastones’.

Albo, -ua. 1. Alboa. ‘Lado, costado’. *Berna-albua mindduta dakot.* 2. Ondoa. ‘Al lado, al costado’. *Jasarri zatez nere albuan.*

Alboagin. Ik. **betagin.** ‘Colmillo’.

Albookia egin. Ganadu tratu bat egin ondoren dirua kobrau dauenak lagunairi ordainketan dosten tragua; gaur egunian honen antzekua litzake *‘rondia pagau’.* ‘Trago que se toma después de cerrar el trato de venta de ganado, pagado por el

que ha vendido el mismo'. Sin. **albookan egon**.

Aldakor, -ra. Samur aldaketan dana. 'Variable, mudable, cambiante, inestable'. *Eguraldi aldakorra*.

Aldapa, -ia. Aldatza. 'Cuesta, pendiente'. Sin. **pendiz, malda**.

Aldapai, -a. *ald. andaparia* [andapaia], errotako presia (Olabarrietan) 'Saetín, canal del molino. Presa del molino'.

Aldapatsu, -a. Aldapak dagozen lekua. 'Empinado, -a, escarpado, -a, abrupto, -a'.

Aldatz, -a. Aldapia. 'Cuesta, pendiente'.

Alde egin. Fan. Ihes egin. 'Marchar(se), escapar(se), huir'. *Guk zazpiretan alde egin geben. Txakurrak erantsi oskuein, eta alde egin bihar izan geben*.

Alde, -ia. 1. 'Lado', 'aspecto' *Mahaixaren ze aldetan jarriko dittugu aulkixak? / Alde onak eta txarrak begiratu, eta gero erabagi*. 2. 'Diferencia'. *Alde ederra, gatzarekin edo gatz barik! Alde egon*. 'A favor de'. *Ni Realaren alde nago. Aldian eruan, euki, ebali...* Poltsikuan edo soñian eruan, euki... 'Llevar consigo'. *Badoiazu dirurik aldiand? / Txapela betik aldiand ebalten dau*.

Aldeko, -ua. 1. Norbaiten edo zerbaiten alde daguea. 'El / la que está a favor de'. *Ni oso goiz jaikittiaren aldekoa naiz*. 2. Norbera bizi dan ondoko etxebizitzia. 'Vecino, -a'. Sin. **ondoko, besteko, etxekon**.

Aldrebes. 1. Kontrako erara. Itzulikaldera. 'Al revés'. *Mikeleri gauzak albrebes egittia gustaitten xako; eztakogu karrerarik berarekin. / Jarri egizu aldrebes, hala etxako mantxia ikusiko-eta*. 2. Kontrako erakua; gauzak kontrako eran egitten dittuena, moldakaitza. 'Torpe; difícil de amoldar, inadaptado'. *Eztau behinguan asmauko; hauxe da pertsona aldrebesa!*

Alegorri, -xa. Elizatik pittin bat urrinduta daguea. 'Persona un poco apartada de la Iglesia'.

Alegorrittu. Elizatik urrindu. 'Apartarse de la Iglesia'.

Aleitzira esan, bota, ibilli. Ziurtasun edo zihaztasun barik berba egin. 'Decirlo al tun tun, a ojo de buen cubero'. *Aleitzira esango xuan hori, horregatio!! Aleitzira esanda/botata berrehunen bat lagun egongo gara hemen*.

Algarratx, -a. 'Agracejo'. Aranen tamaiñuko jateko frutua, gris kolorekoa eta uletsua, udabarrikua.

Alimau. *ald. animau*. 'Animar-se'. *Animau egin biharko ziñake gurekin etortera. / Etxakixat ba alimauko naizen!*

Alkantzau. Lortu, eskuratu. 'Conseguir'. *Horrek alkanzauko dau iñundik ahal bada. / Berak alkanzauko dosku osasuna eta pakia*.

Alkar jo. Batak bestia jo. 'Pegarse'.

Alkate, -ia. 'Alcalde'.

Alkatesa, -ia. Garai baten, alkatiaren andria. 'En cierta época, la mujer del alcalde'.

Alkatetza, -aia. Alkate kargua edo izatia. 'Alcaldía (dignidad o cargo)'. *Orain alkatetzaia Agerreko mutillak doia*.

Alkondara, -ia. 'Camisa'.

Almandogilla, -ia. 'Albóndiga'. Normalian pluralian ebalten dogu: *almandogillak*.

Almeiz, -a. 'Almirez'. Sin. **mortero**.

1Alper, -ra. *ald. aillper*. Garixa joteko trillua. 'Apero agrícola que se destinaba a trillar, es decir, a separar el trigo de la paja'.

2Alper, -ra. Ezertarako balixo eztauena. 'Zangano, -a, holgazan, -a'. **Alperrik galduta egon**. Hondatuta egon. 'Echado a perder'. *Gutxitxuago jaten hasi dala... eztozu ikusten zela dague alperrik galduta?*

Alperrik ibilli. Lan edo eginbihar alperretan, emaitzarik emungo eztauenetan, ibilli. ‘Andar en balde’. *Etzatez alperrik ibilli, eztozu hortik ezer onik atarako-eta.*

Alperti, -xa. Alperra. ‘Vago, -a, holgazan, -a’.

Alta. Ik. **arreske.** ‘En celo la perra’. *Txakurra altan dago.*

Altzau. Jaso, jagi, jaiki, igo. ‘Levantat, subir, elevar’. *Zeozet eskaketia gura dozuenian, altzau eskua./ Ezta orainddiok ugetik altzau./ Irratixa ezta entzuten, altzau egizu pittin bat./ Oso behian dago, apur bat altzau egin biharko dogu.*

Altzo, -ua. Magala. ‘Regazo’ *Plazan ikusi dogu Leire, umia altzuan ebela. / Harrixa altzuan batu eta bizkarrera jaso.*

Aluixa, -ia. Ulua. ‘Aullido’. *Txakurren, otsuen aluixia./ Aluixaka alde xuan txakurrak./ Aluixa baten geratu zan txakurra.*

Amagei, -xa. Andrageixaren ama. ‘Futura suegra’. *Amageixari nik berba ondo egitten xat./ Amageixagaz kontuz ibilli biharra xagok/n!*

Amagiñarreba, -ia. Senarraren edo emaztiaren ama. ‘Suegra’. *Amagiñarreba etxera ekarri biharko dogu, bakarrik bizitteko gauza ezta eta.*

Amaittu. Bukatu, akabo. ‘Terminar’.

Amakasa, -ia. Abadiarekin bizi dan emakumia, etxeko lanak egitteko. ‘Criada del cura’. Esaeria da abadiak eta amakasiak alkarrizketa hau izan euela: *Ze eguraldi egitten dau? Erdi oskarbi, erdi oriaatu. Sinisketan ezpadau, jagi eta begiratu!*

Amama. Amona. ‘Abuela’

Amandre, -ia. Amandra (Araotz); Mugagabian amandre nahiz amandria. Amama. ‘Abuela’. Lehenagoko ebaleria: *Amandria bat, hiru amandria.* Baiña gaur egun, *amandre bat* eta *amandretxo bat.*

Amaorde, -ia. ‘Madrasta’.

Amapuntako, -ua. Ama ponteko. ‘Madrina’.

Amentzerau. Itsutu. ‘Cegar(se), ofuscar(se)’ *Dirura amentzeraittia be ezta ona. Amentzerauta egon.* Zeozerekin itsututa egon, zerbait burutik kendu ezindda egon. ‘Estar cegado, -a, ofuscado, -a’. *Nobixara amentzerauta xagok/n hori, estudixora baiño gehixago.*

Ameraun, -a. *ald.* **amerun,** -a. Armiarma-saria. ‘Tela de araña’.

Ameraun-txori, -xa. HEGAZ. *Tichodroma muraria.* Arkaitz-txoria. ‘Treparriscos’.

Ames, -a. Ametsa. ‘Sueño’ *Zein da, ba, zure amesa?*

Ameseta, -ia. Ames saixua. ‘Sueño, ensueño’. *Egundoko amesetia izan dot bart.*

Amesetan. Amesak egitten. ‘Soñando’ *Iratzarri naizunian amesetan nenguen, ameseta gogorrian.*

Ametiu. Onartu. ‘Admitir, permitir’ *Ametiu egin xatzu? Nik enoskio ametiuko!*

Ametz, -a. LAND. *Quercus pyrenaica.* ‘Melojo’, ‘rebollo’ Haritzaren famelixako arbolia.

Ameztui, -xa. Ametza ugari daguen lekua. ‘Melojar, bosque de melojos’. *Han egin da ameztuixa!*

Amil, -la. Berbiaren bigarren osagai modura, goittik behera amilketan dan zerbait. ‘Rodadura; sólo se usa en los derivados’. *Lurramila, edurramilla, garramilla, uramilla....*

Amilddu, *amilketan.* ‘Despeñarse’. *Kordadako hiru eskalatzaille haitzetik behera amilddu ziran.*

Amillana-haize, -ia. Gorbeixa aldekoa, hotza. Batzuk “Gorbeixanua” be esaten xaue. Beste batzuentzako Gorbeixanua baiño makalagua da. ‘Tipo de aire’.

esr. Hemen da amillana, fraka zaharren billa dabilena.

Amillana-laiño, -ua. ‘Tipo de nube’. Ik. **laiño**.

Amorrain, -ña. ‘Trucha’. *Mutikuak peskan ala? Bai, amorrainetan dira.*

Amorrain-gixia. Amorrainkumia. ‘Alevín de trucha’.

Amorratua. Porrokatua. ‘Empedernido, -a’. *Langille amorratua da. Amorraketan*. Desiaitten. ‘Ansiando, deseando’. *Zer esango xat amari? Amorraketan naguela ikusteko.*

Amorru, -a. 1. Hasarre bizixa. Ezin ikusixa. ‘Rabia’. *Batak bestiarendako dakozuen amorrua ezpadozue zainketan, gaizki bihar dozue!* 2. Desio bizixa. ‘Anhelo’. *Lanian hasi aurretik bakaziño eske hasi ei da. Horrek dako horrek lanerako amorrua!*

Anae, -ia. ‘Hermano’. *Zenbat anae eta zenbat arreba zarai, ba?*

Anai-arrebak. ‘Hermanos y hermanas en gral.’.

Anbero, -ua. Eguzki bariko bero sargorixa. ‘Calor tórrido sin que se asome el sol’. *Anbero dago./ Anberuagaz eta dornubedarra (ondo igartubagia) janda hazitten/haizaketan dira behixak egundoko azkarren.*

Anbo, -ua. Erle arra. ‘Zangano’.

Andero, -ua. Hilddakua anda gainean eruaten dauen pertsonia. ‘Portador, -a (del feretro, santo, etc)’. *Zein fango da andero? Illobak izango dira erole. Sin. erole.*

Andragei, -xa. Baten emaztia izango dana. ‘Novia’. *Ulixak Ameriketatik ekarri eben andrageixa.*

Andra-gizon, -ak. Senar-emazteak. ‘Esposos’. *Eliza aurrekaldian egozen andra-gizonak zeintzuk ziran?*

Andra-gogo, -ua. Eme-gogua. ‘Necesidad o deseo de mujer’. *Andra gogua eukan eta ezkondu egin zan.*

Andra-neska, -ia. Ama solteria. ‘Madre soltera’.

Anega, -ia. Eukixera-neurrixa. ‘Fanega’. *Lau imiña, anega bat.*

Angailla, -ia. ‘Camilla’. Futbola ikusten eguela, amamak: *Batzuk eruaten dittue angaillan.*

Angira, -ia. ‘Anguila’.

Angixo, -ua: Naharrez itxittako zerraduria ganaduak larraan egitteko. ‘Dehesa, pastizal acotado’. *Angiozar izena be hemendik ei dator.*

Animalixa, -xia, -aak (pl.). ‘Animal’.

Animau. Ik. **alimau**. ‘Animar(se)’.

Anpolai, -xa. Keiza klase ederrenetarikua. *Prunus avium* var. ‘Duracina’.

Anportu. Gogortu, gorputza sorgortu. 1. ‘Agarrotarse, volverse torpe’. 2. ‘Podrirse un tronco’. 3. ‘Ponerse viejo y fofo el nabo’. *Guazen ibilli bat egittera, hor silloian anportuta geratu barik!*

Antioju, -ak. Betaurrekuak. ‘Gafas’.

Antojau. Higuinddu, nazkatu. ‘Asquearse’. *Antojau naiz.* ‘Me he asqueado’.

Antomobil, -la. Autoa, automobila. ‘Auto, automóvil’ *Antomobillian zoiazai? Bai, hasieran trenian fatia asmau geben, baiña gero plana aldatu eta antomobillian fango gara. / Antomobil politta ekarri daue bestekuak, e?*

Antosin, -ña. *ald. antusin*. Ura edateko ebalten dan eskuleku bakarreko metalezko ontzixua. ‘Recipiente de agua; cantimplora’. Sin. **urontzi, uruntzi, edarra-katillu**.

Antxiña. Antzina. Aspaldi; orain dala denpora asko. ‘Hace tiempo, antiguamente’. *Gure aguria betik antxiñako kontuakin dabil./ Antxiñako fotografia*

Antxittu, *antxiketan*. Aurretik doiana atzetik harrapau. ‘Coger o pillar por

detrás'. *Antxiketan dau*: atzetik fan eta harrapau dau.

Antxoa, -ia, -k (pl.). ANTXYUA be entzun leike. 'Anchoa'.

Antxuma, -ia. Ahuntzaren umia. 'Cabrito, -a'. Ik. **ahuntzika**.

Antz, -a. 1. Antza. 'Parecido'. 2. Arrastua. 'Señal, vestigio'. *Pekatuaren antz guztiak garbiketako*. 3. Itxuria. 'Aspecto, apariencia'. *Zer antz hartzen xatzu eguraldixari?/Kantsautako antzarekin etorri xaku Manuel*. 4. Modua. 'Parecido, semejante a, como'. *Harro antzian ibiltten da betik*. **Antz emun**. Igarri. 'Darse cuenta, notar'. *Gizurretan ebillen, baiña nik enotsan antzik emun*.

Antzar, -ra. 'Ganso'.

Antzar-gari, -xa. LAND. *Bromus sterilis*. Garagar mota bat da. Gari artian urteten dauen bedar txarra. 'Cebada bravía, 'espigajo'.

Antzigar, -ra. Arboletan eta zelaittan egoten dan izotz zurixa. Zurdia. 'Escarcha, cencellada'. *Ezin berorik egon, antzigarra dago mendixan-eta./Hemen eguraldi hotzena mendixan antzigarra dagueñan*.

Antzigar-haize, -ia. Haize hotza eta lihorra. 'Viento seco y helado'. *Antzigar-haizia da hau; negua balitza, antzigarra galanta!*

Antzixa, -ia. Herentzia psiko-fisiologikua. 'Genio, índole'. *Haren aittajunaren antzixia dako./Aantzixa txaarra*. 'mal genio'.

Antzu, -a. 'Esteril'. *Behi antzua, ardi antzua, andra antzua...*

Antzutu. Ardixak jeistiari itzittakuan esnerik emuten eztauela geraketia. *Ardixak antzutu egin bihar dittugu*. 'Hacer que dejen de dar leche las ovejas. Esterilizar'.

Apapa fan. *ume ber*. Kalera fan, *l. inf*. 'Ir de paseo'.

Apapuski, -xa. Zapaburua, Olabarrietan. 'Renacuajo'.

Apar, -ra. 1. Esniaren nata edo esnegaiña 2. 'Grumo'. Esnia galtzen danian urteten dauen pelotatxuak. 3. Gauza batzuren pusketa txikiñak. 'Grumo'.

Aparatu, -a euki. Plantak edo itxurak egin. 'Simular, aparentar' Amama futbola ikusten eguela, bi jokalaria jausi eta lurrian egozela: *Horrek aparatuak igual eukiko dittu, baiña bestiak min hartu dau*.

Aparta. Berebizikua, bikaiña, haundixa. 'Extraordinario, -a, excepcional, fuera de lo común'. *Langille aparta, gizon aparta, lotsabage aparta*.

Apartau. 1. Aukeratu gauza bat. 'Elegir'. 2. Bereizi bi pertsona; 'Separarse, divorciarse'.

Apartu. Birrinddu, xehetu, apar egin. 'Despedazarse, desmenuzarse'. Ogixa apartu egitten da gogorketan danian. *Ogixau sikaketan eta aparketan hasi da*. Liburu baten gaiñian be esan geike gaizki enkuadernauta egon eta apurketan danian. *Liburu hau enkuadernau egin biharko dogu berriz, ziharo apartuta dago-eta*. Sin. **birrinddu, xehetu**.

Apatx egin. *ume ber*. Jasarri. *l. inf*. 'Sentarse'.

Apatz, -a. Esnia gatzaketako ebalten dan zurezko ontzi haundixa. 'Cuenco grande de madera para cuajar la leche'.

Apaztu, *apazketan*. Ontzi batetik bestera pasau esnia edo beste likidoren bat altura batetik botata, hotzittu dadin. 'Enfriar o mezclar la leche u otro liquido echándolo repetidas veces de un recipiente a otro desde cierta altura'.

Apiril, -la. 'Abril'. Fruta-arbolei buruzko *esap*. *Apirilleko loria urria baiño hobia, mariatzeko loria bapez baiño hobia*.

Aplakau. Kontrolau. 'Controlarse, tranquilizarse'. *Aplakau jenixo hori./Aplakau nerbixo horreik*.

Apo, -ua. Txarri ar haundixa, posturako edo kumiak egitteko ebalten dana. Basaurdiaren ar haundixa izendaitteko be ebalten da. ‘Verraco’.

Apopillo, -ua. ‘Huesped alojado, -a’. *Gura dozue apopillorik?*

Aposte, -ia. *ald. apostu, apustu*. ‘Apuesta’. *Aposte famosua izan zan Osiñagako Joxe eta Martzeliño Antxittenak Aizkaiñeko tubotik zeññek lehenago igo jokatu euen a 1960 inguruan*. Sin. **postura, trabes**

Apotxak ekarri. Aguro etorri. ‘Venir corriendo (a toda velocidad)’. *Harek ekarri dittu apotxak!*

Apremiñau. Saiatu, ahaleginddu. ‘Esforzarse, sacrificarse’. *Guria oso apremiñaua da. / Apremiñau barik jai xagok/n hemen eta Hong Kongen! / Apremiñau egin da-eta, harek etara!*

Aprobetxategi, -xa. Iñoren kontura probetxua etaraten dauen pertsonia. ‘Gorrón, -ona, aprovechado, -a, oportunista’. *Leku guztietan dago jente fiña, baiña aprobetxategi majuak be bai*.

Apurkor, -ra. Apurketakua, hauskorra. ‘Frágil’. *Apurkor samarra ekarri daue*.

Apurtu. Hautsi. ‘Romper’

Apurtugura, -ia. Apurketako griña, afana. ‘Deseo de romper’.

Ara, -ia. Boldaatutakuak apurketako eta lurra gozaketako ebalten dan burdiñazko tresna haginduna. ‘Rastra; grada’

Araaki, -xa. 1. Adabakia. Erropako petatxua. ‘Petacho, remiendo’. 2. Egurabar mehe luzia, *txikittak* egindda sutarako ebalten dana. ‘Rama fina y larga usada para hacer fuego’.

Araba(ko) zozo, -ua. HEGAZ. *Sturnus vulgaris*. Arabako zozo pikarta. ‘Tordo campanario’, ‘estornino pinto’.

Arabako mutilzahar, -ra. Hego haiziaren izen umorezkua Araotzen. Hego haiziari esaten xako, egunetan eta

egunetan irauten dauenian. ‘Tipo de aire’.

Arabako patxiku, -a. Ik. **Arabako zezen**. ‘Ciervo volante’.

Arabako zezen, -a. *Lucanus cervus*. Arkanbelea, kakalardo adarduna. ‘Ciervo volante’. Sin. **arabako patxiku**.

Arai, -xa. Ik. **ahari**. ‘Carnero’.

Araitu. Aharitu. ‘Emparejarse o cruzarse el carnero con la oveja’. *Araituko dira ardixak. / Araitu dira*

Aran -a. Arana. ‘Endrina’.

Arangarratx, -a. Arana. ‘Endrina’.

Arantza, -ia. 1. ‘Espina’. 2. Arantza klase guztiak. ‘Espino en general’

Arantza baltz, -a. LAND. *Prunus spinosa*. Elorri baltza. ‘Espino negro’, ‘endrino’. Aranak edo baxakanak emuten dittu.

Arantza zuri, -xa. LAND. *Crataegus monogyna*. Elorrixa. ‘Espino albar’. Elorrixa emuten dittu, gorri-gorrixak, gura bada jatekuak. *esap. Elorritxua loran dago, artua ereitten giro dago* Sin. **elorri**

Arantzadui, -xa. Arantzartia, arantzia besterik eztaguen lekua. ‘Espinar’. *Hor ikaragarriko arantzaduixa daukogu eta ez kara pasauko*.

Arapo, -ua. Enborra eta adarraren arteko loturaunia. Egur barruko zati gogorra, adar baten sustarra-edo. ‘Nudo de un tronco’. [aapo] entzuten da. Sin. **arapokuskur**.

Arapokuskur. Ik. **arapo**. ‘Nudo de un tronco’.

Aratizti Egun, -a edo **Karnabal Egun**, -a. ‘Martes de Carnaval’.

Arazero, -ua. Arazuak sortzekua, gogaikarrixa, bazter guztiak nahasketakua. ‘Travieso, -a’. **Arazerixak egin**. Bestiari traba egitten dostenak egin. ‘Hacer travesuras’.

Arazo, -ua. Txotxolua, tontokerixak edo harrokerixak egitten dittuena, atentziñua emuten ibiltten dana.

‘Travieso, -a’. *Mutil arazua horixe! ad. lok. Arazuan ibilli edo arazerixan ibilli.* Bazterrak nahasketan eta enreduan ibili. ‘Hacer travesuras’. *Ez ibilli arazerixan!*

Arbi, -xa. LAND. *Brassica napus.* ‘Nabo’.

Arbigara, -ia. Arbixari, loraketan danian, sortzen xakon lora-kirtena. ‘Pámpano’, ‘escapo de nabo’, ‘grelos’. *Arbigarak jaten oso zaliak dira mondraguetarrak.*

Arboladui, -xa. Zuhaitzia. ‘Arboleda’. *Arboladuiak ikusten dira batian bestian.*

Ardan-zopak. Ardaotara botatako ogipuxketak. ‘Migas con vino’.

Ardao, -ua. ‘Vino’. Klasiak: baltza, zurixa, gorrixa...

Ardao-jana. Buruko-katarrua-edo etorrenian hartzen zan erremedixua: sutonduan, kazuan ifintten zan ardaua, prasa gaiñian, treberan edo parrillaan-edo. Harek hartzen eben sua berotutakuan, su azul-azula izaten zan. Umiak begira barrez egoten ziran. ‘Remedio para curar el catarro’. *Atzo tremendako ardao-jana egin geben, ixixa danak mozkortuta!* ‘Beber y embriagarse’.

Ardi, -xa. ‘Oveja’.

Ardi-ittotzaille, -ia. Aixaxari emuten xakon izena. ‘Zorro, -a’.

Ardi-jan, -a. Ardi-okelia oiñarri dakon jatordua. ‘Almuerzo a base de carne de oveja’.

Ardiki, -xa. Ardi-okelia. ‘Carne de oveja’.

Ardimoztzailla, -ia. Ardixak mozten dittuena. ‘Esquilador’.

Ardi-txakur, -ra. ‘Perro pastor’. Berba hau da normalian hemengo baserritarrak ebalten dauena, eta ez *artzain-txakurra*. Honen moduan *oillagor-txakurra*, *ur-txakurra* eta abar. Artzain-txakurren txapelketak *artzain-txakur* berbia ebalten daue, barriz, Euskaltzaindian kontsultau

ondoren eta honen irizpidiari jarraituaz. Haren esanetan, artzain-txakurra ardixakin bakarrik ez, beste edozein animalixa zainketako ebalten dana da, behi, ahuntz, oillo edota beste edozein izan, nahiz eta gure kasuan gehixenbat ardixak zainketako ebalten dan. Catalunyan *gos de atura*, “laneko txakurak” esaten xate.

Ardura, -ia. Kezkia. ‘Preocupación, desvelo’. *Ardura barik bizittia zer ona dan, ezta? / Etorriko xatzue ardurak!* **Ardurarik euki ez.** Bakarrik konponketako gauza izan. ‘No tener cuidado o temor’. *Bakaziñotan zoiazela eta gizonagatik larrituta zagoz? Arduria dako!*

Ardurabage, -ia. Ajolabagia. ‘Despreocupado, -a’

Areka, -ia. Errekena. ‘Acequia, zanja, cuneta’. Bolalekuan arekia egin bihar izaten da bolua bere bidetik fan dadin.

Arekaitz, -a. ‘Cicatriz’. Sin. **orbain, ebakiondo**.

Areopardo. Ik. **arraipardo**. ‘Águila ratonera’.

Argi, -xa. ‘Luz’. **Argixa izan**. Azkarra, bizkorra, zolixa izan. ‘Listo, -a, despierto, -a, vivo, -a’. *Ha bai argixa, lan barik geratu aurretik beste lan batian hasi./ Diabrua baiño argixagua dok!/ Neskattilla argixa da.*

Argidun, -a. Sasue batian etxerik etxe argixaren kontadoriak ikusten ibiltten zan aiuntamentuko langillia argindarra kobraitteko. [argiuna] entzungo da. ‘Cobrador, -a de la luz’. *Aiuntamentuko argiduna./ Argiduna etorri da*

Argi-oillar, -ra. 1. HEGAZ. *Upupa epops.* ‘Abubilla’. Sin. **kiribillar, gabi-oillar**. 2. ‘Espabilado, -a’, ‘salsero, -a’. *Alde egizu hemendik argi-oillarrori!*

Argittu. 1. ‘Aclarar’. Koloria nahiz arazua. 2. Oskarbitu. ‘Despejar’. *Atzo ez eben egunik argittu be egin./ Apur bat argittuko ete dauen be emuten dau.* 3. Agertu. ‘Aparecer’. *Bizi diranak*

argiketan dirala!/? Argittu da kiltzia?/? Argittu haiz? Bizi haiz?, etorri haiz?.

Arin, -ña. Pixu gutxikua. ‘Ligero, -a’.

Arkakusu, -a. *ald.* **arkakuso**. ‘Pulga’.

Arkazte, -ia. Urte batetik bira dakon ardixa. ‘Oveja de un año para dos’.

Arkea. Ik. **arreske**. ‘Celo de la oveja’. *Arkera dago*.

Arkilla, -ia. *bat.* Aharkela. Bost hillabete arteko txarri emia, gero ‘bargoak’ dira. (Gotzon Garate, Erdarakadak, 16. or.) ‘Lechoncita’. *Arkilla bat. / Arkillia. / Txarrixak zenbat arkilla eta zenbat ordots izan dittu?/? Bi txarrikume erosi dittugu, bat arkillia eta bestia ordotsa.*

Arkupe, -eia. Arkuen azpitan geraketan dan lekua. Kontzejupekua (udaletzekua), esate baterako. ‘Pórtico, soportal’.

Armagin, -ña. Armagillia. ‘Armero, -a (fabricante)’.

Armatoste, -ia. Haundixa, galanta. ‘Objeto demasiado grande o pesado para la utilidad que presta’. *Hori dok/n armatostia ekarri duana/donana.*

Armiarma, -ia. Armiarma. ‘Araña’.

Armozau, *armozaitten*. Gosaldu. ‘Desayunar’.

Armozo, -u, -ua. Gosaria. ‘Desayuno’.

Arnasestuka. *adb.* ‘Jadeando’. *Larri, arnasestuka gelditu zan txoke ostian.*

Aro, -ua. Zerbaiten sasoia edo garaia. ‘Edad’. 1. *Gaztaro, zahartzaro, lotaro...* 2. ‘Tiempo o época adecuado para algo’. *Lanerako aro ona dakogu*

Arotz, -a. ‘Carpintero, -a’.

Arpegi, -xa. Aurpegia. ‘Rostro’, ‘cara’.

Arrae, arraia. Marra. ‘Raya’.

Arrai, -xa. Arranoa. ‘Aguila’. Arranuaren antzeko hegatzixak izentaitteko balixogarrixa.

Arraiñ, -a. ‘Pez’. *Arraiñetara ifiñi*. ‘Ponerlo de canto’.

Arraipardo zuri, -xa. HEGAZ. *Circaetus gallicus*. Arrano sugezalea. ‘Aguila culebrera’.

Arraipardo, -ua. HEGAZ. *Buteo buteo*. Zapelaitza. ‘Busardo; ratonero’. Sin. **areopardo**.

Arramal, -a(k). Potrua(k). ‘Huevos, cojones’. *Harek xakuan/xakonan arramalak eukittekuak!*

Arran, -a. Ardixairi lepuan ifintten xaten txintxarrixa. ‘Cencerro’. *Artaldeko ardi banaka batzuk eruaten daue arrana.*

Arrankosa, -ia; giz. **arrankoso**, -ua. Arranke haundiko emakumia edo gizona. Zirtizartia. ‘Ser de mucho arranque y determinación’. *Hi baiño arrankosuagua dok./ Arrankosia aparta.*

Arranpalo, -ua. Zarata haundixakin, baiña ganora gutxirekin negar egitten dauen umiari esaten xako. ‘Llorón, -a’. *Arranpalo! arranpaluori!*

Arrastada bat emun. Garbittu. ‘Limpiar, darle una pasada’. *Aste honetan kotxiari ia arrastada bat emuten xaugun!*

Arratara bat egin. Erropetan urratu bat egin. Arratara edo trarratara bat egin. ‘Hacer un desgarro en la ropa, rasgón’. Sin. **tarrataria egin**.

Arratsalde, -ia. *ald.* **asalde**. ‘Tarde’. *Arratsalde pasauan*. Illunkaran, arratsaldian berandu. ‘Atardecer’.

Arratue, arratoia. ‘Rata’.

Arrautza, -ia. ‘Huevo’.

Arrautza erre, -ia. ‘Huevo frito’. Sin. **arrautza prejiua**.

Arre, -ia. 1. Euri asko egindakuan errekiak ekarten dauen koloria. Lur-koloria. ‘Color turbio’. *Arretu da ura*. 2. Ez baltza ez zurixa. ‘Grisáceo’. *Ardi arria*.

Arreba, -ia. ‘Hermana de hermano’. Anai-arreben artian, neskia mutillarendako.

Arreborritxiko ibilli. Umiak bizkarrian hartuta jolasian ibili. ‘A horcajadas’. Sin. **arretxiko ibilli**.

Arreske. ‘En celo’. Abere edo animalixa bakoitzaren arreske aldixaren izena ezbardiña da. Ahuntzarena, **ahuzkera**; ardixarena, **arkea**; behixarena, **susara**; bihorrarena, **ixal**; txakurrarena, **alta**; txarrixarena, **irusi**... *Behixa susara eta txarrixa irusi, bixak arreske dagoz.*

Arreta, -ia. Gauzak hartzeko arduria edo ardura eza. ‘Arranque, genio’. *Badako lanerako arretarik?/ Arreta bako gizona./ Arreta gutxikua.*

Arrio, -ua. Arreo. ‘Ajuar (de la novia)’. Garai batian, ezkongeixak arriua burdixan eruatzen eben ezkonketan zan baserrira.

Arro, -ua. ‘Cuenca, barranco, desfiladero, cañón’. **Haitzarrua** (haitz arteko sakona). **Errekarrua** (San Prudentzioko arrua). **Bidarrua** (surco del camino). **Mendiarruak** (barruko sakonak). *top. Arrubaltz, Abemarixarro.*

Arrondu. 1. Etxeko egin, arrimau. ‘Habituar(se), aclimatar(se)’. *Ezta arronketan./ Arrondu ziran alkarregana.* 2. Egurra serenak jo, edo eta sagar baten barrua zuloz beteta jarri eta usteldu. ‘Carcomerse; apolillarse la madera; ponerse hueco y podrido el interior de una manzana’.

Arronka, -ia, -ak (pl.). Erronka. ‘Desafio(s)’.

Arronkaari, -xa. Fanfarroia. ‘Fanfarrón, -a’.

Arrooka, -ia. Esne erriaren gustua; galdara barrenian sortzen da kostria (setakia) esnia erreten darian; arroz-esnia egindakuan barrena erre baxako, berak dakon gustua. ‘Gusto de leche quemada’. Sin. **arraokia egin, arrokin gustua egin**.

Arrosa. Rosa koloria. ‘Color rosa’. *Ekarri pinttura arrosa./ Soiñeko arrosa./ Zapata arrosak.*

Arrosin, -ña. Aharrausia. ‘Bostezo’. *Egun dana arrosinka emun daue, noiz erretirau ete ziran atzo?*

Arroz, -a. ‘Arroz’. *Arroza ekarten badozue, paella ederra egingo dogu.*

Arrua, arroia. Hamabi kilo eta erdi.

Arrua erdi, -xa. Arruaren pixu erdixa. *Arrúa bat eta arróia.*

Artaazi, -xak. Guraizeak. ‘Tijeras’. *Artaazi-fabrikia badago Oñatin, Zubillagan, 1923an ‘auste estana’ markia patentau ebena. Sin. aiztur.* (ardixak moztekuak).



Zubillagako Altuna Hnos. fabrikako iñausketako artaazixa. Kepa Elortza

Artaberde, -ia. Berdetan ganadu-jatekotarako moztan dan arto gaztia. ‘Maíz joven (verde)’.

Arta-bizar, -ra(k). Artaburuaren bizarra. ‘Barba del maíz. ‘Barba de la mazorca’. 2. Pubis aldeko bizarrari be esaten xako. ‘Vello del pubis’.

Artaburu, -a. 1. ‘Mazorca’. 2. Leloa, txotxolo samarra. ‘Atontado, -a, zopenco, -a’. *Pertsonia artaburua izan bihar da hori egitteko gero! Beinke artaburua izan!*

Arta-jorran. 1. Artua jorraketan. ‘Escarda del maíz’. 2. Esku sartzen. ‘Metiendo mano’.

Arta-kamara, -ia. 1. Artua gordeten dan kamaria. ‘El desván donde se tiene el maíz’. 2. Geure burua, berbeta jolastixan edo figurauan. ‘En leng. fest., la cabeza’. *Arta-kamaria pittin bat arinddu xat-eta, eztakit gauza onik atarako dozuen nerekin.*

Artakaskara, -ia. Artaburuaren barrukua, irakurri edo aletu eta gero

geraketan dana. ‘Cáscara que resulta de desgranar el maíz. Panoja o panocha desgranada.

Artantxu, -a. Urtebeteko ardixa. ‘Oveja de un año’.

Artatxiki, -ña. ‘Mijo’.

Artazuriketa, -ia. Artaburuak zuriketako lana edo zeregiña. ‘Operación de deshojar el maíz’.

Arte, -ia. LAND. *Quercus ilex*. ‘Encina’.

Arte. ‘Hasta’. **Artera-arte**. Ordura arte. ‘Hasta entonces’. *Artera-arte ondo aguantau neben, baiña hareik etorritakuan emozionau nintzan*. **Arteraiño**. Ordura arte. ‘Hasta entonces’ *18 de julio baiña hiru-lau-bost egun lehenago zuek gauza arrarorik igarri zeuen ala? Calvo Sotelo hil ondoren eta... Guk aurreko egunian, arteraiño ez*. **Artian**. ‘Todavía’. *Artian ez eguen ekonomikarik. / Ni artian soltero nenguen*.

Artedui, -xa. Artia ugari daguen lekua. ‘Encinar’. *Otalorako [Otálako] arteduixa* (Araotz).

Artegi, -xa. Ardixak gordeteko txabolía. Artegixak artxaria bihar daue eta bildostegixa... Eta, normalien, baserrixetan egoten dira. ‘Redil, aprisco (cualquier tipo de construcción destinada a guardar las ovejas)’. *Artegiraiño noia./ Ardixak artegira sartu bihar dittut./ Artegiko lanak*.

Artesne, -ia. Ardi-esnia. ‘Leche de oveja’. *Artesniagaz egindako gaztaia*.

Artetsu, -a. Trebia. ‘Hábil, mañoso, -a’. *Mutiko artetsua urten dosku honek!*

Artez egin. Zertan zabiltzen dakitzula, gauziori ondo egin. ‘Hacerlo bien, correctamente’.

Artian. 1. Bixen bittartian. Zerbait amaittu arte. ‘Hasta que...; mientras que’... *Ahal dogun artian. Hemen jarraituko dogu, gauza garien artian./ Zuk preguntau nostazun, baiña nik artian enekixen ezer*. 2. **Artian be**. Hala

be. Hala ta be. ‘Aún y todo’. *Artian be nehikua lan. Artian be jakin ez*.

Artille, -ia. Ardixaren ulia. ‘Lana de oveja’. *Artillezko kaltzak*.

Arto, -ua. ‘Maíz’. **Artamaskalak**. Artuaren hostruak. ‘Hojas del maíz’.

Artobero, -ua. 1. Azkarri bariko arto-ogixa. ‘Pan de maíz sin levadura’. 2. Pertsona nasai eta mokolo samarra. ‘Presuntuoso, -a’.

Artopil, -lla. Arto talua. ‘Torta de maíz’.

Arto-urun, -a. Artuaren uruna. Etxe batzuetan ‘artauruna’ be esaten da. ‘Arto’ berbia konposaitten darian bixetara egitten dau: ‘arta’ eta ‘arto’. Artá-aliak eta artó-jorran. ‘Harina de maíz’.

Artua eta esnia. Arto-ogiz egindako esne-zopak. ‘Leche con pan de maíz’.

Artzain, -ña. Ardixak zainketan dittuena. ‘Pastor, -a’.

Aruetan ibilli edo fan. Aruari/txirriketiari (‘aro’) jarraituaz ibilli. ‘Jugar siguiendo al aro’. *Aruetan faten giñanian Brinkolara trena ikustera, orduan ezkeukan bastue biharrik*.

Asero. Nasai, erropa eta zapatak. ‘Holgado, -a, amplio, -a’. *Erropia asero gauza ona da*.

Asete, -ia. Euri asko egindako sasoia. Lihortiarene kontrakua. ‘Época de demasía de lluvia en las tierras, etc. Período de empapamiento’. *Aurten eztago aseterik./ Hau da asetia!*

Aska, -ia. 1. Ganadu-aska. ‘Pesebre’. 2. Uraska. ‘Abrevadero’.

Askeixa etorri. Oso haundixa etorri edo oso haundi egitteko itxuria euki zerbaittek edo norbaittek. ‘Venir muy grande o traer tal aspecto’.

Asko, -ua. Ugari. ‘Mucho’,. *Perretxiko asko batu dittugu./ Askua*. ‘muy’. *Erosi dot txaketia eder askua./ Nobixo kurioso askua hartu xok/n hire alabiak!*

Askotza. Asko, ugari, ezezko esaldittan. ‘Mucho’ en frases negativas’. *Eztot*

askotzarik edan./ Ezta jente askotzarik etorri.

Asmo, -ua. Intentziñua, ideia. ‘Idea, intención’. *Asmo edo intentziño txarrekua./ Asmo gaiztokua.*

Astaar, -ra. Asto arra. ‘Burro (macho)’.

Astaeme, -ia. Asto emia. ‘Burra (hembra)’.

Astagorriña, ia. Grano txiki gorri batzuk gorputz danian urteten daueiñak. ‘Alfombrilla’.

Astakerixa, -ia. ‘Burrada’.

Astakuma, -ia. Astuaren kumia. ‘Pollino’.

Astalarrosa, -ia. LAND. *Rosa canina*. Arkakaratsa. ‘Escaramujo’, ‘tapaculos’. Bide bazterretan, sasi artian, etab. berez hazten dan basoko larrosia.

Astapatxiku, -a. Gibelaundixa, ezigatik larriketan eztana, inportabagia. ‘Cachazudo, -a, despreocupado, -a’. *Hi haiz astapatxikua!*

Astaputz, -a. MIKO. *Lycoperdon sp.; Scleroderma sp., Calvatia sp.* Perretxiko biribilla eta zurizkia, heltzen danian barruan hauts-moduko bal-baltza dakona, hankiakin zapalduta aidian zabalketan dana. ‘Cuesco de lobo’.

Aste, -ia. ‘Semana’. *esr. Astia kojua izan*. Jaiegunen bat izan, zubi bat izan aste barruan. ‘Haber un festivo en medio de semana’. *Aste hau kojua da-eta, eztakit zela ibilliko garien lanori akabaitteko.*

Ateburu, -a. Ik. **astegoixen**. ‘Fin de semana’.

Asteazken, -a. Ateburua. ‘Fin de semana’.

Astegoixen, -a. Ateburua. ‘Fin de semana’. *Gizona bizi zanian astegoixenak Araotzen egitten gittuen.*

Astelehen, -a. ‘Lunes’.

Astin, -ña. Airosia, hanka ariñekua. ‘Ligera, de paso ligero’. *Emakume astiña.*

Asto, -ua. 1. ‘Burro’. *esr. Askoren astua, otsuak jan*. 2. Berba honek eratorri asko emuten dittu, adb: *astakirten, astakuma, astakillo, astapotro, astazakil...*

Asto-larrosa, ia. ‘Rosal silvestre’.

Asto-perrejil, -la. LAND. *Aethusa cynapium*. Basaperrexila. ‘Perifolio borde’. Perrejil itxurako landaria. Sin. **basaperrejil**.

Astotegi, -xa. Astuak lotzeko estalpeia. ‘Lugar donde se guardan los burros’.

Astun, -a. Pixu asko dakona. ‘Pesado, -a (de mucho peso)’.

Asun, -a. LAND. *Urtica dioica*. bat. **osin**, -a. ‘Ortiga’.

Asundui, -xa. Asuna besterik eztaguen lekua. *Asundui jausi giñan*. ‘Ortigal’.

Ataju, -a. Lasterbidea. ‘Atajo’. *Ataju(z) egon*. ‘Estar arreglado’, ‘tener claro’. *Atzetik fango naizela uste badau, ataju(z) dago!! Hainbeste pagauko dostedala pentsaitten baxuai/baxonai, ataju(z) zagozak/n!*

Atakau. 1. ‘Atacar’. *Reketiak atakau euenian...* 2. Jo eta estutu, gogortu. ‘Afianzar, asegurar’. *Olaazirixori ondo atakau dozue?*

Atalora, -ia. Ale haundixa eta zakarra dakon gaztaiña. ‘Especie de castaña, tardía, grande y dulce. La clase de castaña bastante tardía y buena’. Sin. **atalo**, -ua.

Atanbora, -ia. Panderua. ‘Pandero’. *Atanbora jo*. ‘Tocar el pandero’.

Atara. *ald. etara*. Ik. **etara**. ‘Sacar’.

Ate, -ia. ‘Puerta’. *esr. Atia beteko gizona, andria...* Gizon, emakume haundixa. ‘Hombre o mujer muy grande’.

Ateeta, -ia. Etxeko ateko aurrekalde dana. ‘Toda la delantera exterior de la puerta de la casa’. *Maria, urten ateetara!*

Ate-mailla, -ia. Atalasea. ‘Umbral de la puerta’.

Atendi. ‘Atender’. *Ni etorri arte atendi egizu umiok!*

Aterraldi, -xa. Euririk edo edurrik eztiharduan tartia, aterrunia baiño luziagua. ‘Escampada, tiempo en el que no llueve’. *Iraungo ete dau aterraldi honek?*

Aterrarte, -ia. Aterrunia, bi zaparradaren arteko tartia. ‘Lapso de tiempo en el que no llueve’.

Aterri. Ez euririk, edurrik edo lanborik. Eramaitturik ez. ‘Tiempo sereno / escampado. Tiempo sin lluvia’. *Aterri dago.*

Aterruna, -ia. Aterraldi motza. ‘Escampada, tiempo en el que no llueve’. *Aterrunatan lanian jarraiketan dogu./ Oraintxe aterrunia, aprobetxau degigun!*

Atertu. Eurixa, edurra edo beste geratu. ‘Escampar, dejar de llover o de nevar, etc’. *Aterketara doia./ Atertu dau./ Atertutakuan, etxera fango gara./ Atertuko baleu, Urbixara igoko geuke.*

Atezain, -ña. Etxe edo fabrika bateko portera. ‘Portero de una casa o fabrica’.

Aton, -a. *ald. atton,* -a. Txukuna, airosa. ‘Limpia, Airosa, garbosa, con gracia, elegante; alegre (aplicado a seres vivos)’. *Atton-attona da emakume hori.*

Atso, -ua. 1. Edadeko emakumia. ‘Mujer anciana / vieja’.

Atxil-amilka fan. Goitik behera etorri atxilipurdika. ‘Ir dando vueltas de campana’.

Atxilipurdi egin. Buruz gain bueltia egin. *Atxilipurdika.* 1. Buruz gain bueltaka. 2. Sama eta bizkar gainian gorputzari bueltia emun eta zutik ifiniz ibiltia. *Atxil-amilka fuan.* ‘Ir dando vueltas de campana’.

Atxillo egin. Preso hartu. ‘Apresar’. Araozgo umiak ‘atxilloka’ jolas egiten ebein, eta ume batek atxintxika fan eta beste bat harrapaitten ebenian ‘atxillo’ esaten eben, preso hartu ebela esateko. Gerokuagua da ‘atxillotu’ aditza.

Atxillo-atxilloka. *Egingo dogu atxillo-atxilloka?* Umien jolasetan (*hankaideka, pauloka, torre-torreka...*) ikutu ezkerro, harrapau ezkerro, obatu ezkerro **“atxillo”** esaten da. Araotzen gerra osterara arte egiten zan ‘hankaideka’ izeneko ume-jolasian, lurrian eguenari, ikutu, harrapau edo obatu ezkerro, **atxillo!** diar egiten zan, nehikua zan heltzeia edo ikuketia hori esateko eta ordutik aurrera lotuta geraketan zan. Ez lotzeko, eliz atariko bankura igo biharra eguen. Euskera batuak hortik hartu dau berbia eta aditz ezaguna sortu dau ‘atxilotu’, eta sustantibua, ‘atxiloketa’ ‘Detención, apresamiento’.

Atximur egin. ald. atximurka egin. Bi bihatzen artian azala bihurritu. ‘Pellizcar’. *Umia atximurka ibilli xat arratsalde danian./ Lotsabagiak atximur egin nontan ipurdixan!*

Atxintxika. ald. antxintxika. Korrika, lasterka. (pertsonok egiten dogu). ‘Corriendo’. **Atxintxika egin.** Korrika egin. ‘Correr’. *Mutiko horrek ondo egiten dau atxintxika /Antxintxiketan doiaz.*



Korrika 6, 1989. Udanan gora. Plazaola argazkilaria

Atxur, -ra. 1. Lanerako tresnia. ‘Azada’. 2. Mozkorraldixa. ‘Borrachera’.

Atzamar, -ra. 1. ‘Dedo’. *Atzamarrak alatuta. /Atzamarrak erreta.*

Atzamarka egin. Pertsonak euren hatzakin egitten dauen atzamarkadia. ‘Arañar (los humanos)’.

Atzapar, -ra. 1. Atzamar haundixak, zikiñak edo baldarrak dittuen pertsoniari esaten xako. ‘Manazas’ *Horreik dittuk atzaparrak!* 2. Animalixen erpiak. ‘Garra, zarpa’. *Katuaren atzaparrak*.

Atzaparka egin. Animalixak euren atzaparrakin egitten dauen atzaparkadia: katuak, esate baterako. ‘Arañar (los animales)’.

Atze, -ia. Atzeko aldia. ‘Parte trasera’.

Atzekalde, -ia. Atzia. ‘Parte trasera, la trasera’.

Atzera. Berriz. ‘Otra vez; de nuevo’. *Egitten dau aterrun bat eta gero atzera be zaparraria*.

Atzeratu. Atzera eruan, egin. ‘Atrasar, retrasar, retardar’. *Gaur erlojuak ordubete atzeratu bihar dira./ Atzeratu egizu autua apur bat, neuria sartu ahal dadin*.

Atzeria. Oiñez edo berbetan atzeratuta datorren umia. ‘Retrasado, -a’. *Oso atzeria zan./ Atzeria dator*.

Aukerako, -ua. Aproposa, egogixa. ‘Apropiado, -a, adecuado, -a’. *Hori dok/n etxerako aukerako mutilla/neskia!*

Aulki, -xa. 1. Aulkia, jarlekua. ‘Silla’. 2. Behixak jaizteko jarlekua. ‘Banqueta, taburete’.

Aupaz hartu, eruan. Besuetan hartu edo eruan umia. ‘Llevar en brazos’.

Aurdiko, -ua. Almohada-azala. ‘La funda [de] la almohada’.

Aurki. Laster. ‘Pronto, dentro de poco’. *Aurki datoz Gabonak!/ Aurki da hemen!*

Aurre, -ia. Aurrea. ‘Parte delantera’.

Aurrekalde, -ia. Aurria, aurreko aldia. ‘Parte delantera’.

Aurrekalde ona egin. ‘Fingir’, ‘engañar’.

Aurreko amantal, -a. ‘Delantal’.

Aurrera, -ia. Oiñez edo berbetan

aurreratuta datorren umia. ‘Adelantado, -a’. *Hauxe ume aurreria!*

Aurreratu. 1. ‘Ahorrar’. *Dirua ondo irabazten xok/n baiña aurreratu bapez!* 2. Aurrerago eruan, ifiñi. ‘Adelantar’. *Aurreratu aulkixak, hobeto ikustia gura badozue!* 3. Zerbait aurretik emun edo egin. ‘Adelantar’. *Hau gaur egitten badogu, bixarko lanak aurreratuta izango dittugu*.

Auskalo. Batek daki, asmau egizu. ‘A saber, quién sabe’. *Auskalo zer egin dauen horrek!/ Auskalo zelako itxuriagaz agertuko xakun Txomin!*

Auspekuak egin. Zozketia egin, adibidez ze mutillari ze neskakin tokaitten xakon parejia egittia. ‘Sortear’. Sin. **zotz egin**.

Autorra euki. 1. ‘Sentir o tener agradecimiento’. *Autorra betik eukitten xat hari./ Autor haundirik ez.* 2. Onartu. *Autorra badako zor dauela*, ‘reconoce que lo debe’. 3. Goguan euki. ‘Tener en cuenta’. *Jainkuak autorrian euko dau, ta bestiak be autorrian ifiñiko.* **Autorra emun.** ‘Dar la conformidad’. *Neure autorra emunda dakot*.

Auxel, -a. Adoria, indarra. Gaixotasun bat pasau eta gero pertsona orainddiok makal daguenian esaten da. ‘Ánimo, vigor, energía’. *Gaur eztakot auxel haundirik./ Pertsona auxelbagia./ Eztakot ezertarako auxelik.* **Auxelduta.** Makalduta. ‘Decaido, -a, desanimado, -a’. *Auxelduta dago*.

Auzo, -ua. “Barrio”, “vecindario”. **Auzua jo.** Kanpaiak jo, auzua alkarketako. ‘Llamar a reunión de barrio’. *Gaur auzua jo dau.* **Auzua edo auzo-batzeia egon, egin.** Auzotarrak batu zerbait erabagitteko, zeozertaz berba egitteko edo dana dalakorako. ‘Haber reunión de barrio’. *Gaur auzua dago./ Ixiuko Juan Tomas etorri da, jai arratsaldian auzua daguela esateko*.

Auzo-alkate, -ia. Auzo bateko alkatia. ‘Alcalde, -sa de barrio’.

Auzouna, -ia. Auzo barruan daguen baserri moltzo bat. ‘Agrupación de caseríos dentro de un barrio’. Sin. **auzauna**, -ia. (Araotzen).

Axuari, -xak. Jenerua, batez be etxeko sukaldeko gauzak: olixua, kafia, azukarra, txokolata... ‘Provisiones, vituallas, víveres’. *Axuarixak gastau xaku, eta dendara fan biharrian naiz.*

Aza, -ia. ‘Berza’. **Azaak jo**. Ederra egin. ‘Engañar, burlarse de; hacer la pascua o hacer una jugarreta’. *Horrek jo dosku azaak!*

Aza-hostro, -ua. 1. Aziaren orrixa. ‘Hoja de berza’. 2. Belarri haundixak dakonari be esaten xako. ‘Usado como mote o apodo’. ‘Aza-hostro’ *etorri da./ Aza-hostruak lakotxe belarrixak dako.*

Azaldui. Narru sendokua, lotsabagia. (Mugagabian ebalten da). ‘Caradura, sinvergüenza’. *Badator azaldui.*

Azaleuri, xa. Euri gizixa, euri fiña, lanbrua lakotxia lurrazala busteko bestekua. ‘Llovizna’.

Azalurdi, -ña. Kolore zuri-gorrixa. ‘De color morado, amoratado, -a’. *Pertsona hori azalurdiña da.*

Azao, -ua. Gari, liñu... sorta. *Bi eskukadarekin azao bat egitten da.* ‘Manojo, haz; gavilla’.

Azarre, -ria. Haundixa, galanta. ‘Grande; enorme, tremendo, -a’. *Mutilla azarria etorri xaku./ Gizona azarria./ Neskia azarria./ Egurak azarriak!*

Azat, -a. Soruan zerbaittekin (kariagaz, lastuagaz, adartxo bategaz) egitten dan seiñalia jakittekoe zein dan landu bihar dan sailla. ‘Señales, ramitas que se dejan en los campos para indicar dónde se ha sembrado y dónde no’. *Azatian zabaldu hazixa. Azatzak egin.* Hazixa ereittekoe seiñaliak egin. ‘Poner señales para esparcir la semilla’.

Azazkal, -a. ‘Uña’.

Azertau. ‘Acertar’. *Txori horrek eztau bentania azertaitten eta gero larrittu egitten da.*

Azkarri, -xa. Legamia. ‘Levadura’. Sin. **beantzaia**, Legazpin.

Azken, -a. *ald. atzen*, -a. ‘Ultimo, -a’. *Atzenengo aldiz, e, atzena izan dadilla! Azkena jo.* Azken tragua edan. ‘Echar la espuela’. *Txaketuenian joko dogu bat eta Izarraitzen azkena./ Guazak/guazenan, azkena jo degigun!*

Azkonar, -ra. UGAZ. *Meles meles.* ‘Tejón’.

Azkura, -ia. Hazka egitteko gogua. ‘Ganas de arrascarse’. *Lorik be ezin egin azkuriagaz./ Azkuria dako. esr. Azkuria kendu baten bateri.* 1. Gosia ase-edo. ‘Satisfacer los deseos’. 2. Egurtu bat emun. ‘Dar una paliza a alguien’.

Azpel, -a. *ald. auspel*. Bi eskuen artian hartzen dan bedar edo ira pillatxua. Zazpi azpelakin sendorra egitten da. ‘Manojo, haz. Manotada de paja. Fajo de helecho, árgoma, etc. La cantidad suelta de helecho, hierba, etc. que se puede coger entre brazos. Con siete fardos se hace una carga’.

Azpigei, -xa(k). Ganaduentzako azpittarakua. ‘Materia orgánica con que se hace la cama del ganado’. *Azpigei onenak iria eta orbela.*

Aztartu. Oilluak mikuarekin eta hankakin egitten dauen ekintzia. ‘Escarbar’. **Aztarka**. ‘escarbando’

Azugar, -ra. Azukrea. ‘Azucar’.

Baba, -ia. 1. ‘Alubia’, ‘haba’. 2. ‘Ampolla’. *Atxurrian aspaldixan egin barik eta babia etara dot.*

Baba baltz, -a. Babarrun beltza. ‘Alubia negra’.

Baba gorri, -xa. Babarrun gorria. ‘Alubia roja’.

Baba pinttana, -ia edo **ubela-baba**, -ia. Zuri-beltza, pinttoa. ‘Alubia pinta’. **Baba txiki**, -ña. ‘Haba pequeña’.

Baba haundi, -xa. ‘Haba grande’. *Baba haundixak udaran batzen dira eta oso gozuak dira jateko.*

Babalora, -ia. Motela eta txepela dan neskia. 'Mujer u hombre soso, bobo. Lelo, soso. Se dice de las personas que se rien por nada, tranquilas y sin malicia'. Iñor tentaitteko egitten dan kantua: *Iñoxente potente, Errekaldeko txakurrak buztana tente! Iñoxente potente, babalora! Errekaldeko txakurrak buztana gora!*

Babau. *ume ber.* Txakurra. *l. inf.* 'Perro'. *Nun dago babau?*

Bage, bagia. Konposiziñuan: Gabe, gabea. 'Sin'. *Ganorabagia, lotsabagia...* 'Sin fundamento, sinvergüenza... '.

Bage geratu. 'Quedarse sin nada'. *Aguro fan, bage geratuko zara-eta.*

Bagi, -xa. Mobittekot motela dana. 'Torpe, pesado; perezoso'.

Bagil, -la. Ekaina. 'Junio'.

Bahe, -ia. "Cedazo". Sare mehiagaz egindakoa, gauza fiñak, uruna-eta pasaittekua.

Baiezkoa emun. 1. Baietz esan 'Asentir'. 2. Zerbait egingo dala aginddu. 'Prometer'. Sin. **baietza emun**.

Bajau. Jaitsi, apaldu, makaldu. 'Apagarse, declinar, debilitarse'. *Azkenaldi honetan asko bajau da gure ama.*

Bakaillau, -a. 'Bacalao'. *Lau, lau, lau sardiña bakaillau!*

Bake, -ia. 'Paz'. 'Pakia' be entzungo dogu. Horren lekuko 'Pake Leku' herriko jubilatuen etxia edo alkartia. *Bakia edo pakia gauza ona da.*

Bakeoso, -ua. Baketsua. 'Pacífico, -a'

Bako, -ua. *ald. bageko, bariko*, -ua. Gabeko. 'Sin'. *Ezkondur bariko neska kuadrillia./ Odol bako gizona./ Dirurik bageko lana./ Ganora bakua, bagekoa, barikua.*

Bal, -a. Ogixak labera eruateko otzara luzia. 'Una cesta alargada como una tabla con asas en los dos extremos para llevar el pan al horno'.

Balantzaka. Balantzak edo sigi-sagak egiñaz ibilttia. 'Ir dando tumbos'. Sin. **potraka-potraka**.

Baldar, -a. 'Torpe', 'brusco'.

Baldo, -ua. Zerbaitten pusketia edo zatixa. 'Trozo'. *Ogi baldua, egur baldua. Han agertu da Mikeltxo, ogi baldua eskuetan dakola, mauska-mauska jaten.*

Baliente. *adb.* Osasun oneko. 'Fuerte, con ánimo'. *Zer moduz ama? Baliente? adj.* Ausarta. 'Valiente, atrevido, -a' *Zezenen aurrekaldian ibiltteko balientia izan bihar norbera!*

Balientetu, *balienteketan, balientetuko.* Osasunez gogortu. 'Fortalecerse, animarse'. *Gaixo aldixaren ondorian, badoia balienteketan.*

Balixau. Baliatu. 'Servir(se), valer(se), aprovechar(se)'. *Argentinan ardixen uliakin balixaitten ei dira dirua egitteko.*

Baltz, -a. Beltza. 'Negro'. *Egun haretan dana bal-baltza ikusi neben.*

Baltziska, -ia. Baltz antzekua. Betik kolore arriakin. 'Negruzka; oscura; morena'. *Bihor baltziskia; behi baltziska bat; oillo baltziskak.*

Baltzisko, -ua. Baltz antzekua. Betik kolore arriakin. 'Negruzko; oscuro; moreno'. *Idisko baltziskua; astar baltzisko bat; aker baltziskua.*

Baltzittu. 1. Belztu, keiarekin adibidez. 'Ennegrecerse'. 2. 'Volverse intransigente'. *Entzuterik be eztaue gura, ziharo baltzittu dira.*

Baltzuna, -ia. Ubeldura. 'Moratón'. *Zela egin dozu, ba, iztarrian ageri dozun baltzunatza hori?*

Banaandu. 'Separar', 'diferenciar'. *Txaraak sestraakin banaandu.* Hau da, txaraak lerroz bereizi.

Banasta, -ia. Gaztaiña-zimitzagaz egindako saskixa. 'Cesto'. **Banastapeian lo egin**. Ume batek urtiak beteten dittuen aurreko egunian esan ohi xako: gaur gabian banastapeian ifiñi bihar zaugu eta bixar arte banastapeian

egon biharko dozu. Baten bat ezkonketako danian be, aurreko egunian horixe esan ohi xako: zarapeian (...) ‘En capilla’. Sin. **zarapeian lo egin**.

Banastagin, manastagin, -ña. Banastak egitten dittuena. ‘Cestero, -a’. *Bazan Oñatin garai baten makiña bat banastagin./ Orain banastagiñik eztago./ Banastagiñik famauenak Mendiko kalekuak.*

Bandarik banda. Alderik alde, zabal zabalik; bentania, adibidez. ‘De lado a lado, de par en par’. *Bart gabeko beruarekin lo egin dogu bentanak zabalik bandarik banda.*

Bandera, -ia. Erreparo gutxikua, nabarmena (emakumia). ‘Mujer sin reparos, sobresaliente’. *Neska banderia./ Emakume bandera samarra.*

Banderilla, -ia. Pintxua, mokaua. ‘Pincho, bocado’. *Banderilla bat gura dozue./ Mostradoria banderillaz beteta dago.*

Bandiura, -ia. Babia eta holako jakixak esegitta ifintteko kamaran dagueen lekua, abar luze eta etziñagaz egiña. ‘Parte del camarote donde se seca la alubia y otros alimentos encima de unas largas varas de madera’.

Bando, -ua. Udal baten edo agintaritzaren militar baten deia. Beste aditz honekin be ageri da: bandua atara, egin, emun, entzun, irakurri, jarri edo ifiñi. ‘Bando, proclama, comunicado’.

Bandua jo. Mezu bat zabadu. Dei egin. ‘Pregonar un bando; (fig.) difundir una noticia’. *Bandua jo dok/n bai eta aurki puntuko eztok/n zuririk geratuko hemen!*

Bapeza. Ezereza, hutsa. ‘Nada’. *Hori da bapeza!/ Diru gutxi dakozula? Bapeza da hobe, bapeza!* (Mugatuan ixa bakarrik).

Bapo. 1. Ederki. ‘Bien, estupendamente’. *Ño, bapo geratu gaittuk/n!* 2. **Bapo! ald. papo!** Akabo! ‘Muy bien, estupendamente’.

Bara, -ia. Baria. ‘Limaco, babosa’. *Badakozue baraandako botikarik?*

Bara-eguraldi, -xa. Eguraldi bustixa, hezia; *eguraldi ziriña* be esaten xako. ‘Tiempo muy humedo’.

Baratz, -a. Motela, geldoa. *Pauso baratza./ Pausua baratz botaten dau.* 1. Lento. 2. Lentamente.

Barbero, ua. Gizonen ileapaintzailea. ‘Peluquero, barbero’. Sin. **bizargin, ule-apaintzaile**.

Bardin, -ña. 1. Berdina. ‘Igual’. 2. Sin hueco alguno, macizo, -a. *Ha gizontzaarra ha, bardin-bardiña!*

Bardinddu. 1. Dana mailla bardiñian jarri, koska edo gorabehera barik. ‘Igualar’. 2. Tripia bete. ‘Saciarse’. *Bardinddu zarai? Bai, bai, bixar arte bardinduta gagoz.*

Bare, -ia. ‘Bazo’. **Bariak harrapo, heldu edo obatu**. Atxintxika zoiazienian sortzen dan sabel-saihetseko miña. ‘Tener flato’.

Bargasta, -ia. 1. Txarri emia. ‘Cerdeja joven (de unas cuatro arrobas)’. 2. Emakume gogorra, egoskorra. ‘Mujer displicente, desobediente’. *Emakume bargasta bat.*

Bargasto, -ua. Txarri arra. ‘Cerdo macho’.

Barik. Gabe. Ik. **bage, bako**. ‘Sin’.

Barkillero, -ua. Barkilluak egin eta saltzen dittuena. ‘Barquillero, -a’.

Barrabas bedar, -ra. LAND. *Oxalis latifolia*. Jatorriz hegoamerikarra dan bedar txarra. Alpalpiaren modukua, hostro xabala, behin ortu eta sóruetan sartu ezkeronekeza da kentzeko. ‘Acederilla’.

Barrabil, -la. Potroa. ‘Testículo, huevo’. Sin. **arrautza, koskabillo, koskor, potro, arramal**.

Barre, -ia. Barrea. ‘Risa’. **Bidoble egingda barrez**. ‘Doblándose de risa’. Barrez bihurrituta, doblauta. *Ekin zan*

bidoble egindda bertan barrez./ Barrez bidoble egindda akabo geben.

Barre-algara, -ia. Barre haundixa. 'Carcajada, risa'. *Kaletik etozen barre-algarakin lo egin ezindda egon gara!*

Barregarri, -xa. 1. Barreguria emuten dauena. 'Gracioso, -a, chistoso, -a'. *Pasadizo barregarrixa kontauko dotsuet.* 2. Lotsagarrixa. 'Ridículo,-a, irrisorio, -a'. *Barregarri geratu gara orainguan!*

Barregura, -ia. Barre egitteko gogua. 'Ganas de reir(se)'. *Barreguria etorri xako./ Barregarurak fan xate.*

Barri, -xa. 1. Berria. 'Nuevo, -a'. *Hahor, traje egin barri-barrixa.* 2. Albistia, notizia. 'Noticia'. *Zer barri dakartzu Donostiatik?* 3. Orain dala gutxi. 'Hace poco tiempo'. *Eurixa egin barri dala emuten dau.* **Galdu, egon, etorri... barrixa izan, edo galdu, egon, etorri...zaharra izan ez.** *Hantxe aldapan topau neben berrogeita hamar eurokua eta ez eben galdu zaharra emuten / ...eta galdu barrixa emuten eben./ Hemen egon barri dira / eztira egon zaharrak.*

Barriketa, -ia. Berriketa. Solasa. 'Charla, parloteo.' *"Gizona eta goruetan?". Hartu dau makillia gizonak, jo dau katua, "Katua eta barriketan?". Hurrengo egunian hara nun agerketan dan auzoko andre bat kojoka. (ipuiña).*



Apostoluak barriketan. Diario de Noticias

Barriketako, -ua. Ganorazkua, ezezko esaldixakin batez be. 'No ser cualquiera, no comprar cualquier cosa... Normalmente en oraciones negativas'. *Ezta barriketako neskia!/ Eztau barriketako autua erosi!*

Barriketalari, -xa. Barriketa asko egitten dauena. 'Hablador, -a, charlatán, -a'. Sin. *giz. barriketoso; em. barriketosa.*

Barriketaldi, -xa. Berbaldixa. 'Charla, conversación'. *Barriketaldi bat jo eta etxera./ Horreik egitten dittue barriketaldixak!*

Barritsu, -a. Berba asko egitten dauena. 'Charlatán, -a'.

Barriztau. Berriztu. 'Reformar, renovar'. *Etxia barriztaitten gabiltz.*

Bartz, -a(k). Zorrixen arrautza(k). 'Liendre'.

Bartzun, -a. Errautsak eta txingarrak mobitteko burdiñazko erreminttia. 'Badil, paleta de cocina'.

Baru egin. Barau egin. 'Ayunar'. *Gaur baru egin bihar, baru-eguna da-eta.* **Barurik egon**. Baraurik. 'En ayunas'. *Goiz dana barurik pasau dot.*

Basabehi, -xa. *ald. basobehi*. Basuan larraan libre ibiltten dan behixa. Sasoi batian, behi gorrixak. 'Vaca (bravía) de raza pirenaica'.

Basaberakatz, -a. LAND. Basabaratzxuria. *Allium sp.* 'Ajo silvestre'. Sin. **berakatz-bedar, suba-berakatz.**

Basadui, -xa. Basua feros, itxixa dagon tokixa. 'Lugar de denso bosque'.

Basajaun, -a. 1. Pertsonaje mitologikua. 'Personaje de la mitología vasca'. 2. Gizon basatixa, baldarra eta hezibagia. 'Hombre rústico/huraño/salvaje'.

Basakatu, -a. UGAZ. *Felis sylvestris*. 'Gato montés'. Katuaren antza dakoin basapiztixai emuten xaten izen generikua. 'Gato montés'. Ik. **kataman, katu-mao, frantzes-katu, papar-zuri, papar-hori, ipurtatx.**

Basaperrejil, -a. LAND. *Aethusa cynapium*. 'Perejil silvestre'. Sin. **asto-perrejil.**

Basasagar, -ra. LAND. *Malus sylvestris*. ‘Manzana silvestre, manzana bravía’.

Basaurde, -ia. UGAZ. *Sus scrofa*. ‘Jabalí’.

Basazain, -ña. *ald.* **basozain**, -ña. Basua zainketako arduria dakon langillia. ‘Guardabosque, guarda forestal’. Sin. **montero**.

Baserrittar, -ra. Baserrixan jaixo edo lan egitten dauena. ‘Campesino, -a, aldeano, -a’.

Basilloi, -a. Zahi asko dakon urunarekin egindako ogixa; gerraosteko ogi baltza, latza, kalidade gutxikua. Mondraguen **pasailoria**. ‘Pan hecho de harina a la que después de la molienda sólo se le ha quitado el salvado grande, no el menudo’.

Baso, -ua. 1. Oihana. ‘Bosque’. *Iratiko basua / Artiako basuak*. 2. Hostoa. ‘Hoja’. *Baso haundixa atara dau arbixak, artuak, aziak... Ze baso dakon arbixak!*

Basomutil, -la. Basuan egur-lanian egitten dauen mutilla. ‘Leñador, trabajador forestal’. Sin. **basogizon**.

Baso-oillo, -ua. HEGAZ. *Otis tetrax*. ‘Sisón’.

Baso-uso, -ua. Ik. **pagouso / pagauso**. ‘Paloma torcaz’

Basta, -ia. Astuari, bihorrari, zaldixari, manduari... bizkarrian ifintten xakona lanerako edo pertsonia gaiñian ibiltzeko. ‘Albarda; baste; montura. Silla de montar’. *Asto-bastia bikaiña. / Lehenengo bastia eta gero zestuak.*

Bastue, bastoia. Orekia mantenitzeko eta lagun egitzeko eskuan ebalten dan zurezko makillia. ‘Bastón’. *Hartu bastoia, mendixan betik aldian ibilli biharrekua da eta! / Baserrittarrak urritz makillakin eta kaletarrak bastoiakin ageri ziran. Ezagun ezagun zein zan zein!*

Batek daki. Auskalo. ‘A saber, quién sabe’. *Batek daki zer ekarriko doskuen*

granuja horreik!

Batian-bastian. Noizbehinka. ‘De vez en cuando’. *Plaza inguruan batian-bastian ikusten gara. Han-hemenka. ‘En un lugar u otro’. Perretxiko askorik ez eguen, batian-bastian banakaren bat.*

Batiu, -a. 1. Bataioa. ‘Bautizo’. **Batiuak egin**. Senide danak egitten euen bazkarixa batiua egin eta hurrengo domekan. ‘Celebración del bautizo’.

Batu. 1. Elkartu. ‘Recoger, juntar’. *Batu patata danak pilla baten, sakutan sartzeko. Hotzak eguen, eskuak batu eta igurtzitten/igosten*. 2. Bildu. ‘Recoger’. *Gaztaiñak batu*. Sin. **bildu**. **Begirik batu ez**. Lorik ez egin. ‘No pegar ojo’. *Bart eztot begirik batu.*

Bazkari, -xa. Eguardiko jatordua. ‘Comida del mediodía’.

Bazter, -ra. *ald.* **baztar**, -ra. Bazterra. ‘Rincón’ ‘Borde’. *Bide baztarrrian egin geben hamarretakua.*

Bazter-endredatzaille, -ia. Pertsonak edo gauzak bere onetik etaraten dittuena. Sin: **endredador-makilas (endreda-makilas izan)** ‘Liante, -a, embrollador, -a’.

Beata -ia. *ald.* **bieta**, -ia. ‘Serora, sacristana’. *San Martingo beatia. / Parrokixako bietia.*

Bebarru, -a. Etxe barruko sarrerria. Ataria. ‘Portal’

Bedar, -ra. 1. Belarra. ‘Hierba’. *esr.* **Bedar motzian hazittakua izan**. Pobrezian, gose antzian hazittakua. ‘Hecho en la pobreza o escasez’. 2. Estua. Oihal baten gaiñian berbetan gabiltzarian esaterako. *Oihal bedarra: ‘la tela estrecha’. Hego bedarra: hegazti baten hego estua.*’ala estrecha.

Bedar baltz, -a. LAND. *Trifolium pratense*. Sekula-belarra. ‘Trébol’. Ganaduari emuteko ereitten zan bedar klase bat.

Bedarreta, -ia. Bedar karriua. ‘Siega y acarreo de hierba. (heno)’. *Gaur ikaragarriko bedarretia jo dogu!//*

Bedarreta haundixak egin dira egun honeittan.

Bedartza, bedartzaia. Bedar-nabasia. ‘Pastizal, herbazal’. *Hemen egin da bedartzaia!*

Bedeinkatu, -a. 1. Abadiak bedeinkaziñua emun. ‘Bendecir’. 2. Dontsua. ‘Dichoso, -a’. *Ume bedeinkatuok burutik gora eragin dostei!*

Begibera, -ia. Begi xamurrekua. ‘De ojos delicados, enfermos; legañoso, -a. Tierno de ojos’.

Begi-larri, -xa(k). Begi urdurixak, txikixak eta tristiak dittuena. ‘De ojos salientes’.

Begiluze, -ia. Janari, erropa eta abarrerri enbidixiagaz begiraketan dostena. ‘Curioso, -a. ‘Chismoso, -a’, o *euf.* de ‘policía secreta’.

Begi-mamin, -ña. ‘Córnea opaca’.

Begi-niñu, -a. ‘Córnea transparente’.

Begi-okor, -ra. Begi okerrak dittuena. ‘Bizco, -a’.

Begira. 1. Begiraketan. ‘Mirando’. 2. Zain. ‘Esperar’. *Hari begira baldin bahago, jai dakok/n! esr. Egon hadi Andartora begira!* ‘Estar en Babia’

Begiratu, *begittu*, *begiraketan*. 1. ‘Mirar’. *Begiratu ondo, ia topaitten dozun. Begittu dot, baiña eztago han./ Begittu! Ikusi dozu hori?.* 2. ‘Esperar’ *Hemen nago panaderuari begira, ia noiz etorten dan!*

Begitantziño, -ua. 1. Irudipena. Ustia. ‘Figuración, imaginación’. *Han urriñera badago baten bat. Han eztago iñor, begitantziñua izango dozu.* 2. Goguan geraketan dan bilddurra. ‘Recelo’. *Behi honek txikittan ikaragarriko sustua hartu eben halako lekuan, eta harrezkero dako begitantziño hori handik pasaitten dan bakoitzian./ Asto honek badako begitantziñoren bat. Bai, orain dala urte batzuk hemengo txakurrak haginka egin otsan-eta.*

Begizulo, -ua(k). ‘Ojeras’.

Behe, -ia. Behea. Azpia. ‘Parte inferior, parte baja’. *Beheko apalian jarri dittun oiñetakuak./ Armarixo behian hautsa pillaaaketan da. ad. lok. Behiak eta goixak jorratu.* Barriketan egin hontaz eta hartaz. ‘Hablar de lo divino y lo humano’. *Jasarri dittun mahai bueltan eta jorratu ditxonai behiak eta goixak.*

Behe-laiño, -ua. Erlaiñua. ‘Niebla’. Ik. **laiño**.

Behetar, -ra. Mendi aldian bizi danarentzako, kale aldekoa. ‘Habitante de las tierras bajas’. Adb: tiro hotsa entzundakuan egindako komentarixua: *Hori behetarren bat izango da! Ant. mendittar*

Behi, -xa. ‘Vaca’.

Behintzat. *ald. behintzet*. ‘Por lo menos’. *Bat behintzet emun egidazu.*

Beinke. Jakiña; izan be. Bai, horixe! 1. Úsase en sentido afirmativo" . "Así es. Quizá de 'bien que'" "Voz seguramente viciosa, con que se asiente a lo que se ha escuchado. Bienke, errezoia daukazu esan dozun guztian, cierto, tienes razón en todo" . "Sí pues, ya lo creo..." 2. BEINKE-BEINKE "Cuando se necesita dar más valor, se dice: beinke-beinke, que es tanto como decir 'efectivamente'. *Beinke gaztia izan!./ Beinke-beinke, arrazoi galanta dako zu orain esan dozun horretan/ - Emuten dau etxe bakoitzian forma bat daguela hori esateko. -Beinke!.*

Bekain, -ña. ‘Ceja’. *Bekaiñeko ederra hartu dot ate-goixenaren kontra.*

Bekarra, -ia. Begiko makarra. ‘Legaña’.

Bekozkua ifiñi, **jarri**. Arpegi txarra ifiñi, kopeta baltza jarri. ‘Fruncir el ceño o el entrecejo’. *Bekozko illuna dako./ Bekozko baltza ifiñi dost.*

Bela, -ia, belaak. HEGAZ. *Corvus cornix*. Belabeltza. ‘Corneja negra’.

Belarri bedar, -ra. LAND. *Sedum album*. ‘Uva de gato’.

Belarri-apal, -a. Belarrixak behera begira dittuena. ‘De orejas gachas’.

Belarri-haundi, -xa. Belarri haundixak dittuena. ‘Orejudo, -a’.

Belarrimotz, -a. Erdaldunengatik esaten zan mespretxuz. ‘Nombre que se le daba a la persona que no entendía euskera con cierto desprecio’.

Belarri-tente, -ia. Belarrixak gora begira dittuena. ‘De orejas tiesas’.

Belatxinga, -ia, belatxingaak. HEGAZ. *Pyrrhocorax graculus*. ‘Grajo’, ‘chova’. Bela mikuheri eta hankagorrixa bandadatan ibiltzen dana.

Belatz, -a. HEGAZ. 1. *Falco tinnunculus*. Belatz haundixa. ‘Cernícalo vulgar’. 2. *Falco peregrinus*. ‘Halcón peregrino’.

Belaun-katillu, -a. ‘Rótula’.

Belauntesi, -xa. *ald. belauntei*, -xa. Itxiturretan pertsonentzako pasalekua. ‘Escalera pequeña, como de tijera, que se pone a caballo en los setos. Paso para personas en una cerradura’.

Belegi, -xa. Ez gorrixa ez zurixa, horixkia edo zurikia. ‘Amarillo vivo, rubio; pálido’. *Behi belegixa*.

Belun, -a. Zuri-zurixa ez. Ondo zurittu barikua. ‘Negruzco, -a moreno, -a’. *Urun beluna./ Bihor belunka bat./ Izarak belunduta./ Alkondarak belunak urten daue*.

Belustu. Frutak edo lureko jangauzak itxuria galdu edo maillaatu. ‘Ponerse deslucidas para presentar, v. gr., las manzanas con los magullamientos, etc’.

Sagararak, patatak... belustu.

Bendian (egon, hartu, euki, harrapau...). *ald. mendian, menpian*. ‘Bajo el dominio de, a merced de’. *Haren bendian dago. Gurasuak seme-alaben mendian, etxe askotan ikusten da hori. Nekazarixa eguraldixaren menpian bizi da*.

Benetan. ‘De verdad, de veras’.

Bentana, -ia. Leihoa. (haundixari ‘bentania’ (ventana), txikiñari ‘leihua’ (ventanita, tronera, saetera.))

Beraiz. Berariaz, beste helburu barik. ‘Expresamente, para ese propósito’. *Otadui-txikiñera beraiz fan bihar dot*. Haraxe fatia beste barik esan gura dau, ezta bide batez fatia.

Berakatz bedar, -a. LAND. ‘Ajo silvestre’. Ik. **basaberakatz**.

Berakatz, -a. Baratzuria. ‘Ajo’.

Berakatz-zopa, -ia, -ak. (pl.). Baratzuri zopa(k). ‘Sopas de ajo’.

Beratu, *beraketan, beratuko*. Uretan ifiñi bigunketako. ‘Poner a/en remojo’. *Jarri babia beraketan./ Erropa zikiñak, ondo beratu ezkerro, samurrago garbiketana dira. / Jarri hankak beraketan, on egingo dotsu-eta!*

Berba egin. Hitz egin. ‘Hablar’.

Berba -ia. Hitza. ‘Palabra’. **Berbia fan**. Mututu. ‘Enmudecer’. *Disgustuagatik berbia fan xakon hari*.

Berbaatu. Hitzartu, agindu. ‘Apalabrar, convenir, acordar’. **Berbaatuta egon**. Baten batekin berbia edo hitza emunda egon. Baten bateri zeozter aginduta euki. ‘Haber dado la palabra a alguien, estar apalabrado con alguien’. *Alkatiaarekin berbaatuta gagoz zaturako, Gaztetxiarena komentaitteko./ Banoia, Pedrorrekin berbaatuta nago-eta*.

Berbagin, -ña. Berba egitten egogixa. Jarduntsua. ‘Locuaz, hablador, -a, orador, -a’. *Ezta berbagaña./ Berbagaña da*.

Berbagura, -ia. Berba egitteko gogua. ‘Ganas de hablar’. *Gaur ezta berbagurarik ekarri./ Egin xako berbaguria*.

Berbakera, -ia. Berba egitteko eria. 1. ‘Lengua, idioma’. 2. ‘Acento en lo hablado, modo de pronunciar’. *Ulixaren berbakeria./ Ez da hemengo berbakeria./ Ze berbakera don/k hori?*

Berbako, -ua. Berbia emun eta beteten dauena. ‘Persona de palabra’.

Berbalots, -a. Berbaroa. ‘Sonido de voces’. *Uhetik konturatu naiz*

*berbalotsagaz./ Baso barrenian
berbalotsa entzuten da.*

Berbatsu, -a. Berba asko egitten dauena. ‘Hablador, -a, charlatán, -a’.

Berbeera, -ia. 1. Hizkuntza. ‘Lenguaje’. 2. Berba egitteko eria. ‘Acento en lo hablado, modo de pronunciar’. *Umien berbeeria./ Gaixotu zanetik, Ximonek oso berbeera arrarua dako.*

Berbena, -ia. 1. Kaleko erromerixia. ‘Verbena’. 2. LAND. *Berbena officinalis*. Berdana, berdan-belarra. Sendabelarra. ‘Verbena, hierba medicinal’

Berde, -ia. ‘Verde’. *Eguraldi berdia*. Eguraldi hotza eta bustixa. ‘Tiempo húmedo y fresco’.

Bere, euren... **kautan jardun**. Bakarrik egon berbetan. ‘Hablar consigo mismo, -a’. *Bere kautan dihardu esaten./ Bere kautan dabil berbetan.*

Bereandu, *bereanketia*; **nereandu**, *nereanketia*; **gereandu**, *gereanketia*... Lortu, eskuratu. ‘Conseguir’.

Berekor, -ra. Betik beria egin zalia. ‘Egoísta (ref. a una tercera persona). Amigo, -a de hacer su gusto’. Sin. **berekoi**, **berekutz**.

Berezko, -ua. 1. Korputz azalian sortzen diran garau, ekzema... ezezagun eta iraunkorrak. ‘Un tumor o bulto que sale por sí’. 2. Berez sortutakoa, eragin barik, saiatu barik. ‘Natural, espontáneo’. *Iñun eztago berezkorik, ez hemen eta ez han. Berezkoa egon*. Samurra egon; egosteko, adibidez. ‘Fácil de cocerse, por ejemplo’.

Berian-berian. Bere baitan sartuta. ‘Ensimismado, -a’. *Berian-berian doia, iñori eta iñora begiratu barik.*

Berihela. Berehala. ‘Inmediatamente’.

Berin, -ña. ‘Tela que se forma en la superficie del agua detenida’. Ik. **birin**.

Berinddu. Egosi bariko esniari telia egin. ‘Formarse una telilla. Berinddu, berinketan: hablando de la alubia’. Ik. **birinddu**.

Berjel, -a. *ald. brejel*, -a. 1. Ganadu edo pertsona akastuna. ‘Animal o persona físicamente deforme’. 2. Andriak esaten xau deshonrau gura izan xauen gizonari. ‘Aplica la mujer al hombre que le ha querido deshonrar’.

Berna, -ia, -aak (pl.). Belaunetik hankaraiñozko zatixa. ‘Parte de la pierna desde la rodilla al tobillo’. *Bernaak ondo gorrittuta ekarri zittuan./ Bernatarako polaiñak erostera fan da.*

Berna barren, -a, -ak (pl.). Berniaren beheko partia. ‘Parte inferior de la pierna’. *Zaparrada honekin berna-barrenak busti-bustitta ekarri dittu.*

Berna hazur, -ra. Bernako hazur nagusixa. ‘Tibia’ *Piñu botaten ebillela berna hazurra eta peronea apurtu zittuan gure osabak.*

Bernamamin, -ña. Berniaren atzekalde mamitsua. ‘Pantorrilla’. Sin. **bernazankua**.

Bero, -ua. ‘Calor’. *ad. lok. Beruena kendu*. Entzundako zeozerre larregikua dala iritzi eta erdixa bakarrik sinistu bihar dala esan gura dogunian ebaltzen dogu. ‘Restarle lo que tiene o puede tener de exageración una cosa’. *Egixa izateko, beruena kendu bihar xako horri./ Horri beruena kendu ezker, sinistu leike. Bero-bero egindda egon*. Pauso garrantzitsu bat ematear egon. Zerbait egitteko griñagaz egon. ‘Estar dispuesto, -a o completamente decidido, -a’. *Ezkontzak eta buzkantzak bero-berotan!*

Bero erre, -ia. Bero sargoria. ‘Calor abrasador’.

Bertan behera itzi edo **jare**. Daguenetan itzi akabo barik. ‘Dejarlo todo; abandonar una cosa’. *Bertan behera itzi eben dana eta Ameriketara fan zan.*

Bertan beherako, -ua. Oso ona, bikaiña, ederra, dotoria. ‘Bueno, -a, excelente, magnífico, -a’. *Ez bertan beherako bertsolarixa gaiñera! Ik. barriketako.*

Bertso, -ua. Euskal herri-literaturako ahapaldixa, bat-batian bota edo jarten dana. [bersua] entzuten da. ‘Copla, grupo de versos, estrofa’. *Hola jantzitta bazoiaz, bertsuak etarako dotsue!*

Bertsolari, -xa. Bertsuak asmau eta kantaitten dittuena. [bersolarixa] entzuten da. ‘Versificador popular, que improvisa o compone versos’.

Bertsueta, -ia. Bertso-jarduna. [bersuetia] entzuten da. ‘Actuación de bersolaris, festival de bersolaris’. *Gaur Oñatin bertsuetia dago./ Bertsueta ederra egin xonai.*

Besagain. 1. Bolean (pelotan). ‘A volea’. *Pelotia besagain jo dau.* 2. Norberaren buru gaiñetik daguen abar bat ebagitten danian aizkoriagaz, *besagain* bota dala esaten da. ‘Dar un golpe de hacha en sentido vertical’.

Besakara, -ia. *ald. besakada*, -ia. Harri bat jaurtitteko besuarekin emuten dan golpia. ‘Golpe de brazo; lanzamiento con el brazo’. *Besakara bat bide dago*, harri bat besoz jaurti zeinken tartia dago. ‘Estar a un tiro de piedra’.

Besamotz, -a. *ald. besomotz*. ‘Manco, -a’. Sin. **maingu**, **besobakar**.

Besape, -ia. ‘Sobaco’.

Besarkada, -ia. ‘Abrazo’

Besartekada, -ia. *ald. besaartekada*, -ia. Beso artian hartu leikien edozer gauzetako kantidadia. ‘Brazada’. *Abar besaartekada batzuk biharko dittugu sua egitteko.*

Beste, -ia. ‘Otro’. **Besterik izan**. Hobia izan. ‘Ser otra cosa’. *Txahal-okelia besterik da*. Txarrixarena edo ardixarena baiño hobia dala esan guran. **Besteriko barik**. Berariaz, beren-beregi(z). ‘Expresamente, particularmente’ *Besteriko barik ni bisitaittera etorri dok/n*

Besteko, -ua. Aldekua. ‘Vecino, -a; la casa de al lado’. *Gure bestekuak / Bestekuan galdetu dot /Bestekora fan dira /Bestekotik ekarriko dogu...*

Bestela. ‘De lo contrario, si no, por lo demás’ *Bestela zeuek fan eta kitto! / Eta bestela, ondo? / Ekarri egizu; bestela ikusiko dozu zer dan ona! Bestela be*. Edozelan be. Edozein modutan. ‘De todos modos, de todas maneras’. *Bestela be etorri bihar neben. / Bestela be asmauko eben horrek zerbait.*

Besuetako, -ua. ‘Ahijado, -a’.

Betagin, -ña. ‘Colmillo’. Sin. **alboagin**.

Betazal, -a. ‘Párpado’.

Beterinarixo, -ua. Albaitaria. ‘Veterinario, -a’.

Beterinarixosa, -ia. Beterinarixuaren andria. ‘Mujer del veterinario’.

Betik. Denpora danian. ‘Siempre’. *Oñatiko palillo fabrika baten markia ‘Betik’ zan, eta bestiarena ‘El avión’.* **Beti be**. Batzuetan, noiz edo noiz. ‘Algunas veces, de vez en cuando’. *Beti be han eta beti be hemen, halaxe jiraitten gara!*

Betiko mutillak edo **betiko neskaak**. ‘Mutilzahar’ eta ‘neskazahar’ esateko *euf.* ‘Euf. de solterón, -a’

Betoker, -ra. Begi-okerra. ‘Bizco, -a’.

Betondo, -ua. Begi ingurua. ‘Zona alrededor del ojo, zona próxima al ojo’.

Betterre, -ia. Begiko pikorra. ‘La rojez de los párpados que a veces hace caer las pestañas. De ojos rojizos (persona)’.

Betula, -ia, betulaak. (pl.). ‘Pestaña(s)’.

Bezerixa, -ia. Bezeria. ‘Clientela’. *Juanitosienak bezerixa haundixa euki izan dau betik. / Bezerixia ondo zainketan jakin bihar da.*

Bezero, -ua. ‘Cliente’. *Garai bateko esnedunak, egunero esnia eruaten ostein baserrittatik kaleko bezeruairi.*

Biaga, biagia, biagak. Biga. [biaatxua] entzungo dogu. ‘Becerra’. Behi gaztia, urtebetetik aurrerakua, iriskoketako modukua.

Biaittajauna. Birraitona. ‘Bisabuelo’. (Askazubi baserrixa, Zubillaga).

Bialdu. Bidali. ‘Mandar, enviar’.

Biamandria. Birramona. ‘Bisabuela’. (Askazubi baserrixa, Zubillaga).

Bibolin, -ña. 1. Musika tresna. ‘Violín’. *Felixek bandan biboliña joten dau.* 2. Zakilaren *euf.* ‘Pene (euf.)’. *Bai, txakurraren biboliña!*

Bibora, -ia. LAND. Mihura. *Viscum album.* ‘Muérdago’.

Bide, -ia. 1. “Camino”. **Bidia hausi.** Bidian zoiazela bestiarekin topo ez egitteko pausua aldatu eta beste bide bat hartzea. ‘Cambiar el paso o el camino para no encontrarse con alguien’. *Nerekin trikitx ez egittiarren, bidia hausi egin nontan Mirenek./ Hotz samar ibilli arren Joxerekin, ikusten dotenian etxat biderik hausten behintzat.* 2. Zerbaitetarako motibua. ‘Dar pie a’. *Barriketa bidia da./ Hasarre bidia da./ Burruka bidia da...*

Bidealdi, -xa. Fanaldixa. ‘Trecho, caminata’. *Araozdik Etxegaratera bidealdi ederra dago.*

Bidegin, -ña. Bidegilea. Bidiak egin edo eregitten dittuena. ‘Los que hacen o arreglan caminos’. 2. fig. Edozein alorretan, bidia eregitten dauena. ‘Guía, precursor, -a’. *Bedita Larrakoetxea euskeriaren alorrian bidegin bat izan zan.*

Bidetxior, -ra. Bidezidorra. Oiñez ibiltteko bide estua. ‘Sendero, senda’.

Bidia eregi. Bide bat zabaldu. ‘Abrir camino’. *Tunela eregittia.*

Bidixixo. Ik. **bixixo.** ‘Lombriz intestinal’.

Bienako ogi, -xa. Ogi oso fiña. ‘Pan muy fino’.

Bigantxa, -ia. Bost edo sei hillabeteko txahal emia. ‘Ternera de cinco o seis meses’.

Bigarren primo, -ua. Lehengusu txikixa. ‘Primo segundo’.

Bigun, -a. ‘Blando, -a’.

Bigundu. ‘Ablandar’. *Honeik, garbittuaz, asko bigunketan dira.* **Bigundua emun.** 1. Astinddua, egurtua, emun. ‘Dar una paliza’. 2. Garbittu, hustu. ‘Dar buen provecho a algo. (fig.)’. *Gailleta kajiari bigundu ederra emun xatzue, e!*

Bihaleku, -a. Beharlekua (biharlekua), lan txarra, problema. ‘Problema, complicación’. *Makiña bat bihaleku izan dau Juanitok bere antomobil zahar horrekin./ Zuk emuten dozun beste bihaleku! esr.* “Ehun kaletarrek baiño baserritar batek Jaungoikuari bihaleku gehixago emuten txak/n. Batian euri eske, bestian eguraldi onen eske: horreik sekula etxagozak/n konforme”.

Bihar, -ra. 1. Lana, premiña. ‘Necesidad; obligación, deber’. *Han izango dittuk/n biharrak!* 2. Etorkizun zentzuna. ‘Sentido de futuro’. *Jaixan etorri bihar dozue Araotzera? / Jan bihar dozu platerekua ala itzi egin bihar dozu?* [biozu, biozue, biadaue...] ahoskaitten dogu. 3. **Bihar izan.** Behar izan. ‘Necesitar, querer’. *Bihar dozue ogirik? / Ordu honetan etorritta, zer bihar daue, ba?* 4. **Biharrago izan.** Hobe izan. ‘Mejor hubiera sido, mejor sería’. *Biharrago zan Bilbon geratu baziña!/ Biharrago zuan/zunan hasittakua bihar dan moduan akabo bahian!/ Biharrago litzake tontokerixa horreik alde batera itziko balittu!*

Bihargin, -ña. Langillia. ‘Trabajador, -a, obrero, -a; laborioso, -a, diligente’. *Bihargin ona./ Emakuma bihargiña./ Bihargiña pottua.*

Bihartu. Behartu. ‘Obligar’. *Nik eneben gura faterik, baiña bihartuta fan egin nintzan juntara.*

Bihatx, -a. Eskuko edo hankako behatza. ‘Dedo del pie o de la mano’.

Bihaztun, -a. Behazuna. ‘Hiel’.

Bihoka, -ia. Bihor gaztia, zaldiketako modukua. ‘Yegua joven’. **Sobraiño** edo **sobriño,** -ua. Bi urteko bihokia.

Bihor, -ra. Behorra. ‘Yegua’.

Bihotz, -a. ‘Corazón’. **Bihotz haundiko**. Pertsona onbera. ‘De gran corazón’.

Bihotzeko, -ua. Bihotzeko gaixotasuna. ‘Enfermedad del corazón’. **Bihotzekuak jo**. Bihotzeko atakea izan. ‘Ataque al corazón’. *Bihotzekuak emunda hil da*.

Bihotzerre, -ia. ‘Ardor de estómago’. *Bihotzerriarekin ibiltten da bai, eta bikarbonatua hartu bihar izaten dau sarri-sarri*.

Bihur, -ra. 1. Okerra. ‘Retorcido’. 2. Geldigorra, geldik egoten eztana. ‘Nervioso, -a, inquieto, -a’. **Bihurka**. Balantzaka. ‘Ir dando tumbos’ *Bihurka-bihurka fan dok/n*. Eranda fatiaren *euf*. **Bihurrera hartu**. Bidian buelta egin. ‘Darse la vuelta’.

Bihurkerixa, -ia. Bihurrikeria. ‘Travesura’.

Bihurkuna, -ia. Bihurgunea. Errebuelta. ‘Curva cerrada’. *Agerreko bihor gorrixa elizondoko bihurkunan eguen./ Koixkar azpikotik garaikora igoteko bihurkuna formalak pasau biharko dittuzu*.

Bihurrittu. Okertu. ‘Retorcer’. *Hankia bihurrittu dau. Erropak bihurrittu*. Esegi aurretik bueltak emunaz ondo estutu, ura kentzeko. ‘Escribir la ropa’. **Bihurrittua** edo **bihurradia**. ‘Esguince’. *Pauso huts bat emun, eta bihurrittua egin neben*.

Bihurtu. 1. Bilakatu. ‘Convertirse’. *Ura arda bihurtu./ Zurixa baltz bihurtu*. 2. Biribilddu eta estutu. ‘Escribir la ropa’. *Moltzua, trapua, erropia bihurtu*. Sin. **bihurrittu**.

Bijili, -xa. Okelarik jan bihar eztan eguna. ‘Vigilia’. *Garizumako egubakoitzak bijilixa egunak izaten dira./ Garizuman egubakoitzak izaten dira bijili-egunak*

Bikain *adb*. 1. Oso-oso ondo. ‘Perfectamente, magníficamente’. 2. *adj*. **bikaiña**. Oso-oso ona. ‘Excelente, magnifico, -a’

Bilddu, **biltzeen**. Billurtu, akobardau. *Ezta biltzeen*: ‘no se acobarda’.

Bildduta egon. Hotzak edo beldurrez egon. ‘Estar encogido, -a’.

Billostegi, -xa. Billotsak eukitten diran lekua. ‘Corral, aprisco. Lugar para cobijar a los corderos’. *Billostegiko atia zabaldu*.

Billots, -a. *ald*. **bilddots**, -a. Arkumea. ‘Cordero’. *Billots bat. Billotsa. Hazi-billotsak*. Ardi izateko izten diran billotsak. ‘Cordero de cría’.

Billur, -ra. *ald*. **bilddur**, -ra. Beldurra. ‘Miedo’. **Bilddur antz**. Bilddurtuta leitz. ‘Atemorizado’. *Bilddur antzian ikusten zauet*.

Billurti, -xa. Beldurtia. ‘Miedoso, -a’.

Billurtu, *billurketan*. Beldurtu. ‘Atemorizar(se), amedrentar(se), asustar(se)’.

Birbikin, -ña. Birabarkia, egurrian zulo txikiñak egitteko ebalten dan esku-barautza. ‘Berbiquí’.

Biri, -xak. Birikak. Aberienak, batez be. ‘Pulmon(es) (de animales sobre todo)’.

Biribil, -lla. Biribila, borobila. ‘Redondo’.

Birigarro, -ua. HEGAZ. *Turdus philomelos*. ‘Zorzal común’.

Birika, -ia, birikaak. (pl.). Birikak. Pertsonaanak. ‘Pulmon(es) de los humanos’.

Biriki, -xa. Birixakin eta beste osagarri batzuekin egindako txorixua. ‘Los pulmones y similares, que se utilizan bien para hacer tripotxas, longaniza, etc., o bien para dar a los perros’.

Birikittako, -ua. ‘Pulmonia’.

Birin, -ña. *ald*. **berin**, -ña. 1. Bustixa, labana. ‘Resbaladizo, -a’. *Eurixa egin barri eta gaiñetik kamiñuan obrak, karreteria birin-biriña eguen*. 2. Ur geldixaren gaiñian sortzen dan telatxua. ‘Tela que se forma en la superficie del agua detenida’. *Beriñak egin errekaan*. 3. Bereinddu. Egosi bariko esniari telia egin. ‘Tela que se forma en la superficie de la leche no hervida’. 4. Ur gaiñeko

algak. ‘Especie de alga flotante en el agua’. 5. Erreketako harrixairi egitten xaten likenezko kosteria. ‘Filamentos del fondo en las piedras cuando se ponen resbaladizas en el río; también se forma en el agua ferruginosa’.

Birinddu. *ald. berinddu.* Birin bihurtu. ‘Formarse una telilla. Berinddu, berinketan: hablando de la alubia’. Ik. **Berinddu.** *Zopia be berinddu egitten da, egun batzuetan kanpuan itzi ezkeror frigorifikuan sartu barik.* ‘Ponerse resbaladiza la sopa’.

Birritan. Bi bider, bi aldiz. ‘Dos veces’. *Birritan entzun xaot./ Astian birritan eukitten dogu./ Gure amandria birritan ezkondu zan.*

Bista, -ia. Ikusmena. ‘(Sentido de la) vista’. **Bistan.** Agirixan. ‘Todo a la vista’. *Dana bistan-bistan eguen.*

Bistaratu. 1. Erakutsi. ‘Mostrar’. *Bistaratu karta horreik.* 2. Agertu. ‘Aparecer’. *Eztira bistaraketan./ Aloña aspaldixan eztogu ikusi, eta oraintxe bistaratu da horregatio!*

Bisuskara, -ia, bisuskaraak. Haize eta euri golpiak. ‘Golpe de agua y viento’.

Bisuts, -a. Eurixa edo edurra haiziarekin nahastuta. ‘Ventisca’.

Bixamon, -a. *ald. bixaramon,* -a. Biharamona. Hurrengo eguna. ‘Día siguiente’. Fiesta ondokua, ajia. ‘Resaca, malestar’. *Errosarixo bixamona, azkenaldi honetan Oñatin jaixetako egunik famauena.*

Bixar. Bihar. Ez konfundiu 'bizar'-ekin. ‘Mañana’. *Noiz dakogu afarixori bixar ala etzi?*

Bixigu, -a. ‘Besugo’. *Bixigu arpegi horregaz zergatik begiraketan dostak/n?*

Bixixo, -ua. *ald. bidizixo,* -ua. Hestietako hartxua. *Zozer hartu biharko dozu bixixuak hiltteko.* ‘Lombriz intestinal’.

Bizarra egin. ‘Afeitarse, quitarse la barba’. *Uhetik jaiki eta bizarra egin.*

Bizi. 1. ‘Vivir’. *Geu be bizi egin bihar*

gara, betik lanian ibilli barik. / Batzuk gure lepotik majo bizi, eta beste batzuk iraun! 2. Alaia, bizia. ‘Vivo’. ‘Animado’. *Gure Juantxori pasau xako oneza, oso bizi dabil gaur.* 3. **Bizixa.** ‘Vida’. *Ihes egin bihar bizixa galduko ezpaeben.* 4. **Bizixa.** bizkorra, argixa. ‘Avispado, -a’. *Mutiko bizixa.*

Bizialargun, -a. Bere ezkontzako bikotiarekin bizi eztana. ‘Separado, -a, divorciado, -a’. *Bizi-alargun dagoz (andra-gizonak apartauta).*

Bizigura, -ia. Bizitteko gogua. ‘Ganas de vivir’. *Ixixa ehun urte euki arren, bizigura galanta dako gure Ixiarre.*

Bizipoz, -a. Bizitteko poza. ‘Ilusión, alegría de vivir’. *Mundu honetan bizipoz gutxi dago./ Bizipoza kendu dostazue.*

Bizittu, *biziketan.* ‘Animar’. ‘Avivar’. *Salda bero bat hartu, eta ia pittin bat biziketan garien./ Suari xezpaltxo batzuk botata bizittu egizu pittin bat.* *Ant. moteldu, nanotu.*

Bizitzaa, -ia. 1. Etxebizitza. ‘Casa, vivienda’. *Bi bizitza teillape baten: bi sukalde. / Bizitzaa bi. / Etxeko bizitzaia aldaketia kostako xate.* ‘les costará trasladar los muebles de casa’. 2. ‘Vida’. *Nere bizitza osuan etxuat/etxonat holakorik ikusi.*

Bizixa. 1. ‘La vida’. *Iñork eztaki bizixa zela sortu zan.* 2. Bizkorra, argixa. ‘Avispado, -a’. *Neskatilla bizixa.*

Bizixen, -a. Minbizia, biziena. ‘Cancer’. *Txomiñek bizixena dako itxuria danez.*

Bizkor. *ald. bixkor.* Azkar. ‘Rápidamente’. *Guazen bizkor-bizkor.*

Blaixaraan. Begi golpe baten ikusten dana. ‘De repente, al primer golpe de vista’. *Blaixaraan, launkuna haundi bat: Urbixa.*

Blangaatu. *ald. brangaatu, bringaatu.* Anporrak edo enbor pusketak zatittu lau zati edo gehixagotan. ‘Partir un leño con el hacha haciendo cuatro partes o más’. *Egurra blangaaketan.*

Bokadillo, -ua. Ogibittartekua. *Urdaiazpiko bokadillua*.

Bolantes, -a. *ald. belantes*, -a. Hormetan egoten diran harrizko eskillarak jentia pasaitteko. 'Escalera de piedra que está en la pared para que pase la gente'.

Bolara, -ia. Bolada, aldia. 'Temporada, época, racha'. *Oraintxe dakogu tomate bolaria*.

Bol-bol. Likido batek irakitterakuan ataraten dauen soiñua. '*onom.* de un liquido hirviendo'. *Lapikua bol-bol irakitten. Bol-bol-bol dago*.

Bolda, -ia. Goldea. 'Arado'.

Bolda-orrazi, -xa. Golda-orrazia. 'Reja de arado'.

Bolo-bolo ibilli. Jentiaaren barriketak, esamesak, zurrumurrak ahoz aho ibilli. 'Locución verbal con que se expresa lo general o extendido de una referencia'. *Bolo-bolo dabil gizur hori./ Herrixan ezta beste gauzarik entzuten: bolo-bolo dabil*.

Bon-bon. Ugari eta ondo, esaeratan. '*onom.* que expresa derroche, gasto o consumo despreocupado'. *esap. Daguénian bon-bon eta eztaguénian hor konpon. Gaur bon-bon eta bixar egon. / Jentia orain bon-bon xabilk/n*.

Bor-bor. Muru-mur, bere artian barriketan. 'Ir hablando consigo mismo'. *Bor-bor fan da aguria. Bor-bor fuan. 'Ir murmurando'*.

Borondate, -ia. 'Voluntad, bondad, disposición de ánimo'. *Borondate oneko pertsonak. / Borondate ona erakutsi daue, behintzat! / Guri lagun egitteko harein borondatia!*

Borondate oneko, -ua. Gauzak asmo onez egitten dittuena. 'Bondadoso, -a'.

Bortzei, -xak. Mendiko botak; ikazkiñen-eta oiñetakuak. 'Borceguí'

Bosteko, -ua. Eskua 'Mano', horrelakuetan: *bostekua ekarri, bota, emun. Bota bosteko hori! (Choca la mano)*

Botagura, -ia. Botateko gogua, botaka egitteko gogua. 'Ganas de vomitar, náuseas'. *Gora-larrixa be esaten xako botaguriari. Botagura antza*.

Botaka. Gonbitoka. 'Vomitando, devolviendo'. *Botáka dagó / Umia botaka ibilli da. Sin. okadaka, errebeska*.

Botikarixo, -ua. *em. botikarixa*, -ia. 'Boticario, -a'.

Brangaatu. 'Partir un leño con el hacha haciendo cuatro partes o más'. Ik. **blangaatu**.

Bringaatu. 'Partir un leño con el hacha haciendo cuatro partes o más'. Ik. **blangaatu**.

Brintzaatu. Arrakalatu. 'Agrietar(se), rajar(se), resquebrajar(se)'. *Kristala, mahaixa, paretia... brintzaatu*.

Bronkixo, -uak. 'Bronquios'. *Bronkixuak hartuta dakozu, ziharo! Itzi egin biharko xatzu erretiar*.

Bronkixotako, -ua. Bronkiotako gaitza. 'Bronquitis'.

Bueltakuan. Noiz galderari erantzun garbixa emun gura etxakonian ebalten dogu. Sin. **auskalo**. 'A la vuelta; ¡Vete a saber!' *Noiz etorriko zara? Bueltakuan! / Noiz etorriko dira, ba, horreik bakaziñotatik? Bueltakuan esango dotsut!*

Buetra, -ia, buetraak (pl.). Saia, putrea. 'Buitre'.

Buillaka. Zarataka. 'Gritando, haciendo ruido'.

Bule-buleka. *ald. bale-baleka*. Gordegordeka; umetako jolasa. Batek kontau egitten dau, bestiak bittartian ezkutau egitten dira. Gero billa hasten da. Jokua hasteko esaten ziranak: *Alebi, alebi! Txakurra buztanari! Ekin!* 'Juego del escondite'. Sin. **gorde-gordeka**.

Burburixo, -ua. Baba haundixaren ale barruan hazten dan eltxo hegoduna, momorro txikiña. 'Gorgojo, insecto que se forma al grano en el granero. Insecto

alado que crece dentro del grano de haba’.

Burdi, -xa. Gurdia. ‘Carro de vacas o bueyes’. Burdixaren zatixak: *burkamia*, *ezpatak*, *taketak*, (lau taketa albo banatan edo albo bixetan biña: *burtaketaak*), *burtesixa*, *burtiuna*, *burtiuntxua*, *burtolak*...

Burdiña, -ia. ‘Hierro’.

Burdin-kaldara, -ia. Burdinazko galdara. ‘Caldera de hierro’.

Burdin-ziri, -xa. Egurra erdibiketako ebalten dan zirixa. ‘Cuña de hierro’. *Egur haundixak diranian, porriagaz eta burdin-zirixagaz jo bihar izaten dira, sutarako preparauko badira.*

Burduntzaldi, -a. ‘Cazo’.

Burduntzi, -xa. Burruntzia. 1. Burdiñazko ziri luzia bilddotsak-eta sutan erreteko. ‘Asador, varilla para asar’ 2. Zomorrua. Burruntzia. ‘Libélula’.

Burgatx, -a. Abere hausnarkarixen urdailleko barrunbia. ‘Libro’.

Burko, -ua. ‘Almohada’.

Burla egin. Iseka egin. ‘Burlar’.

Burpil, -la. Potolua. ‘Gordito, -a’. *Hau da umia burpilla! ¡Qué niño más regordete!*

Burriskara, -ia. ‘Borrasca’. *Badator burriskaria!*

Burrukaari, -xa. *ald.* **burrukalari**. Burrukalaria. ‘Luchador, -a, peleón, -a’.

Burtzil, -la. Burdi-txirriken ardatza. ‘Eje de carro’. **Burtzilla jo**. Hondua jo. ‘Meterla hasta dentro (sentido fig.)’. *Jo xuagu burtzilla./ Gaur (narrutan egin bihar xuagu/xonagu) burtzilla jo arte!* (barruraino sartu, toperaino sartu).

Buru, -a. ‘Cabeza’. **Buru gutxiko**, -ua. Zentzun gutxikua. ‘De poco juicio’.

Buru oneko edo argiko, -ua. Memoria onekua, adimen haundikua. ‘Inteligente’.

Buruzuti egin. Buruz behera jausi, geratu. ‘Caer cabeza abajo cuando el cuerpo le vence a uno’. *Jare! Ezin*

xuat/xonat jare, buruzuti egingo xok/n-eta. **Buruz buruan izan edo egin tratua**. Buru bat beste buru baten truke egittia tratua. ‘Se dice cuando la compraventa es en especie, por ej. una oveja por otra’. *Buruz buruan izan da tratua. / buruz buru egin dogu.* Ik. **kaskar**.

Buru emun. Zerbaitteri akaberia emun. ‘Terminar’ *Lanai buru emun ezindda gabiltz.*

Burubage, -ia. Buru gutxikua. ‘De poco juicio o sentido’.

Burubardinddu. Garixari, adibidez, burua egin. ‘Espigar’. *Garixa burubardinddu da.*

Burubide, -ia. Ganoria, fundamentua. ‘Fundamento, fuste’. *Hori da burubidia dakozena! / Zer burubide da hau? / Etxe hartan burubide eskaxa ikusi neben.*

Burubide bat emun. Akaberia emun, bukaeria emun. ‘Decidir, tomar una resolución, darle un fin’. *Hemengo lanoi burubideren bat emun biharko xate./ Hemen dagozen erropairi burubideren bat emun egixetzu.*

Buruereitxi, -xa. Buruiritzia. Iñor baiño gehixago dala uste dauena, bere buruaz iritzi oso ona dakona, harrua. ‘Vano, -a’, ‘Creído, -a’, ‘presuntuoso, presumido, -a’. *Juanita oso buruereitxixa da. Buruereitxixa eta harroputza.*

Burugogor, -ra. 1. Tematixa. ‘Obstinado, -a’. 2. Ikasle txarra, eskolia nekez sartzen xakona. ‘Cabezón, -a, duro de mollera’.

Buruhaundi, -xa. Buru haundixa dakona. ‘Cabezón, -a (de cabeza grande)’.

Burukantzaziño, -ua. Buruhaustea. ‘Quebradero de cabeza, preocupación, problema’.

Buruko karga, -ia. Katarruak edo antzekuak burua eta sudur aldia zigorketan dauenian *buruko kargia* dakogula esaten da. ‘Catarro, costipado

grande'. *Buruko karga*
ikaragarrixarekin nabil.

Buruko zapi, -xa. Buruko pañuelua.
'Mantilla; toca, pañuelo para la cabeza'.

Burupeeko, -ua. 'Almohada'.
Sin. **burko**, -ua

Burutik beherako, -ua. Meningitisa.
Kalentura haundixak eukitten dira eta
burutik endreauta letxe egoten da
pertsonia. 'Meningitis'.

Burutu. 1. Burua egin labore-landariak.
'Espigar, granar'. **Pagua burutu**. Pago
arbolia hiru bat metrora moztu burua
bakarrik itzitta, gero handik hamar bat
urtera, berriz be, egurra emun dagixen.
'Desmochar'. 2. Lortu, bukatu. 'Llevar
a cabo, ejecutar, terminar un trabajo'.
Aldekuak etxe gaiñeko hariztuixan
txarrixak hazi bihar dittuela entzun dot.
Ba eztaue burutuko, basaurdiak sartuko
xate-eta!

Busti, *busteen-busten/bustitten, bustiko*.
1. Busti. 'Mojar'. 2. 'Untar'. *Ogixarekin*
busti hori ondo eta garbittu. **Busti ala**
lihor? 'Cara o cruz' esateko egitten zan
galderia. Txanponik ez eukañian, harri
zapal bat txuagaz busti alde batetik eta
ittaun hori egitten zan. *esr. Oraintxe*
jango nittuke nik bustixak eta igarrak.
Edozer gauza jango neuke. 'Me comería
cualquier cosa'.

Buzkantz, -a. 1. Ardi zaharraren
odolarekin egindako odolostia.
'Morcillas de sangre de oveja'. Gure
aurrekuak ardi hestiak ebalixaz egitten
zittuain. Hona hemen heste harein
izenak:

* Brantz haundixa.(panza)

* Txope, gatzaxa. (cuajar)

* Heste itsua. (libro)

* Artzaintxua. (redecilla).

Buzkantzak egitteko osagaixak:

- Ardi baten odola

- Ardi baten seboa

- Kipula asko.

- Porru asko.

- Gatza

- Oregano pittin bat

- Hestiak

- Piparmiñak (berdiak eta sikuak).

Oharra: Gatza eta piparmiña bere
puntuan dagozen ikusteko, probau egin
bihar da hestietan sartu aurretik.

2. 'Barriga'. *Gauza ona dok/n buzkantz*
ondo betia.

Buztanikara, -ia. 1. HEGAZ. *Motacilla*
sp. Buztan luzia eta ikaratixa dakon
txoritxua. 'Lavandera, aguzanieves'. 2.
Neskatilla pizpiritta (argixa, bizixa) eta
geldigorra. 'Chica lista y vivaz'.

Buztanurkill, -ia. Zomorrua.
Forficula auricularia. Ipursardea.
1. 'Tijereta'. 2. 'Milano'. Zomorro
hegalarixa. Sin. **buztanurkullu**,
sansaurkill, **sa(n)saurkillo**.

Buztanurkullu, -a. 1. Zomorrua.
Ik. **buztanurkill**. 2. HEGAZ. Ik. **miru**.

Buztin, -ña. 'Arcilla'. *top. Buztinsolo*.
Okomardingo tellerixa zaharraren
gaiñian, gaur egun Santa Anako
komentuaren inguruan.

Buztingorri, -xa. Kolore gorriko
buztiña. 'Arcilla roja'.

Buztin-lur, -ra. Lur buztintsua. 'Tierra
arcillosa'.

Buztinzuri, -xa. Kolore zuriko buztiña.
'Creta; greda'. Baserri izena:
Buztinzurieta, Murgixa auzuan dago,
Aloña azpizan.

Damakasa, -ia. Abadiaren kriadia edo
neskamia. Sin. **abadianekua**. 'Ama de
casa o criada del cura'.

Danbolinttero, -ua. Danboliña eta
txistua batera jotzen dittuena.
'Tamborilero, -a'. *San Juan, San Juan*
berde, danbolintterua, kuartillo bat
eranda, jo degigun soiñua. (San
Juanetako kantua).

Danbor, -ra. 'Tambor'.

Danborjole, -ia. *ald. danborjolla*, -ia.
Danborra jotzen dauena. 'Tamborrero, -a;

tambor'. *Danborjoliak bihar dittugu bandarako.*

Dantzari, -xa. Dantzan egitten dauena. 'Danzante, danzador, -a, bailarín, -a'.

Daratulu, -a. 'Taladro'.

Dar-dar. *ald. dardaraka*. Dardaraz hotzagatik, beldurragatik... 'Temblando'. *Hotzak dar-dar nago. / Bilddurrez dardaraka.*

Dardara, -ia. Ikara. 'Temblor', 'vibración'. *Kalentura-dardaria dakot./ Makiña zahar horrek dako dardaria!*

Dardarizo, -ua. Dardara. 'Temblor'. *Sartu xat holako dardarizo bat...*

Demanda, -ia. Errieta. 'Riña'.

Demandan ibilli. Errietan aritu. 'Andar peleándose, discutiendo'. *Hasarre dagoz, itxuria, demanda baten dabilz-eta. Demanda egin*. 'Reñir'. *Etxera berandu aillegaitten bazara, demanda egingo dotsue.*

Dendari, -xa. Dendan lan egitten dauena. 'Tendero, -a'.

Derrigorretan. *ald. derrigorrez*. Nahi eta nahi ez. 'Forzosamente, a la fuerza, por obligación'. *Jaiki egin zara baiña! Derrigorretan, ezin nintzan ohian egon-eta! / Zu ezpazatoz ezin dogu egin, derrigorrez etorri bihar zara.*

Desbasta, -ia. Objektu batek dakon laztasunak kentzea igurtzixaz, arraspauaz, etab. 'Desbaste'. Esaterako, Altuna fabrikako harrilaarixak artatixak zorroztu ondoren egitten euen desbastia, burdin-harixak garbittu eta artatixa leunduaz. Ondorengo pausuak ziran ajustia, engrasia eta enbalajia.

Desbastau. Desbastia egin. 'Desbastar'. Ik. **desbasta**.

Deseginddu. *ald. ezeeginddu*. Desegin. 'Deshacerse, disminuir, menguar'. *Bedarra azkeneko beruakin asko ezeeginddu da. Sin. urrittu, gutxittu.*

Desobediente, -ia. 'Desobediente'.

Destera, -ia. Geztera. Aizkora eta beste zorrozketako harri biribilla. 'Piedra aguzadera, rotativa, de afilar'.

Dezente, -ia *ald. dexente*, -ia. Askotzarik ez, baiña itxuratxuan. 'Bastante, suficiente'. *Jente dezente etorri da./ Dezente daki./ Eurixa dezente egin dau./ Hemen zuk karga dezentia dako zu.*

Diar egin. 1. Deitu. 'Llamar'. 2. Oihu egin. 'Gritar'.

Diar, -ra. Deiadarra. 'Grito, clamor'.

Diarka. 1. Deiadarka, deika. 'Gritando, llamando'. *Baten bat hor diarka dakozue*. 2. Oihuka. 'Gritando, dando voces'. *Itxura txarra emuten dozue hor kalian diarka ibiltia! / Itxura txarrekua da kalian diarka ibiltia.*

Di-da. *ald. di-dau*. Aguro, derrepentian. 'En un voleo'. *Di-da egin eta aurrera./ Aginddutakua di-dau batian egin daue.*

Dilin-dolon. Loka, kili-kolo. 'Balanceándose, suelto, -a'. *Dilin-dolon samar xakuat/xakonat buruau.*

Dinbi-danba. Zenbait zarataren onomatopeia. 'onom. de varios sonidos'. *Han ekin otsain dinbi-danba tiroka.*

Dindirrixo, -ua. Sudurretako izerdia. 'Moquita'. *Sudurreko dindirrixuarekin nabil.*

Dirualdi, -xa. Diru bolaria. Diru-ugarittasun aldixa. 'Periodo en el que hay dinero'. *Beste dirualdi bat datorrenian egingo dogu itturri ondoko estalpeiaren erretillia.*

Dirutza, -aia. Diru pilla haundixa. 'Dineral, (gran) cantidad de dinero'. *Hori dirutzaia! / Eta nundik zuzendu dau dirutza hori?*

Diruzale, -ia. Dirua gustaitten xakona. 'Codicioso, -a, avaricioso, -a'. *Ha diruzalia zuan/zunan, langillia ez hainbeste!*

Ditxosozko, -ua. Dontsua. 'De marras, dichoso, -a'. *Ditxosozko basuriorrek makiñabat barriketa emuten dau./ Nun itzi dittuzu ditxosozko kiltzok?*

Dizdaitte, -ia. Distira, argitasuna. 'Brillo, resplendor'. *Han mendixan ikusten dozue dizdaitte bat? Zer ete da?*

Diz-diz. Distiraren onomatopeia. 'onom. del brillo o resplendor'. *Begixak diz-diz egin xaue./ Han zerbaittek diz-diz egitten dau.*

Doillor, -ra. Zekena. 'Ruin, mezquino, a'.

Domeka, -ia. Igandea. 'Domingo'.

Doministiku, -a. *ald. goministiko*, -ua. 'Estornudo'. Leheninguan esaten da 'Jaungoikua/Jainkua lagun!'; bigarrenian: 'Doministiku!'; eta hirugarrenian, 'Jaungoikua/Jainkua lagun eta oiñak arin!'.

Donga, -ia, dongaak. (pl.) Donge (Bizk.) Txarra, gaiztua. 'Malo, -a, malvado, -a'. *Asmo dongaak. Pertsona dongia eta saltserua.*

Dontsa, -ia *em.* 1. Ganora askobagia. 'De poco fundamento'. *Dontsa bat./ Dontsia beinke!* 2. Kuttaua. Koitadua. Errukixa agerketako ebalten da. 'Infeliz, pobre'. *Emakuma dontsia!*

Dontso, -ua *giz.* 1. Maliziabagia, moteltxua. 'Bendito'. *Dontso samarra da./ Dontso bat.* 2. Errukixa agerketako ebalten da. 'Infeliz, pobre'. *Mutiko dontsua!/ Illun istantetxuan Arriolatik urten geben. Ha be biajia zan! Ha be egin geben guk dontsuok! Bai.*

Dotore, -ia. Elegancia. 'Elegante'. *Oso zagozai dotore!* (erretiratu bateri begira).

Droga, -ia. Istilua, iskanbila. 'Jaleo, follón, escandalo'. *Gizurra eta droga./ Hango zaratia eta droga! Lehenguan zuenera fan nintzan eta droga batian ebiltzen gaztiak.*

Duaka, -ia. Dohakabe. Burugogorra, egoskorra. 'Un terco, -a [...]. Duákia, el o la indócil'.

Duakakerixa, -ia, duakakerixaak (pl.). Burugogorkeria, egoskorkeria. 'Terquedad, obstinación. Las desobediencias'.

Duin. Bezain. *Harri hau beste hori duin haundixa da./ (Lizarra) haritza duin gogorra da./ Iruñea politta dala? Ez Donostia duin ederra./ Hori duin ona dozu beste hau be./ Pagorik senduena duin zabala.* 'Comparativo de cualidad: tan'.

Dultzaiña, -ia. Musika joteko tresnia. 'Dulzaina'.

Ebagi bedar, -ra. LAND. *Arnica sp.* 'Arnica'. Ebagixak-eta osaketako ebalten dan bedarra.

Ebagi, -xa. 'Cortada', 'incisión'. *Lan txarra euki daue, ebagiz jositta dagoz./ Ebagixa haundixa egin dok, mutikua, eta horri puntada batzuk emun ezian ezta zarrauko. Guazen medikuarenera.*

Ebagi, *ebagitten, ebaten*. Ebaki. 'Cortar (el pan, la hierba...)'. *Hiru anaiak bedarra ebaten dira keriztuixan.*

Ebagitta egon. Oso nekatuta egon. 'Estar roto, -a, exhausto, -a'. *Goizeko lauretarako hanka bi gaiñian nenguen eta bape siestarik egin barik hemen nago. Ebagitta nago, ohia noiz harrapoko! Sin. ukatuta egon. Apurtuta egon.*

Ebagille, -ia. Egurrak, bedarrak, irak, ixaak... ebagitten dittuana. 'Cortador, -a, partidor, -a, segador, -a'. *Zein dozue ebagillia?/ Hona ezta argittu ebagillerik.*

Ebali, *ebalten*. Erabili. 'Utilizar'. *Gauza zorrotzak kontuz ebali bihar dira./ Zer botika ebalten dozue ardixairi hanketako gaitza osaketako?*

Edarra, -ia. Ipurdixa agua baiño zabalagua dakon ontzixa, ura ekarteko ebalten zana. 'Cántaro, herrada'. Sin. **suil**, -la.

Edarra-katillu, -a. Antosiña, antusiña. 'Recipiente de agua; cantimplora'. Sin. **urontzi**, **uruntzi**.

Edarrohol, -a. 1. Edarraren estalkixa. 'Tapa del cántaro'. 2. Talua zabalketako palia. 'Pala para extender la torta de maíz'. 3. Sukaldian lana egitteko ohola, bere gaiñian janarixa gertatu edota

ebagitteko ebalten dana. ‘Tabla de cocina’.

Edur, -ra. Elurra. ‘Nieve’. **Edurra sendatu**. Edurra sendotu, geruza sendua egin. ‘Cuajar la nieve’. *esr.* **Edurren gaiñeko hegua, ezin izan berua**, edo **Edurren gaiñeko hegua, eztok/n txitto berua**.

Edur-bisuts, -a. Haiziarekin baterako edurra. ‘Nieve acompañada de viento’.

Edurbusti, -xa. Edurra eta eurixa nahastuta, udabarrizan sarri egitten dauena. ‘Aguanieve’. *Edur bustixa egitten dau./ Kalia be edur bustixa egin eben.*

Edur gesal, -a. Edur mehia, azala, arrastua egitteko adiñakua. *Edur gesaltxua*. ‘Fina capa de nieve’.

Edur-gixi, -xa. Elur-izpia. Edur-mataza txiki eta xehia. ‘Brizna de nieve’.

Edur landar, -ra. Bentana iriztuetatik barruraino pasaitten dan edur hautsa. Edur-bisutsaren antzekua. ‘Polvo de nieve que pasa los cristales’.

Edur lapatx, -a. Edur-huskerixia. ‘Nieve ligera, superficial’. *Edur lapatxa egin xok/n.*

Edur lipritz, -a. Edur-huskerixia, labanketako laiñekua. ‘Nieve ligera, superficial’.

Edur malutz, -a. Edur harro-harrua. ‘Nieve esponjosa’. *Edur malutz-malutza*.

Edur matxar, -ra. Edur ziriña. ‘Nieve escasa. Nevada pequeña y mala’.

Edur nabar, -ra. Ziharo zuritu bariko, sendatu bariko edurra. ‘Nieve ligera, superficial. La que no ha llegado a cuajar completamente’. *Edur nabartxua*. Sin. **edur lapatx**.

Edur-haize, -ia. Edurra dakarren haizea. ‘Viento que anuncia nieve’. *Edur-haizia dabil*.

Edur-kixkora, -ia. Edur siku eta xehia, hotz haundixa egitten dauenian egitten dauena. ‘Nevisca, nieve que cae granulada’.

Edurmaillo, -ua. Edur bolia, edur-pillia. ‘Bola, montón de nieve’. *Kamiñua garbittu egin daue eta aldamenetan ikaragarriko edur-mailluak dagoz*.

Edur-mataza, -ia, edur-matazaak. Edur-maluta. ‘Copo de nieve (grande)’. *Txapela lakoxe edur-matazaak*.

Edur-nar, -ra. Edurramilla. ‘Desprendimiento’, ‘alúd de nieve’. *Ikaragarriko edur-narrak egin dira*.

Edurramil, -la. 1. Edur bola haundixa. ‘Desprendimiento de nieve’. 2. Edur-jausia. ‘Alud de nieve’. *Bilboko Santutxu auzoko sei gazte hil dittu edurramil batek Pirinioetan*. Sin. **edur-nar**.

Edurte, -ia. Elurtea. ‘Nevada’. Edurra zuri dagueen aldia. *Iragako urte honeittan eztau egin horrelako edurterik*.

Egarri, -xa. Erateko gogua. ‘Sed’. **Egarri antz** edo **egarri antzian**. Egarrittuta leitz. ‘Tener un poco de sed; estar sediento’. *Egarri antzian gabiltz*.

Egille, -ia. *ald.* **egintzaille** -ia. Langillia, lana egitekua. ‘Trabajador, -a, hacedor, -a’. *Esan bakarrik ez, gauzak egin egitten ditu, egillia da. Egille aparta./ Ni egintzaillia izan naiz./ Egintzaille bat. Egintzaille pottua (eskasa)*.

Eginkaari, -xa. Kakaren *euf.* ‘Deposición, excremento’. *Eginkaarixa egitten dago*. (Está haciendo sus necesidades).

Egogi, -xa. 1. Egokia. ‘Adecuado, -a.’. 2. Trebea. ‘Diestro, -a, habil’. 3. Trebetasuna. ‘Habilidad’. *Egogixa dako*, trebetasuna dauka. 4. Egogixa hartuta egon. ‘Estar más avezado de aquella forma’. *Hartara egogi gehixago hartuta egon*.

Egonaldi, -xa. Leku edo zeregin batian egitten dan denporaldixa. ‘Rato largo de estancia, parada’. *Urtero egitten dau egonaldi bat eguzkialdian./ Gaur barriketan ikaragarriko egonaldixa egin dogu*.

Egongura, -ia. Egoteko gogua. ‘Ganas de estar’.

Egoskor, -ra. 1. Zailla egosten. ‘Difícil de cocer’. *Denbora asko egon bihar daue lapikuan, oso egoskorak dira.* 2. Burugogorra. ‘Terco, -a, tozudo, -a’. *Astua atzeraka baiño egoskorragua.*

Egosle, -ia, egoslaak. (pl.). 1. Egosten dauena. ‘Cuidador, -a de lo que esta cociéndose’. *Zein izan da baba-egoslia?* Sin. **egosla**, -ia, egoslaak (pl.). *Ikatz egoslaak.* Txondorra ixutu ondoren zainketan dauenak. ‘Los que cuidan de la carbonera una vez encendida’.

Eguazten, -a. Asteazkena. ‘Miércoles’.

Egubaikutz, -a. Egubakoitza. Ostirala. ‘Viernes’. ‘*Kaskajuen eguna*’ moduan be izentaua. ‘Día de gente de poco seso y algo gamberra’.

Eguen zuri. Karnabal eguena. ‘Jueves de carnaval’. *Aurten eguen zuri noiz tokaitten da? Datorren hillaren zortzixan.*

Eguen, -a. Osteguna. ‘Jueves’.

Egunduko, -ua. Berebizikoa, sekulakoa. ‘Enorme, tremendo, -a, formidable’. *Egunduko esplikaziñuak emun oskun.*

Eguraldi, -xa. ‘Tiempo atmosférico’. *Eguraldixak mudia dakar.* **Eguraldi sarkiña**. (erdi sargori edo bero larregi egitten dauenian). ‘Tiempo más bien tórrido’. **Eguraldi mikatza**. (hotza, berdía, freskua). ‘Tiempo fresco’.

Egurdui, -xa. 1. Su-egur asko daguen basua. ‘Monte que tiene mucha leña’. 2. Egur ugari sortzen dan lekua. ‘Lugar que produce mucha leña’.

Egur-ikatz, -a. ‘Carbón vegetal’. *Gerra ostian fundiziñoetarako beste erregairik ez eguelako, herriko hamaika basotan txondorrak egin eta egur-ikatz egin zana.*

Egurreta, -ia. Su-egur egitte, karriu... haundixa. ‘Carreo de leña’. *Datorren zapatuan egurretia dakogu eta ez hartu beste konpromisorik. fig. golpiak.*

‘Reparto de leña’. *Hor egurreta gogorra dabil!// Horrelako egurretarik!*

Egurtegi, -xa. Su-egurra gordeten dan lekua. ‘Leñera, depósito de leña’. *Hustu da oraintxe egurtegixa./ Egurtegittik karriuan.*

Egurtu. Joz zigortu. ‘Apalea, zurrar’. *Hona arrimaitten badira, egurtu ederra hartuko daue./ Ez deskuidau hara arrimaitten, bestela egurtua dakozue!* Sin. **bizkarreko hotzak kendu**. (Calentar la espalda, zurrar)

Egusai. Jaieguna. ‘Día festivo’. *Astian San Juan, eta datorrenian San Pedro. Bi egusai jarraixan orduan./ San Migel bixamonaren bixamona dala, eta erdi-egusai emun doskue fabrikan.*

Egusarittako erropa, -ia. [egusittako] Jai egunetako erropia. ‘Ropa de fiesta’

Egutaide, -ia. Laiñuak kentzen dittuen aide gozua. ‘Aire agradable del sur’. *Egutaidia dabil.*

Eguzki haize, -ia. Aizkorri aldetik datorren haizia, eguzkixa ekarten dauena.

Eguzki, -xa. ‘Sol’. **Eguzkixak urten**. Eguzkixa hodeiertzian ageri. ‘Salir el sol’. *Eguzkixak urten dau? Eguzkixa sartu.* Eguzkixa hodeiertzian ezkutau. ‘Ponerse el sol’. **Eguzkixak marro egin**. Eguzkixa ezkutau, laiño baten ostian. ‘Nublarse’.

Eguzki lora, -ia. LAND. *Carlina acanthifolia*. ‘Carlina’.

Eguzkibage, -ia. Eguzkirik hartubagia. ‘El o la que no ha tomado sol’. *Eguzkibagia makala egoten da.*

Eguzkibegi, -xa. Egutera, eguzkixari begira daguen parajia. ‘Solana, lugar orientado al sol’. *Eguzkibegixan dago zuen basarrixa.*

Eguzkitsu, -a. Eguzkixak asko jotzen dauen lekua. ‘Soleado, -a’.

Eguzkittu, -a. Eguzkittan berotua. ‘Exponer(se) al sol’. *Eguzkittu bat emun, ia epelketan diran.*

Eguzkittu. 1. Eguzkixak urten. ‘Salir el sol’. *Eguzkittu dau.* Kontrakua ‘Nublarse, oscurecer’.: *laiñaatu egin dau, illundu egin dau.* 2. Eguzkixa hartu, emun. ‘Dar el sol, tomar el sol’. *Eguzkittu egizu umiok, kolore pittin bat hartzen dauen!// Eguzkiketan ezpadira, lizundu egingo dira*

Ehun, -a. Liñuzko telia. ‘Lino textil’.

Ehungilla, -ia. Ehuna egitten dauena. ‘Fabricante de telas’. *esr.*

Ehunak ehun lan. Sin. **ehule.**

Ei. Itxuria danez; jentia esaten dauenez. Omen. ‘Según parece. Según cuentan. Se dice que’. *Ez ei daki ezer./ Ez ei da ezertarako gauza.* (Gehixenetan, [i] bakarrik esaten dogu. *Ez i da etorri*).

Ekin. Hasi. ‘Empezar, comenzar a’. Nor aditzarekin: *Ekin da lanian bajaran egon eta gero/ Ekin dira burrukan/ Ekin zarai obran?/ Ekin gintzan lanian/ Aurten ezta ekingo udabarrirako/ Ekin haiz hi be tronpia jotene?/ Ixo, funtziñua ekin da-eta!// Noiz ekitten zarai? Datibuarekin: *Edurrari gogor ekin xao/ Atzo be ekin otsan erretolikiari.* Aginteran: *Alebi, alebi! Txakurrak buztanari! Ekin!**

Ekiñaldi, -xa. Lanian, musian, pelotan... saixua. ‘Sesión de cierta dureza o duración’. *Ekiñaldi bat egin dogu./ Ekiñalditxo bat egin eta etxera./ Ez bertan beherako ekiñaldixa!*

Ekonomika, -ia. Lehengo sukaldetan egoten ziran txapa zabaleko eta labedun suak, eguneroko jatorduak gertaketako. Orain leku askotan berogailluaren lana be egitten daue. ‘Cocina de leña y carbón’.

Elizakuak (hartu). Hil zorixan daguearen azken jaun hartzeia. ‘La Extremaunción’.

Elizti, -xak. Eliz-deiak, ezkon-deiak. Bi pertsona elizan ezkondu bihar ziranian, elizak abixua emuten eben ezkontza hori debekaketako baten batek zeozer eukan esateko. ‘Proclamas nupciales’.

Elorri, xa. Arantza zurixa. ‘El espinu albar’. *esr.* **Elorritxua loran dago, artua ereitten giro dago.**

Eltxar, -ra(k). Euliaundixak okelatan egitten dittuen arrautzak. ‘Huevo de moscón que hace pudrir la carne’.

Eltxo, -ua. Illunkara sargorittan moltzo haundittan ibiltten dan eulitxua. ‘Mosquito’.

Emakume, -ia. *ald.* **emakuma,** -ia. Andrazkua. ‘Mujer’.

Eme, -ia. 1. ‘Hembra’. 2. Gizakume homosexuala, gayxa. ‘Homosexual’. *Emia ei da./ Ziharo emetuta.*

Emun. 1. ‘Dar’ *Emun egidazu musutxu bat.* 2. ‘Parecer’. *Eurixa egin bihar dauela emuten dau.* **Denporia emun.** ‘Pasar el tiempo’. *Denpora asko emun geben haren zain.* **Bere burua trenari emun.** Bere buruaz beste egin, trenbidera salto egindda. ‘Suicidarse’. *Bere burua trenari emun otsan.*

Emunaldi, -xa. Norbaittek edo zerbaittek gauza bat emuten edo produzitzen dague aldixa edo denporia. ‘Periodo de dar fruto’. *Arbola honek emunaldiko hogeta hamar bat kilo sagar emuten dittu.*

Emungura, -ia. Emuteko gogua. ‘Ganas de dar u ofrecer’. *Haren emunguria! Bisitan fan giñanian mahaikadia janari etara oskun.*

Emunkor, -ra. 1. Asko emuten dauena. ‘Fértil, fructífero, -a’. *Sagastui emunkorra dakogu, sagar arbola bakoitzak hogeta hamar kilo bai!* 2. Generoso, -a, dadivoso, -a. *Gizon edo andra emunkorra.*

Emuntzaille, -ia. Emuten dauena, emutekua. Ez zekena. ‘Generoso, -a, dadivoso, -a’. *Ama emuntzaillia, aitta ximurragua.*

Enbajada, -ia. Lan petrala, asunto gogaikarria. ‘Asunto poco agradable’. *Baxakark honek orain be enbajadaren bat./ Enbajada ederrarekin etorri xaku zure lagunori.*

Enbusterixa, -ia, enbusterixak (pl.). Mimua; nagusi, ume edo animalixairi egitten xakuen kontuak. ‘Droga, embuste’. *Saltzeko badakoi enbusterixia zapaterixan.*

Enda. Eta, geldione ondoretan. Pentsaitten jarri nintzan... *enda... orduan konturatu nintzan.* ‘Da’ be esaten da aurreko berbia (aditz nagusixa edo laguntzaillia) ‘n’-z akabaitten danian: *fan da...; han egon da gero...; etorri giñan da...; preguntatu geben da... Harekin egon guran da, mobiu giñan, baiña alper-alperrik, bera ikusi barik bueltau giñan etxera.* ‘Conjunción copulativa ‘y’ utilizada después de una pausa o cuando va detrás de un verbo principal o auxiliar terminado en ‘n’.

Endredau. 1. Enredar. *Ai! ume honeik betik endredaitten!* 2. Nahastuta egon. ‘Estar confundido, -a, confuso, -a, mal de la cabeza. *Burua endredauta dako./ Andria hil xakonetik jota endredauta xabilk/n!*

Enparau, -ak. Gaiñerakuak. ‘Restante, sobrate’. *Horrek garbittu dittu mugok, erreka-bazterrok eta enparauok./ Bertsolarixak, herri-kirolak eta enparauak izango dittugu herriko plazan./ Danak egin daue gogait: berak eta enparauak.*

Enplegau. 1. Lan egin. ‘Trabajar’. *Aiuntamentuan enplegauta dago* 2. Gastau, ironia puntuaz. ‘Emplear, en sentido irónico’. *Ekarri, ekarri dirua, guk ondo enplegauko dogu-eta!*

Enredadore, -ia. Bazterrak nahasketan dittuena. ‘Enredador, -a,’ ‘azuzador, -a’. *Etorri da enredadore makilas./ Zein da hemen enredadoria?*

Enterradore, -ia. Ehorzlea. ‘Enterrador, -a’. Sin. **lur-emaille**.

Entierro, -ua. Hileta. ‘Entierro’.

Entregau. 1. Emun. ‘Devolver, entregar’. *Hartu dozuna entregau egizu* 2. Etsi. ‘Resignarse, conformarse’. *Ezta samur entregauko./ Ziharo entregauta./*

Txakurrak astia entregauta pasauten dau./ Ebali soka entregau arte.

Entzuera, -ia. Nun edo nun, noiz edo noiz entzuna. ‘Haber(lo) oido, tener noticia de’. *Entzueria badakot./ Eztakot horren entzuerarik.*

Entzule, -ia. Entzuten dauena edota entzuten daguena. ‘Oyente, el que escucha’. *Entzule asko/ Entzule ona./ Entzulia da.*

Entzun. “Oir”. *Entzun dozue azkena?* **Entzuna egin**. Lehenagotik zeozarren jakiñian egon. ‘Sonarme (algo)’. *Eztotsut esango zela dan, baiña entzuna egitten xat./ Horren entzueria badakot, entzuna egitten xat izen hori. Usaiña entzun.* Usaiña hartu. ‘Oler’.

Epailla, -ia. Teillagiña, teilliari eskuz formia emuten xauena. ‘Tejero, -a’. Sin. **teillagin**.

Epel, -a. 1. ‘Tibio, -a’, ‘templado, -a’. **Epel usaiña**. Epeltasun itxuria. ‘En frase negativa, no hacer calor’. *Zure muturrak eztako epel usaiñik (hotzak daguenaren itxurako aurpegixa ikusitta).* 2. Ganorabakua. ‘Insustancial’. *San Migel bixamoneko zezenak epel askuak ziran ba! Sin. txepel.*

Epelaldi, -xa. Eguraldi epeleko boladia. ‘Periodo de tiempo templado’. *Lehen hor, martxo inguru horretan, epelaldi bat egin eben, baiña harrezkero hotza eta hotza.*

Era, -ia. Zerbait egiteko beta edo tarte. ‘Ocasión, coyuntura, oportunidad’. *Eria harrapaaitten badot, egun pare batian akaboko dotsut sukaldeko obria./ Eztogu erarik hartu-eta, horregatik ezkara etorri! Erara datorrenian pasauko naiz zuenetik.*

Eraari, -xa. Edaria. Eran leikien zerbait. ‘Bebida’. *Ze erari jarriko dogu bazkarittekot? Ardaa, sagardaua eta ura.*

Eraatu. Eria hartu. ‘Organizarse, tener ocasión, coger un rato’. *Eraaketan banaiz: Antolaitten banaiz, denporia hartzen badot... Sin. eria hartzen*

badot; ingiaketan banaiz; libraiten banaiz... *ad. lok. Eria hartu edo harrapau.* Aukeria balixau edo euki. *Eria hartzen dotenian egingo dotsuet bixitaren bat.*

Erabagi. Erabaki. ‘Decidir, resolver’.

Eragin. 1. Eginarazi, bihurtu. ‘Obligar, hacernos mover’. *Formal ezpazabiltzai maisuak eragingo dotsue./ Honek eragin dosku eragittekuak./ Etorri eragin, fan eragin.* 2. Mugitu, bueltak eginarazi. ‘Dar vueltas, tirar de’. *Buruari, lapikuari, kafesniari, danboliñari, komuneko bonbiari... eragin.* 3. Masturbatu. ‘Masturbarse’. Sin. **erruberan egin, idiarena jo.** *Horrek eragin egingo xao sarri!* 4. Sorrarazi. ‘Hacerle hijos’. *Aurreko gizonak bost ume eragin otsan.*

Eraitsi. *ald. eretsi.* 1. Goixan daguen gauzaren bat jaitsi eragin inddarrez. ‘Hacer bajar’. *Igo eta eretsi intxaurok! (Eragin eta eretsi)* 2. Edozer gauza bota, goitik behera. ‘Derribar, tumbar’. *Portalekuko etxe zaharrak eraitsi dittue./ Jo eta eretsi eben ukabilkada bategaz./* 3. Behixak jaizterakuan esnerik atara ezin xakonian esaten da. ‘Sacar’. *Txahalari jare bihar, bestela eztau eresten-eta (esnia).*

Erakusgura, -ia. Erakusteko gogo haundixa edo haundixegixa. ‘Ganas de enseñar o presumir desmedida’.

Erakutsi. Erakutsi eta irakatsi. ‘Mostrar’, ‘enseñar’. *Erakutsi zer dakozun eskuan!// Betik ipurdixa erakusten dabil./ Nork erakutsi dotzu zuri berba horreik esaten?/ Guri eskolan ez oskuein gauza asko erakutsi.*

Eramaittu, -a. Eurixa, edurra... ‘Precipitación. Verbo: Precipitar, empezar a caer’. *Eramaittua dakar./ Eramaittura joko dau./ Eramaittua datorrenian, kobara sartu eta kitto!// Eramaittetan ekitten baxao.*

Eran. Edan. ‘Beber’.

Erangura, -ia. Erateko gogo haundixa. ‘Ganas o ansias de beber’. *Horrek dako eranguria! Sin. egarrixa.*

Erantsi, eransten. 1. Itsatsi. ‘Enganchar, sin quitar ojo’. *Nun da ba Mikel? Partidua ikustera fan da tabernara. Bai, han egongo da begixak erantsita!// Kateia-begixak bata bestiari erantsitta doiaz./ Erantsi burdixa idixairi!// Erantsi arrana aharixari.* 2. Echar el perro. *Erantsi txakurra horreiri!*

Erantzi. *ald. erontzi* (Araotz). Erropia kendu. ‘Desvestir(se), quitar(se) la ropa’. *Jentia jerseixak eranzen dabil (udia aillegautakuan).*

Erantzunkizun, -a. ‘Responsabilidad’. *Norberen etxian okerrak egindako txakurra iñori eruan, eta eurenian beste horrenbeste egin ezker, orduan zer erantzunkizun dakozu?*

Eraoska, -ia. *ald. eraaska,* -ia. Kariño edo gozotasun gutxikua. Ardixendako ebalten da gehixenbat, baina pertsonendako be esaten da. ‘(el) cordero que no es amado por su madre’. *Ume eraoskia; agura eraoskia.*

Eraoskatu. Ardixak bere billotza maitte ez. ‘No amar, desamar’. Eta hortik esaera hau: **Gaurko euskaldunak baserrixa eraoskatu egin dau.**

Erarega, -ia. Hazittik edo sustarretik, berez urtendako landara edo arbolak. Mentutu barikua. ‘Árbol frutal borde o sin injertar. En Oñati sólo se dice del castaño no injertado’.

Erari, -xa. Edaria. Eran leikien zerbait. *Ze erari jarriko dogu bazkarittek? Ardaia, sagardaua eta ura.*

Erasan, -a. Esfortzua egitterakoan jasandako gixarra-etena edo antzeko ezbiharra. ‘Afección, afectación’. *Erasana egin dau iztarrian.*

Erasan egin. ‘Causar efecto, pasar factura’. *Gu mutikotan makiña bat tonto-lan egindako gagoz, eta horrek orain erasan egin!*

Erasla, -ia. Albaittarixa. ‘Veterinario, -a’.

Eraso. Kontra egin, berbaz batez be. ‘Replicar’, ‘atacar de palabra’. *Eraso nitxan*, ‘le repliqué’. *Neri eraso nontan horrek, nik neukala fotografixia eta...; baiña berak eukan eta halaxe esan notsan*.

Erauntsi, -xa. Erasua, afruentia, eramaittua. ‘Tormenta, tempestad’. *Ikaragarriko erauntsixa./ Erauntsixak zaldizkuak* (euri-barrak) *ekarten dittu*.

Erbeste, -ia. Norbera daguen herrixa eztan beste bat. ‘País o pueblo no propio’. Adb: Legazpin egonda, Zumarraga. *Erbesteko fiestak*.

Erbesteko, -ua. Kanpotarra, bertakua eztana. ‘Forastero, -a’.

Erbilo, -ua. Lo oso ariña. ‘Sueño ligero (de liebre)’. *Erbiluan nenguen*.

Erderazko, -ua(k). Erdal jatorrikuak izan barik erderaz bizi diranai esaten xate. ‘Los que no viven en euskera’. *Erderazkuak dira horreik*. Erdal jatorrikuak izentaitteko *erdeldunak* ebalten da batez be, nahiz eta *erderazkuak* be esaten dan. ‘Los no oriundos de Euskal Herria’.

Erdu. Etorri ‘Venir’. (agintterako forma honetan bakarrik): *Erdú hona!* Etorri hona! ‘Ven aquí’.

Eregi, -xa. *adj.* Irekia, zabala. ‘Abierto, -a’

Eregi. Eregitten, Eregiko Ireki. ‘Abrir’. *Atiak eregitta dagoz. Bidia eregi*. ‘Abrir camino’. *Tunela eregittia. Eregitta*. Amorraketan. *Gosiak eregitta etorri dira!* ‘Venir muertos de hambre’.

Erein. Ereitten. Ereingo. ‘Sembrar’. *Aittajuna soruan dabil arbixa ereitten*.

Ereintzaille, -ia. 1. Hazixa ereitten dauena. ‘Sembrador, -a’. *Ereintzaillia zein izango da?* 2. Diru-gastatzaillia. ‘Disipador, dilapidador (de bienes)’.

Eretsi. Ik. **eraitsi**.

Eriu. Zauritu, izurratu. ‘Herir, lastimar, dañar, fastidiar’ *Zezenak harrapo eta gaizki eriuta geratu zan. / Itxabolan sartu, gaztaiok eta diruok hartu eta ospa! Ez egidak/n aittatu be egin, orainddiok eriuta ñagok/n eta!*

Erixau. Alperrik galdu, bota, hondatu. ‘Echar a perder, estropear’. *Dana erixau besterik eztau egingo./ Ifiñi bedarra bihorrairi, batian bestian, erixau barik, erixau barik. Dirua erixau*. Dirua alperrik galdu. ‘Malgastar el dinero’.

Erla, -ia, erlaak (pl.). 1. Erlea. ‘Abeja’. 2. ‘Colmena’. Zazpi erla. ‘Siete colmenas’.

Erlabixo, -ua. Zomorroa. *Vespa sp.* Liztorra. ‘Avispa’.

Erlaiño, -ua. Laiño bajua. ‘Niebla’. Ik. **laiño**.

Erlakazten, -a. ‘Divieso’. **Erlakazten itsua**: itxitta daguen erlakaztena. ‘Cirro, divieso sin ojo’.

Erlakuma, -ia. Erliaren umia, erlauntzatik urten barrixa, erla billakatuko dana. Erlakumiak erlauntzako erregiña zaharra eta erla-euli erdixakin urteten dau bizileku barri baten billa. ‘El nuevo enjambre’. *San Juanak aldera urteten daue leheningo erlakumak*.

Erla-maixu, -a. Erlazaiña, erlatan eskarmentu haundikua. ‘Apicultor, -a’.

Erla-mizto, -ua. Erliaren ezten zorrotza. ‘Aguijón de la abeja’.

Erlategi, -xa. Erladun erlauntzak dagoen lekua. ‘Varias colmenas bajo un cobertizo’. *Erlategi haundixa izan zan hemen, baiña erlauntz hutsak besterik eztago orain./ Erlak erlauntzetan eta erlauntzak erlategixan egoten dira*.

Erlauntz, -a. Erlaak bizi diran etxetxua; lehen enbor hustuak izaten ziran, orain kutzak. ‘Vaso o recipiente para colmena. Antiguamente troncos vaciados’. *Sei erlauntza dakot, baiña lau erla bakarrik*.

Erlazain, -ña. Erlaak gobernaitten dittuena. ‘Apicultor, -a’.

Erlikinddu. Erkinddu. ‘Debilitar(se), extenuar(se)’. *Erlekinketia*. Sin. **makalketia**. *Erlikinddu egitten (da), ugari badago* (landaria)

Erloju, -ua. ‘Reloj’.

Erlojerixa, -xia. Erlojuak saldu eta konponketan dittuen dendia. ‘Relojería’ *Erlojerixak puntuan behin izten dira*.

Ermaiñu, -a. Elbarria. ‘Minusvalido, -a; impedido, -a’. Akats fisikoren bat dakon pertsonia, animalixa edo landaria. ‘Se dice de personas, animales y plantas que tienen algún defecto’. *Ermaiñua da*. Sin. **elbarri**.

Ermitaño, -ua. Sandaillin bizi zan gizona eta hango kargua eruaten ebena. Azkenengo ermitañoak Jaturabeko makiñatxequak izan ziran. ‘Cuidador, -a de la ermita; por ej. de la de Sandaili’.

Ernaamu, -a. Ernemuna. ‘Germen, embrión, brote’. *Patatiari urteten xau ernamuak zaharketan danian*.

Erne. Argi egon. ‘Estar atento, alerta’. *Erne!* ‘¡Atento!’.

Erne, *erneten*, *erneko*. 1. ‘Germinar’, brotar’. *Erne da idarra, eta babia ekin da erneten*.

Ernegau. Bere onetik urten. ‘Renegar’. *Egun dana ernegaitten pasaitten dau*.

Erole, -ia. ‘Portador, -a (del feretro, santo, etc)’. *Illobak izango dira erole*. Ik. *andero*.

Eromahai, -xa. Oramahai. Gari- eta arto-orak egin eta ogixak gordeteko mahaixa edo kutxia. ‘Mesa o arca para hacer la masa del pan o del maíz y guardar los panes’. Ik. **ora**.

Erosle, -ia. Erosten dauena. ‘Comprador, -a’. Sin: **erostun**, -a; **erosteilla**, -ia. *Eroslerik agertu ez gure ardixak eruateko./ Erosle kaxkarra*.

Erpil, -la. Zokorra; soroko lur koskorra. ‘Terrón, gleba’. *Erpillak joteko mazua./ Guazen erpillak jotera*.

Eruan. Eroan edo eramán. ‘Llevar’. *Aldian eruateko telefonua./ Zerbait eruatia hoba dozu, han gauza gutxi izango dozue-eta*.

Erralde, -ia. Zaldi eta txahalakin ebalten dan bizi-pixu neurrixa (5 kg). ‘Peso de cinco kilos de carne en vivo. Se utiliza con los caballos y las terneras’. *Txahal honek zenbat erralde izango dittu? Hogeita bost bat erralde*.

Érran, errána. Semiaren edo alabiaren emaztia. *bat. errain*. ‘Nuera’.

Errape, -ia. ‘Ubre’. *Esne-behixak errape haundixagua eukitten daue basobehixak baiño*.

Errauts, -a. Ikatza edo egurra erreten danian geraketan dan hautsa. ‘Ceniza, polvo’. Ik. **hauslandar**

Errez. Samur. ‘Fácilmente’. *Orain artekua egin badozue, hemendik aurrerakua errez egingo dozue*.

Erre. 1. ‘Quemar-se’. *Basua, etxia... erre*. 2. ‘Freir’. *Beste arrautza bana erreko dotsuet?/ Patata-erriak*. 3. ‘Fumar’. *Egunian zigarro-paketia erreten dau Luixek*. 4. Aguantau ezin. ‘Sin poderse aguantar’. *Txixaguriak erreten nago*. 4. **Erre**, -ia. Zittala, ziztriña, jenixo bizikua, piparmiña. ‘Ruín, mezquino, -a’. *Pertsona erria dok/n aguazil hori!*

Erreta egon. 1. Hasarre edo gorputza ezertarako gauza eztala, hau da, osasunaren aldetik izurrauta egon. ‘Estar quemado ‘burnout’ ingleasez’. *Lanian erreta nago, erre-erre egindda nago./ Retegi erreta xagok/n*. 2. “Porrua” erreta. ‘estar colocado, fumado, -a’. *Hori erreta dago (kolokauta)*.

Erre bedar, -ra. LAND. *Arum italicum*. ‘Aro’. Bedar honen izena erriak osaketako dakon gaittasunagatik datorkixo. Basaurdiai gustaitten ei xate. Sin. **suba-arto**, **suga-arto**.

Errebentau. Lehertu. ‘Reventar’. *Ez egizue hainbeste jan, errebentau egin bihar dozue-eta!/ Lehenguneko izotzak kaldaria errebentau egin osten*.

Errege sagar, -ra. ‘Reineta’.

Erreka, -ia. ‘Rio’. *ad. lok. Errekaan pasauta egon.* Sexu-harremunak eukittakua izan. ‘Haber tenido relaciones sexuales’. *Hori honezkero errekaan pasauta xagok/n!*

Errekadista, -ia. Errekaduak egitten dittuena. Paketiak eta horrelakuak etxian entregaitten dittuena. ‘Mensajero, -a, recadero, -a, recadista’. *Hara eta hona errekadista ibillitako batzuk: Eugeni, Goñi, Xolonpo, Sarramendi ...*

Errekazain, -ña. Errekako guardia. ‘Guarda de río’.

Erreka-zozo, -ua. *Cinclus cinclus*. ‘Mirlo acuático’. Sin. **ur-zozo**, -ua.

Errekusa egin. Janari pillaketia etxian egin prebisiño moduan. ‘Hacer acopio de comida’. *Astelehena be jai da eta goizian errekusa egin dogu.*

Errementari, -xa. ‘Herrero, -a’. *"Olagizonak eta errementarixak, begixak baltzak eta hagiñak zurixak, alperrik egingo dau larogei garixak, ardaua erango dau errementarixak"*

Errendiu. ‘Agotar(se); dominar, rendirse’. *Loguriak errendiuta nago./ Hola ibilli ezkerro, errendiuko zarai!/ Honeik eztiituk/n hain samur errenditten!*

Errenkura, -ia, -aak (pl.) Akatsa, itsusitasuna. ‘Averia, defecto, mancha, fallo’. *Errenkuraak zuzendu.*

Errenkurabage, -ia. Ondo egiña, dotoria. ‘Bien hecha, elegante, esbelta’. *Neskatilla errenkurabagia.*

Errenkuradun, -a. Akatsen bat dakona. ‘Con algún defecto’.

Errentero, -ua. Maizterra. ‘Inquilino, -a’. *Errentero billa dabil, etxe hutsagatik kontribuziño doblia ez pagaitteko.*

Erretilla, -ia. Teillatuaren konponketia. ‘Retejo’.

Erretillu, -a. Lurrezko plater haundixa, sei bat lagunek jateko modukua. ‘Bandeja, fuente, plato grande’.

Erretratista, -ia. Argazkilaria. ‘Fotógrafo, -a’.

Erretratu, -a. Argazkia. ‘Fotografía’.

Erretura, -ia. Soroetako eta ortuetako bedar txar eta zaborreriaz egitten dan sua. Legazpin, erraduria. ‘Montoncito de broza que se quema en las heredades y montes’.

Erretzaille, -ia. Erreten dauena. 1. ‘El que quema mucha leña o gasta mucha gasolina (motosierra)’. *Egur erretzaille ederra./ Hau lako gasoliña erretzaillerik!* (motozerria).

2. ‘Fumador, -a’. *Erretzaillia? Aixena be erreko leuke, betik zigarrua ezpanetan.*

Erreus, -a. Akatsen bat dakona, hondatuta dagueña. ‘Defectuoso, -a’. *Baba erreusak; ardi erreusak; artaazi erreusak.*

Errezero, -ua. Ontzixen edukixa edozein aiez bardinketako ebalten dan egurra. ‘Rasero’. Sin. **errestillu**.

Errezil sagar, -ra. Errege sagarra. ‘Reineta’. *Errezil sagarrarekin konpotia egitten da ederra.*

Errial biko, -ua. Berrogeita hamar xemikoko txanpona. Halako birekin pezetia. ‘Moneda de dos reales’.

Errial, -a. Antxiñako dirua. Hogeita bost xemiko. Halako laurekin pezetia. ‘Real’.

Erripa, -ia. Aldapa. ‘Cuesta, repecho, pendiente’.

Erripatsu, -a. Aldapatsua. ‘Empinado, -a, escarpado, -a’.

Erro, -ua. Errapeko titi bakoitza. ‘Teta de animales’.

Erromara, -ia. Itxitura bateko atia. ‘Puerta con barras de quita y pon o sin ellas en un cerco’. *Zeiñek itzi dau erromaria zabalik?*

Erropa, -ia. Arropa. ‘Ropa’.

Errosarixo, -ua. ‘Rosario’. *Errosarixua erreza*. ‘Rezar el rosario’. *Illunkaratan erreza*itten da *gurian errosarixua*. **Errosarixua esan, euki**. ‘Maldecir’. *Maldiziñoka* edo *gaizkiesaka* jardun.

Errosien, -a. Umien azaleko gaitza. *Buruan kostra bat egiten xate eta honek eztoste ulia urteten izten*. ‘Enfermedad de niños: se les forma en la cabeza una costra agarrada a la piel que impide la salida del pelo’.

Errotari, -xa. Errotako jabia edo langillia. ‘Molinero, -a’.

Erru, -a. 1. Hutsegittia. *Hutsegittiaren erantzukizuna*. ‘Culpa’. *Hori apurketiaren errua neuria izan da*. *Haren erruz gagoz orain gagozen modura*. 2. Marka edo ondorixo kaltegarria. ‘Marca, señal’. *Harrixen errua*: txingorak jotako sagarrak dakon markia

Erruda, -ia. *ald. errura*, -ia. *Ruta graveolens*. Usain fuertia dakon landaria, batzuekako desatsegiña. ‘Ruda’.

Errukarri, -xa. Errukixa emuten dauena. ‘Digno de compasión o de lástima’. *Biaje hartan errukarri ibilli ei ziran, errukarri baiña, errukarri!*

Erruki, -xa. Errukia. ‘Compasión’.

Errukikor, -ra. *ald. errukor*, -ra. Errukitsua. ‘Compasivo’.

Errukittu. Errukixa izan, emun. ‘Tener o dar compasión’.

Errun. Arrautzia egin/ifiñi. ‘Poner (huevos) la gallina’. *Errun dau arrautzia oilluak*./ *Eztau hainbeste arrautza erruketan*.

Errusa. Ugarixa. Erruz etorritakua. ‘En gran cantidad o medida, en abundancia. Muchísimo’. *Errusa izan da garixa*.

Errutsu, -a. Indartsua, gihartsua. Landara, animalixa eta pertsonen gainian esaten da. ‘Fuerte, vigoroso, se dice de plantas, animales, personas’.

Esangura, -ia. 1. Esanahia. ‘Significado’. *Eztakit berba horren esanguria*. 2. Esateko gogua. ‘Ganas de decir o expresar’. *Haren esanguria!* 3. Garbi esan barik iradokitten dana. ‘Dar a entender’. *Esanguria egin dau eztauela konforme bere lanarekin*.

Esate, -ia. 1. Itxitura batek ardixak-eta pasaitteko izaten dauen bittartia. ‘Paso de una cerradura (hesiko atea)’. 2. Haitz arteko pasabidia. ‘Desfiladero’. *Andartoko esatia*: Andarto eta Gazteluko Haitzaren arteko pasua.

Esegi. Eskegi. ‘Colgar’. *Erropia esegittera noia*./ *Harrapaiten bahaut, esegiko haut!*

Eskarrik asko! Milesker, eskerrik asko. ‘Muchas gracias’.

Eskas. Gutxi. ‘Poco. (poca cantidad)’. *Aurten perretxikua eskas dago*. **Eskas antzian**. Gutxirekin. ‘Un poco escasos’. *Gastu haundixak euki dittugu, eta orain dirutik eskas antzian gabiltz*.

Eskasa. *ald. eskaxa*. Kalidade txar edo gutxikua. ‘De baja calidad’. *Aurtengo sagarra eskaxa izan da, eta sagardauak be halakotxia urten dau*.

Eskatu. 1. ‘Pedir’. *Dirua eskatu norbaitteri*. 2. Askatu. Oiñetakuen lokarrixak, korapillak, frakak... eskatu. ‘Soltar’. **Frakak eskátu**. Kaka egin (euf.). ‘Cagar, defecar’. *Frakak eskaketara noia*. *Frakak eskatu biharrian nago*.

Eskillaaso, -ua. HEGAZ. *Garrulus glandarius*. Eskinoso, eskilaso. ‘Arrendajo común’.

Eskiñi, *eskitnten, eskiñiko*. Eskaini. ‘Ofrecer’.

Eskintte, -ia. Eskaintza. ‘Oferta’. *Lanerako eskinttia egin xaue*.

Eskola, -ia. 1. ‘Escuela’. 2. Saltsia, arramarria. ‘Follón, enredo’. *Hor dabil eskolia!* 3. Era itsusixan berba egittia. ‘Tener mala escuela, hablar mal’. *Ze eskola da hori!*

Eskolabage, -ia. Analfabetua, eskolara fan barikua. ‘Analfabeto, -a, de poca escuela’. *Neskatilla argixa bai, baiña eskolabagia. Eskola pittin bat emun balotsai, zer egingo ete eben honek?*

Eskorta, -ia. Aberiak, ardixak normalian, gordeteko itxituria. ‘Aprisco’.

Eskribau, -a. Idazkaria. ‘Escribano, a’. *ald. zaharragua: eskribaun, -a.*

Eskribiu. Idatzi. ‘Escribir’.

Esku, -a. ‘Mano’. **Esku garbiko**, -ua. Onradua, beria ez dan dirurik bereganaketan eztauen. ‘Honrado, -a’. *Kriada lanetarako finttasuna eta esku garbittasuna ziran gauzarik estimauenak. Esku garbittasuna. ‘Honradez’.*

Eskuaga, -ia. Palankia. ‘Palanca’.

Eskuara, -ia. Bedarra batzeko eskuko erremintia. ‘Rastrillo’.

Esku-argi, -xa. ‘Linterna’, ‘farol’.

Eskukada, -ia. Eskutada. Esku batian hartu leikien zeozarren kopurua. ‘Puñado, manojo’. *Gari-hazixa eskukadaka ereitten zan.*

Eskuko soiñu, -a. Soiñu txikiña. ‘Acordeón diatónico’.

Esku-trapu, -a. Esku-zapia, sukaldeko zapia. ‘Trapo de cocina’.

Eskutur, -ra. Eskumuturra. ‘Muñeca (parte del cuerpo)’.

Esmendran jan. Gertu daguen bazkarixa orduz kanpo jan eta gero jateko ordurako bape barik geratu. Pikaitten edo mizkinkerixetan izan leike. ‘Comer fuera de horas la comida preparada, en plan picoteo’. *Esmendran dana jan dogu eta orain bape barik gagoz.*

Esne, -ia. 1. ‘Leche’. 2. ‘Mal genio’. *Harek xakok/n esnia, harek!*

Esneagin, -ña. ‘Diente de leche’. Ik. **txatxur**.

Esnedun, -a. Esnia etxez etxe partitten dauena edo auzoz auzo batzen dauena. ‘Lechero, -a’.

Espaloi, -a. ‘Acera’. Sin. **losa**.

Esparru, -a. Segaz mozten eztan zelai hesittua, larraako bakarrik aprobetxaitten dana. Aldapia dalako edo leku desegogixa dalako. ‘Cercado, sitio vallado, recinto’. *Etxe inguruko esparrua./ Ganadua Aldabeko esparruan dabil larraan.*

Estalki, -xa. Estalgarria, estaltzeko objektua. ‘Manta, tapa. Abrigo (vestido)’. *Bart hotzak egon naiz, estalki gutxi./ Lapikuaren estalkixa./ Komuneko estalkixa.*

Estalpe, -eia. Goixa estalitta eta albua(k) libre dittuen aterpia. ‘Cobertizo’. Koixkarren, esaterako, iria gordeten zan lekua.

Estamangu, -a. Urdailla. ‘Estómago’

Estankero, -ua. *em. estankera*, -ia. Estankuko langillia. ‘Estanquero, -a (vendedor de tabaco)’.

Estereo, -eua. Metro kubiko egur (apea), azal eta guzti neurtuta. ‘Un metro cubico de madera sin pelar la corteza’. *Hemen zenbat estereo egongo dira?/ Estereuak zenbat egitten dau gaurko egunian?*

Estimaziño, -ua. Tiria, azeptaziñua. ‘Estimación, aceptación’. *Bilddotsak-eta estimaziñua eukitten euen./ Kriadatarako estimaziño gogorra eukain hemengo neskaak orduan./ Egurak orain eztako estimaziñorik.*

Estronkau. Janez leporaiño bete, enpatxauta mobiu eziñik geratu. ‘Comer a reventar’. *Eztako neurririk; estronkau arte jaten dau.*

Estropozu egin. Hankak trabau eta biharbada jausi. ‘Tropezar’. *Estropozu egin eta muturrez aurrera jausi nintzuan!// Kontuz koska horrekin, estropozu egin barik!*

Estu, -a. *adj.* ‘Estrecho’. Pertsonen gain be esaten da. *Pasaitteko leku estua. /*

Gizon estua hartu zebeñ. Estu hartu. Gogor hartu. ‘Apurar, apremiar’. *Santoñan estu hartu gindduein.*

Etara. *ald. atara.* Atera, irten. ‘Salir, sacar’. *Gaur eguraldi ona etara dau./ Gaur etarako dau eguzkixa./ Atara eskuak poltsikotik, eta egon formal, mutikua!/ Kiltzia atara nebenian jausi egin xaten.*

Ete. Ote. Dudia adierazten dauen partikula. ‘Partícula que expresa duda: ¿Ya lo sabrá? ¿Quién será?’. *Ba ete daki ezer? Hori zein ete da?*

Eten, -a. ‘Hernia’. *Etena egin xako eta derrigorrez operau bihar daue.*

Eten, *eteten, etengo.* 1. Apurtu tiran daguen zerbait (harixa, esaterako). ‘Romper(se), rasgar(se)’. **Eten barik.** Geldittu barik. Akabera barik. ‘Sin parar, sin pausa’. *Plazara jentia eten barik dator./ Ezta ixilketan, eten bariko jarixua dako.*

Etenkor, -a. Samur etetekua. ‘Frágil, fácil de romper/rasgar/cortar’. *Hari etenkorra.*

Etorpide, -ia. Etorkizuna. ‘Futuro’. *Etorpide onekua.*

Etsipen, -a. Konformidadia. ‘Resignación’. **Etsipena hartu.** Konformau. ‘Conformarse’. *Umiairi barraketan buelta pare bat emun eta ia etsipena hartuta etxeraketan garien.* **Etsipena emun zerbaitteri.** Zerbait hori, akabo barik baldin badago be, akabotzat emutia. ‘Renunciar a’. *Nik honi emun txat etsipena, etxakuat/etxakonat gehixago jarduteko gogorik!/ Aurtenguagatik etsipena emun biharko xangu.* **Etsipenian egon.** ‘Estar resignado, -a’.

Etخابuru, -a. *ald. itخابuru,* -a. Etxiaren gainaldian daguen lursaila. ‘Terreno situado detrás y a un nivel superior al caserío (o casa)’. *Itخابuruko zabala.*

Etxapee, -ia. Teillatupeia. ‘Casa, techado’. *Etxape honetan bost bizitza dagoz.*

Etxe, -ia. ‘Casa, hogar’. *Aittajun-amandrien, aitta-amen, alabiaren, famelixiaren, geure... etxia. esr. Gure etxe pobria, Burgos dana baiño hobia.*

Etxe erre batze, -eia. Baserri bat erretakuan egitten zan diru-batzeia baserrixori berriz be egitteko. Ohitura hau aspaldi samarrekua da, azken denporan, XX. gizaldiko azkenengo hamarkadetan, baserri bat erre danian, horren ordezt, errifak, auzolanak eta jaialdixak egin izan dira. ‘Colecta por un caserío incendiado’.

Etxealde, -ia. Baserrixa lur eta guzti. ‘Caserío, hacienda, propiedad rural (incluyendo las tierras)’. *Etxealde haundixa dakoi zuen aldeko horreik./ Zorrak etxealdia jateraiño bestekuak izan zittuein.*

Etxe-aurre, -ia. Etxiaren aurrekaldia. ‘Parte delantera de la casa’.

Etxekalte (mugagabian bakarrik). Norberaren etxiaren edo interesen kontra dabillanari esaten xako, broma giruan gehixenbat. ‘Pródigo, -a, despilfarrador, -a. Perjuicio de la casa’. *Hi haiz hi etxekalte!*

Etxekoandra, -ia. ‘Ama de casa’. **Etxekoandretan ibilli.** Ume-jolasa. ‘Jugar a cocinitas’. *Geu be etxekoandretan ibiltten gainan edade horrekin.*

Etxekor, -ra. Etxian gustura daguena, etxezalia. ‘Casero, -a, amante de su casa’. Sin. **etxekoi, etxezulo.**

Etxeoste, -ia. Etxiaren atzekaldia. [etxoste, -ia] entzuten da. ‘Parte trasera de la casa’.

Etxezain, -ña. Etxia zainketan eta gobernaitten geraketan dana. ‘El o la que queda al cuidado y gobierno de la casa’. *Zein geratu da etxezain? Maiorazkua!*

Etzilimo. Etzidamu. ‘El día siguiente a pasado mañana’.

Etzin, *etzitten, etzingo.* Etzan. ‘Tumbarse’. *Txiki, etzin! Etzin!*

Euki. ‘Tener’. *Euki dot, baiña orain eztakot.*

Eulandar, -ra. Sirimiri txikiña. ‘Llovizna, bruma’.

Eulantz, -a. Euri txikiña. ‘Llovizna’. *Aixarixak busteko eurixa, eulantza.*

Eulauso, -ua. Euri-lauso. Inddarbariko eurixa. ‘Lluvia insignificante’.

Eulegun, -a(k). Euri-egunak. ‘Día de lluvia’. *Eulegunetako lanak / Eulegunetan alkarketan gara etxeko danak./ Gaur be eulegun.*

Euli, -xa. ‘Mosca’.

Euliaundi, -xa. Okelatan eltxarrak (arrautzak) ifintten dittuen euli haundixa. ‘Moscardón’.

Eulondo, -ua. Eurixa egin eta geroko denporia. ‘Tiempo después de la lluvia’. *Horreik eztittuk/n eulondoko lanak.*

Euri, -xa. ‘Lluvia’. *Hara! Noiz fan, orduantxe eurixa!* (baten bat fatiarekin batera zaparraria hasi).

Eurialdi, -xa. Egunetako eurixa. ‘Periodo de lluvias’. *Haize honek eztau eurialdirik ekarriko./ Eurialdi luzia.*

Euri-bisutz, -a. Eurixa haize gogorarekin nahastuta. ‘Tormenta de agua y viento’.

Euriketa, -ia. Eurixa, eurialdixa. ‘Periodo de lluvias’. *Aurtengo neguan eztau euriketarik egin.*

Euri-lipritz, -a. Euri pittin bat, labanketako lainñekua. ‘Llovizna’.

Euri-toketada, -ia. Zaparrada haundixa, baiña motza; kaltiak egittekoa askotan. ‘El golpe de lluvia’. *Laiño honeik eztaue euri-toketadarik ekarriko./ Hau da euri-toketadia!/ Gure patatiak eztau toketada txarrik hartu./ Larri ibilli hodei honek toketadaren bat botaten.*

Euritte, -ia. Egunetako eurixa. ‘Temporada de lluvias; lluvias’. *Orainguan luze jo dau eurittiak.*

Euskalgaizto egin. Euskeraz bihar dan moduan ez egin. ‘Vascuence mal hablado’. *Euskalgaiztua zabaldu da*

hemen./ Entzunda beste barik burukomiña egitten dauen euskalgaiztua.

Euskera, -ia. Euskaldunon hizkuntza. Lehenengo 'e'-n azentuatuta. ‘Vascuence. Lengua de los vascos’.

Eusle, -ia. *ald. eustzaille,* -ia. Eusten dauena, euslia. ‘El/la/lo que sostiene’. *Eusliak* (txarrixari eusten xauenak) *etorri dira.*

Eutsi. 1. ‘Sostener’, aguantar, resistir’. 2. **Autsi. Autso!** (Norbaitteri zerbait eskutik eskura emuterakuan, berori hartzeko eskaketan xaugunian esaten da.) ‘Tomar, coger, en imperativo’. *Hamar bihar dittuzu? Autsi orain zazpi, bestiak bixar emungo dotsut. /Autso, eta ixildu hadi!*

Exkel, -a. Ganorabariko pertsonia. ‘Se dice v.gr. de una persona sin sustancia’.

Ezagun, -a. ‘Conocido, -a’. **Ezagun izan.** Igarri. ‘Notar(se)’. *Ezagun da hemen norbait ibilli dala. Ezaguna egin.* Lehenagotik norbait edo zerbait ezagutu. ‘Hacerse a uno, -a conocido, -a’. *Gizon hori ezaguna egitten xat./ Aurpegi hori lehendik ikusitta ete dakoten... oso ezaguna egitten xat. Ezagupidia edo ezaguperixa euki.* Aldez aurretik zerbaitten edo norbaitten barri izan. ‘Saber de’. *Laguna, eztakot zeure ezaguperirik!/ Haren ezaguperixa baneukan gazte denporan. Ezaguperixa emun.* Agurtu. ‘Saludar’.

Ezagutu. ‘Conocer’. *Ezaguketan zaut./ Bidia ezaguketan ezpadozu, galdu egingo zara.*

Ezarla, -ia, -aak (pl.). Teillia moldetik atara eta sikaketan ifintten dauena. ‘El encargado de poner las tejas tiesas a secar’. *Teillerixetako ezarlaak.*

Ezarri, *ezartia, ezarteko.* 1. Ardixairi txakurra bota. ‘Echar el perro a las ovejas’. *Txakurra ezarri dostet ardixairi.* 2. Oillalokia arrautzak beroketan jarri. ‘Colocar la gallina clueca a incubar los huevos’. *Oillua ezarri arrautzakin.* 3. Aurrian bi iri edo bi behi ifiñi, ondoren

dagozen beste bixairi tiraketan lagunketako. 'Enganchar dos vacas o bueyes para empujar a las dos de atrás'. *Puntakuak ezarritta karriau giñuan/giñonan.*

Ezbaiko egon. Dudan, zalantzan egon. *Sua ezbaiko dago, itxungiko ez itxungiko dago.* 'Estar dudando, en que sí en que no'.

Ezes, -ua. Asko, ikaragarri. 'Demasiado, -a'. *Aurten ezesua xagok/n intxaurrra./ Diru ezesorik be eztoskue kobrau./ Jentia ezesua etorri zan.*

Ezezagundu. Ezezagun bihurtu. 'Desconocer, volverse desconocido, -a'. *Gure herrixak ezezagundu egin dira.*

Ezekua emun. *ald. ezetza emun.* Ezeztan. '1. 'Negar'. 2. 'Anular'.

Ezgauxa, -ia. Huskerixia. 'Nimiedad'. Detallitxo bat. 'Cosa pequeña (regalito)'. *Ezgauxa txiki bat./ Ezgauxatxo (erregalua) bat besterik ezta.*

Ezkalu, -a. *ald. ezkaillu,* -a. 1. **ARRAI.** *Phoxinus phoxinus.* 'Bermejuela'. Errekako arraintxua. 2. **Pertsona** luzia eta mehia. 'Tipo, -a largo y flaco'. *Ezkalua halakoxe bat ikusi dot.*

Ezki, -xa. **LAND.** *Tilia platyphyllos.* Ezki hostozabala. 'Tilo de hoja grande'.

Ezkundu. Ezkontziaren bidez alkartu. 'Casarse'. *Andria hartu* be esaten da. *esr. Hartzen badok andria gaztia eta umetsua, faltauko xak hiretako pentsua*

Ezkontza, -aia. Ezteixa. 'Boda'. *Ezkontzako erropak./ Arantzazun izan ei da ezkontzaia. / Haren ezkontzaian bapo bazkaldu geben, e?.* **EZKONTZAZ.** Ezkontza dala medixo. 'Por matrimonio'. *Arantzazuarra bera, baiña ezkontzaz Araotzera etorritakua. esr. Ezkontzak eta buzkantzak, berotan. / Ezkontza pobrerik eztago, hillea aberatsik be ez.*

Ezku, -ra. 'Bellota'. *Ezkurrian ibilli.* Jausittako ezkurra jaten dabillen ganaduakatik esaten da. 'El ganado

comiendo bellotas caídas'. *Ezkurrian dabiltz.*

Ezkurbeste. Oñatiko Kondiak kobraiten eben tributu baten izena. 'Tributo que cobraba el Conde de Oñati'.

Ezkutau. 1. Gorde. 'Guardar, esconder'. *Ezkutau hori, umiak ikusi ezteixen!* 2. Desagertu. 'Desaparecer'. *Hementxe eguen, baiña betiko ezkutau zan.*

Ezpan, -a. 'Labio'. *Ezpanetako barria.*

Ezpara, -ia. **ZOMO.** *Haematopota pluvialis.* Ezpata, beltzuntza. 'Tábano'. *Ezparia baiña zittalagua da gizon hau!*

Eztarri, -xa. 'Garganta'. **Kontrako eztarrixa.** Esofagoa. 'Esófago'. *Kontrako eztarrira sartu xat ogi pusketia. Eztarri erria izan.* Eztarrixa itxitta euki. 'Tener la garganta cogida, cerrada'. *Eztarri erriaz nabil, berba egin ezindda.* Sin. *Eztarrixa harrapota izan; eztarriko miña izan.*

Eztarriko lakar, -ra. Eztarriko zikiña. 'Carraspera'. *Hartu jarabe hau, ia eztarriko lakar hori faten xatzun!*

Eztei, -xa. Bataio, jaunartze, ezkontza... bat tarteko egitten zan jaixari esaten xakon. Hor izaten ziran otordua, lekaixuak... "Ezteixak aldekuen!". Araozgo jaixai, Trinidadiai, be esaten xaten: "Ezteixak Araotzen!". Lanen bateri akaberia emundakuan be (erretillia, bidegintzaren bat, lantegiren bateri etsipena emundakuan...) ezteixa egitten zan (otordua, droga...). 'Festejo, celebración'. *Hor droga gogorra entzuten da (ezteixetan dagoz-eta). / Ezteixak: Realak irabazi dau eta!*

Ezten, -a. 1. 'Aguijón'. 2. Burdiñazko ziri zorrotza. 'Punzón, cuña'.

Ezti, -xa. 'Miel'.

Eztimetxa, -ia. 1. Suabe berba egin, eta ez esaten eztakixenari esaten xako. 'Persona remilgada, que habla con afectación de cultura, suavidad, finura'. 2. 'Amanerado'.

Eztul, -a. ‘Tos’. *Eztula jo ezin*. Ezin eztulik egin. ‘No poder toser o estornudar’. *Gaur goizian ixixa itto naiz eztula jo eziñik*.

Faborez. Mesedez. ‘Por favor’. *Itziko dostazu lapitza, faborez?*

Fabrikante, -ia. *ald. fraikante* (Araotz). Fabrikia dakona, edo fabrikan lanian dabillena. ‘Dueño de una fábrica o trabajador de una de ellas’. *Baserriarrak eta fraikantiak*.

Faer, -ra. *ald. fadar*, -ra. Sandailliko zaintzaille edo ermitañoari esaten xakon, eta modu berian *San Juango faerra* San Juan Artixakuari. ‘Ermitaño o cuidador de una ermita’.

Fan. *ald. fuan*. Joan. ‘Ir’.

Fanaldi, -xa. Ibillialdixa. ‘Marcha, caminata’. *Fanaldi latza egin giñuan/giñonan./ Hara fanaldixa xagok/n*.

Fangura, -ia. Fateko gogua, afana. ‘Ganas, deseo de ir o marchar’.

Fardel, -a. Alperra, nagixa. ‘Vago, -a, holgazán, -a, abandonado, -a’. *Fardela izan baiña!*

Fardeldu. Fardela edo narrasa bihurtu. ‘Volverse zángano, -a’. *Euskalduna fardeldu egin da lehengo denporatik hona*.

Fardelkerixa, -xia. Fardelaren egittia. ‘Irresponsabilidad, falta de seriedad, de fundamento’.

Fau, -a. Makala, debilla. ‘Débil’.

Feros. 1. Indartsu, landare bat, adibidez. ‘Venir con fuerza o vigor’ *Artua feros dator./ Artua feros dago*. 2. Ferosa. Indartsu datorren landara, ganadua edo pertsonia. ‘Lo que viene con fuerza, tanto planta, animal como persona’.

Figura, -ia. Itxura kaskarra. ‘Aspecto, traza, pinta’. *Hori don figura! Figura ona ekarri dau gure Joxe Migelek!*

Filarmonika, -ia. Ahoko soinua. ‘Armónica’. Sin. **agoko soiñu**.

Filigeru, -a. HEGAZ. *Carduelis carduelis*. Karnaba, kardantxiloa. ‘Jilguero’.

Fin, -ña. ‘Fino, -a’. *esr. Berakatz* *baiño fiñagua izan*. Oso fiña. 2. Hotza (haizea). ‘Frío, respecto al viento’. *Haize fiña dabil*.

Firi-fara. Haize epela eta leun-leunaren mobimendua. ‘Movimiento del viento suave y templado’. *Firi-fara dabil haizia*.

Firin-faran. Edozein modutan, ezeren ardura barik. ‘Sin ton ni son’. *Dirua firin-faran gastau daue*.

Firri-farra. Asko begiratu barik. ‘De cualquier manera, en exceso’. *Ez, ba, bota hazixa firri-farra./ Firri-farra gastaute dozue zuek dirua*.

Fixau, *fixaitten* (Araotzen, *fixauten*). Fidatu. ‘Fiarse’. *Enaiz horregaz asko fixaitten/fixauten*.

Flakosta, -ia. Argal samarra. ‘Flaquito, -a’. *Gizon flakosta bat*.

Forjaari, -xa. ‘Forjador’.

Fraide, -ia. Frailia. ‘Fraile’

Fraidegei, -xa. Fraidetarakua. ‘Novicio de fraile’. *Garai baten bai makiña bat fraidegei!*

Fraidekuma, -ia. Arantzazun fraidetarako ikasten euenairi esaten xaten, era apur bat despektibuan. ‘Novicio de fraile’

Fraka, -ia, -frákaak. Galtzak. ‘Pantalones’. *Fraka pare bat./ Jantzi egizu mahonezko frakak*.

Fraka-motz, -ak. Belaun ingururainoko frakak. ‘Pantalones cortos’.

Frakatxo, -uak. Bainujantzia. ‘Traje de baño’.

Fraketa, -ia. ‘Bragueta’.

Franko, -ua. Ona, konfiantzazkua (pertsona zein gauzen gaiñian). ‘Bueno, -a, de confianza’. *Edur frankua da* (edur ona, biguna da) ‘Blanda, que no hará males’. / *Gizon frankua* (ona, konfiantzaia izateko modukua).

Frantzes-katu, -a. Ugaztuna. *Genetta genetta*. Katajineta. ‘Jineta’. Sin. **lizun-katu**.

Frantzi ipar, -ra. Ipar-ekialdetik jotenduen haize hotza, hotzena. ‘Viento del noreste, muy frío’.

Fraskaillo, -ua. Onenak emundakua, sasoi bateko itxurarik ez takona. ‘Envejecido, -a’. *Hemen gagozak/n gu fraskailuak* (argazki bateri begira)!/ *Lehen halako gizatua zan eta fraskailotuta geratu da*.

Fraulero, -ua. Haundiustekua, harro samarra. ‘Fabulador, -a, mentiroso, -a, arrogante’. *Aldeko Patxi da fraulerua!*

Frikatxa, -ia. *ald. frikatxe*, -ia. Billotzaren odola eta hestiak aparte egosita, arrautziarekin nahastuta prejitten diranak. ‘Revuelto de huevos con sangre de cordero e intestinos cocidos y picados. Sangrecilla’.

Fu egin. *ume ber.* Putz egin. *l. inf.* ‘Soplar’.

Fu. *ald. fufu.* *ume ber.* Sua. *l. inf.* ‘Fuego’.

Fultzue, fultzoia. Eztena, eztera. ‘Punzón’. Zapateruak ebalten euen erreminttia narrua zulaketako. ‘Lezna de zapatero’.

Furrustada, -ia. *ald. purrustada*. Jenixo txarreko urteeria, xatarkerixa bat. ‘Refunfuño, bufido, desprecio, desaire’. *Zeozer egin ezkerro, katuak berarekin dau furrustadia*.

Furrustadaka ibilli. ‘Andar refunfuñando’ (katua edo pertsonia hasarraketia, esaterako)

Gabillara, -ia. HEGAZ. Gabirai. *Accipiter nisus*. ‘Gavilán’. Sin. **kabilddara**.

Gabi-oillar, -ra. ‘Abubilla’. Ik. **argi-oillar**.

Gabonak. Eguberriak. ‘Navidades’.

Gabon-subil, -la. Gabon egunian erretoko eukitten zan egurra, aurretik apartautakua. ‘Tronco escogido para

que arda en la cocina por las fiestas de Navidad’. *A zelakotxe Gabon-subilla xakok/n honetxek!* (basuan egur ederra ikusi eta hitzetik hortzera jasotako esaldixa).

Gain, -ña. Gaina. ‘Encima, sobre’. *Jarri egizu lora batzuk mahai gainian*.

Gaiñazpi egin. Bueltia emun. ‘Dar la vuelta’. *Mundu honek gaiñazpi egin dau azkeneko larogei urtetan*.

Gaiñera, -ia. *iz.* Mendi-gaiña, bizkarra. Altu-unia. ‘Alto, parte más alta, superficie superior, altura’. *Gaiñerarik gaiñera ibiltten dira horreik betek./ Bihorrik baxabillan gaiñeran? / Guazen honezkero horra gaiñeraraiño*. Sin. **tontor, gaillur**.

Gaiñera. *junt.* Gainera. ‘Además’, encima’. *Geuk egin lana eta gaiñera geuk pagau bihar? Hori etxagok/n ondo!*

Gaiñetiko, -ua(k). Gainerako. ‘Lo demás, lo restante’. **Beste gaiñetikuan**. ‘Por lo demás’.

Gaintxirri, -xa. Urdaixaren gizenpusketia zartagiñan erreta. ‘Chinchortas’.

Gaiñubeta, -ia. Kutxillo haundixa, zurezko kirtenduna. ‘Cuchillo grande con mango de madera’.

Gaitzikusi, -xa. Pertsona gogorra eta sufritten ikasittakua. ‘La persona dura y hecha a sufrir. El que ha visto lo malo’.

Gaitzosatu. Gaizki osatu. ‘Mal curado, -a’. *Lehen gaitzosatu egin xaten eta barrero be enabil ondo./ Gaitzosatuaren kontuak dira horreik: gaur ondo eta bixar gaizki*.

Gaixoki, -xa. *ald. gaixoti*, -xa. Errez gaixoketan dana. ‘Enfermizo, -a’. *Umetan oso gaixokixa izan zan*.

Gaizkille, -ia. Okergillia. ‘Malhechor, -a’. *Gaizkillia zein izan dan badakitue?*

Gaizkittu. Okerrera egin norbaiten osasunak, okerrago egon osasunez. ‘Empeorar’. *Zeñek ekarri dau ba Joxe gaizkittu dan barrixa?/ Puntura arte*

politto ibilli da, baiña orain gaizkittu egin da.

Galbaha, galbahia. Galbahe. ‘Criba’. Bahia baiño sare senduagokua, aliak edo gauza senduak bereizketako. Ik. **bahe**.

Galda, -ia. Bero haundixa. ‘Calor del sol. Eguzki-galdia, sol de justicia’. *Izugarriko galdia dago./ Zer egitten dozu hor eguzki-galdatan?/ Eguardi-galdan.*

Galdu. 1. ‘Perder’. 2. Saldu, traizionau. ‘Traicionar’. *Nik etzaut galduko.* Isilpekoren bat-edo esan dotsunari sekretuan gordeko dozula adierazteko, adibidez.

Galtzairu, -a. Altzairua. ‘Acero’.

Ganadu, -a. 1. Azienda. Baserriko abere haundixen moltzua (ardi, behi, asto, bihor...). ‘Ganado, cabeza de ganado’. 2. Jenixo txarrekua edo bizikua. ‘Bicho, trasto, elemento, pieza’. *Hau da ganadua!/ Ha jarri da ganadua!/ Entzuten dauenian ganadu edarra jarriko da!*

Ganaduzain egon, fan, ibilli... *adb.* Aixkomente behiak zainketan egotia eurak larraan dabiltezin bittartian ‘Generalmente estar cuidando vacas mientras pacen’ *Goizian ni egon naiz ganaduzain eta arratsaldian zeuri tokaitten xatzu.*

Ganaduzain, -ña. Behi edo beste abere zaintzaillia. ‘Vaquero, -a de vacas u otros animales’. *Zein da, ba, beheko zelaixan ikusi doten ganaduzaiña? Geure txikiñena!*

Ganora, -ia. Fundamentua. ‘Fundamento, fuste; buenos o de calidad’. *Nik han ganora gutxi ikusi dot./ Ganoraz ebiltzen hareik lanian./ Erosi egidazu ganorazko fraka batzuk, bihar dan modukuak.*

Ganorabage, -ia. *ald.* **ganorabariko**, -ua. Ganorabakua. ‘Sin fundamento o fuste’. *Ganorabagia galanta da hori.*

Ganorazko, -ua. Fundamentuzkua, tajuzkua. ‘De fundamento, de fuste’. *Etorri bihar dan emakuma hori izan leike ganorazkua.*

Gantxirri, -xa. Pertsona hasarrekorra. ‘Persona irritable’.

Gantxor, -ra. *Urdai-gantxorra*. ‘Tocino frito’

Gantz, -a. Txarri edo oilluen koipia; txarri-gantza, oillo-gantza. Baitta perstonena be. ‘Grasa’.

Gantzak euki. 1. Balore edo ausardixa haundixa izan. ‘Tener arrestos’. 2. Patxada haundixegixa edota ardura gutxi euki. ‘Tener hígados’. *Hik dakok/n gantzak, hik. Zuk dakozu potruak, zuk!/ Hik dakoken gibelakin banastatxo bat ondo bete llekek.* Sin. **gibelak euki, potruak euki**.

Gara, -ia. 1. Landara batzuk (kipulia, berakatza, arbixa...) loraketan diranian sortzen dauen lora-kirten luzia. ‘Tallo en las lechugas y otras hortalizas que por crecidas van espigando’. 2. *Egingo diran gáruak egindda dagoz.* ‘Se dice de los jóvenes: estatura’.

Garaatu. Landariari garia sortu eta luzetu. ‘Espigarse lechugas y legumbres’.

Garagar, -ra. ‘Cebada’.

Garagarrak irabazten. Astua hankaz gora bizkar gaiñian tarraska, azkurak kentzen eta bizkarra garbiketan jardun. ‘Se dice de los vuelcos y las volteretas que dan las caballerías sobre su dorso’. Ohian buelta eta buelta dabillenari be esaten xako. *Zer, garagarrak irabazten ala?*

Garagarril, -la. Uztaila. ‘Julio’.

Garai, -ko, -kua. *top.* Baserri izen batzuetan ebalten da, izen bardiñeko etxien artian goixenengua dala erakusteko. Agerre Garaikua, Garaikua, Koixkar Garaikua... ‘El del alto, el de arriba’. Sin. **Goikua, Goittikua**.

Garai, -xa. 1. Garaia, sasoia. *Udia izaten da plaiara fateko garaixa. /*

Oraintxe da garaixa./ Bere garai da etorri. ‘Tiempo, época, momento’.
Garaiz. ‘A tiempo, temprano’. *Garaiz damutu da./ Garaiz etxeratuko naiz.*

Garbantz, -a. ‘Garbanzo’.

Garbittu. 1. Zikiña kendu. ‘Limpiar’. *Erropia garbittu; hagiñak garbittu.*
2. Hil. ‘Morir, matar’. *Han garbittu zuan./ Frentian garbittu euen.*

Garbitzaki, -xa. Erlauntzak, gaztan-zimitzak eta abar garbiketako erreminttia. ‘Instrumento para vaciar perretas, apatres, gaztan-zimitzes, colmenas, etc., con un filo arqueado y vuelto hacia atrás’.

Gari, -xa. 1. ‘Trigo’. 2. ‘Verruga’. Eskuko garixak kentzeko ohitturia zan peseta edo erriel batekin igurtzittia garixori eta gero txanpona botatia Arantzazuko Kurtzipizioko kaperara. *Eskuetan garixak urten dostai.*

Garixa jo. Alia eta lastua bereizi. ‘Trillar’. *Gari joten emun geben egun dana.*

Gari-kaiña, -ia. Gari-landariaren kirtena. ‘Caña del trigo’.

Gari-lasto, -ua. Igartutako gari-landaria, garixa jo eta gero geraketan dana. ‘Paja (del trigo)’.

Garoin, -ñak. Garuna(k). ‘Sesos’. *Garoiñetan be hestiak xakuai/xakonai honeik!* Aseeziñezko gosia izatia adierazten dau. ‘Tener tripas hasta en los sesos’. **Garoiñak zulatu.** Gauza bera behin eta berriz entzutiagatik, edo zarata haundiren bategatik, edo edozerregatik, burua/burutik ernegau. ‘Volverse loco. (fig.)’.

Garramil, -lak. Gar bilddurgarrixak. ‘Lenguas largas de llamas que se levantan en un incendio’. *Izugarriko garramillak egon dira hor./ Tremendako garramillak ikusi gittuan Naparbasotik getozela.*

Garramisto, -ua. Garrasixa. ‘Grito, chillido’. *Nik hor lehen garramisto bat entzun dot./ Zer dira garramisto*

horreik?/ Garramisto haundixak bota dittu umiak, larrittu danian.
Garramistoka. *adb.* Garrasika, txillixoka. ‘Gritando, chillando’.

Garranga, -ia, garrangaak. Txintxiliz egoten dan izotz-kandelía. ‘Carámbano’. *Begira zuen teillatutik behera dagozen garranga horreik./ Honeik dira garrangatzarrak!*

Garrasi, -xa. Garrasia. ‘Grito, chillido’. *lk. garramisto.*

Garratz, -a. 1. ‘Ácido’, ‘agrio’. *Naranjak garratzak dagoz.* 2. Fuertia, sendua, errutsua. Fuerte, robusto, -a’. *Idi garratza; gizon garratza.* 3. Gogor. ‘Con fuerza’. *Eurixa garratz da (eurixa da goixan-behian).*

Garraztu. Garratz bihurtu. ‘Agriarse’. **Sua garraztu.** ‘Avivar el fuego’. **Segia garraztu.** Afilar la guadaña’. **Txahala garraztu.** Txahala hazi, haunditu. ‘Crecer la ternera’.

-Garrengo, ua. Hurrenkera atzizkixa. ‘Sufijo que indica orden de elementos; numero ordinal’. *Zenbatgarrenguan? Zazpigarrenenguan asmau neben./ Txarrixak jaixo, bai, eta bost miñutugarrengo esnia eraten euen.*

Garrotillo, -ua. ‘Difteria’, ‘garrotillo’.

Gatz, -a. ‘Sal’. *Zopiari gatza ifinttia ahaztu xatzu.* **Gatzian probau.** Zelakuak dagozen probau, edo zelakuak diran ikusi. ‘Comprobar’. *Zer moduz dabiltz umiak? Etorri eta gatzian probauko dittuzu.*

Gatz-ur, -a. Ura gatzarekin. ‘Agua con sal’.

Gatzagi, -xa. Legarra. ‘Cuajo’. *Sin. legar.*

Gatzatu, -a. *ald. gatzato*, -ua. Mamia. ‘Cuajada’.

Gau, gaba. Gaua. ‘Noche’. *Gabeko zaratak entzun dittuzue? / Bart gabian ibilli da hor zaratia eta droga!*

Gauero, -ua. 1. Gau-aroa. Giro ona aixkomente: izarratua, hotzik ez... ‘Sazón, temperatura, estado de la

noche'. *Zelako gauerua daguen!/
Kanpuan lo egitteko moduko gauerua!*

Gau-txori, -xa. Gabaz ibiltten dan hegatzia. 1. 'Ave nocturna'. 2. 'Trasnochador; en gral., todo aquel que tiene su actividad de noche'.

Gauza, -ia. Gauza. 'Cosa'.

Gauza izan. Gai izan. 'Ser capaz'. *Gauza izan dan bittartian makiña bat lan egindakua da hau!*

Gauzatu. Lanerako gauza eztan bat lanerako moduan jarri. 'Volver a estar bien, como para poder trabajar'. *Eztakit gauzatuko dan.*

Gaza, -ia, gazaak. Sagarren gain berbetan, dultzia. 'Dulce, hablando de manzanas'.

Gazi, -xa. Gatz askoko gauzia. 'Cosa que está salada'.

Gazigarri, -xa(k). Lapikuan sartzen dan urdai pusketia edo beste jaki gazi bat 'Trozo de tocino u otra cosa salada que se mete en el puchero'; urdaixa, txorixua... zartagiñan erreta. 'Tocino, chorizo... frito en sarten'.

Gazikor, -ra. Gatz larregirekin. Gazixa. 'Salado, -a. Con demasiada sal'. *Hau gazikorra dago./ Janari gazikorrak.*

Gaztae, gaztaia. Gazta. 'Queso'. **Gazta-mamiña**. 'Queso fresco'. Gaztagintzan gazuria kendu eta gero geraketan dan mamiña.

Gaztaiña, -ia. 'Castaña'. *esr. Gaztaiñak hagiñak zabaldu dittue* Gaztaiñai koskolak zabalketan xatenian esaten da. 'Las castañas han empezado a abrirse'.

Gaztaiñadui, -xa. Gaztaiña-arboladuixa. 'Castañar, castañal'. *Honeik lehen danak gaztaiñaduixak ziran./ Gaztaiñaduiira goiaz.*

Gaztaiña-eskorta, -ia. Gaztaiña koskol eta guzti gordeteko itxituria. 'Corral o cerrado hecho de seto en el campo para conservar castañas, etc'.

Gaztaiñerre, -ia. Erretako gaztaiña. 'Castaña asada'. 2. **Gaztaiñerre-eguna**.

'En Eibar se celebra el segundo lunes del mes de noviembre'. 3. **Gaztaiñerre-jana**. 'Comida a base de castañas asadas'.

Gaztantegi, -xa. Gaztaiak egin, edota gorde, edota keetu egitten diran lekua. 'Quesería, lugar donde prensan o guardan los pastores sus quesos'. *Gaztantegi barri-barrixa egin daue./ Ekarri gaztantegittik gazta bat!/
Gaztantegixan ibilli naiz, keia gertaketan.*

Gaztan-tximitx, -a. Gaztanontzixa. 'Encella, formaje, molde para hacer quesos. Quesera'.

Gaztelaize, -ia. Hegoaldetik joten dauen haizia, beruena. 'Viento sur, el más caluroso'. *Gaztelaizia dabil gaur.*

Gaztel-hegua, gaztel-hegoia. Gasteiz aldetik datorren haizia, oso epela. 'Viento sur, muy templado'.

Gaztetxe, -ia. Gaztien dibersiño eta kultura etxia. Oñatin asmautako izena. 'Casa de cultura y actividades lúdicas para los jóvenes.' *Oñatikua izan zan lehenengo gaztetxia./ Kontziertua Bergarako gaztetxian./ "Herri bat gaztetxe bat".*

Gazura, -ia. Gaztaia egin eta gero, geraketan dan esne mehexka antzeko likidua. Gaztagintzako berbia. Gazuria ebalten zan txarrixak gizenketako: baserri guztietan, Degurixan/Urbixan artzaiñak... Etzan gazurarik alperrik galtzen. 'Suero (de la leche, de la sangre)'. *Gaztaia egin eta gero, gazuria txarrixairi emuten xaten./ Degurixako artzaiñak makiña bat txarri hazten zittuein gazuriagaz./ Mutikotan makiña bat erandakua nauk/n.*

Gehittu. 'Añadir'.

Gehixegi. Gehiegi. 'Demasiado, -a'. Sin. **larregi, gehitxo**. *Gehitxo jan dot! Berandutxo akordau haiz!*

Gei, -xa. Gaia, gaitasuna. 'Capacidad, habilidad, aptitud'. *Geixa bihar ezer egingo bada.*

Gela, -ia. ‘Celda’, ‘cuarto’. *Ardangela*. ‘Bodega’. *Urungela*. Uruna gordeteko kuartua. ‘Cuarto de la harina’.

Gelaatzu, -a. *ald. galaatzu*, -a. Laratza. Beheko suan goiko paretatik txintxiliz egoten dan kate kakoduna; handik txintxilikaitten da kaldaria. ‘Cadena de hierro en el hogar’. *Odolostiak egosten diranian, kendu kaldaria gelaatzutik. esap. Etxian-etxian gelaatzua baltza eta geurian baltzena!* ‘En todas las casas cuecen habas y en la mía a calderadas’.

Geldi, -xa. Lasaia. *Eguraldi geldixa*. ‘Tiempo tranquilo’.

Geldigor, -ra. Geldik egon ezin dan pertsonia; umia, batez be. ‘Nervioso, -a, inquieto, -a’. *Pertsona geldigorrakorik eztot ezaguketan! Buztanikaria baiño geldigorragua.*

Geldo, -ua. 1. Energia gutxi eskaketan dauen lana; nekaketan eztauen lana. ‘Lento, calmado’. 2. Odol gutxiko pertsonia, motela. ‘Flojo, -a, parado, -a’. Sin. **motela**.

Gerri, -xa. 1. ‘Cintura’. *Gerrixan gerrikua!* 2. Arbola-enborra. ‘Tronco del árbol’.

Gerrikua egin. Arbolaz berbetan gabiltzela, bere gerrixan bueltan azal gutzia zuriketia igartu degixen. ‘Referido a un árbol, cortar la corteza en toda la circunferencia para que se seque’.

Gertatu. ‘Preparar-se’. *Umiak gertatu bihar dittut aratiztittan urteteko.*

Gertu. Prest. ‘Preparado, -a, dispuesto, -a’. *Gertu dakot dana aratiztittan urteteko. Gertu egon*. Prest egon. ‘Tener o estar preparado’. *Gertu zagozei nerekin etorteko? Afarixa zortziretarako gertu egongo da.*

Gibelaundi, -xa. Gauzairi bihar dan inportantzia emuten etxaona. ‘Calmoso, -a, cachazudo, -a, despreocupado, -a’. Sin. **potroaundi**.

Gibelurdin, -ña. 1. *Russula cyanoxantha*. Kolore gama zabala dakon perretxiko gozo eta ezaguna. 2. ‘Koroso’ izenekua, berriez, *Russula Virescens* (berdia). ‘Nombre que reciben algunos hongos del género Russula, en particular la seta de cura (Russula Virescens)’.

-Giñan. ‘Egitten’ adierazten dauen atzizkixa. ‘Sufijo que significa haciendo algo: cestos, barricas, quesos, etc’. *Banastagiñan, barrikagiñan, gaztagiñan, kakagiñan, masagiñan, teillagiñan, txirrinkagiñan, txixagiñan, txokolategiñan, umegiñan.*

Girgil-zarata, -k. Hasperenak. Gozamenezko zizpuruak. ‘Suspiros de gozo’. *Eguardixan girgil-zaratak entzuten ziran aldekuan.*

Gixarajo, -ua. *ald. gizarajo*, -ua. Gizagaixoa. Koittadua. ‘Desgraciado’. Errukixa emuten dauen pertsonia. Femeninua danian, *gixaraja*, -ia ebalten da. *Gure Patxi ziharo gixarajotuta geratu zan alargundu zanian.* Era maitakorrian edota ofensibuan ebali leike. ‘Pobre, cuitado, desgraciado’.

Gixarra, -ia. Giharra. ‘1. Magro. 2. Musculo’.

Gixi, -xa. Huskerixia, ezer gutxi. Legazpin: gilba. ‘1. Brizna de nieve. 2. Hebra, filamento. 3. Porción pequeña’. *Edur-gixixak./ Gixitxo bat eukan platerian eta itzi egin dau./ Ogi gixi bategaz txorixo mutur bat./ Hari gixixak./ Bedar gixi batzuk./ Euri-gixixak hasi dira.* 4. **Amorrain-gixia**. ‘Alevín de trucha’.

Gixixaatu. Zerbait gixi-gixi egin, esate baterako artillia, bedarra... ‘Hacer pedacitos o trozitos’.

Gizagin, -ña. Gizaseme izaten edo gizasemetasuna erakusten lagunketan dauen zerbait. ‘Lo que contribuye al buen desarrollo de la persona’. *Ibillera hori ezta gizagiña.*

Giza-narru, -a. ‘Malhechor, -a’, ‘sinvergüenza’. *Etxakun guk hemen gizanarrurik!* ‘Expresión utilizada para animar a entrar en una casa a uno que no se atreve’.

Gizarajo, -ua. Pobre, cuitado, desgraciado. Ik. **gixarajo**.

Gizato, -ua. Gizontzarra, gizonkotia, gizon haundixa. *Zelako gizatua!// Ikaragarriko gizatua egindda dago, sendua eta bardiña.*

Gizen, -a. 1. Lodia, potoloa. ‘Gordo, -a, obeso, -a’. 2. Okeliaren gizenak. Okeliak dakon sebo eta grasak, jateko hain onak eztiranak. ‘Sebo, grasa’.

Gizenkote, -ia. Gizen samarra. ‘Bastante gordo, -a’.

Gizongei, -xa. Senargaia. ‘Novio’. Sin. **senargei**. fig. **zahargarri**, -xa. (con el que vas a envejecer) Alkarrekin zaharketakua. Arantzazuko neska batek bere nobixua amandriari aurkeztu otsanian, hauxe esan otsan harek: *Hau dozu zahargarrixori? Zaldun ederra, bera!*

Gizurtero, -ua. Gezurtia. ‘Mentiroso, -a’. um. *esr. Gizurtero, patatero, ogi txiki, panadero*

Gobernau. 1. Ganaduari jaten emun eta azpizak egin. ‘Alimentar, atender el ganado’. 2. Etxeko gorabeherak eruan. ‘Gobernar(se), administrar(se); regir, dirigir’.

Gogaikarri, -xa. 1. Petrala. ‘Molesto, -a, fastidioso, -a’. *Bezero gogaikarrixa.* 2. Gogait eginda, petral. ‘Aburrirse, fastidiarse, hastiarse’. *Amarekin gogaikarri gabiltz./ Gure umia gogaikarri portau da.*

Gogait egin. Nekatu, aspertu, burutik gora egin. ‘Aburrirse, fastidiarse, hastiarse’. *Gogait egin dot ale onak eta txarrak apartauten./ Gaur gogait egingo zeben horregatio, gizon petral horregaz!*

Gogait eragin. Amorratu eragin, higuinddu, aspertu. ‘Producir asco o

aburrimiento, hacer renegar. Cansar’. *Hainbeste preguntakin gogait eragin dost!*

Gogor, -ra. 1. Biguna eztana. ‘Duro, -a, solido, -a’. 2. Haundixa, luzia. ‘Grande, larga’. *Honek illara gogorra dako* (ale askoko illaria). 3. Saiatuaz, ahalegiña egiñaz. ‘Duramente’. *Gure gazte denporan bizimodua etarateko gogor egin bihar izan geben lan.*

Gogortu. 1. Gogor bihurtu. ‘Endurecer(se), entumecer(se)’. 2. Osatu, inddartu. ‘Curarse, mejorarse’. 3. Zakilla zutittu. ‘Empinarse el pene’.

Goiberaak. Gorabeherak. ‘Las vicisitudes’. Fig. *Bizitzako goiberaak.*

Goikortz, -a. Sabaia (Araotz) ‘Techo’. *Gaur goikortza pinttau bihar dogu.*

Goitxetar, -ra(k). Arantzazuko auzokuairi izendaitteko araoztarrak ebalten dauen izena. ‘Los vecinos, -as de las casas de arriba. (del barrio de Arantzazu)’

Goizal, -a. Goizalba, egunsentixa. ‘Aurora, alba’. *Gero, ba, goizala aillegau zan, baiña etzin egin bihar apur bat ardixak jaizteko gauza izateko.*

Goizaro, -ua. Goizeko girua, goizeko arua. ‘Temperatura agradable de la mañana’. *Etxe barruan baiña giro hobia egitten dau kanpuan; hau goizarua! Aspaldixan etxok/n egin horrelako goizarorik.* Sin. **goizgiro**.

Golondriño, -uak. Besazpitan urteten dauen koskorak. ‘Absceso’.

Gomuta, -ia. Oroitzapena. ‘Recuerdo, memoria’. *Eztaukot horren gomutarik.*

Gona, -ia. ‘Falda’.

Gor, -ra. ‘Sordo, -a’.

Gorantziak. Eskumiñak. ‘Recuerdos, saludos’. *Gorantziak andriari, amari eta etxeko danairi!*

Gorbeixano, -ua. Gorbeixa aldeko haize hotza, amillana baiña indartsuagua. ‘Viento frío proveniente de la zona del Gorbea, más fuerte que el

viento llamado 'amillana'. *Gorbeixano honek eramaittu hotza ekarriko dau, ba!*

Gordasul, -a. 'Paraguas'. Ik. **guardasol**.

Gorde-gordeka. Juego del escondite'. Ik. **bule-buleka**.

Gordin, -ña. 1. Janarixa, egosi edo erre barikua. 'Alimento crudo'. 2. Pertsona, sasuekua. 'Robusto, -a, lozano, -a'. *Emakume gordiña/. Gizona gordiña dago*.

Gorittasun, -a. 'Calentura'.

Gorittu, *goriketan, goriketia, gorittuko*. Burdiña berotu gorri-gorri ifiñi arte. 'Poner el hierro al rojo o incandescente'.

Gormutu, -a. 'Sordomudo, -a'.

Gorputzaldi, -xa. Gorputzeko adoriaren egoeria, normalian txarra. '(estado del) cuerpo'. *Oso gorputzaldi txarra dakot*.

Gorpuzkera, -ia. Gorputzaren egitturia. 'Traza, aspecto corporal'. *Gorpuzkera baldarra./ Haren gozpuzkeria be!*

Gorraize, -ia. 'Sordera'. *Zer, gorraizia dakozu ala?*

Gorri, -xa. 1. 'Rojo-a (adj.)'. 2. Soilla. 'Pelado, -a, desnudo, -a'. *Mendi gorrixan, zeru gorrixan, bakardade gorrixan...* Mendi zabalian, zeru zabalian, bakardade hutsian... 3. Ziharo larrixa edo haundixa. 'Crudo, duro, severo, -a, vivo, agudo'. *Negu gorrixa*. Negu latza, gogorra. *Miseria gorrixan*. Miseria latzian, haundixan. *Min gorrixa*. Min bizixa, haundixa. *Gorrixak ikusi*. Gaizki pasau. 'Pasarlas moradas'. *Mediku horreik gorrixak ikusi eragingo dostai*. 4. *Alegorrixa*. Mezetara faten etzanari esaten xakon. 'Se dice de la persona que está apartada de la Iglesia'. *ad. lok. Gorri egon*. 1. Xemiko barik egon. 'Estar sin blanca'. 2. Hillekuarekin egon. 'Estar de menstua'

Gorriña, -ia. Gorrina. 'Mildiu. Nombre genérico de las enfermedades que atacan los cultivos'. Landaraan gaitza. Hezetasuna eta haize hotzarekin sortzen

da, orrixak horittu eta baltziketan dirala landaria hondatuaz. Tomate, patata eta abarrek eukitten daue gorriña.

Gorriñaatu, *gorriñaaketan*. Landariari gorriña sortu. 'Enfermarse las plantas, contraer roya'. *Aurten tomatia gehixena galdu xat, gorriñaatuta*.

Gorritu, *gorriketan, gorriketia*. 1. Gorri koloria hartu. 'Enrojarse'. 2. Egoeria-edo larritu. 'Ponerse la cosa oscura, complicada'. *Ur barik geratu giñanian, gauzia gorriketan hasi zan, eta pandemiarekin zer esanik ez*.

Gorulari, -xa. Harixa goruarekin egitten dauena. 'Hilandero, -a'. **Goruetan egin**. Goruagaz harixa egin. 'Hilar'. *Goruetan ziharden bittartian sorgiña sartu xakon tximiñixatik katu forman*.

Gose, -ia. 1. Jateko biharra eukittia. 'Hambre'. 2. **Pertsona gosia**. Pertsona diruzalia, ezegaz be konformaiten eztana. 'Egoista, codicioso, -a'. *Lehenengo erlaak, gero basuak, orain baserrixa be berarendako gura dau. Hori da gosia izatia! Eztakit zela izan leiken hain pertsona gosia*. 3. **Gosiak ikusi**. Gosia pasau. 'Pasar hambre'. *Gerra ostian guk ikusi gittuan gosiak!* 4. Gogua, biharra. 'Deseo, anhelo'. *Eguzki gosia. Lagun gosia. Ikasteko gosia*.

Gose antz, -a. Gose apur bat. 'Hambre ligero'. *Gose antza egin ete xaten. / esr. Gose antzian eta zor antzian bizi*. *Gose antzian eta zor antzian bizi izanda hartzen ei dira urte asko*.

Gozakaitz, -a. 1. Pertsona edo animalixa ziztriña-zatarra edo zakarra. 'Irritable, colérico, -a, desagradable'. 2. Zeozer latza. 'Duro, -a, esteril'. *Buztin-lur gozakaitzak*.

Gozatu. 1. Bigundu, samurtu. 'Ablandar, suavizar'. *Lur honeik oso gogorak dagoz, bapebe gozatu barik orainddiok*. 2. Sukalde-kontuetan janari zaporetsua egitteko komeni dana gehiketia. 'Sazonar, condimentar'.

Gozo, -ua. 1. ‘Rico’. 2. ‘Dulce’. *Pastela oso gozua dago.*

Gozogille, -ia. ‘Pastelero, -a’.

Grano, -ua. ‘Grano de la piel’ (Azalekua) *Granoz beteta agertu xaku umia.*

Guardasol, -a. *ald. gordasul*, -a. Aterkia, euritakoa. ‘Paraguas’. *Eguraldi honekin gordasulak atara biharrian gara. / Herrixan denpora batian bost guardasol-fabrika ei egozen: Baltategirena, Kurtzekuena eta abar. Gaurko egunian Ezpeletarenak bakarrik jarraiketan dau.*

Guardasolgilla, -ia. Guardasolak egitten dittuena. ‘Fabricante de paraguas’.

Guardasol-konpontzaille, -ia. Guardasolak konponketan dittuena. ‘El que arregla paraguas’.

Guntzurrin, -a. *ald. kuntzurrin*, -a. ‘Riñón’. *Kuntzurrin bat kendu xaue eta ondo ei dau.*

Gura izan. 1. Nahi izan. ‘Querer’. *Zer gura dozu jateko?* 2. Maite izan. ‘Amar’. *Aitta-amai asko gura xatzue? / Guk asko gura xaugu gure hizkuntziari, baiña itxuria danez, ezta nahikua salbau dadin. Gurago izan.* Nahiago izan. ‘Preferir’. *Arraiña gurago okelia baiño.*

Guri, -xa. Zuri-zurixa, biguna, zailddu barikua. ‘Blando, -a, fino, -a, rollizo, -a’. *Gaztanberia lakotxia, guri-gurixa dago. / Zu eguzkittan berihala erreko zara, guri-gurixa zagoz-eta.*

Gusto, -ua. 1. Zaporía. ‘Gusto, sabor’. *Zopiak ze gusto dako? Gusto txarra!* 2. Girua. ‘Ambiente propicio’. *Eztago ezertarako gustorik. / Fan naiz sorora, baiña alperrik; eztago gustorik. esr. Txonpiok be bere gustua egin ebela! ‘Fulano también hizo lo que quiso’.*

Haabixa, -ia. *ald. haapixa, haafixa*, -ia. Habia. ‘Nido’.

Habrailla, -ia. Habaila. Habraillia harrixak jaurtitteko ebalten zan garai

baten. ‘Honda’. *Ardixak uxaaketako habrailliagaz jaurtitten gittuan harrixak.*

Haga, -ia. Gaztaiñak, intxaurrak, etab. eraisteko edo beste zerbaittarako ebalten dan makilla luzia. ‘Vara, tranca, percha’. *ad. lok. Gaztaiña hagara egin edo hagara galdu.* Jokua adierazten dau. Gaztaiña ixa-ixa helduen daguenian, batzuetan itxaindda irabazi egitten da, beste batzuetan galdu. Askotan euri-zaparrada batek egundoko mesedia egitten xao gaztaiñari, baiña gero zer eguraldi egingo dauen eztago jakitterik. *ad. lok. Garixa igittaira egin edo igittaira galdu* be ebalten da gauza bera esateko. ‘Ambos refranes significan que cuando se apuesta por algo a veces se gana y otra no. Estar [algo] en un tris’.

Hagin, -ña. 1. ‘Diente’, ‘muela’. **Haginka egin**. Horzka egin. ‘Morder’. Ik. **betagin, latagin**. 2. *Taxus baccata*. Arbola. ‘Tejo (árbol)’.

Hagin uixa(k). Oi(ak). Encía(s). *Hagin uixak mindduta dakot.*

Hagindui, -xa. 1. Hagin arbolak dagozen basua. ‘Tejeda’. *Hantxe dago haginduixa.*

Hagiñeko min, -ña. ‘Dolor de muelas’.

Haizaatu, *haizaaketan*. 1. Puztu. 2. ‘Darle alas’, ‘incitar’. *Haizaatu egin daue: ‘le han dado alas, le han incitado’.*

Haize, -ia. ‘Viento’. **Haize zatarra**: haize txarra. *Haize mikatza*: haize hotza eta fiña. ‘Viento frío, cortante’.

Haize-begi, -xa. Haiziak jotzen dauen lekua. ‘Lugar expuesto al viento’. *Belar alde hori oso haize-begixa da.*

Haize-eztul, -a. Katarrua. ‘Catarro, tos sin flema’. *Haize-eztul hau ezta bapebe ona, ba!*

Haize-gaztaiña, -ia. Hagiagaz jo aurretik jausten dan gaztaiña. ‘La castaña que cae antes de varear (no es tan buena)’.

Haize gorri, -xa. Bazterrak gorriketan dittuen haizia. ‘Viento norte, cierzo’. *Haize gorrixa; bazterrak gorriketakua.*

Haizekor, -ra. 1. Haizetsua. Haizerako joeria dakon eguraldixaz: *eguraldi haizekorra*. ‘Tiempo ventoso’. *Iragako aspaldixan eguraldixa haizekorra dabil*. 2. Zoro samarra. Haizetsua. ‘Persona fantasiosa y casquivana’. *Pertsona haizekorra*. 3. Haiziak eta uskarrek atara eragitten dittuena. ‘Alimento que produce aires’. *Babak, azak, gaztaiñerriak... janari haizekorrek dira*.

Haizerre, -ia. Haize berua eta sikua, heguerria. ‘El viento abrasador’. *Hau da haizerria, kiskaldu bihar dogu!*

Haizete, -ia. Haize haundiko eguna edo aldixa. ‘Ventarrón; temporada de viento’. *Haizete luzia eta txarra aste honetakua*.

Haizetsu, -a. Haize askokua. 1. ‘Flatulento, -a’. 2. ‘Persona fantasiosa y casquivana’.

Haizezkutu, -a. Haiziak zuzen jotzen eztauen lekua. ‘Lugar resguardado del viento’. *Arrola haizezkutuan dago./ Hamarretakua egin dogu haizezkutu baten*.

Haize-zurrumbillo, -ua. *ald. haize-zurrumillo*, -ua. ‘Torbellino, remolino de viento’. *Haize-zurrumbillua/zurrumillua urten dau!*

Haizka. Harrika. ‘A pedradas (lanzando piedras)’. *Harramilka eta haizka bialdu (ardixak)*.

Haiztxori, -xa. HEGAZ. *Phoenicurus ochruros*. Buztangorri illuna. ‘Colirrojo tizón’.

Hala be. 1. Artian be. ‘Aún y todo’. *Beriak eta bi esan xangu, baiña hala be ezta asko ikaratu*. 2. Pentsaitten nenguen... ‘Estaba en que, pensaba que’. *Jausi egin ete haizen hala be./ Bertan geraketia pentsau ete duan/dunan hala be*.

Hamaika. 1. ‘Once (numeral)’. *Futbol ekipo batian hamaika lagunek jokaketan daue*. 2. Askok, ugari. ‘Muchos, -as, infinidad’. *Hamaika gizonak pentsaitten daue hori./ Hamaika lagun hiltten da mendixan! Hamaika holako!* Harridura

espresioa. ‘¡Cuantos como esos!’.

Hamaika holako pasaitten xaku guri!// Hori egin dauela? Hamaika holako!

Hamarratz, -a. Armiarma. ‘Araña’.

Hamarretako, -ua. Goizeko hamarrak aldera egiten dan otordua. ‘Almuerzo’.

Hanka, -ia. Mokorretik belauneraiñokua *iztarra* da, eta belaunetik hankaraiñokua *bernía*, baiña guztia *hankia* da. ‘Pie, pierna, pata’. Dana dala, “pierna” eta “pie” izendaitteko be ebalten da hanka. *Mahaixan danok kabitteko hankak batu./ Atakia emun eta gero hankak geratu xako. / Balleteko dantzariak hanka puntetan dantza egiten daue. / esap. Jainkua lagun eta hankak arin. / ad. lok. Hankapeian hartu, ostikopeian hartu*. Zapaldu. ‘Pisar, oprimir’.

Hankabakar, -ra. LAND. *Medicago sativa*. Alpapa. ‘Alfalfa’. Ganaduari jaten emuteko ereitten dan bedarra. Jatorriz Erdialdeko Asiakua.

Hanka egin. Ihes egin. ‘Escapar’.

Hanka-gorri, -xa. Ume jaixobarrixa (euf.). ‘Se dice del recién nacido, -a’. *ad. lok. Hanka-gorrixak agertu*. Umiak jaixo. ‘Tener un hijo, -a’. *Hanka-gorrixak agerketan badira, espabilau biharko dozue!// Hanka-gorrixak agertu dittuk-eta, orain ezin ibilli lehen letxe*.

Hankaide, -ia. Hanka onak dittuena, aidosua. ‘Ritmo airoso al andar’. *Nik horren diruak baiña gurago zure hankaidia./ Zure hankaidiaz fan, baitta Iruñeraiño be!*

Hankaideka. *ald. hankairaka. adb.* Araozgo elizatarixan egiten zan ume-jolasa. ‘Jugar a alturitas’.

Hankak jaso. Ihes egin, alde egin. ‘Irse, escaparse’. *Hankak laister jasoko ditxuat/ditxonat hemendik*.

Hanka-jote, -ia. Abixaria, zalapartia. ‘Carrera apresurada escapando de algo’. *Harek eruan eben hanka-jotia!// Hanka-jote ederra jo biharko dogu hori aurrera atarateko!*

Hankalatraba. ‘A horcajadas’. *Lehenago, mutillak asto gaiñian edo motor gaiñian hankalatraba ibiltten ziran, neskaak barriz, hanka bixak alde batera jarritta.*

Hankarte, -ia. 1. Hanka bixen artia. 2. Sexu-ingurua, parteak. ‘Entrepiera o genitales’. *Hankartia urratuta dakot.* Sin. **partiak**.

Hankartarteko, -ua. Zakilla, buztana edo alua, mosoliña. ‘Lo que está en la entrepierna’.

Har, -ra. ‘Gusano’.

Haraiñegun. *ald.* **haraiñun, heraiñegun, heraiñun.** Herenegun. ‘Anteayer’. *Aste honetan bi azidente ikusi dittut: haraiñegun bat eta gaur beste bat.*

Hardui, -xa. Harriunia, harri suelto asko daguen lekua. ‘Pedregal; cantera’.

Hareharri, -xa. ‘Piedra arenisca’. *Oñatiko unibersidadia hareharrixaz egindda dago.*

Harei, -a. Hondarra. ‘Arena’. *Plaiako hareia.*

Hargin, -ña. Harrixa lantzen dauena. Harlantzailia. ‘Cantero, -a, picapedrero, -a’. *Hargiñen bategaz egon biharko dot./ Hau edozein hargiñek egingo dotsue./ Etxian-etxian hargiñak.* (Etxe danetan hargiñak). Baserri izena: Argiñena (Garibai auzuan).

Hargintza, -aia. Hargin-lana, hargiñaren ofiziu. ‘Cantería; oficio, actividad de cantero’. *Hargintza danak eztira bardiñak./ Hargiña hargintzatik bizi da./ Zuek egin dozue hargintzaia!*

Hari, -xa. ‘Hilo’. **Harixan egon.** Juxtu-juxtuan egon, larri egon. ‘Estar en un hilo’. *Azkenengo harixan egon zuan ha!// Zer moduz dago osaba? Harixan!*

Hari-albeni, -xa. ‘Hebra de hilo’. *Hari-albeni bat.*

Harigei, -xa. Harixa egitteko lehengaixa. Artillia aixkomente. ‘Material para hacer el hilo’. *Harigei pottua!// Harigei barik geratu gara.*

Hariztui, -xa. Haritz basua. ‘Robledal; robledo’. *Garaiko potuan ei eguen hemen hariztuirik ikusgarrixena garai baten./ Horraitxek dako! hariztuixa politta.* ‘Garaiko potua’ Araotz auzoko Uriarte [uxarte] auzuanan eguen, eta hangiak ei dira Araozgo elizako zutabe harrigarrixak. ‘Aiastui’ abizena be hortik etorri leike.

Harlantzaille, -ia. ‘Cantero, pedrero’. Ik. **hargin**.

Harmora, -ia, harmoraak (pl.). Edozein harri pill. ‘Montón de piedras, almora; túmulo’. *Gaillargaiñeko harmoratik eruan ei ziran Agustiñuetako elizia egitteko harririk./ Soruak labraitzen urteten euen harrirakin harmoria egitten zan soro onduan.* Gaillargaiñeko harmoria Arantzazuko Gaillaur erdikuaren harrobi zaharrian eguen.

Harramil, -la. Harri-jausia. ‘Desprendimiento de piedras’. *Harramilla etorri da eta eztago pasauterik.* **Harramilka.** Harririk erripan behera jare egiñaz. ‘Suelta de piedras rodando cuesta abajo’. *Harramilka eta haizka bialdu ardixak.*

Harrapatzaille, -ia. Harrapaitten dauena. ‘Experto [en cazar zorros]. Zorrero, -a’. *Aixal-harrapatzailia.* / *Hiru aixal-harrapatzaille ibilli ziran Olabarrietan.*

Harrapau, *harrapo, harrapaitten.* 1. ‘Atrapar’, ‘coger’. *Platerra jaustera xoian eta justo-justo harrapau neben esku artian./ Urtiagain aldeko basotik alde egin eben basaurdia harrapau daue.* 2. Oostu. ‘Robar’. *Anaiak erropa guztiak harrapaitten dost./ Motorra harrapo dostai.* 3. ‘Sorprender’, ‘pillar’. *Gizurretan harrapo geben.* **Harrapo-harrapoka.** Umien jolasa. ‘Juego infantil’.

Harrate, -ia. 1. Esparru edo itxitura batian ganaduak edo gizonak (kazaririk-eta) edo haiziak edo edurrak zabaldu dauen zulua. ‘Paso o agujero abierto en un cercado’. *Halako lekutan harratia egin da eta ixtera noia./*

Erromara onduan dago harratia egindda./ Nundik egin daue harratia? 2. Haitz bittartiak, haitzen arteko bidiak. ‘Desfiladero’. *top. Urbixako Arratia, Andartoko Arratia, Bakueko Arratia, Infernuko Arratia, Arrobalzko Arratia (Beillotzaa aldeko pasua), Eibarko Arrateko Ama Birjiña, hortik ‘Arrate’ andra izena.* 3. Ebagi haundixa, zauri haundixa. ‘Herida o cortada grande’. *Ikaragarriko harratia egin dau.* 4. *Arrátia egin sasian ebagitta.* ‘Abrir paso cortando la maleza’.

Harrezkero. ‘Desde entonces’. *Ezkondutik eta harrezkero ezta gehixago etorri.*

Harri xehe, -ia. ‘Gravilla’. Sin. **hartxinga.**

Harri, -xa. 1. ‘Piedra’. **Harrika.** Harrixak botaten. *Denpora batian esaten denez, araoztarrak harrika egitten osten kaletarrai auzora fan ez zittezen.* 2. ‘Pedrisco’. Kalte haundixak egitten ditte udan. Naparregoiak ekarten dau. *Harrixa egin dau./ Harrixak kotxiak-eta markauta itzi ditte./ Landara honek harrixaren ikutua dako./ Hor harrixak bazter guztiak xehetu ditte.*

Harri-ikatz, -a. Ikatz miñerala. ‘Carbón mineral’. *Harri-ikatz etortzen zan barkuan Asturiastik Zumaiako portura, eta handik bihar zan lekura partitzen zan.*

Harrijasotzaille, -ia. Harrixak jasoten dituen kirolarixa. ‘Levantador, -a de piedras’.

Harrijole, -ia. Harrixa jo eta xehketan dauena. Antxiñako ofiziu. ‘Picapedrero, triturador de piedra’. *Harrijolerik? Nik eztoz harrijolerik ezagutu.* Sin. **harrijoilla.**

Harrilaari, -xa. Artaazixak zorroztu eta desbastia harrixan egitten ebena. ‘El que trabaja en la piedra rotatoria que servía para desbastar cañones o tijeras’.

Harro, -ua. 1. Orgulloso, -a. 2. Vanidoso, -a.

Harroputz, -a. 1. Harrua. 2. ‘Fanfarrón, -ona, arrogante, soberbio, -a’.

Hartxingadui, -xa. Hartxinga (harri txikiña, harri xehia.) lekua. ‘El lugar donde abundan las piedrecillas’. *Andartoko hartxingaduixa.*

Hasarratu, *hasarraketan.* Haserretu. ‘Enfadar(se), enojar(se), enfurecer(se), encolerizar(se); reñir, disputar. Azorarse’. *Samur hasarraketan dan horreittakua da. ‘Aitta hasarretu da’ esan ordez, ‘aittari hasarretu xako’ be entzun leike.* ‘El padre se ha enfadado’.

Hasarre, -ia. Haserrea. ‘Enfado’. *Arrazoi bariko multia/isuna jarri otsain, eta oso hasarre etorri zan.*

Hasi. Ekin. ‘Comenzar’. **Hasixan hasi.** Lana edo zeregiña ganoraz hasi. ‘Comenzar de veras’. *Hasixan hasi! Bestela noizko akabo lanok!// Pellorekin egon eta gero, zuzenian etorri naiz zuregana. Badakitzu, hasixan hasi!*

Hats, -a. 1. Usain txarra. 1. Hedor, mal olor’. *Hemen dago hatsa! Zerbait ustelketan dago.* 2. ‘Sarna’.

Hatz, -a. Eskuko bihatza. ‘Dedo de la mano’. Lehenago halaxe esaten ei xakon bihartzari Araotzen. **Hazkada bat edo hatz bat.** ‘Un palmo’. *Hatza gora, eztixa darabilienian.* (Mantén el dedo levantado (para chuparlo) mientras andes con la miel).

Hatz egin. Hazka egin. ‘Rascar(se)’. *Animalixai hatz egin betik. / Egin egidazu hatz bizkarrien.*

Hatz-zorro, -ua. Urraturen bat, ebagiren bat... euki ezkerro babesteko etxe guztietan izaten zan zorrua. Hatza sartu eta eskuturrien lotzeko bi lokarriekin. ‘Funda (vaina) para el dedo’.

Hatzondoko, -ua. Azazkal azpitan jaixoten dan gaitza. ‘Enfermedad de la uña’.

Haundi, -xa. 1. ‘Grande’. *Fraka honeik haundixak dira zuretako.* 2. Harro, harroputz zentzuan. ‘Orgulloso, -a,

vanidoso, -a'. *Etxe horretakuak betik izan dira haundi.*

Haundigei, -xa. Haundixa izateko itxuria dakona. 'Con visos de ser grande'. *Mutiko edo neskatilla hau haundigeixa dator.*

Haundigura, -ia. Handinahia. 'Ambición, vanidad, orgullo'. *Zeu zarienarekin ezin konformau, hori da haundiguria dakozuna!*

Haundigurako, -ua. Handinahi handikoa, harroa. 'Ambicioso, vanidoso, orgulloso.'

Hauskor, -ra. Apurkorra, puskakorra. 'Frágil, fácil de romper/rasgar/cortar'.

Hauslandar, -a. Errauts fiña edo xehia; beronekin garbiketan ziran lapikuak, ontzixak eta trastiak. 'La ceniza menuda'.

Hauspo, -ua. *ald. haispo*, -ua. Hauspoa. 'Fuelle'.

Hauspokerixa, -ia. Agokadia, harrokerixia. 'Exageración, embuste, vanidad(es)'. *Hauspokerixak esatia, botatia.*

Hauts, -a. 'Polvo'. *ad. lok. Hautsak kendu*. 1. Hautsak garbittu. 'Limpiar el polvo' 2. Norbait jo. 'Dar una paliza'. *Hara bahoia, deskuidau ezkerro, laister kenduko dostai hautsak!*

Hauts baltz, -a. Fundiziñuetako hondakiña, basoko pistetan zabalketan zana. 'Escoria de la fundición'.

Hauts-egun, -a. Hauster eguna, Garizumia hasten dan eguna. 'Miercoles de ceniza'

Hazbizar, -ra. 'Padrastro'.

Hazi. *ad.* 1. Bentaja egin, luzetu. 'Crecer'. *Asko hazi da zure semia.* 2. 'Criar'. *Iñude batek hazi eben gure umia.*

Hazi, -xa. *iz.* 'Simiente'. *Arto-hazixa, tomate-hazixa, porru-hazixa, pago-hazixa...*

Hazi-billots, -a. Ardi izateko izten dan billotsa. 'Cordero al que se le deja crecer, para hacerse oveja'.

Hazigei, -xa. Haundi egitteko itxuria dakona. 'Con visos de hacerse grande'.

Hazipen, -ak. Neska-mutillak hazten dagozenian izaten dittuen miñak. 'Dolores de crecimiento'.

Hazkonkor, -ra. *ald. hazkoskor*, -ra. 'Nudillo; artikulación de los dedos'.

Hazur, -ra. Hezurra. 'Hueso'.

Hazurbaltz, -a. Kanpotik etorritako erdaldunairi emuten xaten mespretxuzko izena. 'Nombre que se le daba a la persona que no era originaria del país con cierto desprecio'. Sin. **belarrimotz**.

Hazurraundi, -xa. Egitura handiko aberea. 'De esqueleto grande'. *Ume hau hazurraundixa dator eta lo pittin bat gehixago egin degixela.*

Hegabera, -ia, hegaberaak. 1. HEGAZ. *Vanellus vanellus*. 'Avefria'. *Hegaberaak agertutakuan negua gaiñian dala seiñale.* 2. Neska buruariña. 'Chica ligera de cascos'.

Hegazkor, -ra. Hegalarixa. 'Se dice de la gallina que vuela a menudo'. *Oillo hegazkorra.*

Hegittara ifiñi. Ohian alboz etzin; edozer gauza bere albo baten gaiñian jarri. 'De canto; ponerse de costado en la cama'. *Hegittara ifintten naiz ohian, bizkarrian ebagixa dakot-eta.* Sin. **hegiera jarri**.

Hegua, hegoia. *ald. hegoe, hegue*, hegoia. Hego-haizia. 'Viento sur'. *Hegue-puntua./ Hegoia ekarriko dau./ Hegue hotza./ San Martin heguaak:* 'el veranillo de San Martín'. Sin. **heguaize**.

Heguaize, -ia. Hegoia. 'Viento sur'. *Udazkenian, heguaizia nagusi izaten da.*

Heguaizerre, -ia. Heguaize sargorixa. 'Viento sur muy caluroso'. *Hegu-erre puntua dabil./ Hegu-erre antza.* Sin. **hegu-erre**, -ia

Hegualde, -ia. Hegoaldea. ‘El sur (como punto cardinal)’.

Heldu. Obatu, oratu. ‘Asir, agarrar’. *Heldu gogor sokiari, bestela txakurrak ihes egingo dotsu. Goizari heldu.* Goizian goiz jaiki. ‘Levantarse temprano’.

Herren, -a. Herrena. Kojua edo kojia. ‘Cojo, -a’. *Gure aittajuna herrena zan. esr. Astia kojua izan.* ‘Haber algún día festivo durante la semana’.

Herrendu. Kojo geratu, kojotu. ‘Quedarse cojo’. **Herrenka ibilli**. Kojoka ibilli. ‘Cojear’.

Herri-baso, -ua(k). Komunalak, Udalaren basuak. ‘Montes comunales’.

Herri-lur, -ra(k). Komunalak, Udalaren lurak. ‘Terrenos comunales’.

Hesi, -xa. 1. Saillak banaketako eta aziendairi eusteko itxituria, naturala nahiz artifiziala. ‘Vallado, cercado’. 2. Soruan ebalteko urritzez egindako saria. Gaiñian pixua ifiñitta, erpillak apurketako ganaduakin ebalten zana. ‘Adral’

Heste, -ia. ‘Intestino’.

Hestegorri, -xa. ‘Esófago’.

Hesteriko-haize, -ia. Ganaduak eta pertsonak izaten dittuen haiziak. ‘Vientos intestinales internos. Los tienen los ganados y también las personas’. Sin. **hesterikuak**.

Hezau. Hezetu. ‘Mojar, humedecer’. *Agua hezau, arbixarekin; ganaduak agua hezau.*

Heze, -ia. Umela, berdea; ixa bakarrik zura eta suegurren gaiñian esaten da. ‘Verde, húmedo, -a’.

Hezibage, -ia. 1. Hezi bariko pertsonia edo animalia. ‘Indómito, -a, bravío, -a, bravo, -a (en los animales), ineducado, -a’. 2. Lan askorik eginbagia. Lanian zaildubagia. ‘Sin estar hecho al trabajo’. *Lanian hezibagia.*

Higuin, -ña. Nazka. ‘Asco’. *Nik eztot hori jango, higuña emuten dost.*

Higuingarri, -xa. Nazkagarria. ‘Asqueroso, -a’.

Hil, *hiltten, hilttia, hilgo, hil arte [illarte]*. Zendu. ‘Morir’. *Gixarajua, hiltten daguela esan dostai./ Txarri hilltte, -ia.* ‘Matanza del cerdo’. *Bixar txarri-hilttia dakogu etxian.*

Hil, -la. ‘Mes’. *Hilbaltza, otsailla, bagilla, garagarrilla.../ Ze hilletan jaixua zara zu?*

Hilbete, *hilbera, hilbarri*. ‘Luna llena’, ‘menguante’, ‘nueva/creciente’. *Berakatzak zemendiko hilberan sartu bihar dira.*

Hirugixar, -ra. Hirugiharra. ‘Tocineta’.

Hirukotz, -a. LAND. *Trifolium sp.* Hirusta, hirukoitz. ‘Trébol silvestre’.

Hirukutz, -a(k). Hirukia. ‘Trillizos’. *Hirukutza izan daue./ Jesus hirukutzekua da, Joxe eta Mirenekin.*

Hirustarbi, -xa. LAND. *Smilax aspera*. Endalarra, arkasatsa. ‘Zarzaparrilla’. Sin. **txori-mahats**.

Hittato. Hikako tratamendua. ‘Tuteo, tratamiento de tú’. *Batak bestiari hittato esaten xaue.*

Hitza jan. Nork bere berbia jan. Esandakua ukatu edo aginddutakua bete ez. ‘Faltar a su palabra, no cumplir el compromiso’.

Hizkera, -ia. Berba egitteko eria. ‘Modo/forma de hablar; lenguaje’. *Beste hizkera bat. / Hizkera xeblea.*

Hizketa, -ia. Berbetia. ‘Habla, lengua’. *Geuk egitten dogun hizketiari etxau zailla erizten.*

Hizkunde, -ia. Hizkeria, berbetia. ‘Lenguaje, lengua’. *Behe aldeko hizkundia egitten dau.*

Hoben, -a. Kaltia. ‘el perjuicio’

Hobendu. Kaltetu. ‘Perjudicar’ *Hobendu egin xao.*

Hodei, -xa. *ald. horei*, -xa. Ekaitza. ‘Tormenta’.

Hodeixa jo. ald. horeixa jo. Trumoiak jo. ‘Tronar’. *Horeixak jo dau./ Hodeixa*

dator./ Hodeixa sartu dau./ Horeixa zanian ...

Hojalatero, -ua. Iturgiña. ‘Fontanero, -a’

Hondio-atxur, -ra. *ald. hondiatxur*, -ra. Lurra hondiaketako ebalten dan atxur luze eta estua. ‘Azadón’.

Hongo baltz, -a. MIKOL. *Boletus aereus*. Onddo baltza. ‘Boleto negro’.

Hongo, -ua. MIKOL. *Boletus sp.* Perretxikoa. ‘Champiñones comestibles. Hongos del género boletus’.

Hontz, -a. HEGAZ. ‘Buho’, ‘lechuza’. *esap. Egon hadi hontzari begira!* ‘Estar en Babia’.

Honuztu, *horrutzu, haruztu*. Honuntz, horruntz, haruntz ekarri edo eruan. ‘Traer o llevar hacia aquí, ahí, allí’.

Hor. ‘Ahí’. **Hor han hemenka**. Batian bestian. ‘Por doquier, por doquiera’. *Sara zahar batzuk egozen han hemenka.* Zerradura formalik ez eguela, alegia.

Hordaikor, -ra. Herdoilkorra. Errez hordaiketan dana. ‘Oxidable’. *Burdiñia hordaikorra da.*

Hordei, -xa. *ald. hordai*, -xa. Herdoila. ‘Roña, herrumbre’. *Erraja zahar horri hordeixa egin xako ugari./ Bizikletiak kateia hordeittuta dako./ Burdiñazko atiari lehenengo hordeixa kendu eta gero pinttau egingo dogu.*

Hordeittu, *hordeiketan*. Herdoildu. ‘Oxidar(se), roñar(se)’. *Dana hordeittuta dago. Horreik laister hordeiketan hasiko xatzue.*

Horei-apar, -rak. Horei-laiñua apartuta, horeixa erakusten dauenak. ‘Nubes esparcidas, como grumos’. *Gaur goizian horei-aparrak egozen.*

Horei-euri, -xa. Ekaitz-euria; euri epela. ‘La borrasca (con truenos). Lluvia de tormenta’. *Keriza honeik horei-eurixa hartuko leukiei.*

Hori, -xa. ‘Amarillo’.

Horiaatu, *horiaaketan*. Laiñotu(ta). Zerua horeiz estali(ta). ‘Nublarse’.

Horiaaketan hasitta dago (laiñaaketan)./ Bart horiaatu egon da eta horregatik eztau egin izotzik. Araozgo abade eta amakasiaren arteko alkarrizketia. Abariak uhetik: *Zer eguraldi egitten dau?* Amakasiak: *Erdi oskarbi, erdi horiaatu; neria sinisketan ezpadau, jagi eta begiratu.*

Horittu. Hori koloria hartu. ‘Amarillear, palidecer’.

Horregatio. *ald. horraatio*. 1. Baiña, behintzat. Harriduriari, amenazuari... inddarra emuteko. ‘Pero, por lo menos, ...en tono de sorpresa, amenaza... etc’. *Eztau holakorik egingo, horregatio! Ezta egixa izango horregatio!/ Hangotxia izan horraatio!/ Harrapauten badot horregatio!*

Hortarazko. Orduan, beraz. ‘Entonces, por lo tanto’. *Diar egin dau? Etorriko da hortarazko!/ Torrekua da hor bizi dana? Maritxuren semia hortarazko!*

Hortzbiko, -ua. *ald. hozbiko*, -ua. Bi hortzeko atxurra. ‘Azada o rastra de dos puas; bidente’.

Hostradui, -xa. Hostrua malutz daguen lekua. Kerizpetan egoteko ederra. ‘Lugar de mucha o densa hoja’. *Hemen dago hostraduixa./ Hostraduixan ezkutauko ziran.*

Hostro, -ua. Hostoa. ‘Hoja’. *Aza-hostruak.* ‘Hojas de berza’.

Hostrobarriztau. Hostroberrittu. ‘Mudar (las hojas); cubrirse/llenarse de hojas’. *Arbolak hasi dira hostrobarriztaitten. esr. Hostruen faneriagaz eta etorreriagaz, kontuz ibilli!*

Hots egin. Deitu. ‘1. Llamar. 2. Gritar’. *Ezpada etorten hots egin!*

Hots emun. ‘Arrear por detrás al ganado’.

Hotz, -a. ‘Frio’. *ad. lok. Hotza edo berua hau(t)si.* Ur edo dana dalako hotza (berua botata) eta berua (hotza botata) epeldu. ‘Templar el agua’.

Neguan, hautsittako urarekin oilluak hobeto ibiltten dira.

Hotzaldi, -xa. Hotza egitten dauen denpora-tartia. ‘Época o periodo de frío’. *Hurrengo hotzaldira arte./ Hotzaldixonek gogor erasan dost.*

Hotzantz, -a. Hotz pittin bat. ‘Un poco de frío’. *Gaur hotzantza egitten dau, ezta?*

Hotzaro, -ua. Eguraldi hotz samarra. ‘Temperatura fresca’.

Hotzittu. Hoztu. ‘Enfriar(se)’. *Daguen hotzarekin kalian hotzittu egin gara!*

Hozbera, -ia. Errez hozten dan pertsonia. ‘Friolero, -a’.

Hozkilddu. Destenplau. ‘Destemplarse’. *Behin hozkilddu ezkeru, kitto!*

Hozkirri, -xa. 1. Nehikua hotza, hotz samarra. ‘Frio o fresco’. *Haize hozkirrixa dabil / Hozkirri(xa) dago eguna.* 2. Samur hotziketan dana. ‘Friolero, -a’. *Ha oso pertsona hozkirrixa da.* 3. Hotzikara. ‘Escalofrio’. *Uretatik urteterunzkuan, halako hozkirri bat sentiu dot.*

Hozkirrittu. Hotza sentiu edo destenplau. ‘Destemplarse’. *Hozkirri nago; hozkirrittuta nago.*

Hozmin, -ña. Hotz zorrotza; hazurretaraiño sartzen dana. Mendixan antzigarra/zurdia daguenian betik. ‘Frio penetrante/glacial’. *Hozmiña dakogu./ Eguraldi hozmiña./ Haizia hozmiña dabil.*

Huntz, -a. ‘Hiedra’. *Paretan gora faten da huntza / Etxeko hormia eta balkoia be huntzez jositta eukain.*

Hur, -ra. 1. Hurritzaren frutua. ‘Avellana’. *Herri egunian hur eta intxaur ederrak ikusi nittuen.* 2. Hurbil. ‘Cerca’. *San Lorentzo eta Olakua auzuak hurrian dagoz.* 3. Hurbileko. ‘Cercano, -a, próximo, -a’. *Ahaide hurrak edo hurreko ahaidiak.* 4. Hurrian, hurretik, hurrera, hurreraiño... (dekl.)

Hurrengo, -ua. *ald. hurringo*, -ua. Hurrengo. 1. ‘El siguiente’. 2. ‘La próxima vez’. *Honen hurrengo neu naiz./ Hurringo datorrenian esango xangu.*

Hurreratu. Hurbildu. ‘Acercarse’.

Hurrian. Hurbil. ‘Cerca’. *Ni hemendik hurrian bizi naiz.*

Hurritz, -a. LAND. *Corylus avellana*. ‘Avellano’.

Hurritzui, -xa. Hurritz basua. ‘Avellanal’. *Andartoko hurritzuixa./ Hurritzuiira hurrak batzera.*

Ibargi, -xa. Eguzkibegixa, eguzkilekua, leku aiñubia eztana. ‘Solana; terreno soleado, -a’. *Paraje ibargixa da Larraña./ Gure logelia ibargira dago./ Zubixa auzaunia honen aldiian leku ibargixa da./ Hori don kristalen ibargittasuna! (argittasuna, garbittasuna, disdiria...).* ‘Claridad, brillo’. Sin. **egutera**.

Ibilgura, -ia. Ibiltteko gogua. ‘Ganas, deseo de andar’.

Ibilkaari, -xa. Ibiltaria. Ganaduen gaiñian berbetan entzuten da gehixenbat. ‘Andariego, -a; caminante; andarín, -a’. *Hau ganadu ibilkaarixa dok/n / Basabehixa oso ibilkaarixa da.*

Ibilkera, -ia. Ibiltteko eria. ‘Modo de andar’. *Ibilkera barregarrixa. / Aittaren ibilkeria.*

Ibilkor, -ra. Batera eta bestera ibilli zalia. ‘Andariego, -a, andador, -a’. *Gure ahizpia oso ibilkorra da./ Ha fango da, ha ibilkorra da-eta!*

Ibilli, -xa. Ibillialdi haundixa. ‘Caminata, viaje; recorrido. Jornada’. *Guk egin gittuan ibillixak! . esr.*

Ibillixan-ibillixan. Saiatuaz, denporiarekin. ‘Al cabo y a la postre; de tanto andar’. *Ibillixan-ibillixan horrek asmau egingo dau azkenian.*

Ibillibage, ibillibagia. Jardun gabea. ‘Inexperto, -a, sin experiencia’. *Horrelako lanetan ibillibagia./ Ibillibagiari berihala igarten xako.*

Ibilttari, -xa Ibilttaria, asko ibiltten dana. ‘Andarín, -a’. *Ez besterik ezlakua, baiña neu be ibilttaun ona izan naiz neure denporan*. Sin. **ibilttaun**, -a.

Ida, -ia. ‘Helecho’. Ik. **ira**.

Idadui, -xa. ‘Helechal’. Ik. **iraduixa**.

Idar, -ra. Ilarra. ‘Guisante’.

Idasagar, -ra. ‘Membrillo’. Ik. **irasagar**.

Idaur, -ra. Alkarrerri sokatxo batekin lotutako makilla sendo bat eta beste mehe batekin egindako esku-tresnia, batez be babak joteko ebalten dana. ‘Mayal, instrumento con el que se desgranar los cereales dando golpes sobre ellos. Pero sobre todo para desgranar alubias’. **Idaurraz jo**. Desgranar las espigas de trigo o las alubias con el mayal.

Idi, -xa. *ald.* **iri** -xa. Idia. Idisko /irisko kapaua. ‘Buey’.

Idigei, -xa. Idittarakua. ‘Novillo. El toro castrado’. *Idigeixak (idiskuak) kapau egitten ziran*.

Idisko, -ua. *ald.* **irisko**, -ua. Txahal arra. Hazitta daguenian be hala esaten xako. 1. ‘El ternero’ 2. ‘El semental para el monte’.

Idolaz. Eurixa asko eta inddar haundiz egin. ‘Aguacero, diluvio’. *Idolaz botaten dau./ Idolaz da eurixa./ Idolia etorten bada... (hodeixa etorten bada)/ 2. ‘Turbión de agua, avenida’. Idolaz egin xok/n, gero!*

Idulentzi-haize, -ia. *ald.* **irulentzi-haize** -ia. Haize hotza eta hezia. Aste Santu inguruan ibiltten da. ‘Viento frío y humedo’. *Hau idulentzi-haizia da; betik etorten da Aste Santu inguruan./ Idulentzi-haizia haize txarra da./ Irulentzi-haizia hazurretaraiño sartzen da. /Idulentzi-haizeau fan arte hona ezta udia etorriko*.

Ifiñi. Ipini. ‘Poner, colocar’.

Igar, -ra. 1. Lihorra, hezetasun gutxikua. Bedarra eta egurra, batez be. ‘seco, -a, marchito, -a’. *Egur igarrak heziak baiño hobeto egitten dau su*. 2. Argala,

pertsonen gain. ‘Flaco, -a, enjuto, -a (ref. a personas, animales, partes del cuerpo...)’. *Gizon igarra*.

Igaribei, -xa. *ald.* **igaribi**, -xa. UGAZ. *Lutra lutra*. Igaraba. ‘Nutria’. *Lehenago Zubillagako errotako presapeian igaribeixak ikusten ei ziran*. Sin. **urtxakur**.

Igarri. Konturatu, antzeman, nabaritu. ‘Notar, darse cuenta, adivinar’. *Bistia bajauta igarten dot amama./ Ezetz igarri zer dakoten eskuan?/ Negua luzia badoia, igarriko xangu./ Zerbait igarri nitxan nik hari*.

Igartu. Ihartu. 1. ‘Secar(se), marchitarse’. *Guazen bedarra igarketara, eguxkixa lanian ifintten dogun!! Agustu osua kanpuan egon naiz, eta balkueko lora danak igartu xat!* 2. (Ref. sobre todo a personas). ‘Consumir(se) (moral o físicamente), debilitar(se)’. *Okotza kakotu, samia igartu, azala zimurtu*.

Igeltsero, -ua. ‘Albañil’.

Igeri egin. ‘Nadar’. *Igeri egingo dogu./ Igerittera fango gara?*

Igitai, -xa. *ald.* **iriti**, **iitai**, **iiti**, -xa. ‘Hoz’. *Lehen garixa iitixakin ebaten zan*. **Igitai haginduna**. Garixa ebatekua. ‘La hoz dentada para cortar trigo, hierba, etc’. **Sega-iitixa**. Haginbarikua. ‘Guadaña’.

Igittadak. [iittadak] Iiti lanak. ‘Labor de siega con la hoz’. *Aurtengo iittadak egin dira*.

Igual. 1. **iguala**. *adj.* Bardiña. ‘Igual’. *Sekula eztot ikusi bi pertsona igualagorik!* 2. *junt.* Akaso, biharbada, onenian. ‘Quizás, igual’. *Eguraldi ona egitten badau, igual Donostiara fango gara*. 3. **igual izan**. *ad.* Bardin izan. ‘Dar igual’. *Antomobilla saltzen badok/n be, neri igual dost!*

Igualeko, **igualekua**. [gualeko] entzutena da. Oso ondo edo lehen baiño askoz hobeto gagozela esateko ebalten dogu. ‘Cuanto mejor, mucho mejor’. *San Martin auzuan igualeko bizi nauk/n;*

*Kale Zaharraren aldian han bai pakia!
/ Igualako hago ulia moztu eta gero! /
Igualako bizi haiz ezkondu ezkerro! /
Operau ondoren igualeko xabik/n! /
Aitta-amen etxian igualeko bizi don/k
Pedromari, bazkarixa egindda eta
erropia plantxauta!*

Igurtzi. 1. *igurtzitten* edo *igo(r)zten*.
‘Frotar’. *Eztaikit hotzak edo urduri
egongo zan, eskuak igurtzi eta igurtzi,
etenbarik igorzen ebillen./ Animalixairi
asko gustaitten xate igurtzittia.* 2.
igurtzixa. Masajia. ‘Frote, masaje’.
*Belaunian min hartu dau eta emun
xotsu igurtzi bat./ Ni igurtzixak hartzera
Patxigana faten naiz, oso ondo emuten
dittu-eta.*

Ihesi. *ald. igesi, igasi.* Ihesi. ‘Huir,
escaparse’. **Igesi fan edo etorri.** ‘Salir o
venir huyendo’. **Igesitxuago ifiñi.**
Urrintxuago ifiñi. ‘Alejarlo un poco’.

Iheskor, -ra. Ihes egitteko zalia,
uxakorra. ‘Huidizo, -a, escapadizo, -a’.
Bihor iheskorra.

Ikasgura, -ia. Ikasteko gogua.
‘Ganas/deseo/afán de aprender’.
2. ‘Aplicado, -a, estudioso, -a’. *Ikasgura
haundikua da mutiko hau.*

Ikasibage, ikasibagia. Zailddubagia.
‘Sin experiencia en el trabajo’. *Sasoia
bai, baiña lanian ikasibagiak, gazte
honeik.*

Ikatz-saltzaille, -ia. Ikatza saldu edo
banaketan dauena. ‘Repartidor, -a de
carbon’. Sin. **ikatz-partitzaille.**

Ikazkin, -ña. *ald. ikazgilla,* -ia, -iak
(pl.). Ikatza egitten dauena. ‘Carbonero,
-a’. Ikazgiñen (Araotz). *Osaba Patxi
ikazkin ona zan./ Orduan Naparruatik
ikazgiñak etorri zittuan/zittunan./
Baebillen ikazgillatan!*

Ikusi. 1. ‘Ver’. 2. ‘Pasar. *Guk ikusi
gittuan gosiak, egarrixak, mixerixak ...*

Ikusla, -ia, -aak (pl.). 1. Ikusten dauena.
‘Revisor, -a’. 2. Ikuskatzailea,
inspektorea. ‘Inspector, -a’.
*Hemandadeko ikuslaak./ Diputaziñoko
ikustzaillaak.* Sin. **Ikustzailla.**

Ikutu. Ukitu. ‘Tocar, acariciar’. *Atzo
ikutu notsan eta trankil egon zan, baiña
gaur ikutu xat barriz, eta haren
garramistuak!./ Plantxia ikutu, eta eskua
erre neben.*

Ilbaltz, -a. Urtarrila. ‘Enero’.

Ildo, -ua. Bidea, norabidea. ‘Camino,
dirección’. *Lehengo ilddotik fanda...*
(lehengo gaira etorritta). ‘Voviendo al
tema’.

Illarra, -ia. *bat.* Txilar. 1. Txikiña,
normala. Maitte dau erliak. Fiña, gozua.
‘Brezo’. *Oraintxe dago illarria loraan;
erliak darabil burrundaria.* Illarra
klasiak: **illarria-zurixa, illarria-baltza,
illarria-gorrixa, astailarria** (illarria
luzia). ‘Tipos de brezo: blanco, rojo,
silvestre o alto’. 2. **Astailarria,**
astailarria, astailarraak. ‘Brezo alto’.
Oso goixan egitten da (Elgea
gaiñetan...). Bi-hiru metroko altueria
hartzen dau: kirten gogorra, latza...
Astailarriagaz egitten da isuskixa. Sin.
astaiñarra. Abizena: *Illarramendi.*

Illarradui, -xa. Illarra asko dague
lekua. ‘Brezal’. *Illarraduiraiño fan
gara. top.* Ilarduia (Arabako lautada)

Illarra-txori, -xa. HEGAZ. *Alauda
arvensis.* Hegatxabala, alauda.
‘Alondra’. Txori grisa, zuribaltza,
buztan luze samarrekua.

Illoba, -ia, illobaak. ‘Nieto, -a’.

Illor, -ra. *ald. éillor,* -ra. Egileor,
egillor, eileor, eillor, illor. Etxe onduan
edo mendixan dague itxabolia, bedarra
eta iria sartzeko, batzuetan ardixak be
bai. Basoko itxabolak, lihorrak. Badira
itxabolak artexikin, baiña bakarrak.
Degurixako artzain itxabolak be eztaioi
artegirik. Itxabola aurrian, eskortia bai,
baiña artegirik ez. ‘Cabaña para guardar
heno y helecho’. Araotzen **Ellorrondo
top.** oso ezaguna da: *Ellorrondoko
itxabolia, Ellorrondoko harrobixa...*

Illun, -a. ‘Oscuro, -a’.

Illundu. ‘Oscurecer’, ‘entristecer’.
*Eguna illunduaz doia./ Arpegixa illundu
xako.*

Illunkara, -ia. Ilunabarra. ‘Atardecer, anochecer’. *Illunkaran ortua erregauko dot.*

Illunkaro, -ua. Illuntabar ona/txarra. ‘Tiempo bueno, agradable del atardecer’. *Illunkaro ederra eguela ikusitta bizikletan buelta bat egittera fan nintzan./ Illunkaro ona. / Hau illunkarua!*

Illunkote, -ia. Illun antzekua; azal, ule, illunekua. ‘Moreno, oscuro’. *Ule illunkotia./ Gizon illunkote samarra.*

Illunpe, -ia. Argirik edo argitasunik eza. ‘Oscuridad, tinieblas (en sentido propio y fig.)’.

Imillaun, -a. *ald. imillen, imillaen*, -a. Imiña laurdena (ontzi eta edukiera neurrixa). Hiru kilo inguru. Lau imillaunekin imiña bat egitten da. ‘Unidad y recipiente de peso de unos tres kilos.’

Imiña, -ia. Ontzi eta edukiera neurrixa. Hamabi kilo. Anega laurdena. ‘Unidad y recipiente de peso de unos doce kilos. Celemín. Un cuarto de anega’.

Imitto, -ua. *ald. imittu*, -ua. Inbutu. ‘Embudo’.

Ingiratu. Moldatu. Bakarrik konpondu edo arreglau. ‘Arreglárselas, amañarse’. *Bakarrik ingiraketako moduan? Bai, bakarrik ingiratuko naiz*

Inguratu. 1. ‘Acercarse, aproximarse’. *Gu inguratu giñanian, danak alde egin euen.*

Ingurau. *ald. ingirau*. Zuzendu, lortu, ekarri. 1. ‘Conseguir’. *Nundik ingurau/ingirau dozue mahai polit hau?* 2. ‘Buscar’. *Bagoiaz, ia mahaitxo bat inguraitten dogun.*

Inguru, -a. 1. Zerbaitten ondoko lekua. ‘Entorno, alrededores’. *Itturri ingurua*. 2. ‘Hacia (tiempo cronológico)’. *Hamaikak inguruan alkartuko gara*. 3. ‘Aproximadamente, alrededor de’. *Alde batetik bestera hiru metro inguru dagoz.*

Inka, -ia. *ald. inke*, -ia. Gaixuaren arnasots estua. ‘Respiración apresurada y fatigosa del enfermo’.

Inkonau. Ebagixa edo zaurixa gaiztotu. ‘Enconar, infectar’. *Bihatx hori inkonauta dago.*

Inporta izan. ‘Importar’. *Horrek eztost inporta! / Hori etxat inporta!.* Sin. **ajola izan**.

Inportabariko, -ua. Arduragabe, axolagabe. ‘Despreocupado, -a, descuidado, -a, indiferente’. *Inportabariko bat da / Hau jarri xaku inportabarikua! / Hori dok/n inportabarikua izatia!*

Inteixo, -ua. LAND. Zelai eta soruetan erneten dan landaria, heltzen danian arantzak eta lora urdiña eukitten dauena. “Pletaak eegittekuak”. *ald. iteixo. bat. itario*. ‘Yerba que sale en prados y heredades; tiene pinchos cuando madura; flor azul’.

Intxaur saltsa, -ia. Intxaur xehetuarekin eta esniarekin egitten dan postria. ‘Postre típicamente navideño de nueces, leche y azúcar’.

Intxaurdui, -xa. Intxaur arbola-sailla. ‘Nogueral’. *Lehenago Jaturaben egozen intxaurduixak galantak; kamiñua egin zanian eruan ziran.*

Intxusaatu. Txarrixak eta basaurdiak muturka egin. ‘Hozar (el jabalí, el cerdo), hocear’. *ald. Intxusaaka ibilli, intxuska ibilli, intxuskaan ibilli*. Muturka egin.

Iñausi. *ald. iñaustu, iñausten, iñausketan*. ‘Podar’.

Iñausibage, iñausibagia. Iñausi barikua. ‘No podado, -a’. *Arbola iñausibagiak gora egitten dau.*

Iñude, -ia. Aixkomente, aberats-etxian iñoren umiari titixa emuten xaona. ‘Nodrizo’. **Iñude lihorra** edo **aiña sekia**. Iñoren ume txikiña zainttu eta hazten dauena, baiña titirik emun barik. ‘Nodrizo que cria pero no amamanta’.

Iñuntz, -a. Ihintza. ‘Rocio’. *Eguardira arte eztau kentzen iñuntzik./ Iñuntza jasotakuan eragingo xaugu bedarrari./ Gabeko iñuntza hartuko litzake.*

Iñusmota, -ia. Iñuntz tantan haundixa. ‘Gota grande de rocío’.

Iñutume, -ia. Iñudiak hazittako umia. ‘Niño, -a criado por la nodriza’.

Iñuxente, -ia. ‘Inocente, cándido, -a; tonto, -a, idiota’. **Iñuxente hartu**. Tontotzat hartu. ‘Tomar por tonto, -a’. **Iñuxente hartu naizue ala? Iñuxente ibilli**. Barregarri ibilli. ‘Pasarlo mal’. *Atzenengo edurtian iñuxente ibilli giñan Udana alde horretan, autobusik ez, ertzaiñik ez, edur-makiñarik ez, geu bakarrik bidia zabalketako.*

Ipar, -ra. ‘Norte’. Sin. **iparralde**.

Iparbiso, -ua. Ipar aldeko haiziak ekarten dauen lainolitz. ‘Calina que suele traer el viento norte’.

Ipar-laiño, -ua. Anboto aldetik datorren erlaiñua. ‘Niebla proveniente del oeste’. Ik. **laiño**.

Ipi-apa jakin. Dan-dana jakin, zehatz-mehatz. ‘Saberlo de pe a pa’.

Ipizki, -xa. 1. Iñoren kontuetan sartzen dan pertsonia, “metetia” ‘Metete’. 2. Trapu zaharrakin egitten dan eskobia, labia garbiketako ebalten zan eta kirten luzia dako. ‘Escobilla para limpiar el horno’.

Ipiztixa, -xa. Piztia. ‘Alimaña’.

Ipurdi, -xa. ‘Culo’. **Ipurdixa ikusi**. Barrukuak ikusi; tripak ikusi. ‘Ver las tripas’. Esaterako, txakurkumia zapaten barruko plantillakin eta oiñetakuekin jolasian eta haginka ibilli. *Txakurtxuak hor dagozen zapata guztiairi ipurdixa ikusi doste.*

Ipurdiko areka, -ia. Ipurdiko erretena. ‘Hendidura del culo’. *Ipurdiko arekan hazkuria dakot.*

Ipurgarbitzaille, -ia. Bere interesarengatik edozeiñeri ondo-esaka eta koipia emuten ibiltten dana.

‘Adulador, -a, pelota’. *Hori baiño ipurgarbitzaillegorik eztot ezagutu.*

Ipurtalde, -ia. Ipurdia. Ipurdi ingurua. ‘Las nalgas’.

Ipurtargi, -xa. Zomorroa. *Lampyris noctiluca*. ‘Luciérnaga’.

Ipurtats, -a. *ald. ipurtots*, -a. UGAZ. *Mustela putorius*. ‘Turón común’. Lepatxurixa baiño txikiñagua, buztan motzaguarekin eta usain txarduna. Sin. **pitotx**.

Ipurtaundi, -xa. Ipurdi haundixa dakona. ‘Nalgudo, -a’.

Ipurterre, -ia. Betik jenixo txarrarekin dabillena, samur hasarraketakua. ‘Cascarrabias, persona que fácilmente se enoja’. *Ipurterre hutsa! Gizon ipurterria!*

Ipurtxuntxur, -ra. Ipurzintzurra. ‘Coxis’.

Ipurtzulo, -ua. Ipurdiko zulu. ‘Año’.

Ira, -ia. *ald. ida*, -ia. ‘Helecho’. **Sorgin-iraak**, kaiña bariko ira-klasia. ‘Cierto tipo de helecho’.

Iradui, -xa. Ira sailla. ‘Helechal’. *Usuak iraduixan ezkutau dira.*

Iragako. *ald. iragoko*. Pasautako denporia. ‘Tiempo pasado, transcurrido (día, mes, año, ...)’. *Iragako egun honeittan ezta iñor agertu./ Iragoko urte honeittan eztogu holakorik ikusi.*

Iragazi, *iragazten*. Likido bat iragazkixan pasau. ‘Colar, filtrar un liquido’. *Esnia iragazketan nabil, garbiketako.*

Iragazki, -xa. *ald. iraaazki, idaazki*, -xa. Irazkia. ‘Colador’, ‘pasador’. Sin. **iragaz-ontzi, iragaztontzi**.

Irakurri. 1. Irakurri. ‘Leer’. 2. Aletu; baba haundixak, babia edo artua, esate baterako. ‘Desgranar’. Sin. **karandu, aletu**.

Iraleku, -a. Ira-basua. ‘Helechal, monte de helechos’.

Irasagar, -ra. *ald. idasagar*, -ra. LAND. *Cydonia oblonga*. ‘Membrillo (fruto o árbol)’.

Ira-sega, -ia. Iria ebagitteko segia. ‘Guadaña de hoja más corta y gruesa para segar el helecho’.

Iratargi, -xa. *ald. idatargi*, -xa. Ilargia. ‘Luna’. *fig.* ‘talua’ be esaten xangu, betia daguenian batez be. *Gaur talo ederra urten dau, e!* / *fig.* ‘torta’.

Iratzarri. Esnatu. ‘Despertar (se)’. *Eguzkixarekin iratzarri eta eguzkixarekin oheratu, horixe onena!*

Iraun, *irauten*. ‘Durar’, ‘aguantar’. *Jaialdixak ordu pare bat iraungo dau./ Martxa horretan eztaue bi ordu be iraungo.*

Iraunkor, -ra. Luze irauten dauena. ‘Duradero, -a, constante, permanente. Perpetuo. (Ref. a personas). Firme; fiel. (Ref. a personas). Que vive mucho’.

Irauntsi, *irausten*. *ald. iruntsi*. Irentsi. ‘Tragar, devorar’. *Jan ez, irauntsi egin dau bazkarixa.*

Ireta, -ia. Ira lanak. ‘Siega y acarreo de helecho’. *Ireta bikaña egin dogu./ Egin dittugu aurtengo iretok./ Iretia dabiltzue?*

Iriskotu. ‘Cubrir el toro a la vaca’. *Iriskotuta dago.*

Irrintzi, -xa. 1. Zaldixa eta bihorraren garrasixa. ‘Relincho’.

Irrintzilari, -xa. ‘1. Especialista en lanzar irrintzis (grito mantenido lanzado en fiestas y bailes populares vascos). 2. (Caballo, etc.) que relincha’. Oñatin, *lekaixolarixa*. Ik. *lekaixo*.

Iristakor, -ra. Labana. ‘Resbaladizo, -a’. *Lanbrua egitten dauenian, espaloiak iristakor egoten dira.*

Irrittu egon. Hasarre eta zatar egon. Umiakin ebalten dogu batez be. ‘Estar irritado, Impaciente, rabioso, renegado’. *Ume hau irrittu dago oso, ze ete dako?/ Umia irrittu dago eta itzi egixotzu lo egitten.*

Irrizto, -ua. *ald. irriztu*, -a. Zirriztu. Bittarte oso estua. ‘Rendija, , ranura, resquicio’. *Atiaren irriztotik ikusi zaut./ Irriztu txikitxo bat eukan, ixa igarten etzana.*

Irun, *iruten*. ‘Hilar’. **Irun egittia**, **irutia**: irute lana. ‘Trabajo de hila’

Irusi. Txarri emia arreske. ‘En celo la cerda’. Behin entzundakua: etxetik kanpo eguen txarri haztegi baten, basaurde apo bat sartu eta txarramiagaz kruzau ei zan. Handik lau hillabetera txarrama horrek kumiak izan zittuanian, hara nun agerketan dan berriz be apotzarrori. Batek esan eben: *Hori dok/n hori aitta responsable izatia*. Bestiak erantzun: *Bai, txarramiori berriz be irusi eguen ikustera etorriko zuan/zunan hori.*

Iruzur egin. ‘Engañar’. *esr. Iruzur eta lau mutur egin xao*. ‘Le ha engañado’.

Isil, -la. Zarata gutxikua, berba gutxi egitten dauena. ‘Callado, -a’. *Arrarua gero, umiak isil-isilik dagoz. Isilik egon*. ‘Estar callado, -a’. *ald. ixil*.

Isilka-misilka. Iñork ez entzuteko moduan. 1. En voz baja, cuchicheando. 2. En secreto’. *Isilka-misilka dihardue.*

Isil-kontu, -ak. Sekretuak. ‘Secretos’. *Isil-konturik ez!*

Isilpeko, -ua. Norberak gordeta dakona isilpoltsan. ‘Dinero o cosa secreta’. **Isilpekua emun**. Propiña emun inork ikusi barik. ‘Dar propina a escondidas’.

Isilpoltsa, -ia. Iñoren ezkutuan gordeten dan diru-poltsia. Lehen gizonak aginketan edo dirua administratzen eben etxietan, etxekoandriak gizonagandik ezkutuan, gordeta eukitten eben dirua. ‘Bolsa donde se guarda el dinero reservado’. *Hartu hau, isilpoltsakua!*

Íslara. Urriñera ikusi edo begiratu eguzkixa kontra daguela. ‘Ver al reflejo del sol o a contraluz’. *Mendertzian íslara ikusi dot.*

Istingor, -ra. HEGAZ. *Gallinago gallinago*. Miko luzia eta lumaje marroi antzekua dakon hegaztixa, horrek izkutaitteko asko lagunketan xao. Pisuari begira 100-150 gramo artekua da. Bere bizilekua padurak, zingirak eta iztingak dira. Beronen mikua mingorrarena baiño haundixagua da. Oillagorraren ixixa bardiña da izatez, baiña zeozer txikiñagua. Oillagor txikiña be esaten xako. ‘Agachadiza chica, becacin’.

Isuski. -xa. Astailarriagaz egindako eskobatzarra, kalegarbitzailliak lehenago ebalten euen. ‘Escobón de brezo’. *Isuskixagaz garbittu*.

Itsas haize, -ia. Beheko haizia, Bilbo aldekoa. Fabrika-usaiña ekarten dau. Jaturabe aldetik etorten da (Araotzera). ‘Viento proveniente del mar. Mendebala, itxes-aizia: el viento noroeste’. Sin. **santakutz haize**.

Itsasahata, -ia. HEGAZ. ‘Pato marino’.

Itsasantzar, -ra. HEGAZ. ‘Ganso’. *Itsasantzarrak pasaitten diranian negua gaiñian izaten da*.

Itsua, -a. 1. ‘Ciego, -a’. 2. Zarraua, itxixa. ‘Cerrado, tupido’. *Ule kapa itsua*. **Itsugaz trukian**. ‘Jugar al truque sin el cuarto jugador, enseñando sus cartas’. Ik. **trukian**.

Itsua-itsuka. Begixak tapauta egitten dan jolasa. ‘Juego de la gallinita ciega’. Begixok tapauta dakona onduan dabillenian esaten da **‘erreten, erreten’** eta urrin daguenian, barriz, **‘egosten, egosten’**.

Itsulapiko, -ua. Dirua gordeteko kutxa edo potetxua, txarritxo formia edo beste modu batekoa dakona. ‘Hucha’.

Itsusi, -xa. Zatarra, zakarra. ‘Feo, -a, de mal aspecto’. *Oso kipula itsusixak urten daue aurten*.

Ittarrate, -ia. Horman daguen pasua ganaduendako. ‘El paso que se abre en la tapia para el ganado. (Itárrate, entrada para meter el ganado en el campo, etc.). Ik. **harrate**.

Ittaurrian. Labraitterunzkuan ganaduen aurretik ibiltia gidari moduan. Neska-mutikuen zeregiña izan ohi zan. **ITTAURRIAN EGIN**, batez be. Sin. Ittulan. ‘Trabajo, generalmente realizado por niños, que consiste en ir por delante de la yunta en las labores de labranza’. *Ittaurrian pasau dot arratsalde guztia. / Ittaurrian egitteko baten baten billa dabil aittajuna*.

Itten, -a. Arrastua, ildua. ‘Pista, señal, vestigio, rastro’. *Ittena emun ezkeru, asmauko neuke. / Ittena euki baneu, topauko neben. / Emunidazu itten bat*.

Ittendu. ald. **ittandu**, *ittenketan*. 1. Galdetu. ‘Preguntar’. 2. Norbait “konpondu” (mehatxu doiñuan). ‘Reprender’ *Nik ittanduko xaot hari: nik modutuko dot ha!*

Itteuli, -xa. Zomorroa. *Tabanus bovinus*. ‘Tábano bovino’. Erlia baiño txikiñagua dan eulixa, horixkia eta heguetan puntutxo baltzakin, haren ziztadiak asko bilddurketan dittu behixak. *Itteulixak jo dau*.

Itto. ad. Ito. ‘Ahogarse’ **Ittota egon edo ibilli**. Lanpetuta, nekatuta ibilli. ‘Estar o andar agobiado, -a, estresado, -a’. *Ittota ibilli barik, e! / Honegatik etzatez ittota ibilli! / Ittota ibilli biharrik eztago!*

Ittokin, -ña. Itogin, -a. ‘Gotera’. Ik. **txintxin**.

Ittotzaille, -ia. Ittoten dauena. 1. ‘(El) que ahoga; (el) que mata (un animal)’. 2. ‘las zorras, que ahogan por el cuello a las ovejas’. *Ardi ittotzailliak (aixaixak)*.

Ittua, ittoia. ald. **ittoa**, ittoia; **ittue**, ittoia. Ukuilua. ‘Establo’. *Ittuako atia zabalik dago. / Gure ittoiak haundixagua emuten dau. / Ittuako lanak egin dittuzue? / Nik ittue asko ezaguketan dot. / Ittuatzaar bat*

Ittuatxur. ald. **itxuaxur**, -ra. Lau hortzeko atxur erakua, ittuako sitsak atarateko ebalten dana. ‘Azada o rastra de cuatro puas (cuatridente) utilizado para sacar el estiércol del establo’.

Ittuin, -ña. Etekiña. ‘Provecho’. *Ittuin barik lana egin bihar izatia oso pobria da./ Ortuko lana esker onekua da eta gehixenetan ittuiña dako.*

Ittuinddu, *ittuinketan*. Aprobetxau. ‘Aprovechar’. *Hurrengo egunian Bilbora urten bihar ebela aittatu ebenian, neuk be fan biharra neukanez, haren biajiaz ittuinddu nintzan.*

Itxain. *ald. itxoïn, itxoitten*. Itxaron. ‘Esperar’. *Hirurak arte itxaingo dotsut, eta ezpazatoz, fan egingo naiz. Medikuaarenian: txandiari itxoitten nago.*

Itxainleku, -a. Itxaron-lekua. ‘Lugar de espera; descansillo de la escalera’. *Eskillara-buruko itxainlekua.*

Itxi, *ixten, itxiko*. Zarrau. ‘Cerrar. (No confundir con *itzi* que significa dejar y se pronuncia como *itxi* cerrar)’. *Eztau sekula ate bat ixten. Oñatin Itxi eta Itzi bardin esaten dittugu, baiña idazteruzkuan bereizi egingo dittugu: Itxi = zarrau; Itzi = utzi.*

Itxitura, -ia. Hesia. ‘Cercado’. Sin. **zerraduria**.

Itzulikalde, -ia. *ald. itzulikalde*, -ia. Jantzixaren eraz kontrako aldia. ‘El revés, reverso, envés’. Erropak, adibidez, itzulikaldetik edo alde itzulittik plantxaittia komeni da; itzulikaldera. ‘Del o al revés’. *Plantxia betik itzulikaldetik./ Itzulikaldera jantzi dozu alkondaria.*

Itxungi, *itxungitten edo itxunketan* (bixak ebalten dira). Itzali. ‘Apagar (un aparato eléctrico, el fuego, etc.)’. *Itxungitta geukan sua suhiltzailliak etortera orduko./ Ez itzi suari itxungitten, gero ixuketia asko kostaten da-eta./ Itxungiko-ez itxungiko dago.*

Itxura, -ia. Norbaittek edo zerbaittek dakon edo emuten dauen irudixa. ‘Aspecto, traza, pinta’. *Joxek oso itxura ona dako./ Eguraldixak eztakar bapebe itxura onik.*

Itxuratu. 1. Itxura ona emun edo hartu. ‘Mejorar’. *Jexus ja itxuratu xaku, orainurrenguan kalian pasiuan ikusi*

neben-eta. 2. Moldau, ixixa akabo (dominau). ‘Dominar, darle forma’. *Lana itxuratu xuagu/xonagu.*

Itxuria. Lokaillu betegarrixa. ‘Parece que’. *Eztau gura, itxuria./ Itxuria, gizurra da.*

Itzain, -ña. Karreterua. ‘Boyero, -a. Guía de bueyes’.

Itzala egin. Inpresinua egin. ‘Causar impresión’. *Badaezpadako gizona aszensorian ikusi ezkerro, ni segiduan kanpora. Harek egitten dauen itzala! (...egoera horrek sortzen dauen ikaria, billurra).*

Itzaltsu, -a. 1. Errespetua edo billurra emuten dauena. ‘(Lo) que impone respeto, respetable, honorable, venerable; importante, influyente; severo’. *Paraje itzaltsua: billurgarrixa./ Gauza itzaltsua: billurra emuten dauena. ‘Terrible, que da miedo’.*

Itzebagi, -xak. Hotzak eragindda eskuetan sortzen diran ebagixak. ‘Cortes de la mano causados por el frío. Tener las manos cuarteadas’. *Itzebagixak dakot eskuetan./ Dana itzebagittuta dakot eskua.* Lurrian, egurrian eta abarretan sortzen diran arekairi be esaten xate. ‘Zanjas o surcos formados en la tierra, madera, etc’.

Itzi, *izteen, itziko*. Utzi. ‘Dejar. (No confundir con *itxi* que significa cerrar y se pronuncia como *itzi* dejar)’. *Itzi egidak kiltzak./ Izteen badostai, hurrengo hillian pagauko dostet. Oñatin Itxi eta Itzi bardin esaten dittugu, baiña idazteruzkuan bereizi egingo dittugu: Itxi = itxi; Itzi = utzi.*

Itzuli, *itzulitten, itzulketan. ald. itxuli, itzulitten, itxulketan*. 1. Buelta emun; hankaz gora jarri, atzekuaz aurrera jarri. ‘Ponerlo al revés’. 2. ‘Volcar’. *Kotxe bat itzuli da bidian, txirrikak gora begira geratu da./ Burdixa itzuli da.*

Itzulikalde, -ia. ‘El revés, reverso, envés’. Ik. **itzulikalde**.

Itzulkor, -ra. Samur itzulketan dana. ‘Lo que vuelca con facilidad.’ *Burdi itzulkorra*.

Itzundu, *itzunketan. ald. itzuldu*. Arbola adarrai orrixa kendu ganaduari jaten emuteko. Bardin ‘**itxundu**’. ‘Quitar (las hojas de las ramas), deshojar’. *Orri-itzunketan niharduan./ Lizar-abarrak itzundu gittuan, ganaduari jaten emuteko*.

Ixa, -ia, *ixaak* (pl.). Ihia. Korpus Egunian prozesinua pasaiten dan lekuetatik zabalketan dan bedarra. ‘Junco’.

Ixa. *ald. ixixa*. Ia, kasik. ‘Casi’. *Jausi eta ixa burua apurtu dot! Ardo botillia ixixa hutsik dago*.

Ixal. Ik. **arreske**. ‘Celo de la yegua’.

Ixil, -la. Ik. **isil**. ‘Callado, -a’. *Gizon ixilla / Andra ixilla*

Ixilik. *adb*. Ezer esan barik. Zaratarik egin barik. ‘En silencio, callado, -a’.

Ixiltasuna. Zaratarik eza. ‘Silencio’.

Ixipo, -ua. Isipua. Lehen etxeko paretak zuriketako ebalten zan “brotxa” haundixa. ‘Brocha grande’. *Hori danori pinttaiteko, gutxienez hiru ixipo biharko dittugu./ Ixipua kamaran topauko dozu*.

Ixipula, -ia. Ezpanetan, buruan eta bernatan, batez be, agerketan dan azaleko gaitza. Ixipula unia marroi eta minkor jarten da. ‘Erisipela’. ***Ixipula baltza*** be esaten xako.

Ixo! Ixilik! ¡Silencio! (imperativo).

Ixo. 1. Eho. ‘Moler’. *Kafia edo artua ixo*. 2. Irun. ‘Hilar’. *Harixa goruan ixo*.

Ixutu, *ixuketan. ald. ixiotu, ixioketan. bat. isiotu, izeki, irazeki*. 1. Piztu. ‘Encender’. *Sua, argixa, telebisiñua, ordenagaillua... ixutu*. 2. Oso hasarre jarri. ‘Enfadarse’. *Juan ixututa eguen atzo, etzan giro haren inguruan!*

Izan. Izan. ‘Ser, estar’. *Gaztiaguak izandakuak gara./ Arantzazun izan ziñan Amabirjiña egunian?*

Izana. Izatea. ‘El ser’. *Izanak balixo dau, ez esanak*.

Izan be. Egixa esateko, benetan. ‘A decir verdad; de verdad’. *Hain kaikua da izan be! Loiola leku ederra da izan be!*

Izango bada be. Besterik ezpada be. ‘Si no es más, aunque no sea más’. *Banoia, izango bada be dozena bat olaazi sartuko dittut*.

Izar, -ra. ‘Estrella’. ***Izarretik izarrera***. Egun osua, goizetik gabera. ‘Noche y día. (de sol a sol)’. *Lan egitten geben izarretik izarrera*.

Izara, -ia. Maindirea. ‘Sábana’. *Lehenagoko arriuetan, izarak liñuzkuak izaten ziran*.

Izardi, -xa. Izerdia. ‘Sudor’. *Hankak izardittan dakot./ Izardixa darixola aillegau ziran danak*.

Izardikor, -ra. Izardiketako joeria dakona. ‘El o la que suda con facilidad’. Sin. **izarbera**

Izardittu, *izardiketan*. Izardixa bota. ‘Sudar’. *Berihala izardiketan naiz./ Majo izardittu giñan danok!*

Izarratu. Zeru-sapaixa izarrez bete, edo beteta daguenian. Gabeko oskarbixa. ‘Estrellarse, llenarse de estrellas’. *Izarratu dago./ Izarratu dau. Ant. Laiñaatu, horiaatu*. ‘Cubrirse, nublarse’.

Izeko. Izeba. ‘Tia’. *Izeko Fana (Juana) etorri xaku Donostiatik./ Izekorengana noia./ Izekok karapaixua ekarri dost./ Izekorenetik bostetan urten geben*.

Izeko-osabak. Osaba-izebak. ‘Tíos y tías’.

Izotz, -a. Jela. ‘Hielo’. *Izotza zuri dago teillatuetan./ Kontuz ibilli, izotzarekin labandu egingo zarai-eta!*

Izotz antz, -a. Izotzera aillegaiten eztan hotza. ‘Helada pequeña’. *Izotz antza egin dau./ Kontuz, izotz antza dago-eta*.

Izotz baltz, -a. Ikusten eztan izotza; arrisku haundikua. 'Helada fuerte que no se ve a simple vista'. *Bart izotz baltza egin dau.*

Izurramen, -a. Hondamendia. 'Ruina, perdición'. *Hau dok/n izurramena! Honek ekarri doskun izurramena!*

Izurrau. Hondatu. 'Estropear(se), fastidiar(se)'. *Teillatua zulatu egin dala, ura sartu eta azkenerako etxia izurrau.*

Jaaso, -ua. Pertsona garbixa eta txukuna. 'Persona limpia y aseada'. *Jaásua da.*

Jaatsi. Jaitsi. Bajau. 'Bajar'.

Jagi. 1. Jaiki. 'Levantarse'. *Jagi zatez ogetik, bestela lizunduko zara. Berandu jagitten da ogetik.* 2. Hartzitu, altxatu. 'Fermentar'. *Azkarri barik ogixa ezta jagitten.*

Jai, -xa. noiz: **jaittan**, **jaixetan**. Jaieguna, igandea edo fiestak. 1. 'Domingo, festivo'. 2. 'Fiestas'. *Beno, hurrengo jaixan danok etorri./ Bai, orduan jaira arte! Oñatiko jaittan/jaixetan ikusiko gara.*

Jaiki, *jaikitten*. 1. 'Levantar, (se)'. *Lagundu egiozu lurretik jaikitten./ Neu bakarrik jaikiko/jaiko naiz.* 2. Zakilla tentetu. 'Empinarse el pene'.

Jaitz-eskorta, -ia. Eskorta barruan egoten dan ardixak jaizteko eskorta txikiña. 'Aprisco de ordeño'.

Jaitzi, *jaizten*. *ald. jeitzi*. 'Ordeñar'. *Behixak edo ardixak jaitzi./ Ama ittuan da, behixak jaizten.*

Jaitzuts, -a. Ardixak antzutu gura diranian, jeitzi barik izten d(ir)an egunari/egunairi esaten xako. 'Día(s) que no se ordeñan las ovejas para que dejen de dar leche'.

Jaixo. Jaio, sortu. 'Nacer'.

Jaixokera, -ia. Jaiotza, jaiotza-unea. 'Nacimiento'. *Pellok hori jaixokerakua dako, jaixokeratik.*

Jaizgaizto, -ua. Jaizten izten eztan ardixari esaten xako. 'Oveja que no se deja ordeñar'.

Jaka, jakia, jakaak. Andraan txaketia. 'Chaqueta de mujer'.

Jaki, -xa. Janarixa. 'Comida'.

Jakin. 'Saber'. *Jakin baneu, enintzan etorriko./ Badakitzu nor dan hori?*

Jakittia. 'Saber'. *Gauza horreik jakittia ondo etorriko xatzu. Ezjakiñian egon.* Zerbaiten barririk ez izan. 'No estar al corriente'. *Gu danok ezjakiñian gegontzen.*

Jakiña! Noski. 'Por supuesto, claro, naturalmente'. *Egingo dozu hori? Jakiña!*

Jakingarri, -xa. Jakittia merezi edo komeni dana. 'Digno de ser sabido'.

Jakingura, -ia. Dana jakin biharra. Jakittego gogua. 'Ganas o deseo 'excesivo' de saber'. *Neskatilla horrek dako jakinguria!*

Jala, -ia, jalaak. Asko jaten dauena, jatuna. 'Comilón, -a'. *Ogijala haundixak dira. / Okaran lorajalia (hegazti bat). 'Camachuelo común'.*

Jalgi, *jálgitten*, *jálgiko*. *Jálgitta*. 1. 'Desgranar. Se dice por ej. cuando el viento sacude y echa los granos de trigo'. *Jálgitten dago.* 2. 'Sacar, arrancar'. *Suak jálgi dau.*

Jan. 1. 'Comer'. *Badago ezer jateko? Trankil egon, jan barik eztozue urtengo eta!* 2. 'Gastar, rebajar'. *Ertz bizixak dakon burdiña honi ertzak jatia komeni xako.* 3. Ik. **hitza jan**. 'Faltar a su palabra, no cumplir el compromiso'. *Emundako berbia jan dauenez, horreikin ezin leike fixau.*

Janari, -xa. Janaria. 'Alimento'. Sin. **jaki**.

Jango, -ua. Jateko dan edozein gauza. 'Cualquier cosa comestible'.

Jangura, -ia. Jateko gogua. 'Ganas de comer, apetito'.

Jantxakur, -ra. Bestien lanetik edo bestien lepotik bizi danari esaten xako. ‘Parásito (del Estado o de cualquier institución), chupón, vividor, gorrón, enchufado’. *Horreik jantxakurak galantak dira.*

Jantzi, janzten. ‘Vestir(se)’. *Zer jantzi bihar dozu bodarako?/ Gure aittajuna oso dotore janzten zan. Ant. erantzi. ‘Desvestirse’*

Jantzi, -xa. Janzten dan erropia. ‘Vestido, indumentaria’. *Eztakot jantzi egogirik afarira txukun fateko.*

Janzkera. Janzteko eria. ‘Modo de vestir’. *Ze janzkera dok/n hori!// Janzkera xelebria./ Janzkerak al dira ba horreik!// Janzkera txukuneko gizona da.*

Jaramon egin. [jaamon egin]. Kasu egin. ‘Hacer caso, prestar atención’. *Horri jaramonik be ez!! Ez egixok/n jaramonik egin!! Jaamonik egin dotsue?*

Jardun. Ari izan. ‘Estar haciendo (algo)’. *Lanian ziharduala min hartu eben./ Ezta orain hasi horretan, lehen be baziharduan,.*

Jardun, -a. Barriketia. ‘Conversación charla’. *Jardun batian geratu dira./ Horrek dako jarduna. Jardunbidia emun.* Zeresana, berbabidia emun. ‘Dar que hablar’. *Ondo konpondu zatezai zeuen artian eta ez egizue jardunbiderik emun.*

Jarduntsu, -a. Barriketatsua, barriketalarixa, barriketosua. ‘Hablador, -a, locuaz’.

Jare egin. *ald. jarein. ad.* 1. Etxeko ganaduak libre itzi. Askatu. ‘Soltar, liberar’. *Txakurrari, oilluairi, ardixairi jare egin.* 2. Gaur egunian oso zabaldua dago ‘zerbait itzi edo norbaitteri itzi’ zentzuan. ‘Dejar algo o a alguien’. *Jare bakian./ Jare bost euro./ Jareko dostak/n hire alkondaria Herri Egunion urteteko?*

Jarei, -xa. *ald. jarein*, -ña. ‘Negligente’, ‘abandonado, -a’. Eginbiharrak erraz izten dittuena; gauzak bere lekuan izten eztittuena. *Manuel jarein samarra da,*

harek ebalittako gauzak eztago gero topaitterik.

Jareinttasun, -a. Abandonua, utzikerixia. ‘Dejades, abandono, negligencia’. *Ha izugarrizko jareinttasunian bizi da.*

Jarixo, -ua. *ald. jaarixo*, -ua; **jaraixon**, -a. Isuria. ‘Escape, fuga’. *Ontzixak jaraixona dako./ Sudur-jarixua dakot. Darixola.* ‘Goteando, manando; tirando, expulsando’. *Txorrua darixola dago./ Lumaak darixola ibiltten dira.*

Jasarleku, -a. Jarlekua. ‘Asiento, banco’.

Jasarri. Eseri. ‘Sentarse’. *Jasarri trankil eta berba egingo dogu./ Jasarteko asti barik bizi dira.*

Jaskera, -ia. Jaitsiera. ‘Bajada’. *Hemen jaskera txarra dakogu eta konponketan gabiltz.*

Jator, -ra. 1. Pertsona ona eta atsegina. ‘Majo, -a, agradable.’ *Mutil jator askua hartu dau!* 2. Bertakua. Bertakuen modukua. ‘Autentico, -a, castizo, -a’. *Oñatiar játorra, hauxe dok/n hau!*

Jatun, -a. Asko jatekoa. ‘De buen apetito, comilón, -a’. Sin. **jala**, -ia.

Jaurti, *jaurtitten; ald. jaurtiu*, *jaurtiuten* (Araotz). Inddarrez bota zerbait (harrixa, tirua...). ‘Lanzar, arrojar’. *Jaurti nitxan/nitxanan bi tiro, baiña hala be hanka egin xostan/xostanan!*

Jausi. Erori. ‘Caer(se)’. *Gure ama lurrera jausi eta mokorra apurtu eben.*

Jazban, -a. Sasofoi, eskusoiñu eta baterixagaz (gehixenetan) osotutako musika taldia, erromerixetan jotzen ebena, Kaxiano Lizartzako itsuaren taldia, esaterako. ‘Grupo musical, compuesto generalmente de saxofón, acordeón y batería, muy de moda en las romerías de cierto rango’.

Jazkizun, -a. Sostengua, etorkizuna. ‘Beneficio, provecho, sostén, futuro’. *Horregaz eztago jazkizunik.* Etxian lana egon eta alde egin bihar ebela

esateruzkuan amaren erantzuna: *Hirekin xakuagu/xakonagu jazkizuna!* (*Hirekin jai xagok/n!, hirekin etxagok/n zer egiñik*); edota etxian lana egon eta bata hara fan bihar dala, bestia bestera, orduan amak botako eben: *Hau jazkizuna!* edota *Zuekin dakogu jazkizuna!*

Jaztetxe, -ia. Baserriko jentia erropak aldaketako kalia izaten euen etxia. ‘Casa del pueblo en la que los campesinos, -as se mudaban para ir a la iglesia’. *Erlenian geukan guk jaztetxia./ Jaztetxian erropak eta oiñetakuak aldatu eta gero estaziñora faten giñan.*

Jentetza, -ia. Jenteketia, jente-pillia. ‘Gentío’. *Hau da jentetzaia! Jentetza ikaragarrixa!*

Jera-geraka egin, ibilli, fan. Eskuetatik edo bizkarretik obatuta saltoka fan, normalian musikiak lagunduta. ‘Movimiento de ir saltando cogiéndose de la mano o del hombro, normalmente acompañados de música’. *Jera-geraka fan ziran Elizondotik Ugaranera./ Jera-geraka dabiltz kalia gora kalia behera.*

Jesus-katillu, -a. Oso neurri haundiko katillua. ‘Tazón de tamaño muy grande’.

Jijimaja, -ia. Sudurragaz egitten dan berbeta modua. ‘Gangueo. Habla de nariz’. *Jenarok jijimajia dako./ Eztauko jijimajarik.*

Jirau. 1. Zuzendu, lortu. ‘Conseguir, obtener’. *Zuk nundik jirau dozu txaketa hori?* 2. Konpondu, ingiratu. ‘Arreglarse, llevarse’. *-Zela jiraitten haiz bi ume horreikin? -Zilla ondo sikatuta dakoi, bai, eta jiraitten nauk/n. / Txakurrori jirauko dok/n bai, bakarrik. Trankil egon!*

Jitto, -ua. Ijitoa. ‘Gitano, -a’. **Jitto-herri**. Araozgo Aratzurti auzunia. ‘Pueblo o lugar de gitanos, -as’. Sin. **motxailla**.

Jo. 1. ‘Pegar’. *Mutiko horrek jo egin nau. Jota egon.* Gaizki egon. ‘Estar mal o enfermo, -a’. *Katarrua dala eta eztala, jota nago. Jotera egin.* 1. Atzeraka eragin. ‘Tirar para atrás, tumbar’.

Okelia ona dago? Eztau jotera egitten, behintzat! 2. Eraso egin (behixak) ‘Hacer frente, atacar’. *Kontuz behi horrekin, jotera egitten dau-eta!* 3. **Garixa, sagarra, artua jo**. ‘Trillar, desgranar, machacar...’. 4. **Argixa jo**. Argixa ixutu. ‘Encender la luz’. 5. **Sasixak jo, naharrak jo, bedar zakarrak jo, otia jo**. Ebagi. ‘Cortar, desbrozar la maleza’. 6. **Musikia jo**. ‘Sonar, tocar’. *Zer musika jo daue kontziertuan?*

Joaldi, -xa. Ekiñaldixa zerbait joten: trikitixa, txistua, organua... Baita oillarraren edo beste animalixaren baten kantua be. ‘1. Tiempo o rato tocando un instrumento. 2. Canto (del gallo); sonido que emite un animal’. *Soiñuarekin egunero egitten dau joaldixa./ Horrek oillarrorrek egin dittu joaldixak.*

Jokatu. 1. Norgehixagoko joku baten parte hartu. ‘Jugar (en una competición)’. *Ederki jokaketan dau horrek pelotan.* 2. Dirua kartetan edo apustuetan arriskau. ‘Jugar dinero en general’. *Frontoian eta kasinuan jokaketan dauenak, azken txarra.* 3. Portau. ‘Obrar, actuar’. *Gurekin eztaue zuzen jokatu, egunen baten akordauko dira.*

Jokera, -ia. Norabait fateko edo zerbait egitteko zaletasuna. ‘Inclinación, afición, tendencia’. *Harako jokeria dakoi./ Jokera txarra hartu daue./ Basora dako jokeria.*

Joku, -a. Bere esangura guztietan. Garbi esaten ezpada, karta-jokua entenditten da, edota, testuinguruagatik, diru-apostia. ‘Juego en general, pero sobre todo juego de cartas, o donde se juega dinero’. *esr. JOKUAN.* ‘A cartas’. *Urtero egitten dogu jokuan Gabonetan. / Joxepin eta M^a Asun jokuan amorratuak dira. esap. Jokua ezta errenta, hoba da oillua erreta.*

Jola, -ia. *ald. joilla, jotzailla, jole*, -ia. Joten dauena. ‘Pegador, -a, que golpea/pega’. *Pelotari ha jola ona zan.*

Jolas, -a. Norgehixagoka bako jokua. 'Juego pero sin competición'. Jolasak. 'Los juegos'. Sin. **olgeta** (Araotz)

Jolas egin. Jolas baten parte hartu. 'Jugar pero sin que haya competición'. *Jolas egingo dogu tronpuarekin? Zertan zabiltzai? Jolasian gabiltz. esr. Jolasabarrian etxera fatia* 'Ir a casa en plan festivo o de juerga'.

Jolasgura, -ia. Jolas egitteko gogua. 'Ganas o deseo de jugar'. *Jolasguria egin xako eta... / Honeik gaur etxakuai/etxakonai jolasgurarik.*

Jope(t) egin. Alde egin. Ihes egin. 'Huir, escapar'. *Jope egin daue.*

Jorrai, -xa. Jorrrarako atxur txikiña. 'Sarcillo, escardillo, azadilla'.

Joskin, -ña. Josten dauen emakumia. 'Modista, costurera, sastre'. Gizona bada, **jostun** edo **sastre** esaten da gehixago. *Mikaela joskin oso ona da./ Joskiñak zenbat kendu dotsu?/ Hori egitteko joskiñik eztozu samur topauko.*

Jostun, -a. Josten dauen gizakumia. 'Modisto, costurero, sastre'. *Edurneren gizona jostuna da. Jostuna, eta ez bertan beherakua!*

Joteralaari, -xa. *ald. joterakaari*, -xa. Jotera egitten dauen ganadua, adarkarixa. 'Atacador, -a, corneador, -a'.

Juaniko, -ua. *ald. juanikote*, -ia. Hankako gaitza. 'Juanete'.

Jubilau. 1. Erretirua hartu. 'Jubilarse'. 2. Jubilau, -a. Erretirua hartutakua. 'Jubilado, -a, retirado, -a'.

Junta, -ia. 1. Batzordia. 'Comisión, comité'. *Gaur hil dana jubilauen juntakua zan.* 2. Billeria. 'Reunión, asamblea'. Sin. **juntaizua**, **auza-batzeia**, **batzarra**.

Juntaizo, -ua. Billeria. 'Reunión de amigos, -as'. *Gaur be juntaizua dakozue?*

Jurgu, -a. Bi lursaillen artian izten dan zirrindaria. 'Franja estrecha que se deja entre dos campos (de labradío, generalmente)'. *Baiña ze goldaketa egin*

dok/n? Jurgua eta dana labrau dok/n eta!

Justui, -xa. *ald. justoi, justuri*, -xa. Trumoia. 'Trueno'. *Atzo izan ziran oiñazuak eta justuixak! Justuixa jo dau./ Gabian horeixa ibilli da, oiñazuak eta justui zartada galantak entzun dira. / Justuixak eta iñazuak* (Araotz)

Justuleuri, -xa. Hodei-eurixa, hodei-zaparradia. Justuixak jo ondorengo eurixa. 'Lluvia de tronada'.

Kaballera, -ia. HEGAZ. *Falco tinnunculus*. Belatz gorrixa; belatz txikiña. 'Cernícalo vulgar'.

Kabilddara, -ia. 'Gavilán'. Ik. **gabillara**.

Kafe, -ia. 'Café'.

Kafesne, -ia. 'Café con leche'.

Kaiku, -a. 1. Esnia jasoteko ebalten zan zurezko ontzixa. 'Cuezo, cuenco de madera para recoger la leche'. 2. Mozolua, arlotia. 'Tonto, -a, necio, -a'. *Mutiko kaikua./ Gizon kaikuagorik!*

Kailla, -ia. 1. Keiza edo sagarren txortena. 'Pedúnculo de las cerezas, manzanas, hojas, etc.'. 2. Segiaren kirtenaren goiko heldulekua. 'El saliente que tiene la guadaña en la parte superior del mango para sujetarla. **Kailla jo**. Izurraittia, burla egittia. 'Fastidiar, burlarse'. *Káillia jo txak/n ederki! / Káillia jotia: atzekaldia jotia, burla egittia.*

Kaka. 'Excremento, mierda'. *Kaka fraketan egindda etorri da mutikua!*

Kakagura, -ia. 1. Kaka egitteko gogua. 'Tener ganas de evacuar'. *Kakaguriak larri./ Kakaguriak dago.* 2. Amorrúa. 'Producir rabia o asco'. *Horrelako gizonak kakaguria emuten xostai/xostanai.*

Kakalarri, -xa. Kakagura larrixa, estualdixa. 1. Intensas ganas de ir al baño. 2. Momento de apuro, mal rato. *Kuartelera presentau bihar nintzala esan nostañian, a ze kakalarrixa!*

Kakamutiko, -a. Kakaumea. ‘Imberbe, crío’.

Kaka-nahaste, ia. ‘Embrollo, enredo’. Ik. **nahaskilla**.

Kakanahastu. Ziharo nahastu. ‘Embrollar, enredar, liar’. *Etorri da Jabier eta dana kakanahastu dau!*

Kakanarro, -ua. Txikiña, nanua; pertsonakin, ixa bakarrik. ‘Pequeñajo, -a’.

Kakaneskatilla, -ia. Kakaumia dana neskatillia danian. ‘Niña pequeña, cría’.

Kakatsu, -a. Pazientzia gutxikua, ipurterria; desatsegiña. 1. Fastidioso, -a, molesto, -a, persona de poca paciencia. 2. Desagradable. *Pertsona kakatsua./ Eguraldi kakatsua./ Euli kakatsu bat badabil hemen.*

Kakaztu. Zikinddu. ‘Ensuciar(se), echar a perder’.

Kalamo, -ua. ‘Cáñamo’.

Kalau. 1. Goittik behera busti. ‘Empaparse’. *Kalauta zatozai!* 2. Goi edo gain batian zerbait txintxiliz geratu. ‘Quedar colgado, -a algo en un alto’. *Baloia kalau xakun teillatuan.*

Kaldara, -ia. Galdara. ‘Caldera’. *Ur-kaldariak errebentau egin doste.*

Kaldor, -ra. Arrazoia emuten eztaixena; gaiztokerixak egitten dittuena; narratsa. 1. Persona ruin, innoble. 2. Que hace acciones malas. 3. Desaliñado, -a, dejado, -a.

Kale egin. Huts egin. 1. Cometer un fallo jugando a la pelota por ej, no acertar. 2. Fallar, no acudir. *Orainguan egin dozu kalia, zuk!! Aurten kale egin doskue Anduagatarrak!*

Kale-baserri, -xa. Kalian edo kale onduan dagueen baserrixa. Oñatin asko ziran, esaterako: Erlenekua, Txoriñekua, Olaldekoa, Etxeberrialdekoa, Martoluen... ‘Caserío que se encuentra (o ha acabado por encontrarse) dentro del casco urbano’.

Kalentura, -ia. Sukarra. ‘Fiebre’. *Illunkara orduko kalenturiak asko igo dost eta orain, berriz, hotzikaraka nago.*

Kalistro, -ua. Elizako edo unibersidadeko klaustua. ‘Claustro de la iglesia o la universidad’.

Kalistrope, -eia. Parrokixako klaustro azpixa. ‘Parte de abajo del claustro’. *Oñatiko parrokixako kalistropetik Ubao errekoa pasaitten da eta hori leku gutxittan ikusten da.*

Kaltza, -ia, kaltzaak. (pl.). Galtzerdiak. ‘Calcetines’.

Kamara, -ia. Ganbara. ‘Camarote para secar el maíz, manzanas, hierba...’. *Arta-kamaria, sagar-kamaria, bedar-kamaria...*

Kamiñero, -ua. Errepidiak konponketan dittuen langillia. ‘Peón caminero’.

Kamuxa, -ia. *ald. kamuixa*, -ia. LAND. *Malus domestica*. ‘Camuesa’. Sagar klase bat, dultzia dana. Sagardaua egitteko ebalten zan.

Kana, -ia. Metrua baiño gutxitxuago dakon luzeera neurrixa (835,9 mm.). ‘Medida de longitud menor que el metro (835,9 mm)’. *Luzian hamabost kana eta zabalian sei zittuan.* **Kana erdi**. Kaniaren erdixa. ‘Media cana; media vara. Kanaerdi, tronco de media kana; es decir, de 54 pulgadas (125 cms.) de circunferencia’.

Kanal, -a. Ubidea. ‘Acequia, canal’. *Kanaleko bueltia egin bihar dogu. Bazatoz?*

Kankaillu, ua. Luzia, hanka luzekua. ‘Grandullón, -a; desmañado, -a’. Sin. **kankano; kankanotzaar**.

Kankinddu. Jota geratu, batez be beruak jota. ‘Desfallecer’. **Kankinddutta**. ‘Desfallecido, -a’.

Kanpae, kanpaia(k), kanpaak. ‘Campana’. *Ze kanpae dira horreik? / Ze kanpae jo daue gaur?* Kanpae klasiak: 1. **Auzua**. Auzua egitteko, batzeko, joten zan kanpaia. ‘Llamada

para convocar asamblea de barrio'. *Auzua jo dau*. Araotzen auzua jotzen ebenian kanpaiak biko (*tan-tan!*) hiru errepika, atsedena egin eta barriz be bardin, eta azkenik, beste atsedena bat eta barriz lehengo hiru errepikak jotzen euen. 2. **Amaittakua jo** (Abe Mariatakua jo) Illuntabarreko kanpaia; ha jotzen zanian musika-soiñua isilddu egin bihar derrigor. Erretiroko kanpaia zan. 'Toque al anochece'. 3. **Hil-kanpaak edo hil-kanpaiak**. Iraupen haundiko hotsa dakoi, soseguz baiña poliki-poliki aldaketan doiana. Hilleta orduan jotzen zan, behin meza aurretik eta beste behin meza ondoren; bigarren honek elizaren urteeratik kanposantu sarreraraino irauten eben. Hilletetan lagunketiaz gain, baten baten heriotza anuntziatuko balixo eben, bardin bertakua bazan edo bertakua izanda kanpuan bizi bazan. Toke kopuru desbardiñak esaten euen hilddakua gizona, emakumia edo umia zan. Gizona hiltzen zanian hiru kanpai illaran jotzen ziran, emakumia zanian bi eta umia zanian, barriz, gloria jotzen zan (Arientza, Mendiola... Aretxabaleta). Oñatin be antzeko zeozer egin izan bihar da gaur egun. Gloria jotzen zanian aingeru-kanpaia-edo esaten otsailla uste dogu. 'Campana que toca a muerto, -a. Cuando el fallecido es de corta edad : repique de niño, -a muerto'. 4. **Jai-kanpaak edo jai-kanpaiak**. Jai egunetarako. Bezperan, eguerdiko kanpaia jo eta gero, kanpai haundixari eragitten xakon. Prozesiñuetan, Korpus egunekuan esaterako, kanpai danairi eragitten xate. 'Campana de día festivo, festividad especial; domingo'. 5. **Hodei-kanpaak edo hodei-kanpaiak**. Txingor zaparrarak urrinddu eta ura ekarten euelakuan, garai baten jotzen ziran kanpaak. 'Campana avisando tormenta'. 6.- **Su-kanpaak edo su-kanpaiak**. Erdi maillako abixara eutsixan egitten zan kanpae-jote etenbagia zan. Baten bat bada etenbagia, hauxe da bat, eta zarata honek herrittarairi diar egitten osten

herrixan edo auzuan nunbaiten sua eguelako. 'Toque de campanas a fuego'.

Kanpangona, -ia. Lehenagoko gona luze kanpai formakua. 'Se llaman así las sayas antiguas, largas y acampanadas'.

Kanpanilla, -ia. Kanpaatxua, txiliña. 'Camapanilla'.

Kanpantorre, -ia. Elizako torria. 'Torre de la iglesia'.

Kanpantxilla-bedar, -ra. LAND. *Calystegia sepium*. Ezkerte zuria. 'Campanilla, campánula'.

Kanpantxori, -xa. HEGAZ. *Apus, apus*. Sorbeltz arrunta. 'Vencejo común'.

Kanposantu Egun, -a. Santu Guztien Eguna. 'Día de Todos los Santos'

Kantaari, -xa. Kantuan egitten dauena. Txorixakin ebalten da, batez be. 'Cantor, -a'

Kantore, -ia. Kantuan egitten dauena, koruan adibidez. 'Cantor, -a, cantante'. *Koruko kantoriak*.

Kantsakor, -ra. Kantsau egitten dauena. 'Cansino, -a'. *Lan kantsakorra./ Pertsona kantsakorra*.

Kantsau. Nekatu. 'Cansar(se), fatigar(se)'. Ik. **errendiu, ukatu**.

Kantue, kantoia. Kale-ertza edo zatixa. 'Cantón'. *Kale Barrixan, Plazaola optikaren aurrekaldian eguen Ritaren dendiak kale bittara egitten eben kantue*.

Kantzontzillo, -uak. 'Calzoncillos'. *Kantzontzillotan agertu xaku sukaldian*.

Kapagin, -ña. Ganadu zamarixendako (zaldi, mando, asto) manta latzak egitten dittuena. 'Marraguero, pelaire'.

Kapataz, -a. Obratako eta mendiko enkargadua, aixkomente. 'Capataz'.

Kapau. Irendu. 'Capar'. *Idixak idisko kapauak dira*.

Kaponar, -ra. Gaizki irendutako kapoia, jateko txarragua. 'Capón mal castrado'.

Kaponeme, -ia. Ondo irendutako kapoia, jateko hobia. 'Capón bien castrado'.

Kapue, kapoia. *ald.* **kapoi**, -a. Kapautako oillaskua. ‘Gallo castrado’.

Karakol, -a. Barraskiloa. ‘Caracol’.

Karamarro, -ua. *ald.* **karramarro**, -ua. 1. Karramarrua edo hamarratza (Brachyura), animalixa erreñuko krustazeo bat da, oskol batez babestua eta aurrekaldian bi matxarda (pinza) dittuena. ‘Cangrejo’. 2. Artuaren eulitxua. ‘Insecto del maíz’. 3. Patataren kokua edo malua. ‘Escarabajo’.

Karamelu, -a. Gozokixa. ‘Caramelo’. *Ekarri karamelu bat agua gozaitteko. / Barkilleruan erosi karameluak.*

Karapaixo, -ua. 1. Garizuma sasoian ogiz eta arrautza gogorrez egindako hiruki formako pastel modukua, amapuntakuak besuetakuari egitten xaona tradiziñuaren arabera. Oraindiok Debagoixenian bizi-bizirik daguen ohitturia da. ‘Pastel similar a la Mona de Pascua’. **Hau dok/n hau mutiko karapaixua!** Kaikua, tontolapikua. ‘Tonto, -a, necio, -a’.

Kardubera, -ia. LAND. *ald.* **karduera**, -ia. Bedar biguna eta gozua, oso estimaua ganaduak (astuak, konejuak, txarrixak...) gustora jaten dauelako. Kardabera. *Sonchus oleraceus*. ‘Cerraja’. Sin. **txarri-kardo**, leku batzuetan.

Kardulatz, -a. LAND. *Dipsacus fullonum*. Karduen artian arruntena. ‘Cardencha, cardo de cardadores’.

Kare, -ia. Karea. ‘Cal’.

Kareharri, -xa. ‘Piedra caliza’.

Karen, -a. Animalixa baten kumakixa gordeten dauen mintza. ‘Placenta’.

Karetegi, -xa. Karia gordeten zan lekua. ‘Lugar donde se guardaba la cal’. *Karetegixok aspaldi ezkutau ziran.*

Kargau. Zamatu. ‘Cargar’. **Kargauta geratu, itzi**. Haurdun geratu, utzi. ‘Quedar, dejar preñada’.

Karnizero, -ua. Harakiña. ‘Carnicero’. *em. karnizera, -ia. Milagros karnizeriak odoloste onak eukitten zittuan, ba!*

Karobi, -xa. Karia egitten zan lekua. ‘Calera, horno de cal’. *Karobi zahar asko ikusten dira orainddiok, baiña karia egittiari aspaldi itzi xakon.*

Karraputxi, -xa. Arraspada baten ondoren azalian urteten dauen kostria. ‘Postema. Costra o postilla que se forma en la piel a consecuencia de una raspadura; rasguño en la piel’.

Karraputxittu. Urratu. ‘Raguñar, raspar, herir’. *Eskua karraputxittuta dako.* (Tiene la mano llena de rasguños (arañados por el gato, por ej.)

Karretero, -ua. Itzaiña; idi pariagaz eta burdixagaz karriura dedikaitten zana. ‘Boyero, -a. Guía de bueyes. (transportista de antaño)’.

Karriau. *ald.* **karriu**. Garraiatu. ‘Transportar, llevar, acarrear’. *Umiok etxera ezin karriau nabil. Karriuan.* Garraiatzen. ‘Transportando, llevando, acarreando’. *Egur karriuan, ur karriuan, lur karriuan, harri karriuan, sits karriuan, ikatz karriuan...*

Karrilloi, -a. Oso azal gogorreko intxaurra, mamin gutxi eta azal sendokua ‘Clase de nuez de cascara dura y gruesa, pero de poca carne’. Basoko animalixak be eztaue jaten, hortik *esr. Karrilloia baiño gogorragua izan.* *Mutiko hau karrilloia baiño gogorragua da!*

Kartero, -ua. Postaria. *em. kartera*, -ia. ‘Cartero, -a, empleado, -a de correos’. *Migel karterua. / Badator Migel karterua eta fan zatez behera ikustera zer dakarren / Araozgo karterua. / Karteria pasau da gure kaletik?*

Kaskagor, -ra. Burugogorra. ‘Testarudo, -a; de carácter fuerte’.

Kaskaillu, -a. Haundixa eta ergel samarra. ‘De poco seso, más bien tonto.(usado para masculino)’. *Mutil, gizon, agura kaskaillua* (betik gizonezkua). *Kaskaillua halakua!*

Kaskaillukerixa, -ia. Buruarinkerixia, lelokerixia. Kaskailluaren egittia. ‘Tontería, necedad, insensatez, ligereza’.

Kaskajo, -ua. Kaskarin eta kirten samarra. ‘De poco seso y algo gamberro’.

Kaskal, -a *ald.* **kaxkal**, -a. Ergela, buruarina. ‘Frívolo, -a, superficial’.

Kaskalkerixa, -ia. Kaskalaren egittia. ‘Tontería, necedad, insensatez, ligereza’.

Kaskanol, -a(k). ‘Castañuela(s)’.

Kaskar, -ra. 1. Burua. ‘Cabeza’. *Nere kaskarra fan dok/n pikutara!* **Kaskarra berotu**. Burua berotu. ‘Calentar los cascos’. Ik. **teillatu**. 2. Txikiña. ‘Pequeño, malo, de mal tamaño, de mala calidad’. *Aurtengo sikutiagaz sagar oso kaskarrak egin dira.*

Kaskarin, -ña. Buruariña. ‘Casquivano, -a, ligero, -a de cascos’.

Kasketatsu, -a. Egoskorra. ‘Obstinado, -a’. *Bazara gero zu gizon kasketatsua!*

Kataar, -a. Katu harra. ‘Gato macho’.

Katae, kataia; *ald.* **katai**, kataia; **kate**, kateia; **katia**, kateia. Katea. ‘Cadena’. *Ekarri katia bat. /Ekarri kateia, idixa lotzeko./ Katae hau oso hordeittuta dago.*

Kataeme, -ia. Katu emea. ‘Gato hembra’.

Katagorri, -xa. *ald.* **kattagorri**, -xa; Urtxintxa. ‘Ardilla’. Sin. **katamixar**, -ra.

Kataman, -a. UGAZ. *Felis sylvestris*. ‘Gato montés’. Ik. **basakatu**.

Katamarran ibilli. Lau hankan ibilli. ‘Gatear’. Sin. **katuka**, **lauoiñian**, **txakurka**, **katamiaka... ibilli**.

Katamixar, -ra. Urtxintxa. ‘Ardilla’. Sin. **katagorri**.

Katanar, -ra. UGAZ. *Certhia braehydaetyla*. Gerri-txori arrunta. ‘Agateador común’. Txori txikiña. Sin. **amilotx**.

Katiau. *ald.* **katiatu**, **katiu**. Katigatu, trabau. ‘Enganchar(se), enredar(se), trabar(se)’.

Katillu, -a. Kirten bariko taza biribil haundixa. ‘Tazón’. *Katillukara esnia.*

Katiuska, -ia. Gomazko botia, oiñetakua. ‘Botín de goma’.

Katu, -a. ‘Gato’.

Katu-mao, -ua. UGAZ. *Felis sylvestris*. ‘Gato montés’. Ik. **basakatu**.

Katxesa, -ia. Txepelkerixia, ganorabarkerixia, fundamentu eskaxa, gibel haundikerixia. ‘Pachorra, flema, cachaza’. *Hik dakok/n katxesia, eguardixa eta ganaduak gobernaitteko! /Honeik dakoi katxesia, ezertarako prisarik ez! /Orainddiok bazkarixa ifintteko dakozu? Zuk dakozu katxesia!*

Katxo, -ua. Ezkertia. ‘Zurdo, -a’.

Kaudelbage, -ia. Pertsona odolbagia, ganorabagia, txepela. ‘Insustancial, sin fundamento, sin vitalidad’. *Kaudelbagia da baiña!*

Kazari, -xa. *ald.* **kazaari**, -xa. Ehiztaria. ‘Cazador, -a’.

Kazkabar, -ra. Txingorra, kixkoria. ‘Granizo’. *Laiño baltz horreik kazkabarra dakarde.*

Ke, keia. Kea. ‘Humo’.

Kedarra, -ia. Tximinixa barruko kostra baltza. ‘Hollín’.

Kedartsu hari, -xa. ‘Cinta cristal’. Mertzerixetan saltzen da eta, bestiak beste, baserri-tako tximinixetako kanpaeko kurtiña ifintteko ebalten zan.

Keiza, -ia. Gerezia. ‘Cereza’.

Kentzailla, -ia. Kentzen dauena. ‘El que quita. Quitador, -a’. *Errotarixa motura kentzaillia zan.* (**Motura**, -ia: errotarixak bere lana egittiagatik kobraiten ebena, aixkomente ixotera eruandako urunaren hamarrena izaten zan).

Kerizpe, -ia. Itzala. ‘Sombra’.

Keriztui, -xa. Gerezidia. ‘Cereza, cereceda’.

Kiko. Baten baten sorbaldan fatia, hankak aurrian dirala. ‘Ir sentado sobre los hombros de alguien con los pies por delante’. *Guazen kiko! / Arre kiko!*

Kili-kili, -xa(k). ‘Cosquillas’. **Kili-kili egin**. ‘Hacer cosquillas’.

Kilin, -ña. Gutxi jaten dauena. Mizkiña jaten. ‘Melindroso, -a, de mal comer’

Kilin-kolon. Ondo lotu barik, kili-kolo, loka. ‘Suelto. Balanceándose, tambaleándose’. *Honek kilin-kolon dako pieza guztiak*.

Kiltza, -ia. Giltza. ‘Llave’.

Kiltza-orratz, -a. ‘Imperdible’.

Kinda, -ia. Gerezi mota. “Guindo, guinda”. Kinda-arbolia, haundixa be ezta izaten. Keizak baiño lehentxuago heltzen dira.

Kintto-bazkari, -xa. Urte batian jaixotako kinttuak, nahiz eta soldau ez fan, urtero alkarrekin egitten dauen bazkarixa. ‘Comida de quintos (compañero de quinta; de la misma edad)’.

Kipula, -ia, -aak (pl.). LAND. *Tipula. Allium cepa*. Kipulaak be denpora luzian itzi ezkerro, garaatu egitten dira. 1. ‘Cebolla’. 2. Mal por el cual se estropea el material del castaño, roble, etc., soltándose en círculos. Igarkizuna: *miña da miña, ezta piparra; gonaak dako eta ezta andria; bizarrak dako eta ezta gizona. Zer da? (kipulia)*

Kipula bedar, -ra. LAND. *Alium ursinum*. Zuztar patataduna dako eta lora zurixa. ‘Ajo de oso’.

Kiputz, -a, -ak. Ixxixio (Ezkio) aldekuak: Segura, Gabiria, Mutiloa, Zerain, Idiazabal, Zegama(?) eta inguru horretakuak. ‘Gipuzcoanos del interior’. *Hor Kiputzian. / Kiputz aldera esaten da...* 2. Kiputz ipurzurixak. ‘Vagos, pero buenos tratantes’. Bi errefrau: *Ixxixua (Ezkio) eta Garibi (Gabiri) eztek/n dirurik poltsan agiri. / Zumarraga eta Villarial eztek/n poltsan hirun(a) errial*.

Kiribillar. ‘Abubilla’. Ik. **argioillar**.

Kirikau. *ald. kirik(a) egin, kirikada bat egin*. Zelatatu. ‘Acechar, vigilar’.

Ate ostetik kirikaitten dagoz./ Fan zaitez kirikaittera, ia zertan dabilten.

Kirikixo, -ua. *ald. kirikaixo*, -ua. UGAZ. *Erinaceus europaeus*. Kirikinoa, trikua. ‘Erizo’.

Kirten, -a. 1. Eskulekua. *Eskobakirtena, lapiko-kirtena, atxur kirtena, atiaren kirtena*. 2. Ekintzetan edo hitzetan baldarra. ‘Torpe, majadero, -a’. *Mutiko kirtena*. 3. Kaillia. ‘Pedúnculo de fruta o verdura’. *Honi kirtena bakarrik itzi bihar xako* (piparrak jaten gagozela).

Kirtenkerixa, -ia. Kirtenaren egittia. ‘Estupidez, necedad, majadería’.

Kirtenpote, -ia. Kirten haundixa. ‘Gran majadero, -a’.

Kitaborroi, -a. *ald. kitaborrue*, kitaborroia. Borragomia. ‘Goma de borrar’.

Kittarra, -ia. ‘Guitarra’.

Kixkor. *adb. Gogor, tente samar. ‘Contraído, encogido, seco’. Konejua labian egindda, berihela jaten ezpada, kixkor geraketan da.*

Kixkora, -ia. Harri (kazkabar) xehia. ‘(el) granizo muy menudo’. *Derrepentian kixkora-zaparradiak harrapo gau.*

Kizkur, -ra. *ald. kixkur*, -ra. ‘Rizo’, ‘rizado’, ‘arrugado’. *Landara kizkurra. Ule kixkurak.*

Kizkurtu. *ald. kixkurtu*. 1. ‘Rizar(se)’, ‘arrugar(se)’. *Uliak kizkurketan hasi xako umiari./ Era horretan egoten bazara, erropak kizkurtuko xatzu.* 2. ‘Aplastar, moler’. *Jota kixkurtuta geratu giñan.* 3. ‘Aterir’. *Bihetzak kixkurtuta dakot hotzogatik.*

Klaudiokaran, -a. LAND. *Prunus domestica*. Klaudia arana. ‘Ciruela claudia’. Sin. **klaudia**.

Koillara, -ia. *ald. kullara*, -ia. ‘Cuchara’.

Koiñata, -ia. ‘Cuñada’.

Koiñatu, -a. ‘Cuñado’.

Koiñatu-koiñatak. ‘Cuñados’.

Koittau, -a. Gizarajua. ‘Pobre, cuitado, desgraciado’. **Koittaututa**. Gixarajotuta. ‘Debilitado, volverse cuitado (un varón)’. *Fidel Castro oso koittaututa ageri da azkenaldi honetan.*

Koko. ald. **kokolo**. Txokolatua ume ber. ‘Chocolate l. inf.

Kokolo, -ua. 1. em. **kokola**, -ia. Kaikua, lapikua, mozolua. ‘Lelo, fatuo, bobo, soso’. *Zelakua da, ba, maisua? Kokolo haundi bat. / Horrelako kristaurik! Ez barbarik egitten dau, ez erantzuten...; kokolo samarra da!* 2. **Kokolo egon / kokolo mokolo egon**. Erdi lotan, inddar edota txispa barik egotia. ‘Estar medio dormido, -a, apagado, -a, sin chispa, atolondrado, -a, aturdido, -a’. *Hortxe dago etzindda kokolo-mokolo.* 3. **Kokolotxua**. ‘Termino cariñoso: amado, a, querido, -a, cosita. Pequeño, -a, sin experiencia alguna’. *Nun da nere kokolotxua? / Kokolotxua orainddiok!*

Kokolotu. Iñuxente bihurtu, tontotu. ‘Atontar(se), alelar(se)’. **Kokolotuta geratu, egon**. ‘Estar o quedarse atontado’.

Komadrona, -ia. Emagina. ‘Matrona, comadrona’.

Komeni izan. Egogi etorri, izan. ‘Convenir, ser conveniente’. *Mendira fateko, oiñetako egogixak janztia komeni da.*

Komenigarrixa izan. Komeni dan gauzia. ‘Ser conveniente, adecuado, apropiado’. *Hori egitteko, zuek be etortia komenigarrixa izango litzake.*

Komentzia. Aukeria. ‘Ocasión, coyuntura, oportunidad’. *Orain edurretan ibiltteko komentzia ederra dago./ Hantxe etxia erosteko komentzia euki neben nik oraintxe urte asko eztala.*

Konbentziu. Konbentzitu. ‘Convencer’. *Konbentziuta egongo zara, baiña hori ezta hola! / Irabazi euen konbentziu barik.*

Konbidau. Gonbidatu. ‘Invitar’.

Konbidau, -a. Gonbidatua. ‘Invitado, -a’

Konbidautza, -ia. Gonbidautza. Gonbidatuakin egitten dan bazkari edo afarixa. Sasue batian aparteko eguna izan ohi zan. ‘Acto de reunirse todos los convidados (por fiestas, normalmente)’. *San Pedrotan urtero egitten zan konbidautzaia Zubillagako errotan.*

Konbitte, -ia. Gonbidapena. ‘Invitación’ *Korpus egunerako jaso dozue konbittia? Bai, Trinidadetan esan oskuen.*

Kondaatu, *kondaaketan*. Berakatzak, kipulak eta abar sortatan jarri. ‘Trenzar ajos, cebollas, etc. Trenzar en tres ramales’. *Hiru kondagaz egin.*

Kondukta, -ia. Oroitzapena, akordua, arrastoa. ‘Recuerdo, memoria, vestigio’. *Eztakot nik horren konduktarik.*

Konfittero, -ua. Gozogilea. ‘Confitero, -a, pastelero, -a’. *Konfiteruena Kale Barri eta Patrua kaleko kantarian daguen etxia da, Txoriñaren aurrian.*

Konfundiu, *konfunditten; konfundiu* (Araotz). Gura barik hankia sartzea. ‘Confundirse, equivocarse’ *Barkatu! Konfundiu egin naiz-eta! / Harekin ezingo haiz konfundiu*

Koniflora, -ia. Azalorea. ‘Coliflor’.

Konkistau. ‘Conquistar’. *Itxura horrekin eztok/n behinguan iñor konkistauko!*

Konortau. Konortia etorri. ‘Venir el conocimiento, venir en sí’. *Orainddiok konortau barik nago!*

Konparau. Alderatu. ‘Comparar’.

Konsentiu. Egitten itzi. ‘Consentir’. *Gaurko umiari dana konsentitten xate./ Hori be konsentiu xatzu? / Nik enotsake konsentiuko, ezta pentsau be!*

Kontau. 1. Esan. ‘Decir cuentos’. *Antxiñako kontuak kontau.* 2. Zenbatu. ‘Contar’. *Dirua, billetiak, fitxak... kontau.* 3. Baten baten parte hartzea aseguru. ‘Contar con alguien’. *Harekin ezin leike kontau.*

Kontzejupe, -eia. Udaletxeko arkupeiak. ‘Pórtico, soportal del ayuntamiento’. Udal aldizkarixaren izena.

Kopeta, -ia. Ile-trentza. ‘Trenza de pelo’. *Lagundu kopetak egitten*.

Korapil, -lla. Korapilo. ‘Nudo’.

Korapilddu, *korapilketan*. Korapilla egin. ‘Anudar’

Koroso, -ua. 1. MIKO. *Russula virescens*. Perretxiko berde-argi tantoduna, oso estimaua. ‘Palometa, seta de cura’. 2. Baserri-izena. Antzuola eta Oñati bittartian, Lizargarate onduan. (Larraña goikuan, Aurrekomendin).

Koroso-bedar, -ra. LAND. Zurixa, gari eta arto artian eta beste leku batzuetan be hazten da. ‘Clase de hierba, blanca que nace entre el trigo y el maíz, y desaparece por sí’.

Korostadui, -xa. *bat*. Gorostidi. Korosti askoko lekua. ‘Acebal’

Korostui, -xa. *ald.* **korostei**, -xa. LAND. *Ilex aquifolium*. Gorostia. ‘Acebo’. *Korostuixa sartu daue./ Korostui makillia*.

Korotz, -a. Pertsonen eta aberien eginkaarixak. ‘Excremento (gralmente. ref. al de los animales); estiércol’. Bekorotza (behixarena); bihor-korotza; ardi-korotza; erbi-korotza... ‘Boñiga o excremento de vaca, caballo, oveja, liebre...’. *Korotza da ongarririk onena./ Ardi-korotzak oso sits ona egitten dau./ Batzuk ardi-korotzaren sitsa bekorotzarena baiño gehiago estimaitten daue*.

Korpus Egun, -a. Corpus Cristi eguna. ‘Día del Corpus Cristi’.

Korredore, -ia. Txirrindularia. ‘Ciclista’.

Korta, -ia. 1. **KORTA-BASO**. Antxiña, batez be larrarako ebalten zan lur-sail borobilla. ‘Es un círculo perfecto de monte o terreno con su mojón en el centro. Sel’. *Kortiak erdi-erdixan*

harrixa eukitten dau./ Kortia ezta edozein modutakua, bere neurrixak dako./ Kondiaren kortetan makiña bat baserri egin ziran Oñatin.

Koskabillo, -ua(k). Kanpai hotseko bolatxo biribilla. ‘Cascabel’. *Koskabilluak, kanpanilla biribiltxo horreik, txikixok*. 2. Potruak. ‘Testículo(s)’. *ad. lok.* **Eurixa koskabilluakin egin**. Eurixa gogoz egittia, pozueta txipistin haundixak sortuaz. ‘Llover de veras’.

Koskittu, *koskiketan*. Gaztaiñairi azal zati bat kentzeia hagiñakin. Gaztaiñak hagiñakin apurtu. ‘Cascar con los dientes las castañas’. *Gaztaiñak koskiketan nabil./ Gaztaiñak koskittu dittut*.

Koskiu, *koskiitten*. ‘Producir dentera’. *Hagiñak koskiu dost./ Hagin danak koskiu xatak/n*.

Kostau. Costar. Zenbat kostau xatzue liburu hau?

Kriada, -ia. 1. Neskamea. ‘Criada’. *Lehenago oso normala zan kriada fatia aberatsen etxietara, harik eta fabrikaren baten lana topau edo ezkondu arte*. 2. Lapiko azpiko ohola. ‘Tabla de mesa (para cazuelas)’.

Kriau, -a. Morroia. ‘Criado’.

Krisketa, -ia. *ald.* **kisketa** -ia. Atiak eregi eta ixteko burdiñazko maratillatxua. ‘Picaporte, y por extensión, cualquier cerradura de manillas. Pestillo, corchete. Aldaba’. Sin. **ate-kisketa, ate-krisketa**.

Krisketia jo. 1. Aldabia jo. ‘Tocar la aldaba’. 2. **Kiskete jo. Krisketan egin**. Erdiko bihatzarekin eta bihatz haundixarekin hotsa atara. ‘Chascar los dedos’.

Kriskitin, -ña(k). ‘Castañuela(s)’. **Kriskitiñak jo**. ‘Tocar las castañuelas’. *Oñatiko San Migel dantzan jotzen dittue kriskitiñak*.

Kristau, -a. Lehenagoko formia, **kristaun**, -a. 1. ‘Cristiano’. *Elizan*

dixuenez, gero eta kristau gutxiago dago. 2. ‘Pertsona’. *Eztago bero hau aguantauko dauen kristaurik.* **Kristau-figura barikua.** Itxura txarrekoa. ‘De mal aspecto’. *Hau da hau kristau-figura bariko sorgiña, gona luze batzuekin etorri xakuna.*

Kuarta-tenpora, -ak. Tenporak. Urtian lau aldiz, urtaro barrixaren aurretuan izaten dira. ‘Témpora(s)’.

Kuartillo, -ua. Litro erdi. ‘Medio litro’. **Kuartillo eta erdiko botillia.** Hiru litro-laurdeneko botillia. ‘Botilla de tres cuartos de litro’. *Kuartillo eta erdiko botilla bana eran geben hamarretakuekin.*

Kuarto, -ua. Gela. ‘Cuarto, habitación’.

Kuidadu, -a. 1. Arduria, kezkoa. ‘Cuidado, preocupación’ *Eztako kuidadurik!* ‘No hay porque temer’. 2. **Kuidaduz ibilli.** Kontuz ibilli. ‘Andar con cuidado’. 3. **Kuidadua euki.** Inolako arazorik ez izan. ‘No tener problema alguno, no hay porque temer’. *Bakarrrik bialdu dot. Kuidadua dako!* 4. *Allakuidauz!* Hor konpon! ‘¡Ahí te arregles!’ 5. **Kuidadua euki.** Edozein moduz ez ibilli. *Kuidadua euki dau.* ‘Ha andado con cuidado’.

Kuixa, -ia. Apatzak egitteko erremintia. ‘Gubia’.

Kuku, -a. HEGAZ. *Cuculus canorus.* ‘Cuco’, ‘cuclillo’. **Kuku jota egon.** Makotuta, kankinduta, leher egindda. ‘Rendido, -a, agotado, -a’. **Kuku samar euki.** Jantzi bat txiki samar euki. ‘Tener un poco justa o pequeña una prenda’. *Alkondara hori kuku samar dakozu.* **Kuku jo, kuku jotia.** ‘No poder más, estar a punto de morir’. *Honena ikusitta dago. Kuku jo dau.*

Kuku-edur, -ra. Apiril aldera egitten dauen edurra, kukua etorri eta gero; oker haundirik ekarten eztauena. ‘Nieve tardía, de primavera, después de la venida del cuco’. *Udabarriko kuku-edurra./ Orainddiok aurten eztosku egin kuku-edurrik.*

Kuku-fraka, -ia, -ak (pl.). LAND. *Digitalis purpurea.* ‘Digital, dedalera’. La planta de flor azulada. Especie de planta de donde se saca la digitalina.

Kukumarroka. Gorde-gordeka jolasa. ‘Juego del escondite’.

Kulandriña, -ia. HEGAZ. *Hirundo rustica.* Enara. ‘Golondrina’.

Kulero, -uak. (pl.) ‘Bragas’. **Kulerotan.** ‘En bragas’. *Krisiak kulerotan harrapau gindduen.*

Kulpa, -ia. Errua. ‘Culpa’.

Kuma, -ia. Ume txikiña egoten dan lekua. ‘Cuna’ *Umia kumaan da lotan.*

Kuma, -ia, -aak (pl.). Berba konposuetan ebalten da. **Kume** be entzuten da berba batzuetan. Animalixen umia. ‘Cría de animal’. *Antxuma, astakuma, basaurdekumaak, erlakuma, katakuma, konejukuma, otsokuma, txakurkuma, txarrikuma, txorikuma...* Baiña baitta emakume, gizakume, frailekume, putakume... be.

Kunpliu. ‘Cumplir’. *Entierrora fan eta kunpliu dogu danokin.*

Kuntzurrun. ‘Riñón’. Ik. **guntzurrun.**

Kurioso, -ua. *ald. kurioxo*, -ua. 1. Apaiña, itxura fiñekua, garbixa. Pertsonakin, batez be, baiña abere eta gauzakin be bai. ‘Limpio, -a, pulcro, -a, arreglado, -a’. *Oso curioso etorri ziran danak entierrura./ Gure Xabiñek etxia oso kurioxo ifiñi dau.* 2. Bestien gauzak jakin zalia. ‘Curioso, -a, entrometido, -a’. 3. Bitxixa. ‘Raro, -a, extraño, -a, peculiar’. *Kuriosua gauzia!*

Kurkubitta, -ia. LAND. *Cucurbita* sp. ‘Calabaza’. **Kurkubittia lakotxia.** Pertsona garbixa eta politaren gain esaten da. ‘Se dice de la persona limpia y bonita’.

Kurrin-kurrin. Txarrixairi hots egitteko ebalten dan onomatopeia. ‘onom. utilizada para llamar a los cerdos’.

Kurriska, -ia. Kurrinka. Txarrixaren eta basaurdiaren hots zorrotza. ‘Grito,

chillido; gruñido de animal (cerdo y jabali)'.

Kurtiña, -ia. Gortina. 'Cortina'.

Kurtzau, *kurtzaitten*. Gurutzatu.

1. 'Cruzar los brazos, el camino...'.

Besuak kurtzau./ Bidia kurtzau.

2. Arraza edo bariedade desberdiñetako animaliak edo landariak ugalketarako nahasi. 'Juntar para que procreen un macho y una hembra de distintas razas, o juntar plantas de distinta variedad para obtener variedades nuevas. *Behi honeik, azken hamarkadetan, beste behi arraza batzuekin kurtzauaz fan dira.*

Kurtze, -ia. Gurutzea. 'Cruz'. Etxe-izenak: Kurtzekua, Kurtzetxo. (Kale Zahar barrenian) **Kurtze**. Kurtzeko semiari edo alabiari deitzeko. *Hi, Kurtze!*

Kuselu, -a. *ald. kunselu, kruselu*, -a. Olixoz edo koipez ixuketan zan antxiñako kandilla. 'Candil'.

Kusiña, -ia. Lehengusina. 'Prima'.

Kutun, -a. 1. Bularrian umiak eruaten eben poltsatxua begizkuaren eta beste gaitz batzuen kontra, aafixua, errudia, erbasantia edo azentzioa moduko bedar bedeinkatuakin. 'Amuleto'. 2. Lagun miña. 'Querido, -a, favorito, -a, predilecto, -a'.

Kuxin, -ña. Jaterakuan gauza onak jatia bakarrik gustaitten xakona. 'Sibarita; remilgado, -a'. *Kuxin samarra da./ Kuxinkerixan habil?* Sin. **mokofin**.

Kuxkuldu, *kuxkulduta, kuxkulketan*. Kuxkurtu, kixkurtu. 'Encogerse, acurrucarse de frío'. *Hotzak kuxkulduta dago*. Sin. **kuxkul-kuxkul egin**.

Kuxkun, -a. (Zubillaga). Liñuaren lanak akabotakuan hartzen zan txokolatía edo beste erari bat. 'Merienda o refrigerio con que se celebraba la terminación de las faenas del lino'. *Harigintzaiok egindakuan, kuxkuna.*

Kuxkur, -ra. Haritz-ezkurra. 'Bellota'.

Laatxorri, -xa. 1. Kirkila. 'Grillo'. 2. Ume barritsua. 'Niño, -a parlanchín, -a'.

Labaiña, -ia. Bizarra mozteko edo egitteko labana. 'Navaja, cuchillo de afeitar'.

Laban, -a. Irristakorra. 'Resbaladizo, -a'. *Garbittu barri, zorua labana egoten da.*

Labandu. Irrist egin. 'Resbalar-se'.

Laban-labanka. Irristaka. 'Resbalando, patinando'.

Labela, -ia. *ald. labe-gela*, -ia. Labia dagueen gelia. 'Cuarto donde está el horno'. *Etxeko obra barrixa egin gebenian, labelia bota egin geben azkenengo eta harrezkero ogittara kalera fan bihar!*

Labesu, -a. Ogixa labian egittiaren lana. *Bixar labesua egitteko ekarri egizu bi besartekada lizar-abarrenak.*

1. **Labesua egin**. (batez be) Ogixa egin. 'Hacer pan en casa'. 2. Labealdia, labealdi bakoitza. 'Hornada de pan'. *Lehenengo labesuko ogixa bigarrena baiño hobeto erreta dago.*

Lagunabarrian jantzi, bizi, ibilli. Bestien moduan jantzi, bizi eta ibilli. 'Vestir, vivir y andar como los demás, ni más ni menos'. *Lagunabarrian badabil ni gustora nago. / Lagúnabárrian jantzi, vestir como los compañeros. Lagúnabarrian bizi, vivir como los demás, sin llamar la atención ni distinguirse. Lagunabarrian ibilli, andar a la par de los demás, sin llamar la atención.*

Lagundu, *lagunketan*. 1. 'Ayudar'. *Lagunduko dostazue egurrok tolestaitten?* 2. 'Emparejar'. *Kaltzak lagundu*. Kaltzak tokaitten xaten pariarekin ifiñi. Bi kaltza desbardiñak diranian esatekua: *Honeik herri banatako alkatiak dira*. 'Estos no son parejas (modismo). 3. 'Acompañar'. *Aittari lagundu medikuareneraiño.*

Laguntzaille, -ia. Lagunketan duena. 1. 'Ayudante'. 2. 'Acompañante'.

Lain, -ña. 1. Adiña, beste. (konparatibuak). 'Tanto como para'. *Kontuz! Labanketako lain bustixa dago-*

eta. / Labanketako laiña. / Labanketako laiñekua. / Beretako laiña. / Hau da haundiz ha a(d)iña. / Ha da zurixa hau beste. 2. Norberaren partia. 'La parte de uno, -a'. Zure laiña hor dago. / Hari bere laiña itzi.

Laiñaatu. Laiñoz bete. 'Nublar-se'. *Laiñaatu egin dau. Ant. garbittu, oskarbittu.*

Laiño, -ua. Lainoa. 'Nube'. Sin. *bat. hodei. Amillana-laiño,* -ua. Haitzian behera etorten da. Gorbeixa aldekoa, laiño hotza. 'Niebla fría que baja de la peña y viene del Gorbea'. **Behelaiño,** -ua. Laiño bajua. Behekaldetako laiñua, aixkomete beheko zokuetan egoten dana. 'Niebla baja, bruma'. *Gaur kale aldian behelaiñua. Gaur Jaturaben "labesua" (Jaturaben behelaiñua).*

Erlaiño, -ua. Paraje sakonetako behelaiñua. 'Niebla baja, bruma'. *Aurki jasoko dau erlaiñua. / Zulatuko ete dau eguzkixak erlaiñuau? Ipar-laiño,* -ua. Anboto aldetik datorren erlaiñua. 'La niebla que viene del norte'. **Laiñolitza.** Lurra joten dáguena, gardena. 'Niebla que toca tierra y es transparente'. **Tripaki-laiño,** -ua(k). Laiño-tontorrak. Udan horeixa ekarten daue, askotan behintzat. Itxura eskasekuak dira. 'Los cúmulos de nubes'. *Hemen dira tripaki-laiñuak.*

Laiotz, -a. Aiñubeia. 'Umbría, paraje sombrío'. *Uribarri laiotza da. / Piñu honi laiotza gustauten xako.*

Laister. Laster. 'Pronto'. *Ez egizu egin negarrik, amatxo laister etorriko da-eta.*

Laixa, -ia, laixaak. Lurrari bueltia emuteko ebalten zan eskuko erremintia, normalian erripatan eta hiru-lau lagunen artian zertzen zana. Laixa bat. 'Laya'. *Laixaarixak etorri dira laixaaketara soro barrentxua.*

Lakaiña, -ia. 1. Artuaren edo iriaren kirtena edo enborra, parte gogorra. 'Caña del maíz o del helecho'. *Iria iritixarekin ebaten geben eta han etzan lakaiñarik geraketan. 2. Eskasia agerketan dau. Soka bat egitteko*

biharrezkua dan filamentu bakoitza. 'Filamento'. *Lau bizar lakaiña. / Lakaiña triste batzuk besterik ez (landarak). / ...lakaiñatuta geratu dana. (zelaixa). / Arto lakaiñak bakarrik ikusten baziran, ez zuan/zonan artotzarik izango urte hartan Koixkarren.*

Lakar, -ra. Oso latza. 'Muy áspero'.

Lakatz, -a. 1. Latza. 'Áspero, -a'. *Lur lakatza:* lur latza eta gogorra. 'Tierra dura y áspera'. *Edur lakatza:* Urtu barik geratu dan edur izoztua. 'Nieve helada'. 2. Landare baten adaska. 'Esqueje'. *Honeik lora honeik danak lakatzetik etarata dagoz, bat be ezta erosittakua. / Zertan zabiliz ba? Lakatzak etaraten tiesto barrixak ifintteko.*

Lako, -ua. Bezalako. Moduko. 'Como, igual que (en frases comparativas igual o parecido a lo nombrado)'. *Aitta lako burugorra zara. / Gauza askotan, aittajuna lakua urten dau.*

Lakotxe, -ia. Bezalakoxe. 'Intensivo de como, igual que (en frases comparativas igual o parecido a lo nombrado)'. *Ama lakotxia zara, Miren. / Ikusi zebe pelikulia, zelakotxia zan, ba?*

Lala, -ia. Gatz bariko pertsonia edo gauzia, ez ur eta ez ardao. 'Sinsorgo, -a'.

Lamiña, -ia. Mitologiako pertsonajia. 'Lamia. Personaje mitológico'. *top. Lamiategiko errota,* -ia. Garagaltza auzuan.

Lanaldi, -xa. Lan-saioa. 'Rato/tiempo de trabajo'. *Lanaldi haundirik egitteko ez kara gauza.*

Lanaro, -ua. 1. Lana egitteko girua. 'Sazón para trabajar'. *Lanaro bikaiña. 2. Lan askoko eguna. 'Día de mucho trabajo'. Egun lanarua.*

Lanbage, -ia. Langabezian daguena. 'Parado, -a, desocupado, -a'.

Lanbrasta, -ia. Eulausua, euri gutxi. 'Llovizna'. *Lanbrastadatxo bat. / Goizaldera lanbrastiak ekin otsan.*

Lanbro, -ua. Sirimiria. 'Llovizna'.
Lanbruak busti otsan aixaxari buztana.

Lanbroska, -ia. Lanbrastia. 'Llovizna'.

Lanbro-zirin, -ña. Euri xehe eta gogaikarria. 'Llovizna pesada, agobiante'. *Lanbro-zirin honek azkenera orduko mela-mela egindda itzi gau.*

Langa, -ia. 1. Erromara batian ziharka dagueen trabesetako pieza bakoitza. 'Travesaño'.

Langei, -xa. Materiala. 'El material para hacer algo'. *Lizar-egurra kintenak egitteko langei ona da.*

Langille, -ia. *ald.* **langilla**, -ia. Lana egitten dauena. 'Trabajador, -a, obrero, -a'. *Langille mordua dabil hor./ Langilla ona leku guztietan estimau.*

Lanperna, -ia. MIKO. *Macrolepiota procera*. Galanperna. Perretxiko klase bat. 'Galamperna'.

Lantegi, -xa. Lana, lanlekua. 'Trabajo, tarea, quehacer'. 2. Lugar de trabajo'. *Mutiko horreikin hartu dozu lantegixa!/ Hara goiko lantegira goiaz.*

Lapatxa, -ia. Okaran eraregia. Ale txikiña dako, baiña oso gozua. 'Ciruela silvestre, que no ha sido injertada.'

Lapiko, -ua. 1. Eltzia. 'Olla, puchero'. *Lapiko pillia dago sutan; gaur jente asko dator bazkarittera, itxuria.* 2. Kaikua, mozolua. 'Tonto, -a, necio, -a'. *Zuen aldeko agura lapiko horrek zer egitten dau? Lapiko hutsa.* Ziharo mozolua. 'Tonto, -a de remate'. *Hori baiño lapikuagorik!*

Lapitz, -a. Arkatza. 'Lapiz'.

Larako, -ua. Burdixa eta uztarrixa lotzeko zirixa. 'Clavija que une el carro con el yugo'. *Larakua sartu.* Zirixa sartu, engañau. 'Engañar'. *Larakuan egin.* Narrutan egin. 'Follar'. *Larakuan harrapau dittue.*

Lardiau. Zikinddu. 'Ensuciar'.
Lardiauta. Zikindduta. 'Mojado, -a, sucio, -a'. *Txupinazo egunian*

txanpainañagaz eta ardaugaz erropa guztiak lardiauta ekarri gittuan.

Largero / lardero egittia. Eguen Zuri egunian etxian egitten dan afari-merienda, honako menu honekin: arrautza paria txorixuagaz eta gaiñetik pellak edota torradak. 'Merienda del jueves gordo'. 2. **EGUEN LARDERO**, eguen largero. 'Jueves gordo (de Carnaval)'.

Larra, -ia, larraak (pl.). Larrea. 'Pastizal, pasto'. *Behixak larraan dabiltz./ Urbixako larratan ehundaka ardi, behi eta bihor dabiltz./ Hemengo larraak onak dira.*

Larraan egin. Bazkatu. 'Pastar'. *Larraan ezpadaue egitten ekarri etxera ganaduak.*

Larrain, -ña. 1. Kanpoko atletik sukaldera bittarteko lekua. Hor laneko erreminttak, burdixa, sitsa eta beste gauza asko egoten ziran. 'El espacio interior de la puerta principal hasta la cocina'. *Sukaldian sartu aurretik abarkak garbittu larraiñian.* 2. Etxeko ateurre harlosaua. Garixa larraiñian jotzen zan. 'Plazoleta, espacio situado frente a un edificio; patio'. *Larraiñak losia bihar dau lana egitteko./ Larraiñeko harlosak.* Sin. **tiru-larraiña**. **Garixa larrainddu**. Garixa jo. 'Trillar el trigo'. Leku-izen modura geratu da. *top.* Lárraiña auzua. **Larrain-dantza**. 'Nombre de un baile que se ejecuta en una era. Baile de la era'.

Larrainketa, -ia. Larraintze, aletze lana. 'Desgrane del trigo'.

Larrastarro, -ua. HEGAZ. *Turdus viscivorus*. Garraztarroa. 'Zorzal charlo'. Neguan agerketan dan txorixa, birigarrua baiño haunditxuagua. Sin. **sagastarro**.

Larratxori, -xa. HEGAZ. *Anthus pratensis*. Negu-txirta. 'Bisbita común'.

Larregi. *ald.* **laarregi**. 1. Gehixegi. 'Demasiado, -a'. **Larregixa**. Gehixegizkua. 'Excesivo, -a'. *Uda honetako beruak larregixak izan dira./*

Laarregi jan dogu. Sin. **larregiko**, -ua. Gehixegizkua ‘Excesivo, -a, exagerado, -a’. *Hau larregikua da. Laarregixan ibilli.* Neurritz kanpoko gauzetan ibilli. ‘Actuar en demasía, en exceso, pasarse’. *Laarregixan dabiltz eta eztaikit zela akaboko dauen.*

Larri, -xa. Haundixa, grabia. ‘Grande, grueso, -a’. *Harri larrixa.* Harri haundixa. 2. a) Estar grave. b) (Estar, etc.) apurado. *Larri dago.* Gaizki dago edo urduri dago. **Larri ibilli.** Seguruen, baietz... ‘Lo más seguro, me apostaría algo, a que’ *Larri ibilliko da gaur be eurixa egitten! / Aurten Erreala baietz European sartu! Ba, larri ibilli!*

Larrittu. Kezkatu, arduratu, urduritu. ‘Apurar(se), apremiar(se)’.

Larrosa, -ia. LAND. *Rosa sp.* Arrosa. ‘Rosa (Bot.)’. Lora ezaguna.

Laru, -a. Garixak heldutakuan hartzen dauen koloria. ‘Amarillo pálido, gualdo’. *Sorua laru-laru agiri zan./ Bi eratako pítotxak dagoz: papar zurikuak eta papar larukuak.*

Latagin, -ña. ‘Muela’. *Hagiñak eta latagiñak.* ‘Dientes y muelas’.

Latrontxa, -ia. 1. Izotz kristala. ‘Placa de hielo’. *Atzo illunkaran Zumeltzegiko Torretik etorri nintzanian latrontxia egitten hasitta eguen./ Latrontxak apurketan ibilli naiz, behixak ura edan degixen.* 2. Latrontxa-kandelia. ‘El carámbano’.

Latrontxatu. Hotz haundixa egitten dauenian ur-pozuetako gaiñak kristala letxe geratu. ‘Formarse placas de hielo’. *Bixar goizian etxe inguruko ur pozu guztiak eta itturrixak be latrontxatuta ageriko dira.*

Latz, -a. 1. Lakarra. ‘Áspero, -a’. 2. Gogorra. ‘Duro, -a difícil’. *Egun latza, momentu latzak pasau dittut!*

Lau, -a. *ald. laun*, -a. ‘Llano, llanura, planicie’. *er. laundara, launkuna, lautaratxo.* *Illundu oskun. Artian han, beheko launian, e!*

Launaan. Lauhazka. ‘Al galope’. *Zaldixa launaan fan zan Maixeletatik zihar. / Launaan fan dittuk/n! (bihorrak).* Sin. **lau-saltuan.**

Lauso, -ua. 1. Begiko kataratak. ‘Cataratas de los ojos’. 2. Lurruna. ‘Vaho, vapor’.

Lausotu, *lausoketan.* ‘Nublarse, empañarse’. *Bistia, kristala lausotu./ Lausua egitten xat: bistia nekatu egitten xat.*

Lazkote, -ia. Latz samarra. ‘Bastante aspero, -a, basto, -a’. *Tomatia aurten lazkotia egin da, baiña oso gozua.*

Lebrel, -a. Igarra edo mehia. ‘Delgado, flaco’.

Legatz, -a. ARRAIÑA. *Merluccius merluccius.* ‘Merluza’.

Legen baltz, -a. ‘Lepra, enfermedad de Hansen. Lepra. Elefancia <-ph->, especie de lepra. Peor que la anterior [leen zurixa] y más profunda’. Sin. **legenaar**

Legen zuri, -xa. Azaleko gaitza. Mantxa zuriskaak urtetan daue, eta ulia jausi egitten da. ‘Albarazo. (La) enfermedad más benigna: salen manchas blanquecinas en la piel y cae el pelo’.

Leiu. Irakurri. ‘Leer’ *Ondo leittia eta eskribittia bihar-biharrezkua da aurrera egitteko.*

Leixal, -a. Leiala, zintzoa. ‘Leal, fiel’.

Leka, -ia. Landaria, aixkomenta, parran hazten da. ‘Vaina, cápsula de legumbres y hortalizas; alubia o judía verde’. **Leka motza.** Parra barik hazten dana. ‘La judía que crece sin parra.’ **Lekia.** Mozkoraldixa edota jenixo txarra. a) Borrachera. b) Mal genio o mala uva.

Lekaixo, -ua. Poza edo desafixua agerketako pertsoniak egitten dauen diar luze eta zorrotza. ‘Grito, chillido lanzado para demostrar alegría o desafío por los humanos’. *Harek jo dau lekaixua!/ Irrintzi bihorrak eta zaldixak egitten daue, lagunak lekaixo./ Hemen*

Txantoneneko Primi (Araotz) izan zan lekaixo-kontuetan nagusi.

Lekaixolari, -xa. Lekaixuak jotzen dittuen laguna. ‘El o la que lanza gritos de alegría o desafío’.

Lelo, -ua. *em.* **lela**, -ia Ergela, tontoa. ‘Tonto, -a, necio, -a’. *Lelo-pintto! Mozolo-pintto!*

Lelokerixa, -ia. Lelua edo leliaren esana edo egittia. ‘Tontería, necedad, insensatez, ligereza’.

Lelotu. *ald.* **lelaatu**. Tontotu, tontatu. ‘Atontar(se), alelar(se)’.

Lenteja, -ia. ‘Lenteja’.

Lepazuri, -xa. UGAZ. Lepazuria. *Martes foina.* ‘Garduña’. Sin. **paparzuri**.

Lerdo, -ua. ‘Lerdo’.

Lertxun, -a. LAND. *Populus tremula.* ‘Alamo temblón’.

Lertxundui, -xa. Lertxun arbola-sailla. ‘Alameda’.

Letxe. Legez, lez. ‘Igual que, como’. *Gaur letxe akordaitten naiz horrekin./ Edurra letxe bota eben./ Ardaia eraten daue ura letxe./ Operau haue? Bai, ja etxian nago! Hagiña etaratia letxe orduan!*

Letxuga, -ia. ‘Lechuga’.

Libra, -ia. Kilo erdi. ‘Medio kilo’. **Libra erdi**. Kilo laurdena. ‘Un cuarto de kilo’. **Libra eta erdi**. Kiluaren hiru laurden. ‘Tres cuartos de kilo’.

Librau. Kaka egin. ‘Evacuar, excretar’. *Libraitteko zailtasunakin dabil iragako egunetan.*

Lihor, -ra. *adj.* Lehorra. ‘Seco, -a’. Sin. **Siku**, **igar**. *Nehikua euri egin dau eta orain eguraldi lihorra bihar da.*

Lihortu. Lehortu. ‘Secarse’. Sin. **sikatu**, **igartu**.

Limue, limoia. ‘Limón’.

Limue-ur, -a. Limoi-zukua. ‘Zumo de limón’.

Liñagin, -ña. Liñu-lanak egitten dittuena. Liñagillia. ‘Trabajador, -a del lino’. *Gabian alkarketan ziran liñagiñak.* 2. **Liñagiñera fuan**. ‘Trabajo del lino’.

Liñajoilla, -ia. Liñu-landaria bigunketako mazuarekin jotzen dauena. ‘Los que machacaban con mazo el lino’. *Liña-joillaak mazaatu.*

Linbo. *adb.* Illun total. ‘Completa oscuridad’. *Banentorren etxera eta sartu nintzan Drangoestutik gure basuan, eta linbo! Ha zan illuntasuna!*

Liño, -ua. *ald.* **liñu**, -a. LAND. *Linum usitatissimum.* Lihua. ‘Lino’. *Liñoizko izarak./ Garai baten, liño soruak ereitten ziran, eta izarak liñoizkuak izaten ziran./ Liñua loran eguenian, soruak oso polittak ikusten ziran.*

Lirixo, -ua. LAND. *Lilium sp.* ‘Lirio, azucena’.

Listari, -xa. Soka mehe eta gogorra, paketiak, txorizuak eta beste gauza asko lotzeko ebalten dana. ‘Bramante. El cordel, la liza’.

Litx, -ak. Erropa edo ehunari, zahartu edo apurtutakuan, bistan geraketan xakon hari zatixak. ‘Hilacha, flecos’.

Litxarrero, -ua. *em.* **Litxarrera**, -ia. 1. Betik litxarrerixan dabillena, hau da, gozokixak, jaki garestixak eta abar, batez be, ezorduan eta ezkutuan jaten dauena. ‘Goloso, -a, dulcero, -a, glotón, -a’. 2. Lapur txikiña. ‘Sisador, -a, ratero, -a’.

Litz, -a. 1. Laiño lausua, mehia, gardena. ‘Calina, nube muy tenue’. 2. **Orélitza**. ‘La alta’. 3. **Laiñólitza**. ‘La pegada a la tierra’. 4. **Laiño litza**. ‘La nube transparente’. Ik. **laiño**.

Lizar, -ra. LAND. *Fraxinus excelsior.* ‘Fresno’.

Lizardui, xa. Lizar basua. ‘Fresneda’. *Kortakogaiñen dago lizarduixa! / Han dago lizarduixa! / Lizarduixan kerizpeia ederra./ Hango lizarduixagaz ondo akordaitten edo gogoraketan naiz.*

Lizun, -a. ‘Moho’. *Gaztaiaren lizuna.* / *Lizun usaiña.*

Lizundu. ‘Enmohecer(se)’. *Leku umeletan janarixak lizundu egitten dira.*

Lloba, -ia, llobaak (pl.). ‘Sobrino, -a’.

Lo egin. ‘Dormir’. *ume ber.* **Alolo fan, lo-lo egittera fan, lo-lo egin**. Lo egin. *l. inf.* ‘Ir a dormir’.

Lo, -ua. Loa. ‘Sueño’. *Lo txarra izan dot bart./ Ha ze lua dakon honek be!*

Loaldi, -xa. Lo-saioa. ‘Sueño (tiempo en el que se duerme); cabezada’. *Loaldixa egin eta artian zaratak ziran kalian./ Nik jo dot loaldixa!// Loalditxo bat egingo baneu, orduantxe ondo.*

Loaro, -ua. Lo egitteko girua. Sin. **lo giro** (gehixagotan ebalia) ‘Buen tiempo para dormir’. *Loaro ona.*

Lo erre, -ia. 1. Umiak, loguriaren loguraz lorik hartu ezin dauenian lo erria dakoilla esaten da. ‘Malestar o irritabilidad por falta de sueño’. *Lo erria dako ume honek.* 2. Uhetik jaiki ondoren batzuetan izaten dan umore txarra. ‘Mal despertar (mal humor al despertar)’. *Lo erriagaz jaiki naiz.*

Logarra, -ia. Lo egin eta ziharo iratzarri arteko, onera etorri arteko, tartia. ‘Hambre de sueño, ganas de dormir’. *Orainddiok logarria dako./ Logarria pasau barik*

Logura, -ia. Lo egitteko gogua. ‘Ganas de dormir’. *Loguriari eutsi eziñik./ Loguriak erreten./ Loguriak nago./ Loguratuta.*

Logura antz, -a. Loguratzua, losirrixa. ‘Atacar o venir el sueño’. *Zeuk eruan biharko dozu kotxia, neri logura antza etorri xat-eta.*

Lohi, -xa. 1. Zikiña, zikinttasuna. ‘Sucio, -a’. *Leku lohixa. Pertsona lohixa Lohixak botaten.* Behixa susaraketan. ‘Mucosidades expulsadas por la vaca cuando está de alta’. *Egunak doia lohixak botaten, susaria etorten izango dau honek.*

Lohittu. Zikinddu. ‘Ensuciar’.

Loka. 1. Kili-kolo, dindonka. ‘Movido, -a, suelto, -a’. *Hagiña loka jarri xat./ Mahai hau loka dago.* 2. Oillua txittak atarateko gertatuta daguenian. ‘Clueca; (usado como sust.) gallina clueca’.

Lokaaldi, -xa. 1. Oillua loka daguen sasoia. ‘Cloquera, temporada en que la gallina está clueca’. 2. Andra bat maittemindduta dabillen denporaldixa. ‘Temporada que una mujer anda enamorada’.

Lokaiku, -a. Logolpia, instantekua. ‘Cabezada de sueño’. *Lokaiku bat nehikua da ezbihar haundixa izateko./ Lokaikuak egin dittut.* 2. **Lokaikuak egin**. ‘Dar cabezadas de sueño’. **Lokaikuka**. ‘Dando cabezadas de sueño’. *Mutikua lokaikuka eguen.*

Lokamus, -a. Lotxua. Lokaikua baiño haunditxuagua. ‘El sueño muy breve y ligero’. *Nik egin dot lokamus bat./ Lokamusak ikaragarriko mesedia egin dost.*

Lokarrasa, -ia. Zurrunga. ‘Ronquido’. *Haren lokarrasak kanpotik be entzuten ziran./ Gure Joxe gaba danian lokarrasa batian sentiu dot.* **Lokarrasaka**. Zurrungaka. ‘Roncando’. *Sartu nintzan kuartuan eta han eguen ha lokarrasaka.*

Lokategi, -xa. Oillalokia sartzen dan lekua txitak atarateko. ‘Lugar donde se encierra a la gallina clueca para incubar los huevos. Sin. **lokatoki, kaponera.**

Lokatzaa, lokatzaia. Lokatza. ‘Barro’.

Loki, -xa(k). Hazurren arteko artikulaziñuak, matraillazurrekuak esaterako. Aixkomenta pluralian ebaltan da. ‘Articulación, juntura de los huesos’. 2. *bat.* ‘Sienes’. **Lókixak geratu**. Matraillazurreko mobimentua geratu. ‘Paralizarse el movimiento de las mandíbulas’ *Lokixak geratu xako.*

Lokuma, -ia. Loaldi motza. ‘Cabezada, breve sueño’. *Lokumatxo bat egin dot.* Sin. **lokaiku, lokamus.**

Loleku, -a. Lo egitteko lekua. ‘Sitio para dormir o pasar la noche’. *Gure*

ardixak hementxe dakoi lelekua./ Aiznardako lelekuan topau dittugu.

Lomосу, -a. Lo-aurpegixa. ‘Cara de sueño’. *Hori da lomosua!/ Lomосу horregaz uhetik jaiki barri izan bihar./ Garbittu egik/n lomosu hori.*

Longaiña, -ia. Txaketa luzia. ‘Chaqueta larga, levitón’.

Lor, -ra. 1. Karriua. Bihorren laguntzaz baso-lanetan dabillen Oñatiko enpresa bateri **lórran** izena jarri xaue. ‘Acarreo, arrastre, transporte’. *Zaldixak, egur-lorrian ebillela, min hartu dau.* 2. (Aram.). Auzolana, bidegintzaia gehixenetan. ‘Trabajo comunal, sobre todo para arreglar caminos’. *Bixar lorra xagok/n.* (Orm Aram)

Lora, -ia, loraak. Lorea. ‘Flor’.

Lora-sorta, -ia. ‘Ramo de flores’.

Lorrian fan. Laban-labanka fan, irristaka fan. ‘Ir patinando, por ej. encima de la hierba seca’. *Bedar igarren gainian lorrian fan gainian goititik behera.*

Losa, -ia. Espaloia. ‘Acera’. *Oiñezkuak loza gainetik eta bizikletak bidegorritik.* Sin. **espalo**.

Loti, -xa. Lo askokua. ‘Dormilón, -a, durmiente’.

Lotsa, -ia. Lotsa. ‘Verguenza’.

Lotsabage, lotsabagia. Lotsak galdutakua, lotsabakua. ‘Sinverguenza’. *Gaztiak betik izaten dira lotsabagiaguak / Lotsabage galanta!.*

Lotsabako, -ua. Lotsagabea. ‘Sinverguenza’. Sin. **lotsabage**.

Lotsáko, -ua. Errespetu handixa emuten dauen gizona edo andria. ‘Respetable, que infunde gran respeto’. *Orain dala urte batzuk Idahon hil zan Pete Cenarruza lotsako bat izan zan.*

Lotsati, -xa. ‘Tímido, -a’.

Lozirri, -xa. Logura antza. ‘Ataque de sueño’.

Lozorro, -ua. 1. Lo ez oso sakona. ‘(Estar, etc.) adormilado, adormecido;

dormido’. *Lozorruan zegontzen? 2. Basoko piztixen neguko loaldixa. ‘Letargo invernal’. Hartzak neguko lozorruan egongo dira. Lozorruan ibilli.* ‘Andar sonámbulo, -a’.

Luebagi, -xa. [luebaixa] Lubakia. Lursailak banaketako zanga sakona. ‘Zanjas que servían para aislar y dividir una heredad de otra. Trinchera; muro o talud de tierra’. *Arantzazu aldeko basuetan orainddiok ikusten dira luebagixak.*

Lukainka, -ia. Txorizo senduagua eta kalitate txarragokua, birikixakin egindakua. ‘Longaniza. Chorizo de inferior calidad pero más grueso, hecho con pulmones, etc.’.

Lukur, -ra. Zekena, zikoitza. ‘Tacaño, -a’. Sin. **ximur**.

Luma-gizon, -a. ‘Escribano, escritor, notario...’.

Lupo, -ua. ANFI. *Salamandra salamandra*. Arrabioa. ‘Salamandra’. **Lupua baiño txarragua izan**. Oso txarra, gaiztua. ‘Peor que las salamandras’.

Lurmen, -a. Edurra kendutako lekua. ‘(el) claro donde se ha derretido la nieve’. *Lurmenian dabiltz ardixak./ Lurmena agertu da.*

Lurmendu. Edurra urtu une baten, ingurua artian zuri daguenian. ‘Desnevar (derretirse la nieve)’. *Maduran betik lehenago lurmenketan dau mendi aldian baiño./ Goialdian orainddiok edurra dago, baiña behekaldeetik badator lurmenduz.*

Lurmenuna, -ia. Lurmenune. Edurra kendutako lur-zatixa, unia. ‘Trozos de tierra que aparecen después de haberse derritido la nieve’. *Zelaixak agiri dittu lurmenuna batzuk.*

Lurramil, -la. Luizia. ‘Un corrimiento de tierra’. *Lurramillak bidia eruan dau eta eztago pasaitterik.* Sin. **lurnarratu**, **muiñarratu**.

Lurrestai. Lurrestali, lurra zerbaitez (frutaz aixkomente) beteta. ‘Cubriendo la tierra; (fig.) en gran cantidad. Adverbio que literalmente significa que la tierra está tapada. Se dice cuando ella está cubierta de manzanas caídas del árbol, de estiércol, etc.’. *Gaztaiña, intxaurra, sagarra... lurrestai eguen./ Gaztaiña lurrestai ei dago halako lekutan.*

Lurrikara, -ia. *ald. luikaa*, -ia. Luizia, lur-jauzia. [luikaa, -ia] be entzuten da. ‘Desprendimiento, corrimiento de tierra’. Sin. **lurnarratu**, **muiñarratu**.

Madari, -xa. [marai, -xa] entzuten da. 1. Udarea. ‘Pera’. 2. Madari-arbola. Udareondoa. ‘Peral’.

Madura, -ia. Erreka ondoko lur ona. Launeko lekua, leku behia eta ona: madura hori da. Oñatiko maduria. ‘Lugar de buena tierra cerca de un río. Dehesa. Rivera. Terreno llano a orillas de arroyos y ríos’. *Oñati aldeko maduran baserri onak dagoz. / Mendixan edurra danian, esaten dogu: "Hau mendi-edurra dok/n, hau maduran etxok/n egingo! / Maduran ondo zagozak/n"*

Mahaspasa, -ia. ‘Pasa de uva’.

Mahastui, -xa. Mahastia. ‘Viñedo, viña’. *Errioxako mahastuixak.*

Mahats, -a. 1. Ardua egitteko ebalten dan frutia. ‘Uva’ 2. Diru ugari. ‘Abundancia de dinero’. *Hor dago mahatsa hor!*

Mahats-mordo, -ua. Mahats-korda. ‘Racimo de uvas’

Mailla, -ia. Maila. ‘Peldaño’. ‘Escalón’.

Maillaatu. 1. Maillak jarri edo maillatan jarri ebagittako bedarra, esaterako. ‘Colocar por ej. la hierba en hileras sin extender’. 2. Frutia hondatu, golpiak hartuta. ‘Magullar(se)’. *Sagarrak maillaatuta dagoz, oso itxura txarra dakoi.* Sin. **maluskau**.

Maillagin, -ña. Maillak egitten dittuena. Jaungoikuari be esaten xako, berak

behekuak jaso eta goikuak jaatzi leikeelako. ‘Fabricante de peldaños o escalones. Se dice que es el oficio de Dios quien es el que sube y baja las fortunas de los hombres’.

Maillu, -a. ‘Mazo. Mazo de cantero’. *Harri honeik mailluagaz apurtuko dittuk/n./ Hargin-mailluak haundixak eta txikiñak izaten dira.*

Mailluka, -ia. Maillu txikiña, arotzak eta beste askok ebalten dauena. ‘Martillo’. *Ultziak sartzeko maillukak./ Harotz-maillukia, errementarixarena, segia pikautekua...*

Mailluki, -xa. Marrubia. ‘Fresa’.

Maiña, -ia. 1. Trebetasuna, abilidada. ‘Habilidad, destreza’. *Haren maiña baneko, holako lanak egitteko!* 2. Ume negarra, gezurretakua danian, batez be. ‘Llanto infantil, sobre todo cuando es fingido’. *Hainbeste lelo-maiña entzuten kantzau gara, e!*

Maiñak egin. Negar egin, ume-berbeeran. ‘Llorar (leng. inf.)’.

Maiorazko, -ua. *em. maiorazka*, -ia. Baserriko herederua. Semerik zaharrena, gehixenetan. Femeninuan be ebali izan da. ‘Mayorazgo, -a. Hijo mayor de una familia, heredero del mayorazgo. Por extensión, hijo mayor, en cualquier caso’.

Maistra, -ia. ‘Maestra’.

Maistrona, -ia. Danairi aginketan jarduten dauena. Femeninuan ebalten da. ‘Maestronea, mandona’.

Maitte. 1. -ia. ‘Amado, -a’, ‘querido, -a’. *Maittia-maittia egin*. Goxo-goxo igurtzi. ‘Acariciar, mimar’. *Maitte izan*. Maitatu. ‘Amar’.

Maixu, -a. ‘Maestro’.

Maixu-maistrak. Maisuak eta maistrak. ‘Todos los maestros y maestras’.

Maizter, -ra. Errenteroa. ‘Inquilino, -a’.

Majadero, -ua. *em. majadera*, -ia. ‘Majadero, -a’.

Majo, -ua. *em. maja*, -ia. 1. Jatorra. ‘Majo, -a, agradable’. 2. Guapia, dotoria. ‘Guapa, elegante’. 3. **Majo**. Ederki. ‘Muy bien, de cine’. *Majo bizi zarai./ Gaur majo egin dogu lo.*

Makal, -a. Ahula, indar gutxikoa. ‘Débil’. *esap. Amelua baiño makalagua*. ‘Más débil o flojo que el lino’.

Makatz, -a. LAND. *Pyrus sp.* Mentutu bariko madarixaren fruitua, txikiña eta fuertia, onena erreta jateko. ‘Pera silvestre’.

Malato, -ua. Errotako ubide-depositoa. ‘Saetín, cauce de molino o ferrería. Canal depósito de molino’. *Malatoraiño eruan dittu haiziak orbel danak.*

Maliau. Txartu, hondatu. ‘Estropear, pervertir, echar(se) a perder’. *Guk ja Oñatiko euskeriori nahiko maliauta dakogu./ Gauzia maliauta dago./ Dana maliauta xagok/n.*

Malkar, -ra. Aldapa zakarreko lekua. ‘Terreno escabroso, cuesta, precipicio’. *Lur malkarrak./ Erripa haundiko malkar nekosuak./ Okerrago xabiltzak/n mendi-malkarretan dabiltzen bihorrak.*

Malkartsu, -a. Malkar asko dague ingurua. ‘Zona escabrosa, quebrada, abrupta’.

Malkistau, *malkistaitten*. ‘Jurar, decir palabrotas, despotricar’. *Hor fan da malkistaitten! Hasarre!*

Malma, -ia, malmaak (pl.). LAND. *Malva sp.* ‘Malva’. Sendagintzaian ebalixa, enplasto moduan zein infusiñuan hartuta. Sin. **malma bedar**.

Malma bedar, -ra. ‘Malva’. Ik. **malma**.

Malma-ur, -a. Zaurixak osaketako erremediox onak, ur horrekin igurtzita. Infusiñuan be hartzen da. ‘Agua de malva’

Malo, -ua. Landariendako kaltegarria dan edozein momorro, karamarruak, kakalarduak... ‘Cualquier insecto dañino de las plantas, escarabajo de la patata,

etc.’. *Sulfatua botata galdu xakuan malua./ Patatiari malua egin xako.*

Maltxukau. Erropia garbiketako esku bixen artian igurtzi. ‘Estrujar (la ropa al lavarla)’.

Maluen, -a. Maluak eraginddako gaitza ortuko gauzetan. ‘La enfermedad (de bichos) en los vegetales’.

Maluskau. Maillaatu, maspilddu, hondatu. ‘Magullar(se)’. *Sagarra maluskau./ Loria maluskau.*

Malutz, -a. Mardula, ederra, haundixa. ‘Grande, hermoso, -a, sano, -a’. *Neskatilla malutza./ Orri malutza./ Perretxiko malutza. Edur malutz-malutza.* Edur biguna eta zapalketako atsegiña. ‘Nieve recién caída, esponjosa y agradable de pisar’. **Malutz dator**. Haundixa eta ederra dator. ‘Crecer sano, -a y robusto, -a’.

Mama. *ume ber.* Ura. ‘Agua’ *l. inf.*

Mamalo, -ua. ZOMO. Trikopteroaren larbia. Ur-peko larba zuri eta potolo hau, harri txiki eta areiarekin egindako kanutotxo moduko baten hazten da. Gure erreketako arrantzan amu modura ebaltzen da. ‘Larva de tricoptero’.

Mamelo. Karamelua. *Ume ber.* ‘Caramelo’ *l. inf.*

Mamelu, -a. Kokolua, ganora gutxikua, lelua. ‘Lelo, fatuo, bobo, soso.’ *Mamelua halakua!*

Mamin, -ña. Ogixaren, frutiaren, pertsonaren eta abarren barruko aldia, azalez estalita dagueña; azala edo hazurra eztana. ‘Carne, miga, molledo, pulpa’. *Mamin gozua dako ogi honek!*

Maminddu. Esnia hondatu. ‘Cortarse la leche’.

Mamo, -ua. *ald. momo, mumo*. -ua. Mamua, Mozorrua. ‘Cosa que espanta a los niños, -as’. *Momua edo mumua dago*

Mana urten. Antzua urten ardixak. ‘Resultar estéril la oveja (Urrusula)’. *Mana urten dau ardixak.*

Manasta, -ia. Banasta. ‘Cesto’.

Manastagin, -ña. ‘Cestero, -a’. Ik. **banastagin**.

Manasta-ipurdi, -xa, Banastiaren behekaldea. ‘Parte inferior del cesto’. *Manasta-ipurdixa zulatuta dago*. **Manastan kabiu**. Norbait edo zerbait txikiña danian esaten da. ‘Caber en un cesto’. *Manastan kabitteko moduko mutikua etorri xaku gaur*.

Mandaeuli, -xa. ZOMO. *Hippobosca equina*. Euli-mandoa. ‘Mosca borriquera’. Lenteja formako eulixa; oso da gogorra eta ziztada minkorra dako. Ganaduentzako txarra.

Mandataari, -xa. ‘Mensajero, -a, recadista’. Sin. **errekadistia**.

Mandazain, -ña. Manduakin karriura dedikaitten zana. ‘Arriero, mulero’.

Mankau, *mankaittaa*. 1. Golpeka hondatu. ‘Averiar golpeandolo’. 2. **Mankauta egon**. Kantsauta edo ukatuta egon. Gaixoaldi edo lanaldi luze baten ondoren-eta pasaitten da. ‘Estar molido.-a de cansancio’. *Gripe txar honek gorputza mankauta itzi dost*.

Mantzaliña, -ia. Kamamila. ‘Manzanilla’.

Manzarda, -ia, Mantzarda. Egoskorra, burugogorra, matrakia. ‘Mujer de mucha cachaza y poco fuste. (Azkue)’. *Neska manzarda bat./ Neskatilla manzarda bat*. 2. Mansa (oveja). *Ardi manzarda bat*.

Maraberi, -xa. Antxiñako dirua. ‘Marikua’ *Juan Soldao* ipuiñian. ‘Maravedí’. *Kontzez, sardiñak zertan dittuzu? Hamalau maraberixan. Autsi hamabi; Zuaz hemendik Jaungoikuaren grazian. / Juan Soldao hamen badago, laister topauko xuagu, ba! Zigarro saltzen hasi zan. Lau marikuan zigarro paketia. Zigarruak, lau marikuan paketia! (diadarka). Eta Juan Soldaok: Joño! Neuk pe lau marikua bañuan poltsikuan...*

Marai, -xa. 1. Udarea. ‘Pera’.

2. Madari-arbola. Udareondoa. ‘Peral’.

Mara-mara. Ugari, malutz. ‘Nieva con fuerza, abundantemente’. *Edurra mara-mara dihardu*.

Maratilla, -ia. Zurezko piezia, jirauaz atiak eta bentanak ixteko ebalten dana. ‘1. Tarabilla de puerta o ventana. 2. Péndulo de forma de diábolo que usaban las hilanderas de lana’. *Uhera fan aurretik ez ahaztu atia maratilliarekin ixten. esr. Neskatilla maratilla, ipurdixan korapilla* ‘Copla que se dice para chincar a las niñas’.

Maratz, -a. Fiña, langillia. ‘Diligente, hacendoso, -a, laborioso, -a’. *Andereño maratza*.

Mardo, -ua. Mardula. ‘Pujante, vigoroso, -a’. *Arbixa mardo dator*. Sin. **feros**

Mardul, -a. Indartsu datorren edozein gauza. ‘Lozano, -a, hermoso, -a, robusto, -a’.

Margaillu, -a. Haundixa eta forma desarmenikokua. ‘Grande y desarmónico, -a’. *Landara margailluak*.

Mariatz, -a. Maiatza. ‘Mayo’. *Marietza*.

Mariau. Zorabiatu. ‘Marear(se)’.

Mari-bandera, -ia. Emakume "lizun" edo freska samarra. ‘Mujer ligera, de no muy buena fama, tiene más sentido peyorativo que mari-mutil’. *Hau dok/n neskatilla mari-banderia! / Gaztetan mari-bandera majua izandakua da*

Mari-matraka, -ia. Bihurririx, sorgin samarra. ‘Revoltosa’. *Badator gure mari-matrakia*.

Mari-mutil, -lla. Mutillenak ei diran zaletasun edo joerak dittuen neskia. ‘Marichico’.

Mari-petral, -a. Emakume gogaikarri samarra. ‘Impertinente, quisquillosa’.

Mari-sorgin, -ña. Sorgin samarra danari ifintten xakon izena. ‘Maribrujilla’

Maritxu, -a. Neskaanak ei diran

zaletasun edo joerak dittuen mutilla. 'Afeminado'. *Mutil hori maritxu samarra da.*

Mari-zikin, -ña. Zikinkerixaren bat egitten dabillen emakumiari momentuan jarten xakon gaitzizena. 'Mujer desaseada'.

Markiñete, -ia. HEGAZ. *Alcedo atthis*. Martin arrantzalea, martintxoria. 'Martin pescador'.

Marmarka. *ald.* **murmurka**. Murmuxetan Araotzen. 'Murmurando'. *Marmarka dago.* / *Marmaxetan.* / *Mormoxetan.* / *Murmuxeta baten* / *Hor dabil marmazika /marmarka./ Hor fan da marmazi baten edo hor fan da marmazittan.* *ald.* **marma(z/x)ittan**, **mormoxetan**, **murmuxetan**, **marmaxe(t)an**, **marmaixetan**, **murmuxaitten**.

Marradero, -ua. Behixendako mantak egitten zittuena. 'Marraguero'. *Marradero Atzeko kalian bizi zan gizon tunante samar bat ei zan.*

Marro. 1. Jolas batzuetan (kukurduka, marro-marroka, azkenka...) ikutu edo ikusi ezkerro, esaten dana: *Patxi marro!*, *Irati marro!* 'Palabra que se dice en varios juegos infantiles (al escondite, etc.) cuando se ve o se toca al contrario, -a'. 2. Beste jolas batzuetan, *marrua* hau da: txirikillan, makillia daguen lekua; pauloka, alkarri lotuta egoten diran lekua; torre-torreka, alde banatako lekuak... 'Lugar donde se coloca el punto de partida, por ej. en el juego de la tala el puente de madera que se pone para ello'. *Marrua nun ifiñi erabagi bihar dogu lehenengo./ Marrua betiko lekuan.* 3. **Eguzkixak marro egin**. Eguzkixa ezkutau, laiñotu. 'Nublarse, oscurecerse.' *Eguzkixak marro egin dosku. Gaurko beruak fan dira!*

Marti, -xa. Martxoa. 'Marzo'. *esap.* **Martiko lora, hutsa baiño hoba**. 'Significa que las pocas flores que nacen en marzo son muy apreciadas'.

Martintxo. Baten bateri zerbait itzi eta bueltaitten ez ebenari esaten xakon 'Martintxo' Araotzen. 'Moroso, -a'. *Joxeri itzi notsan orain dala hillabete halako erreminttia teillatua konponketako eta orainddiok eztost ekarri. Badakitzu, hori Martintxo da-eta.* 2. **Martin berandu**. Betik berandu dabillanari esaten xako. 'Impuntual'

Martizen, -a. Asteartea. 'Martes'.

Martxantera, -ia. Saltseria, pikaria. Neskatilla sorgin samarregatik esan ohi da. Doiñu kariñosuan gehixenetan. 'Salsera, brujilla, revoltosa'.

Maskal, -a. Makala, motela. 'Débil, blando, flojo, desmejorado, -a'. *Ardao maskala.*

Maspilddu. Mailatu, zanpatu. 'Magullar(se)'. *Mallukixak maspildduta geratu dira.* Sin. **maluskau**.

Masusta, -ia. 1. Naharraren fruitua. 'Mora'. 2. Edozein libertade hartzeko prest daguen emakumia. 'Mujer dispuesta a tomarse cualquier libertad'. **Masustia izan**. Babalora izan. 'Ser presumida, amapola'.

Mataderixa, -ia. Hiltegia. 'Matadero'. *Oñatiko mataderixa zaharra San Juan kalian eguen eta ze txikiña eta apala zan kontuan izanda, mobimendu haundixa eukan.*

Matarife, -ia. Mataderixan lana egitten dauena. 'Matarife'.

Matrailla, -ia, matraillaak (pl.). Masaila. 'Mejilla, carrillo'. *Lotsatu eta matraillak gorri-gorri jarri xakon..*

Matraillazur, -ra. Masailezurra. 'Mandíbula'. *Matraillazurra itxi eziñik dago.*

Matraka, -ia. Neskatilla bihurrixa eta geldik egon ezin dana. 'Revoltosa'. *Matrakiori!*

Matxingorringo, -ua. Zomorroa. *Coccinella septempunctata*. Marigorringoa, amona mantangorria. 'Mariquita'. *esap.* **Matxingorringo**,

matxingorringo, bixar eguzkixa ala eurixa egingo?

Matxinkalaiña, -ia. Etarateko oso zailla dan zuztar luzia. 'Raíz larga muy difícil de extraer'. *esr. Matxinkalaiña baiño luziagua izan.*

Matxiña, -ia. Lehenagoko oletako burdiñazko maillu haundixa. 'Martillo pilón'.

Matxiño, -ua, 1. Olako langillia. 'Ferrón'. 2. Abere sendua, inddartsua. 'Animal fuerte'. 3. Nagusixaren edo Jaunaren aurka altxaiten zana. 'Rebelde, amotinado, -a'. 4. Araoztarren gaitzizena. 'Apodo de los habitantes de Araotz'

Matxinsalto, -ua. Zomorroa. Txiritxa, saltamatxinoa. Genero eta espezie ezbardin askorekin ebaltzen dan izen arrunta. 'Saltamontes'. **Matxinsaltoka ibilli**. Jolasa: neska-mutiko illaria makurtuta jarri bata bestiarene atzian eta gero saltoka danak pasau gaiñetik; illaria akabotakuan berriz be makurtu eta beste danak norberaren gaiñetik pasautakuan saltoka segi. 'Juego del potro'. Sin. **matxin-saltokari**.

Matxin-saltokari, -xa. 'Saltamontes'. Ik. **matxinsalto**.

Mahunezko, -ua. Mahoi oixalarekin egindakua. 'Mahón (tela de algodón)'. *Mahunezko frakak eta alkondaria lanerakuak./ Mahuna izan da Bergako telia*

Mazo, -ua. Erpillak apurketako zurezko tresnia. 'Mazo de madera para romper terrones'. *Erpillak joteko mazua./ Joten bahaut honekin (erpillak joteko mazo honekin) akordauko haiz!*

Mediku, -a. Sendagillia. 'Médico, -a'

Medrano, -ua. Jatuna, jalia. 'Comilón, -ona, voraz'. *esr. Mizkiñuaren gauzia, medranuak jan!* 'La comida del melindroso, -a se la devora el comilón'.

Mehe, -ia. 'Delgado, -a'. **Mehe hartu edo harrapo**. Arpegira barre egin-edo. Zure momentu baju bat aprobetxau zu

izurra ketako. 'Pillar a uno, -a con la guardia baja o desprevenido'. *Mehe harrapo nau eta iñun diran danak esan dost.*

Mela-mela egin. Hazurretaraiño busti. 'Empaparse completamente con la lluvia'. *Mela-mela egindda etorri da basotik*. Sin. **Melau**.

Melue, meloia. 'Melón'.

Memelo, -ua. *ald. mamelu*, -a. *em. memela*, -ia; 'Lelo, insustancial'. Ik. **babalora**.

Men, -a. Otzana, umilla. *Men-mena, menagua*. 1. (el) humilde. 2. Dócil, humilde, muy manso, -a'.

Menda-bedar, -ra. LAND. *Mentha suaveolens*. Menda. 'Menta, mentastro'.

Mendebal, -a. Eguraldi hezia, etxe barruko hormak be busten dittuena. 'Tiempo húmedo y nebuloso'.

Mendi-ertz, -a. Mendertza. 'Horizonte'.

Mendian hartu. Menderau. 'Dominar, sojuzgar'. *Mendian hartu gaue eta eztago zer egiñik! / Aitta-amak seme-alaben mendian. Horixe polittena!*

Mendirakaari, -xa. Mendi aldera jotene dauen ganadua. 'Animal que tira al monte'.

Menditsu, -a. Mendi askokua. 'Montañoso, -a' *Paraje menditsua / Terreno menditsua*.

Mendittar, -ra. Mendi aldeko jentia. 'Habitante de la zona alta o montañosa'. *Aurreko mendiko danak mendittarrak dira. Ant. behetar.*

Mengel, -a. Odolbariko pertsonia, ganorabarikua. 'Débil, enclenque. Persona sin sustancia, inútil'.

Mentau. Komentau, aittatu. 'Comentar, mencionar'. *Han mentau zana goguan dako zu?/ Mentau egixok/n, ia zer esaten dauen.*

Mentu, a. Txertoa. 'Injerto'.

Mentutu, *mentuketan, mentaitten, mentauten* (Araotz) 1. Txertatu 'Injertar'. Sin. **mentau**

Menus, -a. Itxura txarrekoa, eskasa. ‘Deteriorado, -a, gastado, -a, con hilachas, etc. ‘Con mal aspecto’. *Tomatiak lehenguan aldian menusak agiri dira.*

Menustu. *ald. belustu*. Eskastu, itxuria galdu. ‘Gastarse, ajarse, estropearse’. Leheningua erropakin ebalten da gehixenetan eta erropiori ajaitia eta gastaia esan gura dau. *Ama, fraka honeik hasi xat menusketan; barrixak biharko dittut*. Bigarrena, barriz, fruta eta lurreko jangauzakin. *Sagarra belustuta dagoz eta euren truke eztoskue txanpon askorik emungo.*

Merezi izan. ‘Merecer’. *Merezi eben./ Merezi dau ekartia.*

Merienda, -ia. Askaria. ‘Merienda’. *Noiz egin bihar dogu merienda?*

Mertxi. Eskerrik asko. ‘Gracias’. *Bialduko dotsut errekaduak semiarekin. Mertxi!*

Metal-ur, -a. Burdiña dakon iturriko ura. ‘Agua ferruginosa’. *Andaillusko iturrixa metal-urekoa da.*

Metete, -ia. Iñoren gauzetan muturra sartzen dauenari esaten xako. ‘Entrometido, -a, enredador, -a, indiscreto, -a’. *Metetia dok/n gero! / Halako meteterik! / Metete halakuori, alde egik/n hemendik!*

Miaztu. Milikatu. ‘Lamer, chupar’. *Gure Mikeltxo, pastelak ikusi orduko, bihetzak miazketan hasten da*. Lapiko eta zartagiñen ipurdixak edo platerak, ogi pusketiarekin ondo-ondo garbittu. Sin. **txupau**.

Mihats. Mehats. Alkarrengandik tarte haundixakin, sakabanatuta egotia (landarak batez be). ‘Espaciado. Diseminado. Desperdigado. Separado’. *Porru-landaria oso mihatz dator./ Aurreko mendixan baserrixak mihatz dagoz: Askazubi, Duruan, Koixkar, Lizargarate, Sarramendi...batetik bestera fanaldixa dago.*

Mihastu. Mehastu. Bakandu. ‘Espaciar, aclarar. Hacer la entresaca de árboles en

un bosque’. *Artua, arbixa, basuak... mihastu egin bihar izaten dira*. Piñu **basua mihastu** (bakandu) egitten danian, *egurra bota eta gero soilldu* (abarrak kendu) egitten da, gero *apeak kortiu* (bi metruan ebagi) eta azkenian *zurittu*.

Mika, -ia. 1. *Pica pica*. ‘Urraca’. 2. Oilluaren urteroko makalaldixa. Lumak jausten xate eta eztaue arrautzarik jarten. ‘Estar de muda un ave’. 3. Mikia harrapau. Mozkorra harrapau. ‘Coger una borrachera’.

Mikaaldi, -xa. 1. Oillua mika daguen aldixa. ‘Temporada de muda de un ave’. 2. Pertsona batek, neskatiak batez be, ezertarako gogorik eztaun aldixa. Jateko gogo faltiarekin, urduri edota hasarrekor egoten diranian. ‘Temporada en que una persona, una niña casi siempre, está sin apetito, nerviosa o quisquillosa’.

Mikirikixo egon. *ald. mukukixo egon*. ‘Estar en cuclillas’.

Miko, -ua. *ald. miku* -a; *em. mika*, -ia. Mizkiña jaten. ‘Melindroso, -a, de mal comer’. *Mikua baiño mikuagua zara!*

Miku, -a. Moko. ‘Pico de ave’. *Oilluak mikuakin zulatu daue pentsu zakua.*

Mikots, -a. Eguraldi oso hotzagatik esaten da. ‘Tiempo desapacible, muy frío’. *Aloña aldian antzizarra daguenian, eguraldixa mikotsa izaten da.*

Mimor, -ra. Begi onduan urteten dauen granu modukua. ‘Horzuelo. El granito del borde del párpado’.

1Min, -ña. Gorputzian edo bihotzian sentitten dan ondoeza. ‘Dolor’. *Hagiñeko, belauneko, eztarriko, sorbaldako, gerriko, bizkarreko, besoko, belarriko... miña. Min hartu*. ‘Hacerse daño’. *Burdittik salto egin eta min hartu eben.*

2Min, -ña. Mihia. Mingaiña. ‘Lengua’. *Min puntan dakot haren izena, baiña etxat etorten. / Hor gure umia, miñarekin katillua miazketan, muturinguru ona!*

Miñaldi, -xa. Miña eukitten dan unia. ‘Tiempo, periodo de dolor’. *Miñaldixa etorri xatzu ala?/ Harrezkero eztot halako miñaldirik euki.*

Miñantz, -a. Min ariña. ‘Algo de dolor. Dolor ligero’. *Kejaittekorik ez, miñantza.*

Miñazkura, -ia. Zauri edo berezko bat osaketara doianian izaten dan azkuria. ‘Rasquera que se produce en un divieso, etc., cuando comienza a curarse’.

Min erre, -ia. Min zorrotza, haundixa. ‘Dolor agudo’.

Mingain, -ña. ‘Lengua’. Ik. **min**. *Saldia beruegixa eguen; mingaiña erre dost.*

Mingor, -ra. Miko luzia eta lumaje marroi antzeko hegatzia, horrek izkutaitteko asko lagunketan xao. Pisuari begira 80-100 gramo artekua da. Bere bizilekua padurak, zingirak eta istingak dira. Beronen mikua istingorrena baiño txikixagua da. *Gallinago gallinago*. ‘Becacín’. Ik. **istingor**.

Minkor, -ra. Mingarria. ‘Doloroso, -a’. *Erria minkorra izaten da./ Gaitz minkorra eta osaketan zailla.*

Minkotz, -a. *ald. minkatz, mikotz*, -a. Mingotsa. ‘Amargo, -a; que aflige, hiriente’. *Minkotza dako bihaztunak./ Sagarrak minkatzak dagoz.*

Minpeko, -ua. Mihipeko. Agoko frenillua. ‘Frenillo (de la lengua)’.

Minpekorik ez euki. *esr.* Pentsaitten dauena esan. ‘No tener pelos en la lengua’. *Politiko horrek eztako minpekorik! / Ulixak eztako minpekorik, argi asko bota eben pentsaitten ebena.*

Minsor, -ra. Hagiñak edo gorputzeko beste parte batek emuten dauen miña, zerbaiten abisua emuten dabillena. ‘Dolor o molestia interna que avisa de alguna anomalía’. *Mutilla, bere eskuturra minsor-minsor eukan-eta, arpegi larriz eguen.*

Mintegi, -xa. ‘Semillero, vivero’. *Mintegixan landarak ataraten dira hazittik./ Martolaitzen euki*

giñuan/giñunan mintegixa. Sin. **sabi**, -xa.

Mira iritzi. *ald. miria iritzi*. Faltan bota. Baten baten eza, zerbaiten eza... esateko. ‘Echar en falta; echar de menos’. *Orain gatz barik jaten dot eta etxaot bape mirarik irizten./ Orain ezta etorten eta miria irizten xaugu.*

Miragarri, -xa. Ikusgarria. ‘Estupendamente (adv.). Admirable, asombroso, -sa, maravilloso, -sa’. (adj.). *Miragarri itzi daue, dotore bai dotore./ Leku miragarria.*

Mirrin, -ña. 1. ‘Endeble’, raquíto, -a’, ‘esmirriado, -a’. Arpegiaz batez be. *Arpegi mirriña dako.* 2. Mizkiña. ‘Melindroso, -a para comer’. *Jatun mirriña.*

Mirrinddu. Mehetu, eskatu. ‘Adelgazar, volverse esmirriado’.

Miru, -a. HEGAZ. *Milvus sp.* ‘Milano’. Sin. **buztanurkullu**.

Mis-mis. *ald. mix-mix*. Mitxin-mitxin. Katuari guregenakateko esaten xauguna. ‘Voz para llamar al gato’. *Mis-mis, mis-mis-mis...*

Mitxin, -ña. Katua, *ume ber.* ‘Gato (leng. inf.)’.

Miurkulu, -a. HEGAZ. *Milvus milvus*. Miru gorria. ‘Milano real’.

Mixar, -ra. UGAZ. *Glis glis*. ‘Lirón’. Sin. **Mixarru**, -a.

Mixarru, -a. ‘Lirón’. Ik. **mixar**.

Mizkin, -ña. Gutxi jaten dauena. Mizkiñua. ‘Melindroso, -a para comer’. *Eztozu ezer jan, mizkiñori halakuori!*

Mizkinkerixa, -ia. Milikeria. Mizkiñaren egittia. ‘Melindrería’. **Mizkinkerixetan**. Mizkiñarenak egitten. ‘Hacer melindres’. *Zela gustaitten xatzun mizkinkerixetan ibiltia! / Betik mizkinkerixan ibilli barik garbittu egizu plater hori.*

Mizpira, -ia. Níspero’.

Mizto, -ua. 1. Eztena. ‘Aguijón’. Erliaren eztena. *Erla-miztua*

bilddurgarrixa izaten da. 2. Sugiaren mingaiña. ‘Lengua de la culebra’. *esr. Suga-miztua baiño mingain gaiztuagua dako* 3. *fig.* Gizonaren zakilla. ‘Pene’

Mobiu. Mugitu. ‘Mover(se)’.

Modutu. 1. Egin, amaittu. ‘Hacer, acabar’. *Modutu dozue?/ Banoia etxera ia bazkarixa moduketan doten!* 2. Astinddu. Lelo-usaiñak kendu. ‘Espabilar’. *Horrek modutuko hau!*

Moduz. Erara, modura. ‘Modo, manera’. *Ni nere moduz bizi naiz hemen* (nere kasa, nere erara). ‘A mi modo o manera’.

Moja, -ia. Lekamea. ‘Monja’.

Mojagei, -xa. Komentuan mojatarako sartzen dana. ‘Novicia’. *Orain be mojageixak izango dira.*

Mokau, -a. ‘Bocado’.

Mokolo, -ua. Ergela. ‘Mujer u hombre soso, bobo. Lelo. Se dice de las personas que se ríen por nada, tranquilas y sin malicia’. Sin. **babalora**.

Mokor, -ra, ‘Cadera’. *Emakume hori mokor zabala da./ Mokorra apurtu dau./ Mokorretatik makal ñabilk/n.* **Mokorrak urten.** a) Mokorrak bere lekutik urten. ‘Salirse la cadera’ b) Paretari tripiak urten. ‘Formarse un saliente en la pared’ *Mokorrak urten xao.* Sin. **mokorrazur**, -ra.

Moldakaitz, -a. Baldarra, torpia, ezertara egogiketan eztana. ‘Torpe, patoso, -a, descuidado, -a’. *esr. Astua atzerunzka baiño moldakaitzagua.* ‘Más torpe que un burro hacia atrás’.

Moldau. 1. Prestatu. Eratu, konpondu. ‘Preparar(se), organizar(se), arreglar(se)’. *Moldauko dot nik hori, bixarko gertu egon dadin./ Neu bakarrik moldauko naiz.* Sin. **ingiratu**.

Momorro, -ua. Zomorroa. ‘Bicho, bicharraco’.

Mordo, -ua. 1. Asko, pillia. ‘Muchos, -as, un montón’. *Perretxiko mordua*

batu dogu./ Jente mordua etorri zan. Ik. **mahats**. (Racimo de uvas).

Mordotxo bedar, -ra. ‘Celidonia menor’. Ik. **potro bedar**.

Morokil, -la. Artourunagaz eta esniagaz egitten dan jatekua. ‘La papilla de harina de maíz’.

Morraillo, -ua. Antxiñako erako sarraillia. ‘Pestillo’. *Atia itxi morrailluagaz.*

Morrondu, *morronketia*. Kipulak garaatu. ‘Echar vástagos, subirse (las cebollas)’. *Kipulak morrondu dira.*

Mosolin, -ña. *ald. moxolin*, -ña. Neskatiiliaren alua. ‘Vulva de una niña’.

Mosu, -a. 1. Arpegixa. ‘Cara, rostro, faz’. *Mosua garbittu, ume!* 2. Laztana. ‘Abrazo, beso’. *Mosutxua emun.* Laztana emun. **Mosuka**. Laztanka. ‘Besando(se), acariciando(se)’

Motel, -a. 1. Gatz gutxi edo bapebe barikua. ‘Soso,-a, insípido, -a.’ *Berakatz-zopa hau oso motela dago, eztako bapebe gatzik!* 2. Bizittasun edo inddar gutxikua. ‘Sordo, apagado, sin chispa’. *Giro motel samarra egon da auzoko jaittan.*

Motxarda, -ia. 1. Ardi motxa eta potolua, edota beste edozein ganadu, hotza eta edurra ondo aguantaitten dauena. ‘Oveja muy corta y rechoncha. Animal resistente al frío, nieve’. 2. Andra txikiña eta itxura txarrekuari be esaten xako. ‘Mujer de poca estatura y mal aspecto’.

Moxal, -a. Zaldikuma txikiña, arra edo emia, txikiña dan artian. ‘Petro o potra’.

Mozolo, -ua. *em. mozola*, -ia. Tontua, lelua. ‘De poco seso, más bien tonto, -a’. *Mozolo pintto!*

Moztzailla, -ia. *ald. moztzaille*, -ia. Ulia mozten dauena. ‘Esquilador, -a’. *Zein dozue ule moztzaillia?/ Ardi moztzaillak./ Asto moztzaillak.* Ik. **ardimoztzailla**.

Muda, -ia. Gizonezkuen zein emakumezkuen barruko jantzixak.

‘Muda (ropa interior masculina y femenina)’. *Badago muda garbirik? Mudia gertu dako zu, baiña leheningo zeu ondo garbittu zatez!*

Mudia ekarri. (eguraldixak). Aldaketia ekarri. ‘Muda de tiempo’. *Honek mudia dakar...*

Muga, -ia. Muga. 1.- Zerbait bukaketan dan lekua edo unia. Bi lurralde bereizketan dittuen marra. ‘Límite, frontera; termino, fin’. **Mugapera egin.** Narrutan jarduterakuan zakilla atara hazixa kanpora botateko. “Martxa-atrasa sartu”. ‘Dar marcha atrás al estar fornicando’.

Muiñarratu, -a. Lurramilla. Uren eta euritttiaren lana izaten da. ‘Desprendimiento, corrimiento de tierra’. *Muiñarratu haundixa egin da./ Aurtengo neguan egin da muiñarratutan!*

Muita, -ia. LAND. *Arrhenatherum elatius*. Mugita. ‘Tortero’. Bedar txarra.

Mun egin. *ald. mun emun.* Musu emun zerbatteri edo norbaitteri, arpegixan izan ezian. ‘Besar algo o alguna persona en sitio diferente a la cara (la cruz, la reliquia)’ *Erlikixiai eta kurtziari mun emuten xaten elizan.*

Muna, -ia. Lur-salto txikiña, bi lur sailen arteko golpeko desnibela. ‘Loma de tierra, cerro, collado’.

Murko, -ua. ‘Botijo’. *Fan iturrira eta ekarri ura murkuan.*

Murmo, -ua. Bormu. 1. Katarrua daguenian, barruko zikiñak (mukosia) bota ezin diranian, eztarrixan etaraten dan soiñua. ‘Carraspera. 2. Astuaren gaixotasuna; mokuak bota eta eztula egitten dau. ‘Muermo; moquillo. La enfermedad de gatos, perros, asnos, etc., cuando se les cierran las narices’.

Mur-mur fan. Bakarrik fan berbetan, marmaxika edo murmuxetan. ‘Ir murmurando’. *Zer zabiltzai mur-mur?/ Mur-mur fan da.*

Muskar, -ra. Narrastixa. *Lacerta viridis*. Muskerra. ‘Lagarto’.

Mutiko, -ua. Hamabi bat urte arteko gizasemia. ‘Chico de hasta unos doce años’. *Hamasei urtegaz ez mutiko ez mutil./ Mutikotan ikusittako gauzak./ Horreik mutikokerixak dira./ Neskatilla-mutiko mordua ebillen erromerixan.*

Mutikote, -ia. Hamahiru-hamabost urteko mutilla. ‘Chicote (de trece a quince años)’. *Mutikote malutza da zuen Andoni!/ Mutikote pillia agertu zan futbol-sailleko billerara.*

Mutilzahar, -ra. Edadian aurrera doian ezkondu bako gizona. ‘Chico viejo, solterón’. Ik. **betiko mutil**.

Mutu, -a. ‘Mutia’ emakumezkua danian. ‘Mudo, muda’. *Alegittarreneko mutua, Arzuaganeko mutua...*

Mutur, -ra. ‘Hocico’, ‘morro’. **Muturra okertu edo ximurtu.** Keiñu horren bidez ezadostasuna agertu. ‘Torcer el gesto (en signo de desaprobación)’. *esap. Ez lukainka ez mutur geldittu.* Dana gura eta ezebe barik geratu. ‘Quererlo todo y quedarse sin nada’.

Muturbaltz, -a. 1. Pertsonen gain, muturbaltza dala esaten da norbait antipatikua edo desatsegiña danian. ‘Antipático, -a, desagradable. Hociçudo, adusto’. *Hori da hori pertsona muturbaltza!* 2. Arpegi txarra jarri; itxura txarra euki. ‘Poner mala cara, tener mala traza’. *Aittak umiaren aurrian amari mutur baltza jarri edo berba zakarrak esan otsan. / Orain be eguraldixak mutur baltza jarri dau eta euri-toketadaren bat egin leike.* 3. Ganaduakin, barriz, kolore edo formaren arabera, **muturzuri, muturbaltz, muturgorri, muturluze, muturmotz, muturroker, muturrigar**, etab. ‘Nombres que reciben los animales en función de su color o forma’.

Nabar, -ra. Ez zurixa ez baltza. ‘Pardo, -a’. *Txakur nabarra, behi nabarra, katu nabarra...* 2. Apero con una cuchilla para cortar la tierra antes de layar.

Nabarmen, -a. 1. Ezaguna, bistan

dagüena. ‘Evidente, patente, manifiesto, -a’. *Nabarmena* da. 2. Neska “ausartegixaz” esaten da. *Neska nabarmena* edo *neska banderia*. Kontuz berba honekin, iñori etxako gustaitten-eta nabarmena izatia edo nabarmen geraketia. ‘Destacado, -a, que llama la atención, que anda con descaro o escandalosamente’.

Nabartu. Lurra edurrez estali. ‘Cubrirse de nieve el suelo, blanquear’. *Edurra nabartu dau* / *Edurra nabartu xok/n*.

Nagi, -xa. Nagia. ‘Vago’. *Nagixak etara*. ‘Desperearse’.

Nagikerixa, -ia. Nagixak egitten dauena. ‘Vagancia, holgazanería’. *Nagikerixiari emunda egon*. Nagittuta egon. ‘Estar dado a la holgazanería, estar tumbado a la bartola’. *Nagikerixiari emunda ala?* *Arratsaldeko bostak eta sukaldia jasoteko?* / *Horreik nagikerixiari emunda ikusten dittut ziharo, euren burua be eztaue jasoten-eta!*

Nagitturri, -xa. Agorketan dan itturrixa, esaterako, Sarramendi azpiko txikin-iturri. ‘Fuente o manantial que se agota’. *Nagitturrixa agortu egitten da lihortiagaz.* / *Sikute honegaz nagitturri danak agortuta dagoz.* / *Koroso ondoko aixal-iturri ezta behinguan agortuko, ha iturri ona da-eta, ez nagitturrixa!*

Nahar, -ra. LAND. *Rubus* sp. Laharra. ‘Zarza’. *Naharra eta zikiña bazan bidian eta marrajuagaz joten ibilli naiz*.

Nahaskilla, -ia. Txukuntasun eza, ordena eza. ‘Embrollo, enredo’. Sin. **kakanahaste, nahaste-borraste**.

Nahastu. Nahasi. ‘Mezclar’. ‘Confundir’. *Pinttura berdía gura badozu, nahastu urdiña eta horixa.* / *Eskumia eta ezkerria nahasketan dittu*.

Ñañar, ñañarra. Oso txikiña. ‘Pequeño, -a, diminuto, -a’. *Goixetan piñu ñañarra* / *erdixan igarra,* / *azpitan kerizpe gutxi* / *ta gaiñian harra*.

Nano, nanua. *ald.* ñañua. 1. Txikiña. ‘Pequeño, -a’. 2. Makala. Indarbagia.

‘Debilucho, -a, sin fuerza’. *Euli nano bat badabil hemen!* / *Mutiko nano honi esnia emun bihar xatzu asko, inddartu dadin*.

Nanotu. Makaldu, kuittautu. ‘Debilitar, decaer’. *Nanotuta nago, geldotuta nago* (edadiagatik); *Bueno, mobiu zatezai hortik, nano-nano egon barik.* / *Ziharo nanotuta ikusten dot.* Landarairi buruz be esaten da. ‘Faltas de vida’. *Lorak nanotuta dagoz aurtan*.

Naparraize, -ia. Udan artuak eresten dittuen haize zakarra eta berua. Batzuentzako *Naparregoia* gauza bera da, baiña beste batzuentzako azken hori suabiagua eta epelagua da. ‘Viento que hace estragos en verano derribando los maíces y secando los campos. Es más suave y templado el napárregoia’. *Naparraizia dabil gaur, gogoz*.

Naparregue, naparregoia. Kalterik gehixen sortzen dauen haizia, bilddurgarrixena. Harrixa ekarten dau. ‘Viento procedente de la zona de Urbia bastante frío’. *Naparregoiak artuak kipulatu* (itxurabatu) *dittu.* / *Naparregoiarekin bilddur izan.* / *Naparregue-puntua*.

Narda, -ia. Arrisku haundiko malkarra. Pendiza. ‘Pendiente, precipicio’. *Nárda bat, nardía,* cuesta muy mala, cuesta mayor que *erripa* y sucia. Los pastores de Urbia llaman [...] *nárda, nardia* para designar un lugar totalmente salvaje, malo y abrupto. *Narda horretan zutik be ezin leike baiña ibilli!* / *Nardan behera bueltaka fan da.* / *Kontuz, narda horrek bilddurra emuten dost neri gero!* / *Gure amandriak esaten eben pesetero* (XIX. gizaldiko gobernuaren soldatapeko soldadua) *batek zela baionetiarekin egin otsan Ama Birjiñari, harek be ikusi bihar ebela-eta; eta nardapera amilddu eta han lehertu ei zan*.

Narras. 1. Arrastaka, tarras, tatarras. ‘A rastras, arrastrando(se)’. *Nárras ekarri*. 2. Zabar, arlote. ‘Descuidado, -a, desaliñado, -a’. *Oso narras ikusten dot Kasimiro aspaldixan.* *Narrasa.* Zabarra,

arlotea, ganora gutxikoa. 'Dejado, -a, desaliñado, -a, abandonado, -a, desapacible'. *Pertsona narrasa./ Egoera narrasa. / Eguraldi narrasa.*

Narru, -a. Larrua. 'Cuero'. Lehenagoko abarkak narruzkuak izaten ziran. **Narru sendua izan**. Lotsabagia izan, azal sendua euki. 'Tener mucha cara'. *Horrek xakok/n narrua horrek, abarkak egitteko modukua!// Narru sendua besterik etxakuai/etxakonai horreik!* Sin. **azala. Narrugorrixan**. Biluzik. 'En cueros, desnudo, -a'.

Narrua jo edo **narrutan egin**. Txortan egin. 'Follar, joder'. Sin. **larakuan egin, pettadia jo, ttakuan egin edo ibilli, txakilletan egin, txortan egin, txotxian egin**. 'Sin. de follar o joder'.

Narru eske etorri, fan, ibilli. Narrutan egittia eskatu, etab. 'Pedir relaciones sexuales'.

Narrua emun. Narrutan egittia onartu. 'Ofrecer relaciones sexuales'.

Nasai. *adb.* 1. Zabal, eroso. 'Holgado, flojo'. *Nasai dakot frakak.* 2. **Nasaixa**. *adj.* Zabala, erosua, asero geraketan dana. 'Cómodo, -a' *Amarendako ekarri zapatilla nasaixak.* 3. Lasaia, patxadazkua. *Gizon nasaixa.* 'Hombre tranquilo'.

Nasaittu. Lasaitu. 1. 'Soltar(se), aflojar(se)'. 2. 'Relajar(se), descansar'. *Petriña nasaittu, estu badakozu. / Nasaittu ederra hartu geben, onik urten ebela ikusi gebenian.*

Natura, -ia. Animalixen bulbia edo kirtena. 'Órgano sexual de un animal tanto macho como hembra'.

Nazkagarri, -xa. Higuinarrixa. 'Asqueroso, -a'.

Negar, -ra. 1. 'Llanto'. *Umiaren negarra gaba danian entzun da. Zer ete dako?* 2. Ur-negarra. Agua que mana en el monte, prados, etc. *Sikutia aillegau da hona be eta albergako itturritik ur-negartxo bat besterik ezta etorten.*

Negar egin. 'Llorar'. *Sute haundi horreik ikusitta negar egitteko gogua besterik etxat etorten.*

Negargarri. 1. Oso gaizki. 'De manera lamentable, penosamente'. *Andria galdu ebenetik negargarri dabil.* 2. **Negargarrixa**. Negarguria emuten dauena. 'Lamentable, penoso, -a'. *Etorkin asko egoera negargarrixan bizi da.* Sin. **penagarri**.

Negargura, -ia. Negar egitteko gogua. 'Ganas o deseo de llorar'. *Negarguria dakot galanta./ Negarguria daguenian, negar egin bihar da.*

Negu, -a. 'Invierno'.

Negu-marai, -xa. 1. Neguko madaria. 'Pera de invierno'. 2. *euf.* 'guarda zibillak'. Nagusixen artian "guardabasillak" esaten zan metatesia egiñaz. 'Guardia civiles'. *euf.* **Negu-marairik ikusi dittuk/n bidian?**

Neguta, -ia. HEGA. *Fringilla coelebs.* Txonta. 'Pinzón común'. Sin. **txoin-txoiña**.

Nehikua. Nahikoa, aski. 'Bastante, suficiente'. *Gaur kerizpetan be nehikua bero!// Nehikua jan dozue?*

Nekaniko. *adb.* Makal, indar barik; pertsonak eta landarak. 'Débil, sin fuerza'. *Nekaniko-nekaniko dator./ Nekaniko geratu da.*

Nekeztu. Zailddu. 'Complicar, entorpecer, dificultar'. *Zahartutakuan buruak darabillen lan danak nekeztu egitten dira.*

Nene. *ume ber.* Esnia. *l. inf.* 'Leche' *Nene gura dozue?*

Nene, -ia. Ume txikiña. 'Ninia' be entzuten da. 'Niño, -a pequeño, -a'. *Ikusi dozu nenia/ninia?*

Neska, -ia -aak. (pl.). 'Chica'. **Neskatan edo mutilletan egin**. Neskaak edo mutillak ezagutu eta konkistaittera fan. 'Ligar'. *Neskatan egitteko eztakozue Kubara fan biharrik, herrixan bertan dakozue aukerakuak! Neska koxkorra.*

Hamar bat urte arteko neskia. ‘Chica de hasta unos doce años’.

Neska-lagunketa, -ia. Neskiari mutillak etxera lagunketia, baserrira batez be, erromerixa ostian-eta. ‘Acto de acompañar a una muchacha a casa’. *Neskak goiz etxeraketan ziran. Eta neska-lagunketia izaten zan orduan.*

Neskapasau, -a. Ezkondu aurretik ernalduta geratutako neskia. ‘Chica preñada antes del matrimonio’.

Neskatilla, -ia. Hamabi bat urte arteko emakumia. ‘Chica de hasta unos doce años’. *Neskatilla hazitxua ekarri daue Txinatik. esr. Neskatilla, maratilla, ipurdixan korapilla.* (neskatillairi ernegau eragitteko esaten dan koplia). ‘Copla que se canta a las niñas para chincharlas’.

Neskatillakote, -ia. Hamahiru-hamazortzi urteko neskia. ‘Chica mayor (de trece a quince años)’. *Neskatillakotia egindda dago Edurne./ Bai, ordurako neskatillakote ederra!*

Neskatilla-txakur, -ra. Konpainiako txakur txoliña. (Koixkar) ‘Perro, -a faldero, -a’.

Neskazahar, -ra. Edadian aurrera doian ezkondu bako emakumia. ‘Chico vieja, solterona’.

Neurrixak hartu. Zentzu errealian nahiz figurauan. a) ‘Tomar medidas físicas’. *Hartu neurrixak armarixua egitteko* b) ‘Pedir cuentas, meter presión’. *Neurrixak hartzera etorri zara ala lagunketara? / Neurri-hartzaille onak dira honeik egintzaillak baiño!*

Ninguno, -ua. Aitzakia, eragozpena, oztopoa. ‘Excusa, pretexto, pega’. *Eztau ningunorik ifiñi./ Nik eztakot hori egitteko ningunorik./ Eztau ningunorik euki.*

Niño, -ua. Begi-ninia. ‘Pupila; niña del ojo’.

Nunalian ibilli. *ald. unalian ibilli.* Alea dagoen lekuan batu. ‘Recoger las castañas según las vayas buscando. Esto

se hace después de que el dueño del castaño haya recogido sus castañas’. *Batzuetan gaztaiña nunalian batu edo jasoten da.* (Nun alia han jaso.) / *Mutikuak unalian ibiltten giñan ugazabak baiezku emundakuan.*

Nunar, -ra. Orina, orezta. ‘Lunar’. *Nunartzaarra dakona, mosuan!*

Obatu. Oratu, heldu. ‘Asir, agarrar, coger’. *Lanari obatu. / Eskutik obatuta ikusi nittuen./ Ondo obatuta eruan, e, galdu eztagizun!*

Obedeziu. Obeditu, esana egin. ‘Obedecer’.

Obediente, -ia. Esanekoa. ‘Obediente’.

Obispo, -ua. 1. Gotzaia. Zentzu errealian nahiz figurauan. ‘Obispo’. *Setien izan da urte askuan Donostiako elizbarrutiko obispua. / Ha dok/n ha obispotzarra!* 2. Erantzun garbixa emun gura eztanian ebalten dan euf. ‘Contestación utilizada cuando no se quiere dar la respuesta claramente’. *Zein etorri da? Zein etorriko zan, ba, obispuaren semia!*

Obradore, -ia. *ald. obradura*, -ia. Eskulangintzako tailerra. ‘Obrador (taller para hacer el pan, cestos, etc.)’. *Obraduran, banastagintzan ziharduera, plemonixia harrapo eta hala hil ei zan gure birraitajuna Gabriel gerra aurretuan.*

Obramentu, -a. euf. Kaka. ‘Excremento, caca’. *Obramentuan bixixuak egin nittuan atzo. Obramentua egin.* Kaka egin. ‘Cagar, defecar’.

Odolbage, -ia. Jenixobagia. Ganorabakua. ‘Pusilánime, medroso, -a’. *Laguntzaille odolbagia*

Odolbatu, -a. Larruazalian koagulatutako odola. ‘Coágulo; cardenal, roncha, moretón’.

Odoljarixo, -ua. ‘Hemorragia’. Sin. **odolfuana**.

Odoloste, -ia. Odolkia. Txarri odolarekin egindakua. Baserritan odoloste klase bat baiño gehiago

egitten zan. Esaterako, heste itsuarekin eginddakuak 'lope' eukan izena; eta heste potoluarekin egitten zana, berriz, mortzillia, erderazko 'morcón' edo 'morcillón'. 'Morcilla'. *Kalian oso famosuak ziran Juan Mariren odolostiak; jente illarak egoten ziran odolostiak erosteko, estimaitten ziran seiñale.*

Odolustu. Odolfuanaren ondorixoz odol barik geratu. 'Desangrarse'. *Umia izan ebenian bera odolustu zan, baiña umia bizirik etara ebein.*

Ofendiu. Bihartu. 'Obligar, forzar'. Hankia, besua edo bizkarra, batez be, aurretik hondatuta badago. Mokorrian alde batetik operauta egonda, operautako aldia zainketan-zainketan, beste aldiari lan larregi eragin, adibidez. Orduan esango geke: *eskuma alde hau ofendiu egin dot./ Zapatak orainddiok kendu barik dako zu? Bai, enaue ofenditten-eta* (hau da, etxaue miñik emuten).

Ogi, -xa. Ogia. 'Pan' *Han agertu zan Mikeltxo ogi baldua eskuetan eukala.*

Ogigaztaa, ogigaztaia. *Mustela nivalis.* Erbinudea. 'Comadreja'. Gaztaiña koloreko ipiztixia, ittoietan kalte haundixak egitten dittuena

Ogi-urun, -a. Gari-uruna. 'Harina de trigo'. *Nik ogi-urun pittin bat nahasketan notsan arto-urunari.* Artuarena, arto-urun. 'Harina de maíz'.

Ohittu, ohitzen, ohitzeia. Ohitu. 'Acostumbrarse'.

Oillaan, -a. Asko ugariketan dan bedar txarra. 'Mala hierba que se multiplica mucho'.

Oilla-harri, -xa. Oilluai ura ifintten xaten harrixa. 'La piedra donde se pone agua a las gallinas'.

Oillagor, -ra. HEGAZ. *Scolopax rusticola.* Miko luzia eta lumaje marroi antzekua, horrek izkutaitteko asko lagunketan xao. 300-350 gramokua da. Hortaz hegazti sendua dala esan geike. Bere bizilekua basua da, pagaduittan,

hariztuittan eta piñudixetan bizi da. 'Becada, sorda'. **Etorrera, -ia.** illunkaratan oillagorrak etortia gaba pasaittera. 'La venida de las becadas al anochece'. *Koixkargo mutillak Maixeletara faten ziran (oillagorren) etorrerara.* **Oillagorretan ibilli, izan.** Oillagorrak harrapaitten ibilttia. 'Andar cazando becadas'. **Oillagor-txakur.** Oillagorretan trebia dan txakurra. 'Perro especializado en levantar becadas'.

Oillaloka, -ia. Txittak ataraten dittuen oillua. 'Gallina clueca'. *Oillalokiak eztau arrautzarik erruten.*

Oilla-lur, -ra. Etxe ondua edo ingurua, oillua ibiltten dan lekua. 'Lugar cercano de la casa. Cerca de casa'. *Oilla-lurrian bizi izan gara. / Hemen geraketan gara oilla-lurrian. / Sekula bere oilla-lurretik urten barikua zan. / Aurten nora fan zarai bakaziñotan? Oilla-lurrian ibilli gara!*

Oillanda, -ia. 1. Oillo gaztia. 'Polla'. 2. Neska gaztiari be esaten xate. 'También se utiliza para denominar a las chicas jóvenes'.

Oillar, -ra. Oilar. 'Gallo'.

Oillasko, -ua. 1. Oillar gaztia. 'Pollo'. 2. Mutillairi be esaten xate. 'También se utiliza para denominar a los chicos jóvenes'. *Plazako erromerixan zenbat oillasko hainbat oillanda!*

Oillategi, -xa. Oilluak bizi diran lekua. 'Gallinero'. *Arrautzatarra fan da neskatiillia oillategira./ Aixaxa sartu xaku oillategixan eta gehixenak eruan dosku.*

Oillo, -ua. 'Gallina'. *er. Oillokittu, oillo-ipurdixa jarri, oillo-narrua egin, oillo-lumia egin.* 'Ponerse carne de gallina'. *Hotz honegaz oillo-narrua egin xaku./ Oillokittuta nago./ Telebisituan ikusittakuak oillo-narrua ifiñi dost.*

Oillomika, -ia. Mikaatutako oillua, aldi bateko gaixotasuna dakona. 'Gallina enferma. Oillómikia, es la [gallina] que está de muda'. *Oillo hau mikaatu egin da.*

Oillo-zirin, -ña. Oilluen kaka. ‘Excremento de la gallina’. *Oillo-ziriñarekin kontuz, askok eta askok alergia xaue, haren hatsa hain da fuertia!*

Oin, -ña. ‘Pie’.

Oinbete, -ia. Oin baten neurria. 26 zm edo 12 pulgada. ‘Medida de longitud de 26 centímetros: de 12 pulgadas u onzas’. *Hiru oinbete dagoz illaratik illarara.*

Oinbular, -ra. ‘Empeine del pie’.

Oiñaztargi, -xa. Gutxittan ebalixa, oiñaztuaren argixa esan gura dau. ‘El resplandor del relámpago’. *Gaur oiñaztargittan etorri gaittuk/n etxera.* (hori esaten da gabaz oiñaztu asko izaten diranian bata bestiaren ondoren)

Oiñaztarri, -xa. *ald. oiñaztargi*, -xa. Gauza bera esateko aldaerak dira. Lurra jotzen dauen tximistia. Araotzen **iñaztarrixa** *ald. iñaztargixa*. ‘Rayo’. *Oiñaztarrixa sartu da gurian./ Iñaztargixak jo eta hamalau ardi hil zittuen lehengo urte batian Andarton./ Bentanatik sartu eta atetik urten eben oiñaztarrixak. / Oiñaztarrixa jausi da kanpantorrian.*

Oiñaztu, -a. Tximistargixa. Ostondua ziharrian kruzaitten dauen tximista motza edo luzia. Araotzen **iñaztua**. ‘Relámpago’. *Oiñaztuak hasi dira, eta laister da hemen hodeixa./ Justoixak eta iñaztuak*

Oiñetako, -ua(k). Oinetakoak. ‘Calzado’.

Oiñezko, -ua. Oiñez doiana. ‘Peatón, -a’. *esap. Oiñezkorik gura ez, eta zaldizkorik etorri ez. Dícese de quien queriendo casarse con una persona rica se queda soltero, -a.(dicho)*

Oiñordeko, -ua. Ondorengua, herederua. ‘Sucesor, -a, descendiente’. *Oiñordeko danak etorri dira hiletara./ Oiñordekua ekarri daue.*

Oixal, -a. Oihala. Tela, -ia esateko lehenago ebalten zan berbia. ‘Clase de tela’. *Oixalezko frakaak. / Frakak*

egittek oixala zuzendu bihar dot.
Oixala euki. ‘Tener resistencia, fortaleza’.

Oixal-banasta, -ia. Erropia erre kara garbiketara eruateko ebalten zan banastia. Lixibako oixalak ebalteko otzaria. ‘Cesto para la ropa’. *Oixal-banastak hartu eta guazenen harriaskara puxetia jotera.*

Okailla, -ia. Ardixen gaitza. ‘Distomatosis hepática’.

Okaran txirimillo, -ua. ‘Endrina’. *Fan etxe azpira eta hartu okaran-txirimillo horreik, txorixak jan baiño lehen!*

Okaran, -a. Arana. ‘Ciruela’. *Okánetan erregiñia klaudiokana.*

Okarandui, -xa. Okaran arbola saila. ‘Plantación o campo de ciruelos’. *Hemen dago okaranduixa!/ Hau lako okaranduirik!*

Okaran-hazur, -ra. Eztarriko koskorra. ‘Garganchón’

Okaran-lorajale, -ia. HEGAZ. *Pyrrhula pyrrhula.* Gailupa. ‘Camachuelo común’.

Okaranpasa, -ia. [okanpasa, -ia] entzuten da. ‘Pasa de ciruela’.

Okasiño, -ua. 1. Aukeria. ‘Oportunidad’. *Okasiño ona euki geben eta erosi egin geben.* 2. “Zerbaiten eguna” adierazteko be ebalten da; esaterako, “hillea-egun”aren *euf.* modura. ‘Día del funeral’. *Amaren okasiñuan enintzan egon eta gaur emun xaot pesamia.*

Okela, -ia. Jateko haragia. Egostekua, gixaittekua, lotzekua (roillua)... ‘Carne para cocinar’.

Okela-bela, -ia. HEGAZ. *Corvus corax.* Erroia, bela haundixa. ‘Cuervo común’.

Okergille, -ia. Gaizkillia. Okerrak egitten dittuena. ‘Malhechor, -a’. *Okergille aparta.*

Okotz, -a. Kokotsa. ‘Barbilla, mentón’. ‘Hocico’.

Okozluze, -ia. Okotz luzia dakona. ‘De barbilla o mentón alargado, -a’.

Olaaziri, -xa. [olaazi] entzuten da. Hesola. ‘Estaca’. *Ekarri dittut zerraduria egitteko olaazirixak.*

Olaazirigei, -xa. [olaazigei] entzuten da. Olaazirixa egitteko egurra. ‘Material para hacer estacas’. *Olaazirigeixak aparte itzi./ Hemen eztago baiña ganorazko olaazirigeirik.*

Olagizon, -a. Burdiñolan lan egitten eben langillia. ‘Ferrón’.

Olixo, -ua. Olio. ‘Aceite’.

Olo, -ua. Oloa. ‘Avena’.

On, -a. ‘Bueno, -a’. *ad. lok. Onenak emunda egon.* Zahartuta egon, bazter batera botateko moduan egon. ‘Estar viejo, -a, como para desecharlo.’ **Onenagaz aurretik ibilli.** Etxian diran erropa, ontzi edo dana dalakuetatik, onenairi heltzeko joeria izan. ‘Tendencia a coger lo mejor’. **Onkixa izan.** Ona izan; on pusketia izan; dana ondo daguela pentsau. ‘Ser un buenazo, -a’. *Onkixa izatiagatik pasaitten xako hori. Oso onkixa da.*

Onai, -xa. Gauzarik onenak edo preziauenak mahairako edo sororako: platanua, txuletia, sitsa edo ongarrixa, etab. ‘Se dice de las cosas más apreciadas tanto en la mesa como en el campo, por ej. el plátano, la chuleta, el abono de la tierra, etc.’. *Onaitxuak bakarrik jaten dittu. /Onai asko jandako txahala / Onaixak: plátanos, chuletas...*

Onaixa emon. Kontratu baten partien artian dagozen aldiak bardinketako jarten dana. ‘Lo que se pone para compensar el contrato’

Onaldi, -xa. Bolada ona. ‘1. ‘Bonanza’. 2. ‘Buena temporada’. *Onaldixa dako, lehen okerrago egon zan.*

Onaro, -ua. Eguraldi ona. ‘Periodo de buen tiempo’. *Agorreko onaruaren ondorian urri erdialderako txarragua ei dator.*

Onbage, -ia. [Onbaia] entzungo dogu. Bizitzan suerte gutxi dakonari esaten xako. ‘Desgraciado, -a, desafortunado, -a’.

Ondagei, -xa. Gaztaiña eraregia, mentutu bakua. Banastak, otzarak eta holako saskixak egitteko ebalten dana. ‘Los renuevos de castaño para sacar flejes’. *Ondageixatik zimitzak etaraten dira banastak egitteko.*

Ondoezik ibilli. Gaixo antzian ibilli. ‘(Estar, encontrarse, andar...) indispueto, mal’. *Bazkal ostian uhera noia, ondoezik nabil-eta./ Enabil oso santu aste honetan, eztarriko miñez eta ondoezik.* Sin. **ondoeztuta egon.** *Ama ondoeztuta dago.*

Ondoko, -ua. 1. Onduan dagueña. ‘El o la de al lado’. 2. Egurrak txipiketako azpitan ifintten dan egur sendua. ‘Tronco para partir leña.’ Sin. **tronpillia, azpikua, illokixa.** *Illoki baten gaiñian txipittu egurra.* 3. Oilluairi haabixetan ifintten xaten gizurrezko arrautzia, errun-lekua erakusteko. ‘Huevo de piedra que se coloca en el nido de las gallinas para que sepan donde tienen que poner los huevos’.

Ondu, *ontzeia, ontzeen.* Jatekua heldu, gozau. ‘Sazonar o curar (los quesos)’ *Gaztaiak ondu.* Pertsona osatu: *ondu, onduta, onduko.* ‘Curarse (una persona)’ *Zer moduz andria? Ondu da, ondu da!*

Onez, -a. Nahieza. ‘Malestar’. *Onezen bat dagueñian onena uhera sartzeia izaten da.*

Ongarri. Janarixak onketako ebalten dana. ‘Condimento’.

Ongarrittu. Janarixa ondu. ‘Aliñar’. *Ongarrittuta dago entsalada hau?/ Ongarri (olixo, gatz, pipar, ozpin, kipula, berakatz...) gutxitxo aukeran.*

Ongilla, -ia. Pertsona ona, mesediak egitekua. ‘Bienhechor, -a’. *Betik topaitten dira ongillaak.*

Ontzigin, -ña. ‘Alfarero, -a’. *Gaur eguneko ontzigiñak erakusteko bakarrik egitten dittue lanak.*

Onure, -ia. Entzutia, famia. ‘Fama, reputación’. *Herrixan onure txarra ifini dostai./ Eztot asko ezaguketan, baiña onure onekua da gazte hori./ Etxakiñat zer egin donan, baiña onuria badakon, bai!./ Onurok laister kenduko xaue.* 2. **Onure txaarra ifiñi**. ‘Poner mala fama’. 3. **Onuria kendu**. ‘Quitar la fama’.

Ooldi, -xa. *ald.* **ooldui**, -xa. LAND. Goroldioa. ‘Musgo’. *Ooldi pusketak./ Oolduixa ekartera mobiu dira.*

Oostu. Harrapau. Lapurtu. ‘Coger, robar’. *Mahai gaiñetik kiltzak oostu dostai!./ Kontuz horrekin, zeu konturatu barik karteria oostuko dotsu-eta.*

Ora, -ia. Orea, ogia egiteko masa. Gaur egunian ‘masia’ entzuten da gehixago. Gordetako azkarrixa ezarri ondoren ora txiki bat egitten zan, gero urun barrixarekin nahastu eta ora haundixa egitten zan. Hau danau eromahaixan egitten zan. ‘Masa, pasta’

Ora-ota, -ia. LAND. *Genista Hispánica*. Ota bigunena, pikaitten eztauena. ‘La clase de argoma que casi no punza, la más blanda’

Orain. ‘Ahora’. **Oraiñago, oraiñao, oraiño**. Orain dala gutxi. ‘Hace poco tiempo’. *Baiña noiz pasau da hori, oraiñago?/ Oraiño izan da ba, hori.* **Orain-urtingo, oin-urtingo**. Aurreko aldixan. ‘La última vez, la vez anterior’. *Orain-urtingo etorri zanian./ Orain-urtingo aldixan akordau eragin notsan, baiña orainddiok egin barik dako.* **Orainddiok**. Oraindik. ‘Todavía’. *Eguardiko hamabixak eta orainddiok jaikitteko?*

Orbel, -a. Hostro lihorra. ‘Hojarasca’. *esr.* **Orbela baiño makalagua izan**. Pertsona oso makala. ‘Más débil que la hojarasca’. **Orbel-mordua**. Diru-papel mordua. ‘Fajo de billetes’.

Orbeleta, -ia. Orbela etxeraketako lanak. ‘Trabajo de recoger la hojarasca y llevarla hasta casa’. *Egundoko orbeletia egin dogu gaur!*

Ordiak emun edo **hartu**. Zor dana hartu edo emun. ‘Cobrar o pagar la deuda’. Sin. **ordiazkua emun** edo **hartu**.

Ordots, -a. Txarri arra, txarrikuma arra. ‘Macho del cerdo’. *Zortzi txarrikuma jaixo dira. Zenbat ordots eta zenbat arkilla? ‘¿Cuántos machos y cuántas hembras?’.*

Orduan. 1. Sasue hartan. ‘Entonces, en aquella época’. *Orduan hasi ziran euskaldunak Ameriketara faten.* 2. Beraz. ‘Luego, por consiguiente, así pues’. *Orduan, zuk zer esaten dozu?/ Orduan, eztot ezer egingo?*

Oregano, -ua. LAND. *Origanum vulgare*. ‘Orégano’.

Oreixen, -a. Orina. Orbana. Azalian urtendako mantxa haundixa eta berezkua. Jaixokerako mantxairi esaten xate. ‘Lunar; marca en la piel’.

Oriau, *oriaitten, oriauko*. Haizia hartu, bentilau. ‘Orear(se), ventilar(se)’. *Umiak urten da gero gelia oriaitten itzi dot.*

Orkatilla, -ia. ‘Tobillo’.

Orraztu, *orrazketan*. 1. ‘Peinar’. 2. ‘Bajar’. *Orraztu horreik danok behera! (mendittik kalera)*

Orraztzaille, -ia. Orrazketan dauena. ‘Peluquero, -a’. *Ha izaten dot orraztzaillia./ Oraintxe nago ondo, orraztzaille barik geratu naiz!*

Ortozik. Oinutsik. ‘Descalzo, -a’ *Ortozik bazabiltzai katarrua harrapauko dozue.* Sin. **ingurutsik**.

Ortu, -a. Ortua. ‘Huerta’.

Ortxixa, -ia. Grano bateko odola eta sornia. ‘El agua, sangre y pus de un tumor o pinchazo’. *Grano honek ortxixa dako edo ortxixaatuta dago.*

Osaba. Amaren nebia edo aittaren anaia. ‘Tío’.

Osakaitz, -a. Osaketako zaila. ‘Difícil de curar(se)’.

Osatu. Sendatu. ‘Curar(se)’. *Medikuak esan dost hiru-lau egun egin biharko dittutela ohian, ondo osatu gura badot.*

Oskarbi. Zerua garbi, laino barik. ‘Cielo raso/despejado/sereno’. *Oskarbi dago. Azkenera orduko oskarbixa nagusitu da. Gabeko oskarbixa.* Laino bariko zero izarratua. ‘Noche despejada’.

Oskorri, -xa. Zeruko laino gorrixa. ‘Arrebol; arrebolada’. (nube rojiza). *esr. Goizeko oskorrixak, illunkarako itturrixak./ Goiz-oskorrixak, gau-aurixak.*

Ospel, -a. Haize hotzaren eta umelaren eraginpian luzaruan egon ondorengo gaixotasuna, eskuetan eta oiñetan hanturak sortzen dittuena. ‘Sabañón’. *Egundoko ospelak dakot.*

Ostaize, -ia. Hodeixaren aurreko haizia. ‘El viento que precede a la tormenta’. *Atara dau ostaizia.*

Ostargi, -xa. Egunsentiko argixa. ‘Claridad del cielo (especialmente al amanecer)’. *Ostargixa badator.*

Ostargittu. Eguna zabaldu. ‘Amanecer’. *Neguan berandu ostargiketan dau./ Txomin etxeratu orduko, ostargittuta eguen.*

Ostarku, -a. Erromako zubixa. ‘Arco iris’. *Ostarku ederra agertu da arratsaldian.*

Ostarte, -ia. 1. Laino arteko argittasuna. ‘Claro entre nubes’. *Ostartiak egin.* Eurixa danian eguzkixak urten tarteka. ‘Abrirse claros. (ratos de sol entre la lluvia)’. *Ostartiak egin dira, baiña berriz be eurixa dator.*

Ostertz, -a. Zeru-ertza. ‘Horizonte’. *Ostertzori illuna dago. Sin. mendi-ertz*

Ostikara -ia. Ostikadia, ostikua. ‘Patada, puntapié, coz’. *Astuaeren ostikara batek harrapaiten bazau.../ Mutikuak ostikoka ebiltzen bata bestien kontra. Sin. ostiko, -ua.*

Ostikopeian hartu. Mendian hartu. ‘Dominar, avasallar’. *Danon artian*

ostikopeian hartu gura izan daue, baiña aurrian jarri eta eztostet ametiu.

Ostondo, -ua. Zerua. ‘Cielo, firmamento’. *Ostondo dana lainaatu./ Ostonduek eztako itxura ederra. esr. Eguzki zurixak ostondo baltza* ‘Se avecina tormenta’.

Ostrai, -xa. Zeruaen urdiña, zeru-sapaixa. 1. ‘El azul del cielo’. *Ostraixa bistaan dago./ Hodeixaren ondorengo ostraixa.* 2. ‘Techo del cielo’. *Ostraixa garbi xagok/n./ Ikusten dok/n ostraixa, gaur gaba hotza egingo xok/n.*

Ota, -ia. Nun. *otaan.* Kota. Oilluak aidian lo egitteko oillategixan jarten dan abarrakin egindako parrilla-modukua. ‘Paraje o sitio alto adonde se recogen las gallinas, normalmente una vara larga. Aseladero’. *Oilluak otaan dagoz eta itxungi geinke argixok!*

Ota, -ia. 1. Leguminosuen famelixako eta Ulex generoko zuhaixkia edo muluen izen arrunta. Ota latzen artian bi klasetakuak dagoz: a) mota luzia. b) mota motza. ‘Argoma’. 2. **Ota-lora,** -ia. ‘Flor de árgoma’. *Otálora bat.* Baserri izenak: Otalora Haundi [otala aundi] eta Otalora Txiki [otala txiki] Araotz auzuan. **Ota-sortia izan.** Buru gogorrekoa izan. ‘Ser terco, -a, obstinado, -a’. *Hi haiz hi ota-sortia!*

Otadui, -xa. Ota saila. Argomal’. Baserri izenak: Otadui Txiki, Otadui Haundi (Uribarri auzoan). ‘*Otaduixa loran./ Otaduixa erbixak gordeteko leku ona da.*

Otamen, -a. Luntxa. ‘Aperitivo, pisolabis’. *Hitzaldixaren ondoren otamena dakogu.*

Ota-txori, -xa. HEGAZ. *Saxicola torquatus.* Pitxartxar burubeltza. ‘Tarabilla’.

Otsail, -la. ‘Febrero’.

Otso, -ua. ‘Lobo’. Famelixa goittizena: *Otsua; otsuatarrak, otsuenekuak... (San Juan kalekuak)*

Otxaba, -ia. 1. Likido-neurrixa, litro bikua. Otxaba bat ardao: litro bi ardao. ‘Azumbre. Ochava (medida de dos litros)’. 2. **Otxaba laurden**. ‘Cuartillo de vino’.

Otzara, -ia. Saskia, otarrea. ‘Cesta pequeña’. *Kintto afarirako arrautzak eta txorixuak otzaran batzen ibilli giñan baserriz baserri*.

Pa emun. Umien artian, batez be, musua emun. ‘Dar un besito. (normalmente entre niños, -as). *Pa bat emun, patxo bat emun*.

Pagadui, -xa. *ald.* **pagodui**, -xa. Pago basua. ‘Hayedo’. *Askazubiko pagaduixan topau gittuan perretxikuak*.

Paga-lur, -ra. Lur gosia edo abonu asko bihar dauena, lihorra eta zurikia. ‘Tierra sedienta o que necesita mucho abono’.

Pagatxa, -ia. LAND. *Trifolium incarnatum*. Pagotxa. Arbi artian ereitten euen bedarra. ‘Trébol encarnado’.

Paga-uso, -ua. *ald.* **pago-uso**, -ua. Hegaztixa. Oñatiko ehiztari eta peskaarixen alkartia *Pagouso* deitzen da. ‘Paloma torcaz’ 2: **Haitz-uso**. ‘Paloma bravía’. 3. **Txoloma**. Etxe-uso: etxian edo plazan ikusten dittugunak. ‘Paloma zurita’.

Pago, -ua. LAND. *Fagus sylvatica*. ‘Haya’.

Pago lindero, -ua. Pago luzia eta zuzena. ‘Haya larga y recta; haya brava’. Sin. **pago linderna**.

Pago motz, -a. Gorakua moztutako pago zabala. ‘Haya trasmocha’.

Pagouso, -ua. ‘Paloma torcaz’. Oñatiko ehiztari eta peskaarixen alkartia *Pagouso* deitzen da.

Paletazur, -ra. Omoplatoa. ‘Omoplato’

Panderojoilla, -ia. Panderua edo atanboria joten dauena. ‘Panderetero, -a’. *Panderojoilla mordua./ Trikitilari hori panderojoilla barik geratu da*.

Papar, -ra. ‘Pecho’. *Zer egitten dozu hor papar dana bistan?*

Paparrori, -xa. Musteliduen famelixako ugaztun haragizalia. *Martes martes*. Lepahorixa. ‘Marta’.

Paparzuri, -xa. ‘Garduña, marta’. Ik. **lepatxuri**.

Papel, -a. Papera. ‘Papel’.

Pare, -ia. ‘Par’. **Parian ibilli**. Bestien maillan ibilli, atzian geratu barik. ‘Andar a la par o parecido’. *Zer moduz gurasuak? Zeurien paretxuan. Jexusa eta Felixen moduan, orduan! Sin. Lagunabarrian ibilli*.

Parrastara, -ia. *ald.* **parrastada**, -ia. Eskua luzatuaz lurrian zabaldutako ura, hazi-eskukadia edo lur pillia. ‘Cantidad de líquido (tierra, grano, etc.) arrojada o derramada. Manotada, por ej. de simiente’. *Oso lihortuta eguen, eta ur parrastara batzuk bota notsan*.

Parrokixa, -ia. Bezerixia. ‘Clientela’. *Harek han be saltzen dau eta hemen be parrokixa ona dako./ Parrokixia haundittu egin xaku eta danairi ezin atendi*.

Partiu. Banatu. ‘Repartir’. *Partiu egizu umien artian karamelu honeik. / Ogi gutxi dakogu bai, eta danon artian ondo partiu biharko dogu*.

Pasara, -ia. Korridorea. ‘Pasillo’. *Negu partian uherarunzkuan pasaran antxintxika faten giñan ez hotziketako*

Pastore, -ia. Artzaina. ‘Pastor, -a’ *Gure Ganixek pastore ikasi dau eta zela egin pastore!*

Patrika -ia. *ald.* **fatrika**, -ia. Poltsikoa. ‘Bolsillo’. Sin. **poltsiko**, **poltsikue**, **poltsikoia**, **poltsikara**.

Pattal. 1. *adb.* Makal. Gaixo samar, ondoezik ‘Débil, delicado, -a., enfermo, -a’. *Bihotza pattal samar ei dako*.

Pattala. *adj.* Eskaxa, motela. Eguraldixa edo ardaia jeneralian. ‘Triste, escaso, -a, flojo, -a, hablando del tiempo o del vino sobre todo’.

Hemengo ardaua eta gaurko eguraldixa bixak igualak: pattalak.

Pattaldu. Makaldu, moteldu, gaixotu, bigundu, eskaxtu. ‘Estropear(se), fastidiar(se); debilitar(se), ablandar(se)’. *Pattalduta ikusi dot ulixa./ Manta azpixan pattaldu egingo gara danok, eta guazen kanpora haizia hartzera. / Ardao pattal horrekin geu be azkenian pattaldu.*

Pattar, -ra. Koñaka. ‘Coñac’

Patxo, -ua. Laztantzoxa. Musutxoa. ‘Besito’. *Emun patxo bat, amamari!*

Pauloka. Ume-jolasa. ‘Juego infantil’.

Pegakor, -ra. Erantsitta geraketan dana. ‘Pegajoso, -a’. *Likia baiño pegakorragua.*

Peliau. Eraso, atakau. ‘Pelear, atacar’. *Gripiak asko peliaitten xau.*

Pelotaari, -xa. Pelotan jokaketan dauena. ‘Jugador, -a de pelota a mano’.

Penau. Nekatu. ‘Cansar(se), fatigar(se)’. *Eguneroko martxatik urten ezker, ziharo penauta geraketan naiz.*

Pentsau. 1. Pentsatu. ‘Pensar, considerar’. *Pentsaitten nago zer egin. Esango dotsut pentsautakuan.* 2. Hausnartu. ‘Reflexionar, meditar’. *Ondo pentsau dozu?* 3. Iruditu. ‘Opinar, parecer’. *Zer pentsaitten xatzu afari bat egittia? Oso ondo pentsaitten xat.*

Perkatx, -a. Saiatua, argixa. ‘Persona diligente, cuidadosa, trabajadora’. *Neska perkatxa./ Andereño perkatxa. /Langille perkatxa.*

Perratoki, -xa. Ganaduak perraitteko lekua edo etxia. ‘Herradero (lugar)’. *Kalian denpora batian bi perratoki egozen behintzat: bat Patrua Kalen eta bestia Kale Zaharrian.*

Perratzaille, -ia. Animalixak perraitten dittuena. ‘Herrador, -a’. *Patrua kaleko Basillio perratzaille ona zan. Orain Zumarragatik etorten da perratzailia.*

Perretxiko, -ua. Perretxikoa. ‘Seta’. *Nun batu dittuk/n perretxikuok?*

Pertz, -a. Esnia egosteko lapiko haundixa, aixkomenta beheko suan gelaatzutik txintxiliz jarten zana. ‘Caldero, olla’. *esap. Eguzkixa ertzian, esnia pertzian eta neskatxak etxian.* ‘Al anochecer el sol poniéndose, la leche en el caldero y las chicas en casa’.

Peska, -ia. Arraina. ‘Pescado’. *Afarittek, peskia erostera noia plazara.*

Peskaari, -xa. Errekako arrantzalia. ‘Pescador, -a de río’.

Peskatero, -ua. Peskia saltzen dauena. *Peskaterua pasau da? Ez, berari begira gagoz! ‘Pescadero, -a’.*

Pesta, -ia, pestaak. Landarairi etorten xaten edozein gaitz txar. ‘Cualquier cosa mala que le sobreviene a una planta, etc.’

Peste, -ia. Izurritea. ‘Epidemia, peste’. *1918ko pestia ikaragarria izan ei zan.*

Petral, -a. Ezatsegiña, gogaikarria. ‘Insolente, descarado, -a; desagradable, desapacible’. *Pertsona petrala. / Oso petral etorri da. / Hauxe lan petrala benetan! / Eguraldi petrala, kakatsua. Sin. zazpikixa.(personandako)*

Petraldu. Petral bihurtu. ‘Volverse desagradable, -a, insolente’. *Gaur oso petralduta dago eta itzi egizu pakian.*

Petralkerixa, -ia. Petralaren egittia. ‘Impertinencia, bajeza, desvergüenza’. *Gogait egindda nago haren petralkerixak entzuten*

Petriña, -ia. Gerrikoa. ‘Cinturón’. *Petriña barrixa erosi dozu ala? / Larregi jan badozu, petriña eska(t)u.*

Pikardixa, -ia. 1. Kaltia. ‘Perjuicio, daño’. *Txingorak eta harrixak pikardixa haundixak egitten dittue soruetan.* 2. **Pikardixia.** Ask, “ezesua”. ‘Mucho, en exceso’. *Horrek dirua pikardixia gastau eben etxia egitten./ Jentia pikardixia etorri da.*

Piku, -a. ‘Higo’, ‘higuera’. *esr. Piku kajako umia.* Garai baten, gura etziran umiak, hospizioko edo elizako atian

izten ziran; orduko piku-kaja hutsetan sartuta, sarritan. ‘Niño, -a del hospicio’.

Pillozik. *ald.* **pilluzik.** Biluzik. ‘Desnudo, -a’. *Zer dabiltzue hemen pillozik, hotzik ez ala?/ Pilloz-pillozik dago.* Sin. **narrugorrixan.**

Pil-pil. *ald.* **pil-pillian.** Irakitten, berotuta. 1. ‘Hirviendo’. *Lapikua pil-pil dago.* 2. ‘Estar al rojo vivo; estar muy de actualidad’. *Egoera politikua pil-pillian dago oraintxe.*

Pinpirinddu. Señoritatxo egin. ‘Convertirse en una señorita’. *Orain-hurringuan oso pinpirindduta ikusi neben zuen Maria.*

Pinttau. 1. Margotu. ‘Pintar’. 2. Espero zanari erantzun. ‘Ocurrir lo esperado’. *Taberna horrek etxok/n pinttau./ Neska horrek pinttaitten badau, lan gutxi geraketan xatzue.*

Pintto, -ua. 1. ‘Pinto, moteado’. *Behi holandesai behi-pinttuak esaten xate./ Jersey pintto bat xoian soiñian.* 2. Sarri samar iritziz aldaketan dana, “txaketerua”. *Zer komeni haxe esan. Haizia nora... zapiak hara. ‘Chaquetero, -a’. Lehen PNVkua zan, orain Bildukua; horixe da pintto! Orain alde batera, puntuko bestera... Pintto hutsa!*

Pinttore, -ia. Margolarixa, paretak nahiz koadruak pintaiten dittuena. ‘Pintor, -a’

Piñudi, -xa. Piñu basua. ‘Pinar’. *Iragako urtietan bota da makiña bat piñudi./ Piñudixa ataraten dabiltz./ Piñurik onenak aittajunak sartutakuak.*

Piñutela, -ia. MIKO. *Lactarius deliciosus.* Esnegorria. ‘Níscalo’. Piñudittan hazten dan perretxiku gorrixkia.

Pipar, -ra. ‘Pimiento’.

Pista, -ia. Mendiko bidea. ‘Pista vecinal o forestal’. *Han pistan gora ikusten dozue lanrober ha?*

Pistola, -ia. 1. Eskuko arma. ‘Arma, pistola’. 2. Berakatz-zopia egitteko ogi berezixa. ‘Pan especial para preparar

sopas de ajo’. *Nora zoiaz ba? Pistola bat eroatera. Ez egizu esan! Zer egin bihar dozu, ba, pistoliarekin? Berakatz-zopa goxo-goxua gabian afaritteko.*

Pitilin, -ña. Zakilla, umiena batez be, baina nagusixenaz be entzun leike. ‘Pene, sobre todo de los niños, aunque también se dice del de los mayores’. Ik. **txilin, txilibitto, buztan.**

Pitotx, -a. ‘Turón común’. Ik. **Ipurtats, ipurtots.**

Pittin, -ña. ‘Poquito. (muy poca cosa)’. *Gauza pittña. Pittin bat. txik. pittintxo bat.* Apur bat, apurtxo bat, pixka(txo) bat. ‘Un poco, un poquito’.

Pitxi, -a. Gauza polita. ‘Cosa más bien pequeña y bonita’.

Pitxilipeta, -ia. *ald.* **txipilipeta, txipeleta,** -ia. Tximeleta. ‘Mariposa’. *esr. Pitxilipeta horixa, hiru egungarrego eurixa. Jainkuen katua.* ‘Larva de la mariposa (gusano)’.

Piue, pioia. ‘Peón’. *Beste lanik ez eta piue hasi giñan Moyua kontratistiarekin Bilborako autopista barri hori egitten.*

Pizpirin, -ña. *ald.* **pizpiritta,** -ia. Neskatilatxuairi esaten xate kariñoz, ‘señorita, dicho a las niñas en tono cariñoso’. *Badator gure pizpiriña./ Gurian izan da gaur zuen pizpirittia.*

Plater, -a. *ald.* **frater, flater,** -a. ‘Plato’.

Plemonixa, -ia. ‘Pulmonia’.

Pletan-bedar, -ra. LAND. *Anthyllis vulneraria.* Zauri-belarra. ‘Vulneraria’. Sin. **Zarta-bedar.**

Polit, -tta. *adj.* 1. Edera. ‘Bonito, -a’. *Hau da neskatillia polita!* 2. *adj. (adkor.)* Edera, haundi samarra. ‘Hermoso, -a, bueno, -a’. *Zartateko polita hartu ñuan/ñonan atemarkuaren kontra.* POLITTA PASAU. *esap.* ‘Menuda la que (nos, les...) ha sucedido’. *Politta pasau xakun lehenguan kiroldegixan!* ARDAO POLITTA. Ardao ona, bikaiña izan barik. ‘Vino bueno, sin ser excelente’.

Guardiako bodegan ardao politta atara oskuen eta Eltziegokuan ez txarragua.

Politto. *adb.* 1. Nahikua ondo. ‘Bonitamente’. *Ama politto ikusi dot. / Zuen etxia akabotakuan politto geratuko da.* 2. Soseguz. ‘Despacio’ *Politto-politto segi.*

Poltsiko, -ua. *ald.* **poltsikue,** -oia; **poltsikoi,** -a. ‘Bolsillo’. *Kiltzak galdu nittuanian konturatu nintzan poltsikua zulatuta eguela.* Ik. **patrika, fatrika.**

Ponderau. Abonau, goratu. ‘Ensalzar, alabar, estimar’. *Asko ponderau daue Aitorrek egindako lana. / Gure Iñaxio oso ponderaua zan Ulman.*

Porlan, -a. ‘Cemento’. *Porlanezko pistia egin daue Aloñako kurtzeraiño.*

Porru, -a. ‘Puerro’. *Gaur bazkaritten porru-patatak jan dittugu.* Aditz lokuziñuak a) **Porrua sartu.** ‘Engañar’. b) **Porru egindda egon.** ‘Estar hecho polvo’.

Portau. 1. ‘Comportarse’. *Umiak ondo portau dira? Badakitzu, umiak leku danetan ume!* 2. ‘Portarse’. *Portau zarai, portau zarai! / Portau zara bisittan etortiatatik!*

Pospolo, -ua. ‘Cerilla’. *esr.* **Bazkarixa pospolotan euki.** Bazkarixa gertaketan hasteko egon. ‘Tener la comida sin preparar’. *Banoia, bazkarixa pospolotan dakot-eta.*

Pote-poteka. Ume-jolasa. ‘Juego infantil’.

Poto, -ua Paraje zokua, zulu, sakona. Txikigarrixa: potosko edo potoska. Sin. **potolo,** -ua. ‘Hondonada, hoyada, torca’. *Beheko potuan/potoluan majo beroketan dau!*

Potolo, ua. *adb.* Gizen. *adj.* Gizena. ‘Gordo, regordete’. *Ume hau ederki hazi da, potolo-potolo dago.*

Potor, -ra. Txikiña eta gizena. ‘El hombre bajo y grueso. Igual para el caso femenino’. *Gizon potorra.*

Potorkote, -ia. Gizenkotia. ‘Rechoncho, -a’.

Pototo, -ua. Gizena. *em.* **potota,** -ia. ‘Gordo, -a, regordete, -a’. *Hori pototua! 2. Gaitzizena. Pototo. Egon zarai Pototorekin? Apodo’*

Potototu. *ald.* **potolotu.** Gizendu. ‘Engordar’.

Potra, -ia. 1. Lisua eztana, koskorak dittuena. Koskia. ‘Saliente, resalte. Irregular, desnivelado, -a’. *Mahaixa hondatuta dago, dana potraz jositta.* 2. **Potria euki.** Txiripia izan, suerte ona izan. ‘En general tener buena suerte’. *Zuk euki dozu potria, zuk!* 3. **Potra egin.** Estropozu egin, pauso txarra emun, pelotiak bote txarra emun. ‘Tropezar, dar un mal paso, dar mal bote la pelota’. *Pelotiak potra egin dost.* 4. **Potraka ibilli, etorri, fan.** Mozkorren ibiltteko eria. ‘Ir zigzagando o dando tumbos’. *Ardau botilla pare bat eran ondoren, potraka-potraka fan zan etxera.* Sin. **koska,** -ia

Potro bedar, -a. LAND. *Ranunculus ficaria.* Korradu-belar. ‘Celidonia menor’. Bedar txarra. Sin. **mordotxo bedar.**

Potro, -ua(k). Barrabilak. ‘Testiculos’. **Potro-jorran ibilli.** Nagikerixan ibilli. ‘Haciendo el vago, holgazaneando’. *Hor dabil hori egun danian potro-jorran.*

Pott egin. Zihero nekatu. ‘Desfallecer’. *Hamargarren tantorako pott egin dau.*

Potto, -ua. 1. Eskasa. *Gizon pottua.* Gizon ganorabagia. *Lan pottua.* Lan eskasa. ‘Malo, -a, escaso, -a, de poco fundamento’.

Potxolo, -ua. Ondo hazittako umia, gizen samarra eta itxura onekua. Femeninua **potxola,** -ia. Era maittekorrian ebalten da: *etorri nerekin, potxoluori/potxoliori!* 1. ‘Majo, -a, hermoso, -a’. 2. ‘Querido, -a, cariño’.

Potxona, -ia. Alua (emakumiaren sexua). ‘Vulva’.

Potxotx, -a. Alua (emakumiaren sexua). ‘Vulva’.

Pozu, -a. Putzua. ‘Pozo’ Oiñez etorri naiz, *pozu artian ibilli ezinka*.

Pratikante, -ia. ‘Practicante, enfermero, -a’. *Joxe praktikantia etxerik etxe ibiltten zan bere motortxuarekin indiziñuak ifintten*.

Prejiu, *prejiuta, prejitten*. Frijitu. ‘Freir’. *Arrautzia prejiuta ala tortillia egindda gura dozue? Edadekuak arrautzia erreta esaten daue prejiuta esan partez. Arrautza paria erreta, hirugixarra zati batekin, gustora jango neuke!*

Premiña, -ia. Biharra. ‘Necesidad’. *Guk badakogu, ba, gazte baten premiña etxian, zahartu egin gara eta! Premiñian egongo dira aldekuak eta fan zatezai lagunketara!*

Prestu, -a. Ondo portaitten dana. ‘Honrado, -a, proba, (persona) de bien, hombre o mujer honrada’. *Neska zintzua eta prestua da./ Gizon prestua*.

Prestuez, -a. Gaizki portaitten dana. ‘Cualesquiera personas que no se portan debidamente. Despreciable, hombre o mujer ruin’. *Prestuez bat da./ Prestuezak dira*.

Primerako, -ua. Oso ona. ‘Muy bueno, -a, de primera’. *Primerako bakaillaua jan dogu./ Primerako eguraldixa egin dosku*.

Primeran. *adb*. Oso ondo. ‘Muy bien, estupendamente’. *Primeran, hobeto ezin, ibilli giñan*.

Primu-kusiñaak. Lehengusu-lehengusiñak. Prima-primuak. ‘Primos y primas’. *Aurten noiz egingo dogu prima-primuen bazkarixa? / Prima-primuak halako egunian juntaittekuak gara*.

Probalari, -xa. Idi probetan edo bestelako herri kiroleetan ibiltten dana. ‘Participante en juegos de deporte rural’.

Prozosiño, -ua. 1. Santuak kalera atarata egitten dan ibillaldixa. ‘Procesión’. *Korpus Eguneako prozosiñua* 2. Kontua, esamesa,

barriketia, betebiharra. ‘Cuento, palabrería, requisito’. *Fan naiz aiuntamentura eta hainbeste kontu eta prozosiñorekin enredau naue ziharo*.

Puestoko zaldi, -xa. Bihorrak zaldiketako ebalten dan sementala. ‘Caballo semental’. *Puestoko zaldixa aurten gurian dago, eta datorrenian Askazubin egongo da, bihorrak dakogunen artian urtero txandan eukitten dogu-eta*.

Pultza egin. Bultza egin. ‘Empujar’. *Kotxia pultzaka eruan geben taillerreraño*.

Pultzakada, -ia. Bultzada. ‘Empujón’. *Gaztiari pultzakadia emun bihar xate estudixuetan aurrera egitteko*.

Pultzatu, *pultzaketan, pultzaka*. Bultzatu. ‘Empujar’. *Zineko atian jentia pultza-pultzaka danak sartu guran*.

Puntu, -a. Puntoa. ‘Punto’. **Puntuan**. Orain dala gutxi, oraintsu. ‘Hace poco tiempo’. *Aitta puntuan aillegau da lanetik*. **Puntuan-puntuan**. Sin.

puntuan behin. Sarri-sarri, askotan, edozein egunetan. ‘Muy a menudo, cualquier día’. *Puntuan-puntuan Txopekura faten dira horreik afarittera*.

Puntu-puntuan. Justo ordu horretan. ‘en punto, a la hora’. *Trenak eztau itxoitten, puntu-puntuan urteten dau*.

Puntuko. Inddargarrixa, **puntukotxe**. Berihela, segittuan, handik gutxira. ‘Al poco tiempo’ *Lehenengo ama hil zan eta handik puntuko aitta. / Abisua jaso eta puntukotxe bere billa etorri ziran./ Aurki puntuko*. Laister, konturatu orduko. ‘Enseguida, en cuanto nos demos cuenta, en un abrir y cerrar de ojos’ *Aurki puntuko hemen ezta zuririk geratuko!*

Puntua jaso. Kaltzan karrera bat egitten xatzunian puntua jaso bihar izaten da, konpondu. ‘Arreglar la media o el calcetín recogiendo el punto que está suelto’. *Kaltza honi karrera egin xako, eta puntua jaso biharko xako ibilliko bada*.

Purra-purra. Oilluairi diar egitteko ebalittako onomatopeia, jaten emuteko-eta. ‘onom. utilizada para llamar a las gallinas para darles de comer’. “*Purra-purra*” ibiltten zan amandria egunero oilluairi artua botiaz. / Oilluak hemen dira, purra-purra!

Pusilddu. ad. 1. Pusildduak sortu. ‘Formarse pústulas, levantarse ampollas’. *Olixo erria jausi ondoren esku-gaiña ziharo pusildduta geratu xaten.* 2. **Pusilddu**, -a. iz. Azaleko babia edo pusillua. ‘Ampolla de la piel’.

Puskakor, -ra. Errez apurketan dana. ‘Fragil’

Pusuniakor, -ra. Zaurixa gaiztoketan dauena. ‘Infeccioso, -a’. *Sitsa eta brea pusuniakorrak dira.*

Pusuniau. ald. **puxunixau.** Zaurixa gaiztotu, infektau. ‘Infectar una herida’. *Bihatz hori inkonauta dago, puxunixauta; ifiñi erretrapua.*

Pusunixa, -ia. Pasma, zornea. ‘Pus’.

Putzarro, -ua. Harrua, harroputza. ‘Fanfarrón, -a, fantoche’. *Putzarrua halakua, betik harrokerixetan!*

Putzusain, -ña. Putusaiña be entzuten da. Usain haundiko uskarra, normalian isilla eta usaintsua. ‘Pedo silencioso y muy oloroso’.

Puxeta, -ia. Erropia garbiketia. ‘Colada’ *Gaur puxetia dakot./ Puxeta-eguna.* Lehenagoko puxetak nekezaguak izaten ziran: astuan eruan erropia errekarra, han garbittu, gero ekarri, sikaketan ifiñi... **Puxetia jo, puxetia egin.** Erropia garbittu. ‘Hacer la colada’. *Puxétia joten.* ‘Lavando en agua limpia la ropa de la colada’. *esr. Sorgiñak puxetia joten Lizunian.* Euri asko egin eta Arantzazuko errekia hazitta eta zaratatsu etorrenian bertako bizilagunak esaten ebein esaera hori. *Lizuna* Gesaltzako koba inguruari emuten xauen izena da. ‘Las brujas están haciendo la colada en la cueva’. **Hiru puxeta emun.** ‘Pasar tres veces en

la colada’. **Puxetagiñan dira.** ‘Están haciendo la colada’.

Puxetajoilla, -ia. Erropak garbiketako puxetia joten dauena. ‘Lavandera’. *Puxetajoillak errekan./ Emakumak izaten ziran puxetajoillak.* Sin. **puxetagiña.**

Puxika, -ia. 1. Puxika. ‘Vejiga’. 2. Globua; txarri-puxikiagaz egitten zan txorimaluak joteko ebalten euen zigorra. ‘Vejiga inflada; globo, balón’. 3. Haize asko dakoin pertsonakatik esan izan da. Txoliña. ‘Chica casquivana’. *Neska puxikia./ Neskatilla puxikak.*

Puxikero, -ua. em. **puxikera**, -ia. Hara eta hona ibiltia gustaitten xakona. Urtero bakaziñotara kanpora fan bihar izaten dauenakatik, ibilli biharra dakoñakatik esan izan da. ‘Viajero, -a, andariego, -a’. *Neskatilla puxikerak. / Hori puxikero hutsa da eta betik dago gertu hortik zihar fateko.*

Relojero, -ua. ald. **erlojero**, -ua. Erlojuak saldu eta konponketan dittuena. ‘Relojero, -a’. *Kale Zaharrian bi erlojerixa egozen: Mugartzarena eta Illarramendirena, erlojero banarekin.*

Sabi, -xa. Hazittik landaria ataraten dan lekua. ‘Semillero, vivero’. Sin. **mintegixa.**

Sagar, -ra. ‘Manzana’.

Sagardao, -ua. ‘Sidra’. *Herri Egunion hogeita zortzi sagardao klase eskiñi ei ziran plazan.*

Sagardotegi, -xa. Sagardaua egin, saldu edo eraten emuten dauen etxia edo tabernia. ‘Sidrería’. *Datorren zapatuan sagardotegira doiaz./ Sagardotegixa dotoria zan, baina sagardao eskasa eukain.*

Sagastarro, -ua. ‘Zorzal charlo’. Ik. **larrastarro.**

Sagastui, -xa. Sagastia, sagar arbola asko daguen lekua. Sagastoixa be esaten da. ‘Manzanal’. *Astigarraga aldian sagastui bikaiñak dagoz.*

Sagu, -a. UGAZ. *Mus musculus*. 'Ratón'.

Sagu-itsu, -a. UGAZ. *Crocidura russula*. Satitsua. 'Musaraña'.

Saguzahar, -ra. UGAZ. 'Murciélago'.

Saiatu, -ua. Lanian edo beste zeozertan asko ahaleginketan dana. 'Aplicado, -a, activo, -a, diligente, sufrido, -a'.

Saiheski, -xa. Jateko saihetsa. 'Carne de costado, costilla, chuleta'. *Txahal saiheskixa, txarri-saiheskixa, bildots-saiheskixak...*

Sail, -la. 1. Zatixa, pusketia. 'Parcela'. *Arbi-sail, arta-sail, erremolatxa-sail, gari-sail, patata-sail, porru-sail... / A ze porru-saillak dakoin fraidiak Gomistegin! / Lino-sailla. / Lur-sailla* 2. Asko, mordua. 'Muchos, -as, montón' *Bihor saillarekin agertu zan Azpiko Jabier. / Urte sailla pasau dot nik hemendik kanpora.*

Saillian. Bata bestiaren atzetik, taldeka, asko. 'Cientos, muchos, uno detrás de otro'. *Martiko haizetiak piñuak saillian bota zittuan Aurrekomendin. / Gerra denporan saillian fusilau zittuain nazionalista, errepublikano eta anarkistak.*

Saixo, -ua. Ariketia, ekiñaldixa. 'Acometida, intento, prueba'. *Beste saixo bat jo bihar dogu, ia akaberia emuten xaugin hasittako lanari.*

Saka egin. 'Rebotar'. *Piñuak lurra jo ebenian saka egin otsan eta azpitan harrapo!*

Sakatu, *sakaketan, sakatuko* 1. Zapaldu. 'Apretar'. 2. 'Hacerle una buena'. *Sakatu xao ederra!* 'Buena le ha hecho!'

Sakonuna, -ia. 'Hondonada'.

Sakuta, -ia. LAND. *Sambucus nigra*. Intsusa beltza. 'Saucó común'. *Sakuta tortuak dagoz, han eta hemen.*

Sakutadui, -xa. Sakuta, intsusa asko dagueen lekua. 'Lugar de saúcos'.

Salau, -a. Grazia haundixa dakon pertsonia. *em. salada, -ia*. 'Salado, que tiene gracia. Salada (fem.)'. *Gure Joseba salaua da, oso salaua.*

Saldana. Erropak txintxiliz dittuena, xelebria; baldrasa, traskilla. 'Torpe, desarrapado, -a, desastrado, -a'. *Ha agertu xaku guri saldana! / Hori dabil saldana! /*

Saldanka. Txintxiliz. 'Colgando'. *Garrangak saldanka egozen han! Garranga pillia saldanka! Ik. saldana.*

Saldo-maldoka. Matxinsaltoka deritzan jolasari Araotzen emuten xakon izena. 'Denominado así al juego del potro en Araotz'.

Salga, -ia. LAND. *Vicia sativa*. Zalgea, zuhain-zalkea. Gari artian urteten dauen bedar txarra. 'Veza, cizaña, arveja'. Sin. **txidar**.

Salgaar, -ra. LAND. *Vicia sp.* Bedar txarra; salgia baiño haundixagua egitten da, eta zerukia dako eta ale baltz biribillak haundixaguak. 'Maya, hierba de flor rojiza; se hace más alta que 'salga' y tiene vaina y granos negros redondos mayores'.

Salgei, -xa. 1. Saltzeko dagueen gauzia. 'Mercancía, género' *Orduan salgeirik gehixenak mandoz eruaten ziran batetik bestera.* 2. Saltzeko moduan daguea. 'Estar en venta, a la venta'. *Salgei dakogu, gura badozu erosi. / Haren azken liburua salgei dago goiko estankuan.*

Salo, -ua. Asko eta azkar jaten dauenari esaten xako; izan leike ganadua edo pertsonia. 'Ansioso, -a, afanoso, -a; se dice de un animal o persona que come con avidez'. *Salua haiz gero! / Pertsona salua. Salo jan.* Asko eta azkar jan. 'Comer vorazmente'. *Ze egitten dau, ba, txahal honek? Salo jan eta hazi!*

Saltakor, -ra. Jauzilarixa. 'Saltarin, -a'. *Ardi saltakorra. / Ahuntza baiño saltakorragua.*

Salto egin. Jauzi egin. 'Saltar'.

Saltsa-maltsa, -ia. Nahaste-borrastia. ‘Desorden, desbarajuste; enredo, embrollo’. *Hau da saltsa-maltsia!* Sin. **zalamala**.

Saltxa-perretxiko, -ua. MIKO. *Cantharellus cibarius*. Zizahoria. ‘Rebozuelo’.

Saltzaille, -ia. Saltzen dauena. ‘Vendedor, -a’. *Jaixetan Kale Zahar eta Kale Barri guztia saltzaillez jositta ageri izan da*.

Sama, -ia. Lepua. Personiarena, animalixiarena edo gauziarena. ‘Cuello, pescuezo’. *Samatik heldu eta (samía) bihurtu*. ‘Cogerle por el cuello y retorcérselo’. *Sama estua, samía* (pitxarrarena). ‘(el) cuello estrecho (de la jarra)’.

Samar, -ra. ‘Bastante, un poco’. *Zakar samarra da./ Atzera samar geraketan da betik. / Aberastu samartu da hori / Arnasa estu samartua ete dakon*.

Samur, -ra. Erreza. ‘Fácil’. **Samurrenera egin**. Aukera edo bide errezenetik jo. ‘Tomar el camino más fácil, obrar con ligereza’. *Gaurko gremixuak samurrenera egitten daue, konpondu biharrian harrikara bota eta barrixa erosi eragin! / Zeuk be, samurrenera egin dozu!*

San Jose lora, -ia. LAND. *Primula vulgaris*. San Jose inguruan hazten dan lirixo klase bat. ‘Flor llamada primavera’.

San Juan sagar, -ra. LAND *Malus sp.* San Juan ingururako etorten dan sagar klase bat, “arbolan jatekua” dana, gordeta berihela hondaketan dalako. ‘Manzana de San Juan, pues viene por sanjuanés’.

San Juan sendor, -ra. San Juan sortia. San Juan egunian bedeinkaketara eruaten dan sortatxuari *San Juan sendorra* esaten xako. Sendor horretan aafixua, erruria eta erbasantia derrigorrian sartu bihar dira. ‘Ramillete de San Juan’.

Saniau. Osatu. ‘Curar(se), mejorar(se)’. *Saniau zarai-edo? Bai, saniau gara oraingo!*

Sankristau, -a. *ald. sakristau*, -a; **sankristaun**, -a. Elizako lanak egitten dittuena. ‘Sacristán,-a’.

Sankristauntza, -ia. Sankristaunari dagokixon lanak. ‘Trabajos correspondientes al sacristán, -a’.

Sanopote, -ia. ‘Sanidade’ haundikua, nasaixa. ‘Persona de gran 'sanidad' o tranquilidad’. *Gure lagun hori sanopote hutsa da*.

Sansaurkilla, -ia. *ald. sa(n)saurkillo*, -ua. 1. ‘Tijereta’. 2. ‘Milano’. Ik. **buztanurkilla**.

Santa Ageda batze, -eia. Santa Ageda egunez, soldau fan bihar ziran gaztiak egitten euen diru batzeia kalez kale eta baserriz baserri ibillitta. Kinttuak taldeka partiu eta herriko auzo danetara faten ziran. Batutako txorixo eta arrautzakin afarixa egin izan zan Paulitorenian edo Cenizeron. ‘Recogida de Santa Águeda, hecha por los chicos que iban al servicio militar. Hoy en día participan tanto chicos como chicas’.

Sapai, -xa. Sabaia. Teillatua eta etxeko kanpoko aldeko hormen artian geraketan dan gelia. ‘Granero, pajar; desván’. **Sapai-zuluak**. Sapaiko zirkinzuluak. ‘Escondrijos del camarote’. **Sapaipe**, -eia. Sapaiko espaziua. ‘Espacio bajo techado’.

Sapakon, -a. Tortolosa. ‘Taba’. **Sapakonetan egin**. Tortolosetan jokatu. ‘Jugar a las tabas’. Ardixen hankako hazur batekin egitten zan jolas hau, eta plastikozko imitaziñuak be atara zittuain. Sapakonaren lau aldiak: 1) *xaka* 2) *pon* 3) *aldar* 4) *toras*.

Sape-bedar, -ra. *ald. sapear*, -ra. LAND. *Stellaria media*. Sapelarra. Bedar txarra. ‘Pajarera, pamplina’.

Sapo, -ua. ANFI. *Bufo bufo*. Apoa. ‘Sapo’.

Sara, -ia. 'Red'. **Sara-sara** (oihala). Oso gastaute edo harixen artian bittarte haundixak dakon oixala, ixa trabes ikusten dala. 'Estar algo muy gastado, -a, tanto que casi se ve al trasluz'.

Saraatu. Menustu. Erropa bat gastau eta zulaketari esaten xako. 'Desgastar(se); ralear'.

Sarbasta, -ia. Zarbasta. 1. Gogorra eta langillia; andrazkuakin batez be. 'Mujer dura y trabajadora'. *Emakuma sarbastia./ Neskatiilla sarbasta bat./ Mutiko sarbasta bat.* 2. Arbola txaparrua eta abar askokua. 'Rama o árbol chaparro con ramaje espeso'.

Sarda, -ia. 'Horca', 'tridente'. *Kontuz ibilli baten bateri sardia hanketatik sartu barik!*

Sarden. 1. Tente, zuzen. 'Recto, -a, erguido, -a'. *Sarden ibilli bihar da, sarden!* **Sardena**. Lerdena, liraina. 'Derecho y bien formado, esbelto'.

Sargori. 1. Bero zapa. 'Bochorno'. *Gaur sargori dago.* 2. **Sargorixa**. Eguraldi astuna, berua eta umela, zakarra. 'Calor bochornoso, sofocante'. *Bixar aguantau eziñeko sargorixa egingo dau.*

Sarkin, -ña. 1. Desatsegina. 'Tiempo desagradable'. *Eguraldi sarkiña.* Erdi sargori edo bero larregi, adibidez. 2. Baldarra, lotsia galdutakua. 'Bruto, -a, y sin ningún decoro'. *Mutil sarkiña!/ Horrek sarkiñorrek, zer esango dotsu ba!*

Sarkinpote, -ia. Oso sarkiña. 'Bruto, -a, animal, bestia'. *Alde egizu hemendik, sarkinpotiori!*

Sarrera, -ia. Zerbaiten hasieria. Ez konfundiu 'zarraria'-rekin. (emoziñua) 1. 'Entrada'. 2. 'Introducción'. *Etxeko sarrera garbittu egin biharko da. / Liburu honen sarrera nork idatzi dau?*

Sartzaille, -ia. Sartzen dauena. 1. 'Plantador, -a'. 2. 'Marcador, -a de goles'. *Aza sartzaille onak ibilli dira. Osasunak gol sartzaille bat bihar dau, bestela eztako kuidadurik.*

Sasarte, -ia. Sasitza. 'Maleza, matorral, zarzal'.

Sasi, -xa. *ald. sasa*, -ia, sasaak (pl.). 'Zarza, zarzal'. *Sartu giñan sasa artian, ha zan ona ha!*

Sasixak jo. Sasixak ebagi, kendu (naharrak, bedar zaharrak, otaak eta beste). 'Desbrozar'. Gaur egunian aurreko moldiak galtzen doiaz eta baserritar gaztiak 'desbrozau' esaten hasi dira.

Sasidui, -xa. Sasitza, sasartia. 'Maleza, matorral, zarzal'. *Hemen dago sasiduixa! Ik. nahar.*

Sasi-txori, -xa. HEGAZ. *Prunella modularis*. Tuntun arrunta. 'Acentor común'. Birigarruarenak moduko arrautza urdiñak egitten ditu.

Sasoi, -a. *ald. sasue*, sasoia. 1. 'Tiempo, época', momento'. *Oraintxe da perretxiko sasoia./ Sasoi onian erosi eben etxia; gero asko karutu ziran* 2. 'Buena salud', 'fortaleza'. *Sasue oneko gaztiak etorri ziran./ Gure aittajunak sasue ona dako orainddiok, bai, sasoian dago. Sasueko*, -ua. 1. Osasun onekua. 'De buena salud'. 2. Ez zaharra eta ez gaztia. 'Persona de edad mediana, maduro'. *Sasueko gizona edo andria./ Orainddiok sasueko andria hartu dau.*

Sastal, -a. Eguraldiaz, sargorixa, ustela, faltsua. 'Tiempo caluroso, de bochorno'. *Bero sastala*

Sastraka, -ia. *ald. sastrapa*, -ia. be ebalten da. Arbola gaztiak bentaja egin ezin dauenak ganaduak jaten dittuelako. 'Brote de árbol'. *Haritz-sastrakia./ Lizar-sastrapia./ Fan giñan landara billa, baiña sastrapa batzuk besterik ezkittuan topau.*

Sataga, -ia. 1. Bi metro inguruko egurra, tronkuak mobittek. 'Palanca'. 2. Iraz edo bedarrez betetako burdixan sartzen dan bi metro eta erdi inguruko egurrezko ezpatia, burdixori itzuli eztadin. 'Vara grande de unos dos metros y medio que se inserta en el

carro cargado de helecho o hierba para que no vuelque’.

Satelite, -ia. Gazte geldigor eta zoro samarra. Txoriburua, haizetsua, zelebria. Esangura libre samarra dauko. ‘Se dice del joven inquieto y un poco locuelo.’ *Hau dok/n hau satelitia!*

Sator, -ra. ‘Topo’. **Satorrak jo**. Satorrak zelaixan lurpillaatxuak egitten dittuenian esaten da. ‘La acción por la que el topo está levantando la tierra con el hocico’.

Sega, -ia. ‘Guadaña’. **Ota-segia** ‘guadaña para desbrozar la argoma’. **Ira-segia** ‘guadaña para cortar el helecho’. Sega-elektrikuari **txarrantxa**, -ia, esaten xako Araotzen. ‘desbrozadora’.

Segalari, -xa. Segan egitten dauena. ‘Segador, -a’. *Garai batian, entzunda dakogu, hemengo gaztiak Naparruaraiño faten zirala oiñez jornal billa segak bizkarrian zittuaila, garixak segaaketara.*

Sega-pote, -ia. Segarrixa gordeten dan potia. ‘Colodra, pequeño recipiente en forma de vaina lleno de agua donde hay una piedra de afilar, que llevan los segadores a la cintura’. Sin. **sega-potor**, -ra; **sega-poto**, -ua. 2. Nasaixa, gibelaundixa, kaikua. ‘Tranquilote, -a, cachazudo, -a’. *Hi haiz hi sega-potua!*

Segarri, -xa. Segia zorrozketako harrixa. ‘Piedra de afilar la guadaña’.

Segurau. Ziurtatu. ‘Asegurar’. *Lekua segurau, behintzat!*

Seguru be. Badirudi. Itxuria danez. ‘Al parecer’. *Ikusi zittuanian, seguru be, negar malkuak begittatik behera. / Ezta preguntau be, seguru be. Neskatillia ikaratuta, seguru be, hango ingiraunia ikusitta.*

Sello, -ua. Kartak bialketako ebalten dan zigillua nahiz produktu baten markia adierazten dauena. ‘Sello postal. También marca de un producto que queda estampada con un sello’.



Auste Estana izan zan, 1923an, Zubillagako Altuna Hnos fabrikako lehenengo kalidade-seillua.

Selba, -ia. Pertsonetan, zorrotza, berba gutxikua, zatar samarra jenixoz. Emakumien gain ebalten da, batez be. ‘Indócil’. *Emakuma selba bat. Animalixetan, ez otzana. ‘Salvaje, indómito’. Selbatxua da ardi hori.*

Seme, -ia. ‘Hijo’. *Aitta-semiak etorri dira konbidau.*

Seme-alabak. Semiak eta alabak. ‘Hijos en general, incluyendo varones y hembras’.

Senargei, -xa. Nobixua. ‘Novio’. *Ez ete dago neska horrendako senargeirik? / Azkenian senargei barik geratu zan.*

Sendatu. Loditu. Ganoraz egin ezkerro, edurra sendatu egitten da. ‘Cuajar, espesar, engrosar’. *Illunkaran aguro sendaketan dau edurra! / Ia urun pittin batekin sendaketan dozun saltsiori! Sin. zurittu (edurra)*

Sendo, -ua. Lodia. ‘Grueso, -a, gordo, -a’.

Sendoera, -ia. Lodieria. ‘Grosor’. *Zenbateko sendoeria euko dau ohol honek? / Makilliaren sendoerako zulu.*

Sendor, -ra. 1. Bizkarrian karriaitteko moduko kargia. ‘Haz; ramillete; carga (de leña, etc.)’. *Artapunta-sendorra, abar-sendorra, bedar-sendorra... eta abar.*

Senide, -ia. ‘Pariente’. *Parientia be asko entzuten da.*

Senide-hur, -ra. Hurreko senidia. ‘Pariente cercano, -a’.

Senide-urrian, -ña. Urriñeko senidia. ‘Pariente lejano, -a’.

Seniparte, -ia. Seme-alaba bakoitzaren herentzia zatixa. ‘Legítima’.

Senittera, -ia. Anae-arreba danak. ‘El conjunto de hermanos y hermanas’. *Senittera luzia, haundixa.*

Senper. *Lana senper egin*. Lana gogor egin. ‘Trabajar duramente’.

Senperrenak egin. Kristonak egin. ‘Realizar esfuerzos muy grandes’.

Sentikor, -ra. Sentibera. ‘Sensible’.

Sentittu, *sentittuta*. Behixakin ebalten da txahala egin biharrian daguenian. ‘Se refiere a cuando una vaca está a punto de parir’. *Gaur eztakogu iñora faterik behixa sentittuta dakogu-eta!*

Sentiu. 1. Entzun. ‘Oír’. *Kamaran pauso batzuk sentiu ziran gaberdixan.* 2. ‘Sentir’. *Ha fatia asko sentiu geben.*

Sereno, -ua. Gauzaiña. Udaleko edo enpresa bateko langillia. ‘Vigilante nocturno, sereno’.

Serseta, -ia. Sertzeta. Iñoren gaitzak eta akatsak ikusten dittuen emakumiari esaten xako. ‘Mujer que ve los defectos de los demás, presumida’.

Seta, -ia. *ald. setaka*, -ia. Zeta. Azalian zikiñak egindako kostria. ‘(la) costra formada en la piel por la suciedad’.

Siar-bedar, -ra. LAND. *Cynodon dactylon*. Askia, arrosario-belarra. ‘Grama’.

Sikatu, *sikaketan*. Lehortu. ‘Secarse’. *Erropia sikatuko zan honezkero! / Hegoia dabil eta honek laister sikatuko dittu bazterrak! Sin. lihortu.*

Siku, -a. 1. Lehorra. ‘Seco’. *Lurra siku dago*. Sin. **lihor**. *Bedar sikua*: bedar igarra. ‘hierba seca’. 2. Beste testuinguru batian, zekena, ximurra. **Xikua** be bai. ‘Tacaño, -a’. Sin: **ximur**. *Gizon sikua*: berba gutxikua, antipatikua; ximurra be bai.

Singla, -ia. 1. ‘Simple’. 2. Argala (emakumien gain). ‘Delgada’. *Zu singlia izango zara betik./ Ondo singlia dago emakuma hori / Lehen singlatxuagua egoten zan.*

Sinigarri, -xa. Sinesgarria. ‘Creíble, convincente’. *Kontau dotsuena sinigarrixa egitten xatzu?*

Siniskor, -ra. Edozein gauza sinisketan dauena. ‘Crédulo, -a, confiado, -a, ingenuo, -a’. *Momentuz siniskor dago, bixar ikusi egin bihar zertara egitten dauen.*

Sinistu, *sinisketan*. Sinetsi. ‘Creer, dar por cierto’. *Eztotsut sinisketan atzo hemen egon ziñanik, gizurteruori!*

Sisgei, -xa. Sits+gai. Sits bihurtu leikiena. ‘Género para hacer estiércol’. *Iria eta orbela dira sisgeirik onenak.*

Sispilla, -ia. Simaur pila. ‘Montón de estiércol’. *Komunik ezian sispillaan egitten ziran eginkaarixak.*

Sistegi, -xa. Simaurtegia. ‘Estercolero’. *Sistegiko sitsik onena ekarri dot./ Sistegittik hartu sitsa eta zabaldu soruan.*

Sits, -a. 1. Satsa, simaurra. ‘Estiercol’.

Sitsak atara. Ittuatik simaurra atara. ‘Sacar el estiércol’. 2. Erropiaren pipia. ‘Polilla de la ropa’.

Sits-bedar, -ra. Sits pillia zabaldu eta gero urteten dauen bedarra edo sistutako zelaikua, indartsuagua eta ganau-janak egitteko edo igarketako oso ona da. Ezta bedar jakin bat. ‘Se dice de la hierba que crece donde estaba el montón de estiércol o la de un prado que haya sido estercolado. No es una hierba concreta’

Sits egin. Artillia fin-fin egin kardaz. ‘Preparar con la carda una materia textil para el hilado’.

Sits egindda egon. Behia jota, leher egindda, xehetuta egon. ‘Estar roto, -a, destrozado, -a’. *Gaza gaurko egunian sits egindda dago./ Ulixia Bilboko jaixetan sits egindda topau neben.*

Soiñeko. -ua. Emakumien jantzixa. ‘Blusa, vestido, conjunto’. *Soiñeko ondo polittarekin etorri xaku gaur gure Amaia.*

Soiñian. Jantzitta edo aldian eruan. Aixkomente arropakin ebalten da. ‘Llevar puesta una prenda’. *Kaltzak eta alkondaria besterik soiñian ez oiala agertu xakun, a ze itxura eukana!* 2. ‘Llevar consigo la cartera, dinero, etc’. *Ezin dotsut ordaindu, zeatik eztoiat dirurik soiñian.*

Soiñujole, -ia. *ald.* **soinujolla,** -ia. Soiñua, akordeoia joten dauena. ‘Acordeonista’. *Aurten soiñujoliak koskabilodunak (ez nolanahikuak) etorri dira.*

Sokan, -a. Intxaur-aliaren gaiñeko azal berdia, arbolan daguen moduan, eta berak botaten dauen izardixa. Haren barruan jaten dana dago, eta hori be beste azal gogorrigo baten barruan dago, **koskola** edo **kaskala** izenekua, edo **intxaur-koskola** edo **intxaur-kaskala** be bai. Sokana berdia izaten da, baiña gero baltzittu egitten da eta bere zikiña garbiketan oso zailla da. Sin. **sokolin** (kanpoko azala eta tinttia); **sokoten** (mantxia edo tinttia). ‘Drupa, pericarpio, corteza exterior de la nuez. Y también la mancha producida por la corteza de la nuez que deja en las manos’. *Sokana eztok/n samur kenduko atzamarretatik. / Intxaurrak eukitten dau hori sokánoi... eskuak ebalten battuzu harekin, fan be nékez egitten da; berdia! Hori izan da berdia, sokana izaten da berdia, gero baltzittu. / Geraketan da sokáan-mantxia (eskuetan, sokáan-mantxia) / Sokána izaten zan sendua, berdia. Sokának esaten gitxan/gitxanan horri.*

Sokana baiño baltzagua. *esr.* Oso baltza ‘Más negro que la nogalina’. *Sokana baiño gizon baltzagua agertu xakunan gabaz./ Bihalekua da gero hau, zeñek kendu euroi atzamarretako sokana!/ Sokana baiño baltzagua etorri nintzan eta enindduan ezaugutu.*

Soka-saltoka. Ume-jolasa. ‘Juego de la comba’. *Plazan neskattillak soka-saltoka.*

Sonburu, -a. Soinburu. ‘Hombro’. Ik. **sorbalda.**

Sopiko, -ua. Baba-saldan busteen dan ogi-zopia. ‘Sopa de pan (que se moja en el caldo de alubias)’. *Sopikua jan dozu?/ Sopikuaren ondoren babia eta urdaixa.*

Sopitta, -ia. 1. Lokatza artian-edo zabiltzanian oiñetakuari eransten xakon lokatzara pusketia. ‘Pedazo de barro que se pega al calzado’. 2. Atxurragaz jasoten dan zohixa. ‘Tepe o terrón que se levanta con la azada’. 3. Abarkiari jarten xakon petatxua edo arakixa. ‘Petacho o remiendo que se le pone a la abarca’. 4. **Orbel-sopittaak.** Txondorraren zuluak tapaitteko egitten diran multzuak lurra eta zarramarrakin. ‘Pedazo de tierra y broza para rellenar los huecos de la carbonera’.

So(r)balda, -ia. ‘Hombro’. *Tia Juanitak so(r)baldia apurtu dau. Sin. sonburu.*

Sorgiñaize, -ia. Haize-zurrumillua. ‘Remolino, torbellino de viento’. *Sorgiñaizia; aurki da danbarradia.*

Sorki, -xa. 1. Orratzak eukitteko moltzotxua. ‘Alfiletero’. 2. Emakumiak buruan eruaten euen oihalezko bigungarrixa, edarra edo beste gauza pixudun batzuk eruateko. ‘Rodete’. *Edarra azpikua, sorkixa.*

Sorna-bedar, -ra. LAND. *Senecio vulgaris.* Zorne-belarra. ‘Hierba cana’.

Soro, -ua. Soroa, labrantzarako lurra. Sorua ortua baiño haundixagua izaten da. ‘Campo de cultivo, campo labrado’. *Anaiak beheko soruan dira. / Bialdu ardi horreik soro barrenetik!*

Sororik soro ibilli. Noraezian ibilli, iparra galduta ibilli. ‘Andar de la ceca a La Meca’. *Ai, gure Antonio sororik soro dabil, ba!/ Sororik soro ibilli giñan illunetan, sendia topau eziñik!*

Sor-sor. Minsorraren onomatopeia. Min haundixa ez, baiña etenbagia. ‘onom. de

un dolor no muy intenso pero continuo'.
Sor-sor dako hagiñeko miña/
Haundixena fan xat, baiña hor dago
orainddiok sor-sor belarriko miña.

Sortalde, -ia. 'El este', oriente'.
Eguzkixak urteten dauen aldia.
Eguzkialdera edo sortaldera faten dira
ardixak larran egittera lehenengo
orduan.

Sortzaille, -ia. Sortzen edo fundaitten dauena. '1. Creador, -a. 2. Fundador, -a'.
On Jose Maria Arizmendiarieta izan
zan kooperatibetako fundatoria edo
sortzaillia.

Sosegau. Konforme geratu, nasaittu.
'Sosegarse, tranquilizarse, descansar'.
Ume honeik sosegau eziñik dabiltz./
Hau da hau sosegau eziña gaurko
munduan daguena!/ Sosegauko zarai
zuek be gure edadera aillegau orduko!
Eztira sosegaitten, iñola be! Ant.
aztoratu

Soseguz. Astiro, poliki. 'Despacio, detenidamente, con tiempo, con calma'.
Soseguz ibiltten eztaki baiña!/ Berba
egin egizu soseguz, eztotsut ezer
entenditten-eta

Sotil, -la. Txukuna, kuriosua. Txotilla, Legazpin. 'Discreto, no ostentoso. Sutil, tenue, fino'.
Oso sotilla da langille hori.
/ Alkondara sotilla

Su, -a. 'Fuego'. **Su(a) hartu**. 'Arder'.
Etxiak su hartu eben./ Piñudixak sua
hartu ebenian, akabo! Su(a) emun.
'Darle o pegarle fuego' *Eurak sua emun*
eta bestiak izan zirala esan, hamaika
holako! Suak hartuta. Oso hasarratuta.
'Muy enfadado, -a, colérico, -a'. *Suak*
eta garra hartuta fan zuan/zunan
gizona. Sua emutera fan. 'Ir a reventar o a provocar'.
Guardia Zibillak manifestaziñua egin bihar euela eta
bestiak egunian bertan beste manifestaziño bat
organizau? Hori dok/n hori sua emutera fatia! Itzi, ba,
pake-pakian eta eurak bakarrik fango
dittuk/n!

Suaro, -ua. 1. Sua. 'Fuego'. *Suaro ederra.* 2. Su onduan edo sutonduan egoteko eguraldixa. 'Tiempo para estar al calor de la lumbre'.

Suba, -ia, sugaak (pl.) Sugea. Edo **suga**, -ia, subaak (pl.). 'Culebra'.

Suba-arto. 'Aro'. Ik. **erre-bedar**, **suba-mahats**.

Suba-berakatz. 'Ajo silvestre'. Ik. **basaberakatz**

Suba-mahats. 'Aro'. Ik. **suba-arto**.

Subandilla, -ia. NARRA. Sugandila. 'Lagartija'.

Subitzailia, -ia. Sua bizten, ixuketan dauena. Karobixari, txondorrari... sua emuten otsana. Sua egitten dakixena. 'El que enciende la hoguera, la carbonera, etc.' *Eurixa zarra-zarra eta*
sua egin eben; subitzailia izan, beinke!

Su-bolara, -ia. Sualdi indartsua. 'Incendio. Momento de fuego'.
Su-bolara bat egin. 'Hacer fuego para calentar la casa'.

Suburdiña, -ia. 1. Beheko suaren atzekaldeko txapa zabala. 'Chapa ancha colocada detrás de la chimenea'. 2. Sua gobernaitteko ebalten dan burdiña. 'Utensilio de hierro para gobernar el fuego'. Sin. **sutako burdiña**, -ia.

Sudur, -ra. Sudurra. [surra] entzuten da. 'Nariz'

Sudurluze, -ia. Sudur luzia dakona. [surluzia] entzuten da. 'Narigudo, -a'.

Sudurreko jarixo, -ua. Moko ariña eta etenbagia. **Jarixon**, -a (Araotzen). 'Moquita'. *Sudurreko jarixo honek enau*
bakian izten. Sin. **sudurtxirrixa**, **sudurziriña**, **dindirrixa**. *Gaur egun*
danian sudurtxirrixakin nabil.

Sudur-zulo, -ua(k). Sudurraren zuluak. [surzulua(k)] entzuten da. 'Fosa(s) nasal(es)'.

Suertau. Gertatu, pasau. 'Suceder, ocurrir, pasar'. *Bizi danian etxat*
halakorik suertau!/ Igaz etxakun ondo
fan, ia aurten zer suertaitten xakun.

Sufrikor, -ra. Sufridua. ‘Sufridor, -a’. *Pedro sufrikorra da eta ezta bapebe kejauko.*

Suga, -ia, -aak (pl.). ‘Culebra’. Ik. suba.

Suga-arto. ‘Aro’. Ik. erre-bedar.

Suga-bedar, -ra. LAND. Gari artian urteten dauen bedarra. ‘Aro; aplicado también en general a diversas plantas consideradas venenosas. Alcibion’. Sin: **sugá-idar**.

Sugan, -a. *ald.* **suban**, -a. Zugan. Puxeta-ontzixa, tina. Egurrezkuak lehenengo, txapazkuak gero. Erropak jabonau eta erropa zurixak ifintten ziran egosten, gaiñian sutako hautsa edo hauslandarra zabalduta. Azpixan zulo bat eukan ura fateko. ‘La barrica o cuba en la cual se hace la colada’. *Suganera ur epel-epela botaten zan lehenengo, gero berotxuagua, eta atzenian bero-bero-berua. Sugana egin.* Erropak garbittu suganian. ‘Hacer la colada en la tina’.

Sugan-harri, -xa. Suganaren azpixan ifintten zan harrixa. ‘Piedra sobre la cual se ponía la barrica’.

Sugei, -xa. Suegurra. ‘El combustible’. *Sugei onena sasue onian botatako pagua.*

Sugin, -ña. Sutegittan sua egitten dauena. 1. ‘Fogonero, -a. 2. Herrero, -a; ferrón’. *Pedro da hemengo sugiña.*

Suhatz, -a. Meta; bedar igarrarena edo iriarena. ‘Almiar o barañe de hierba o helecho’.

Suhin, -ña. Alabiaren edo semiaren senarra. ‘Yerno’.

Suhin-erranak. Suiña(k) eta errana(k). ‘Yernos y nueros’.

Sujeto, -ua. Bihurra, okerra (mutilla). ‘Bicho, trasto, elemento, pieza’. *Mutiko sujetuak./ Sujeto samarra da./ Sujeto-kuadrillia./ Hau lako sujetorik.*

Sukalde, -ia. ‘Cocina’.

Sukutu, *sukuketan, sukutuko*. ‘Aplastar’. *Platanua eta gailletak ondo sukutu, naranja-ura botateko gaiñetik.*

Sultzu, -a. Ardagaia. ‘Yesca’.

Susara. ‘Estar en celo la vaca’. Ik. **arreske**.

Suspensuan. Ustebagian, esperobagian. ‘Pillar de imprevisto’. *Suspensuan harrapau nau.*

Sustakor, -ra. Bilddurtixa. Iheskorra, uxakorra. ‘Asustadizo, -a, espantadizo, -a’. *Eneben pentsaitten horren sustakorra izango zanik.*

Susuma, -ia. Erreparua, eskrupulua. Higuña. ‘Causar asco, repugnancia’. *Susumia emuten dost neri horrek.*

Susumatsu, -a. Susuma haundixa dakona. ‘Escrupuloso, -a’. *Zu baiño pertsona susumatsuagorik eztot ezagutu.*

Sutauts, -a. Errauts. Sutako hautsa. ‘Ceniza, polvo de la lumbre’. *Garai baten, sutautsa jabue edo detergente moduan ebalten zan.*

Sutegi, -xa. Errementarixaren lanlekua. ‘Fragua’. *Ara-hortzak sutegira eruan eta han zorrozketan zittuan errementarixak.*

Taixo, -ua. Itxura. ‘Aspecto, traza. Presencia’. *Zuk ekarriko dozu taixua handik bueltan!/ Eztakot kalera fateko taixua.*

Takar, -ra. Baldarra, zakarra. ‘Bruto, -a’.

Takarraran. Atxintxika, prisaka. ‘Corriendo, de prisa’. *Takarraran pasau dira hemendik!*

Takarrontzi, xa. Oso takarra. ‘Muy bruto, -a, bestia’. *Takarrontzixori halakuori!*

Taka-taka. Oiñez, *ume ber.* ‘onom. de caminar. (leng. inf.)’. *Maialen badabil taka-taka, aurki da antxintxika!*
Takataka, -ia. Oiñez ikasteko tramankulua. ‘Tramánculo para aprender a andar’. *Oiñez ikasi aurretik takatakan ibiltten giñan.*

Takara, -ia. 1. Golpe txikixa. ‘Golpecito’. *Takara bat emon*. ‘Dar un golpe’ 2. Takada. ‘Tacada, vez, golpe’. *Altunak takara baten zazpi tanto egin ditzuk/n* / *Milloi bat tokau xako bono lotuan; takara ederra dok/n*.

Takateko, -ua. Golpia, zartatekua. ‘Golpe’. *Harek hartu eben takatekua bizikeletatik jausi zanian!*

Talentu, -a. 1. Asmua, asmakizuna. ‘Intención, invención’. *Hau zeñen talentua izan da?* 2. ‘Talento’. *Talentu haundiko gizona*.

Talo, -ua. Artourunarekin egitten dan janari ezaguna. ‘Torta de maíz, arepa’. **Talua eta esnia**. Antxiña oso ohikua zan jatordua. ‘Tortas de maiz con leche’.

Talogin, -ña. Taluak egitten dittuena. ‘El que hace las tortas entre los carboneros. Hoy en día en las fiestas populares’. *Talogiñak bikain ibilli dira./ Herri Egunian talogin illaria egoten da*.

Tankera, -ia. Ibiltteko, janzteko, mobitteko, hau da, gauzak egitteko modua edo eria. ‘Estilo, forma, manera, aspecto, apariencia’. *Illun eguen arren, tankeriagatik ezagutu zindduten*.

Tantan, -a. Tanta. ‘Gota’. *Ur-tantanak darixola dago tuberixia*.

Tantanka. ‘Goteando’. *Komuneko deposittua tantanka dago*.

Tantei, -xa. Arbola-gerritik gora urteten dauen abar senduak eta zuzenak. Su-egurra egitteko botaten dira, eta bota eta zatittu eta gero aizkoriagaz edo burdin-zirixarekin bringaatu egin bihar izaten dira. Tresnerixia egitteko eta eraikuntzan be ebalten dira. ‘Rama principal, cepejón. La rama grande y derecha de haya’. **Pagatantai**, -xa. Pago luzia eta zuzena. ‘Haya brava, o sea, de la que no se ha hecho leña’.

Tantiau, *tantiaitten*, *tantiauko*. Aztartu, balorau, probau. ‘Tantear, probar, sopesar’ *Lan alkarritzeta horretan zu tantiau gurako zaue, eta gero komeni baxate, diar egingo dotsue*.

Tapaka egin. Aharixak eta beste animalixa batzuk buruarekin alkar jo. ‘Dar topetazos con la cabeza (los carneros, vacas, etc.)’. *Tapaka dabiltz (aharixak, behixak...)*.

Tapaki, -xa. Bufanda. Sin. **tapaoka**, -ia.

Tapau. 1. Estali. ‘Taparse’. *Ondo tapau, e! Sudurra eta belarrixak bakarrik itzi kanpuan!* 2. Hobetu, gainditu. ‘Superar, mejorar, batir’. *Marka danak tapauta erretirau zan. / Tapau hori!*

Tarras ekarri. Narras, arrastaka ekarri. ‘Traer a rastras’.

Tarraska. Arrastaka, tataras. ‘A rastras’. *Gizajua tarraska etara daue kalera./ Tarraska be karriu ezindda ñabilk/n mutiko honeik!*

Tarteka-marteka. Noizian behin, tarteka. ‘De vez en cuando, de trecho en trecho’. *Honeik tarteka-marteka egingdako gauzak dira./ Tarteka-marteka agerketan dira sagar ustelen batzuk*.

Tati egin. *ume ber*. Eskiñi eta ez emun, erakutsi eta berihela gorde. *l. inf*. ‘Ofrecer y no dar’. *esap. Andra Marixa Martiko, artian udia tatiko, handik aurrera betiko*. ‘Significa que el verano todavía está en ciernes, pero que a partir del día de la Anunciación de la Virgen, 25 de marzo, se afianza’.

Tauki, -xa. Ibillera gangaleko pertsona haundixa. Baldarra, takarra, sarkiña. Gizonezkuakin ebalten da. ‘Persona grande, torpe y descuidada’. *Hori dok/n hori taukitzaarra*.

Tautik be ez. Ezebe ez (jakin, esan, entendi...). ‘No tener ni idea; no decir ni mu...’. *Tautik be eztau esaten!/ Tautik be etxakik/n!*

Teillagin, -ña. Teillak egitten dittuena. Teillagillia. ‘Tejero, -a’. *Horren aitta teillagiña izandakua da./ Olabartako atzenengo teillagiñak aspaldi ezkutau ziran*.

Teillape, -eia. Aurrekaldian edota albueta horarik ez takon teillatuden lekua. ‘Techado, cobertizo, refugio’.

Teillatu, -a. 1. ‘Tejado’. 2. Burua. ‘La cabeza. (la cabecha)’. *Teillatua enredauta dako.* / *Teillatuan txintxiñak hasi xako.*

Tema, -ia. Burugogorkerixia, petralkerixia. ‘Obstinación, terquedad’.

Teman. Berba egin gura ezian. Hasarre antzian. ‘Enfadados, obstinándose’. *Teman dagoz.* / *Teman doiaz egunak eta egunak.*

Temetan. Petralkerixetan. ‘Con terquerías, queriendo salirse con la suya’. *Txakurtxua temetan hasi da.*

Temoso, -ua. *em.* **temosa**, -ia. Tematixa, terkua. ‘Obstinado, -a, terco, -a’

Tente. Zutik. ‘De pie. Erguido, -a’. Iñor tentaitteko egitten dan kantua: *Iñoxente potente, Errekaldeko txakurrak buztana tente!*

Tentetu. 1. Gogortu. ‘Alargar, crecer, endurecerse’. *Txilibitua tentetu.* 2. Zut jarri, luzatu. ‘Levantarse, alargarse’. *Negozio kontuak entzun euenian danairi belarrixak tentetu xaten!*

Tikili-tokolo. Nolabait, ez oso ondo. ‘A duras penas’. *Tikili-tokolo samar dabil.*

Tilin-talan. *ald.* **dilin-dalan**. 1. *ume ber.* Ziburua edo txintxauna. *l. inf.* ‘El columpio’. 2. *onom.* Kulunka ibilttiarena. ‘onom. del balanceo.’

Tirizixa, -ia. ‘Ictericia’.

Tokatorreka. *ald.* **toketorreka**. Umejolasa. ‘Juego infantil’.

Tokilla, -ia. ‘Toquilla’. *Artillezko tokillia aukerakua da Olentzero egunian ibiltteko.*

Tolostu, *tolostaitten.* *ald.* **tolostau**, **tolestau**. 1. ‘Plegar’, ‘doblar’. *Armarixuan sartu aurretik, izarak ondo tolestau bihar dira.* 2. Txukun eta hutsarte barik ifiñi bata bestiaren gaiñian, gehixago kabiudadin. ‘Apilar’.

Biltegittan lan haundixa egoten da gauzak ondo tolostaitten.

Tonto, -ua. *em.* **Tonta**, -ia. ‘Tonto, -a’. **Tonto-usaiña kendu**. Espabilau. ‘Quitar o írsele la tontería a alguien’. *Soldaduzkan kenduko dostai tonto-usaiñok.* / *Etzetik urtetia ona izaten da tonto-usaiñak kentzeko.*

Tontoharro, -ua. Harroputza eta ergela. ‘Tonto y arrogante’. *Tontoharrua halakua!*

Tontor, -ra. 1. Gaiña, gaiñeria. ‘Cima, loma’. *Mendi tontoretik bista ikusgarrixa dago.* / *Mutikotan etxe ondoko tontorrian egitten geben jolas.* / 2. Pilla haundixa. ‘Montón grande’. *Arabako soruetan patata tontorrek ikusten dira.*

Toriau. 1. ‘Torear’. *Zezena toriau.* 2. Mareau, burutik gora eragin. ‘Marear, fastidiar, agobiar’. *Fan naiz aiuntamentura eta majo toriau naue.*

Torre-torreka. Umejolasa. ‘Juego infantil’.

Torto, -ua. Zuztar edo adar inguru beretik urteten dauen landara edo fruta moltzua. ‘Montón de plantas que salen de la misma raíz’. *Asun- tortua.* / *Mailluki-torto ederra.* / *Torto bat.*

Traba, -ia. Oztopoa. Traba. ‘Pega, dificultad, obstáculo’. *Trabak ifinttiari izten ezipaxaue, eztogu sekula lan hau akaboko.*

Traba egin. Oztopatu. ‘Estorbar, molestar, impedir, obstruir’. *Bestiak Artolari traba egin otsalako galdu eben tantua.*

Trabau. Katiau, trabatu. 1. ‘Trabarse’. 2. Enredarse (enredadas). *Kendu degigun pareko silla horreik, baten bat trabau aurretik!* / *Eztako berba egitteko samurtasunik, trabau egitten da askotan.* / *Soka danak trabauta egozen, eta ezin izan gittuan eskatu.*

Trabes. 1. Zuzen ez, ziharka. ‘Torcido, cruzado’. *Antomobillak laban egin nostan eta trabes geratu xaten bide*

erdi-erdixan. 2. Ondo ez fatia gauza bat edo aldrebes urtetia. ‘Cruzado, al revés’. *Fan hara eta itxitta, fan bestera eta jentetzaia, hau da hau eguna trabes hasteia!* 3. Bola-jokuan, pelotan etab. egitten dan apustua beste batzuen jokuaeren gain. ‘La apuesta’. *Lagun horri asko gustaitten xako trabesa*.

Trailla, -ia. Uztarrixa edo abarkak lotzeko ebalten zan artillezko sokia. ‘Cuerda de lana utilizada para atar el yugo o las abarcas’. *Abarka horreiri trailla barrixak ifiñi bihar xate*.

Trakatz, -a. *ald. traketz*, -a. Takarra, baldarra. ‘Bruto, -a, desagradable, brusco, -a’.

Trakitz, -a. Lurrari buruz, gogorra, txarra. ‘Tierra mala y dura’. *Lur trakitza*.

Trango, -ua. 1. Bideko harrixa edo koskia, ibilgailluari saltua eragitten xaona. ‘Escollo en un camino o pista; zanja, principalmente’. 2. Ibilgaillua mobiu eztadin txirrinkan ifintten xakon topia. ‘Tope que se le pone a la rueda para que no se deslice’. 3. Baso-bidietako gorabeherak, sakonune eta aldapak. ‘Hoyo, desnivel’. 4. Aixkomente, trabia. ‘Obstáculo en general’ *Hor tranguak dagoz aurrera segitteko*. **Trangoka**. ‘Dando botes o balanceandose’. *Saltoka edo balantzaka*.

Tratante, -ia. Ganadu-merkataria. ‘Comerciante de ganado’. *Sasue batian aspaldi eztala, Santa Mariñako plazan ganadu ferixia egitten zanian, hillaren lehenengo ebeikotzian, tratantiak eta baserrittarrak juntaitten ziran*.

Trebera, -ia. Sutako txingarren gaiñian ifintteko hiru hanka dittuen burdiñazko txirringillia; haren gaiñian lapikuak-eta ifintten dira. ‘Aro de hierro con tres patas para poner sobre la brasa’.

Tremendako, -ua. Ikaragarrikoa, izugarrizkoa. ‘Tremendo, -a, enorme; descomunal’. *Han agertu da tremendako lomosua gaz!* *Esaten daue tremendako edurrak egin bihar dittuela otsaillian*.

Tremes, -a. Arto-uruna, gari-uruna (galuruna) eta azkarrixa nahastuaz egitten zan ogixa. ‘Comuña, pan bazo. Torta de pan moreno’. *Tremesa eta esnia dakogu afarittteko*.

Trepetxu, -a 1. Instrumentu arrarua edo konplexua. ‘Instrumento, utensilio, aparato’. 2. Pertsona tronpajole edo adarjolia. ‘Persona bromista o chistosa, tomadora de pelo’. 3. Gauza bitxixa edo xelebria. ‘Cosa extravagante’.

Trepetxukerixa, -ia. Xelebrekerixia. ‘Extravagancia’. *Trepetxukerixak egitten dittuk/n hik gero!*

Trepetxukerixaak egin. Xelebrekerixak egin. ‘Hacer cosas extravagantes’.

Triki-trauku, -a. Atzera geraketan eztana. ‘Persona echada para adelante’. *Patxi triki-traukua zan oso*.

Trikitx egin. *ald. trikitxau*. Bide batian kurtzaittia. ‘Encontrarse de repente, chocar’. *Egunero egitten dot trikitx Mikelekin San Lorentzoko ermita onduan./ Halako lekutan trikitxau dittut./ Joxe kartero eta bixok Naparreneko kantoian trikitxau giñan*.

Trikixlekua. Trikitx egitteko moduko lekua: errepide, bide, kantue...

Tringu, -a; *ald. tringo*, -ua. Trinkoa. ‘Compacto, -a, macizo, -a’. *Txarrixak bizkarra tringua badako, urdai asko dakon seiñale*.

Tripakaillu, -ak. Tripakiak. ‘Callos (de comer)’.

Tripaki-laiño, -ua(k). ‘Los cúmulos de nubes’. Ik. **laiño**.

Triskau. Abarrak soilddu. ‘Desgajar ramas de un árbol o las ramitas de una mayor’. *Basua bota ondoren abarrak edo egurrak triskau egitten ziran, gero batu eta sendorrak egin*.

Triskillau. Apurtu, hondatu. ‘Despedazar (por ej. el pedrisco los maíces)’. *Ganaduak ibilli dira eta dana triskillauta itzi daue./ Haizionek artuok triskillauko dittu*.

Troka, -ia. Amildegixa. ‘Barranco, precipicio’. *Antomobilla trokan behera fan da.*

Trokaitz, -a. Hezigaitza, gobernagaitza (pertsonia, ganadua edo gauzia). ‘Indomable’.

Tronpajole, -ia. Tronpia, adarra joten dauena. ‘Persona bromista o chistosa, tomadora de pelo’. *Hori lako tronpajolerik!/ Tronpajolia egogixa. Sin. adarjole.*

Tronpilla, -ia. Egurak txipiketako azpitan ifintzen dan egur haundia. ‘Tronco para partir leña’. **Ondokua**, **azpikua** edo **illokixa** izenakin be ezaguna. *Illoki baten gaiñian txipittu egurra. / Hainbeste egur txipittuta tronpilla be xehetu geben.*

Trontza, -ia. Esku-zerra haundia, bi lagunentzako artian mobituen dana. ‘Tronzador. Herramienta para tronzar’. *Olabartarren eta murgitarren artian aposte bat egin zuten aizkoriaekin lehenengo eta trontziarekin gero ia zehien gehiago, eta olabartarrak nagusi.*

Trontzalari, -xa. Trontziarekin egurra ebagitzen dauena. ‘Tronzador. La persona que tronza’. *Trontzalari bikaiñak olabartarrak!*

Trote, -ia. 1. Abixaria, zalapartia. ‘Velocidad, alboroto’. *Harek eruan xuan/xonan trotia!* 2. Trotian fan. Launaan baiño sosegutxuago. ‘Al trote’ *Zaldixak trotian etorri ziran. Sin. trostan*

Trozo, -ua. ‘Nombre aplicado a canteras, minas, obras de ingeniería, etc. Forma de explotación de minas en Vizcaya, a las que acudían temporalmente algunos aldeanos, que introdujeron la voz para designar las minas’. **Trozuan**. Eraikuntzako lan baldarrak egiten ibiltia. *Trozuetan biarra eñ ebanetik, ezagutzen zittuan Somorrostro aldiak (Etxba Eib)./ Gure Tio Domingo gaztetan trozuetan ibilli zala Leonen. (Elexp Berg). "Hamahiru*

urtegaz trozuan Araozgo kamiñuan, hamaseigaz trozuan Iratin, hamazortzigaz trozuan Allozko presia egiten, hogeigaz trozuan Loiola txokolaterixan. Hiru urte gerran, eta berrero trozua Legazpin; tartietan basolanetan, ikazkintzan, estraperluek ... holaxe fabrikatu agertu zuten arte" (Eugenio Zumalde, Araotz)

Trukau. *ald. truke egin*. Zerbait saldu edo erosi, eskuz aldatu, tartian dirurik ebalatu barik. Adibidez, *dozena bat arrautza bi ardao botillagatik*. ‘Canjear, intercambiar’.

Trukian emun. Norbaittekin zuri lagundu edo zerbait emun, eta zuk, ordian, lagundu edo beste zerbait emun, baiña dirurik ez. ‘Dar algo, excepto dinero, a cambio de. Al trueque’.

Trukian. Karta jokua. Gure nagusixak askotan jokaketan euten trukian; lau lagunentzako jokaketan daue, eta “*Truk, erretruk, hasta tres, hasta akabo*” enbidatzen da joku horretan. ‘Juego del truco’. **Itsugaz trukian**. Trukian jokaketan, laugarren laguna falta danean, haren kartak bistan jarritako jokaketan dana. ‘El mismo juego pero en vez de jugar con cuatro jugadores solo con tres, enseñando las cartas del cuarto’.

Trumoe, -ia. ‘Trueno’. Sin. **Justui**, **justoi**, **justuri**, -xa (Arantzazu, Araotz)

Ttaka-ttaka. Oiñez. ‘onom. de caminar’. *Ttaka-ttaka fan giñan Araotzeraiño.*

Ttattar, -ra. Txikiña. ‘Pequeño, -a, diminuto, -a’. *Ondo ttattarra da, ba! Ikusi be ezta egiten!*

Ttirin-ttaran ibilli. Batian eta bestian, hara eta hona ibilli bape ardura barik. ‘Deambular sin ningún objetivo concreto’. *Lanik egin bapez, ttirin-ttaran ibilli, ezta basterik egiten. / Egun danean ttirin-ttaranian!* Sin. **tirin-ttaran**

Ttirri-ttarra. *ald. ttirriki-ttarraka*. Nekez eta astiro samar, baiña aurrera. ‘(Andar, desenvolverse, etc.) con

dificultad, poco a poco'. *Ttirri-ttarra, ttirri-ttarra, egin egin dogu zeozer./ Bagabiltz ttirri-ttarra behintzat, bai, eta ia noiz arte irauten dogun.*

Tuna egin. Golperik be ez jo, lanik egin ez, deskantsuan egon. 'No dar ni golpe'. *Bagegontzen behin Murgixa auzuan harrijasotzaille batzuk ikusten eta nere ondoko batek zera bota eben: horrek xakok/n sasoia, horrek! Eta aldamenetik beste batek erantzun: aste danian tuna egitten xuai/xonai-eta! Zubillagako Marteskuan orainddiok esaten ei daue: 'Caza, pesca y tuna todo es una'.*

Tuntun, -a. Ergela; danari ez erantzuten xauena. 'Tonto, -a, necio, -a'. *Ume tuntuna, hor dago tuntunetan.*

Tupin, -ña. Metalezko lapikua babia-eta egosteko balixo dauena eta hiru hanka dakona. Ontzi haundixa zan, pare bat helduleku, eta metalezkuak. Estalkixa eukitten zittuain. Umetan, jolasian, tupiñetan gordeten ziran umiak. 'Olla, puchero, marmita'. *Txorixogaixak tupiñian.*

Tupinkada, -ia. Tupin batian sartzen dana. 'Contenido de una olla'. *Tupinkada bat baba, eta kitto!*

Turko, -ua. Egoskorra, iñori kasurik egitten etxauena. 'Obstinado, -a, terco, a'.

Turkokerixa, -ia. Egoskorkerixia. 'Obstinación, terquedad.'

Turtikiña, -ia. 1. Errotako edo olako turbinia. 'Turbina del molino o de la ferrería'. 2. Egoskorra. Zittaltxua. Neskatiilla temosiari, tuntunetan dabillenari esaten xako. 'Obstinada, terca'. *Neskatiilla turtikiña./ Neskatiilla turtikiña bat.* 3. Banderia, fraketeria. 'Casquivana, fresca'. 4. Alua. 'Vulva'.

Tutu, -a. 1. Gizon eta emakumien partiak. 'Partes sexuales del hombre o la mujer'. 2. 'Sirena de la fabrica'. *Garaiñeneko tutuak jo dau./ Patrixioneko tutuak egunian lau bider jotzen ei eben: goizeko zortzirak hogei gutxiagotan, eguerdiko hamabi eta*

erdittan urteteko eta ordu bixak hogei gutxiagotan sartzeko, eta azkenik, arratsaldeko seiretan.

Txaamel, -a. Txaramela. 1. Lau eskuko zerra-kirtena. 'Mango de sierra de cuatro manos'. 2. Astuari, bigungarri moduan, banasta azpixan jarten xakon edozein gauza. 'Cualquier cosa que se le pone al burro debajo de las cestas a modo de acolchado'.

Txaamelia emun. Zigorra emun, zigortu. 'Castigar'. *Bihar dan moduan etzan portauko-eta, txaamelia emun xaue eskolan.*

Txaanpiña, -ia. Txarranpina. Elgorriza. 'Sarampión'. *Umia ohian dakogu txaanpiñiarekin.*

Txabola, -ia. *ald. itxabola,* -ia. Txabola. 'Chabola, caseta'.

Txafleta, -ia. Inportabarikua; neskia zein mutilla izan leike. 'Despreocupado, -a, descuidado, -a'. *Zabar-zabárta, inpórtabaia.*

Txahal, -a. 'Ternero, -a'. *Zenbat txahal dakozue hazteko?*

Txahala egin. Botaka egin. 'Devolver, vomitar'.

Txakolin, -ña. Euskal Herrixan egitten dan ardao zuri garratz bat da. Oñatiko 'Upaigua' eta 'Murgialdai' txakoliñak ezagunak dira. 'Chacolí'.

Txakur, -ra. 'Perro, -a'. ***Txakurra erantsi.*** Txakurra bialdu norbaiten edo zerbaiten kontra. 'Azuzar al perro'. *Harek eztau iñor gura bere etxe ingurutan, edozeiñeri eransten xao txakurra./ Aldeko behixak gurian sartu dira, erantsi txakurra!/ Txakur zaharra izan.* Esperientzia haundikua izan. 'Ser perro viejo'. *Kontuz horreikin, txakur zaharrak dira-eta!*

Txakur-eztul, -a. Eztul txarra eta sakona. 'Tos perruna; tos fuerte'. *Hik dakok/n hik txakur-eztula!*

Txakur haundi, -xa. Hamar pezetaxemiko balixo dauen txanpona. Hamar

txakur haundirekin pezetia. ‘Moneda de diez céntimos de peseta’.

Txakur-illarra, -ia. Takarra. Fig. ‘Brusco, -a, arisco, -a’. (Aizkirri, Araotz).

Txakur txiki(n), -xa, -ña. Bost pezeta-xemiko balixo dauen txanpona. ‘Moneda de cinco céntimos de peseta’.

Txakurtegi, -xa. Txakurrentzako txabolía. ‘Perrera’.

Txalaparta, -ia. Zurezko perkusiño-tresnia. ‘Instrumento popular vasco formado por una o varias tablas que se golpean con palos de madera’.

Txaldan, -a. Txepela, ganorabako samarra. Txotxolia. Txandalkerixa asko egitten dittuena. ‘Chochola, sin sustancia’.

Txalo, -ua. ‘Aplauso’. **Txalo-txalo egin**. Txaluak jo. ‘Aplaudir’.

Txangal, -a. Makala, inddarbagia (pertsonia). ‘Débil, enclenque.’

Txanka, -ia. Hanka mehia. ‘Pierna delgadita’. *Horreik dira txankak, horreik! Gixarra bariko hankak!*

Txano, -ua. ‘Gorro’.

Txanpon, -a. Diru xehia: *txakur haundixa, txakur txikiña, erriala, errialbikua, hamar errialekua, xemikua*. ‘Moneda pequeña, calderilla’.

Txantxiku, -a. Igela. Oñatiarroí jarritako gaitzizena. ‘Rana’. *Hona hemen gure txantxikuak!*



Txantxikua. Inaturalist

Txapel, -a. ‘Boina’. *Txapela gaizki janzen hasi zanian, igarri otsain ez ebillela ondo*.

Txar, -ra. *ald. txaar*, -ra. Txarra. ‘Mal. Malo, -a’. *Borondate txarreko pertsonia/. Usain benetan txaarreko lekua da hau*.

Txara, -ia. Berez sortu eta hazittako basua. ‘Jara’. Leku izenak: **Txara**, **Txaramotz**, **Txaramuiño**; **Txareta**, **Saratxo**, **Jarondo**.

Txaradui. 1. Txaria daguen basua. ‘Jarl’. 2. **Pago-txaria**. ‘La planta de haya que viene espontáneamente’. 3. **Gaztaiña-txaria**. ‘Jarl de castaños’. *Banastagiñak, lanerako, sei edo zazpi urteko gaztain-txaria ebalten dau*. 4. **Hurritz-txaria...** ‘Jarl de avellanos...’.

Txarrada, -ia. Bai kalia eta baita Arantzazu aldian be ebalten zan garai baten, nahiz eta gaur egunian ezkutau samarrik egon. ‘Filete’. *Ifñi egidazu lau txarrada txahalarenak*.

Txarrama, -ia. Txerri ama. ‘Cerdá (con crías)’. Sin. **urdama**.

Txarran. Diabruaren pertsonifikaziñua. Txorimaluen artian gaiztuena, puxikakada gehixen emuten dittuena. ‘Cabezudo que representa al diablo’. *Txarran ikusi dozue?/ Kontuz, Txarran dator-eta!*

Txarrantxa, -ia. Liñua harilddu aurretik garbittu eta leunketako ebalten zan erreminttia. ‘Carda de lino’. Gaur egunian, Araotzen, *desbrozadoriari* esaten xako. ‘Hoy en día *desbrozadora*, en Araotz’.

Txarrapo, -ua. Hazittarako txarri arra. ‘Verraco’. *Gu baiño hobeto daguena, txarrapo galanta!* Sin. **aketz**, **apo**.

Txarraska, -ia. Txarrixak jaten dauen lekua, txarri aska. Harrizkuak ziran eta gaur egunian jatorrizko funtziñua galdu dauen ezkerro, etxe aurrekaldietan ikusten dira apaingarri lorontzi moduan. ‘Pesebre de los cerdos’.

Txarri, -xa. Txerria. ‘Cerdo, -a’

Txarridun, -a. Txarri-saltzaillia. ‘Tratante de cerdos’ *Txarriduna* tabernia Kale Barrixan egon zan, gaur egunian San Migel Kooperatibia daguen lekuan gutxi gorabehera, eta famosua zan tripakaillu onak gertaketan zittuelako.

Txarri hiltte, -ia. ‘Matanza del cerdo’. *Gaur txarri hilttia dakogu! Zeintzuk izango dittuzue, ba, euslaak?*

Txarriki, -xa. Txarrixaren okelia. ‘Toda carne de cerdo en general’. *Txarri-okela, txarri-saiheskixa.. / Txarriki larregi jatia etxaku komeni*

Txarritegi, -xa. Txerritokia. ‘Pocilga’. *Txarrixak txarritegixan sartu ez guran, iheska dabiltz.*

Txarri-untzaki, -xa. Urdaiazpikua. ‘Jamón’.

Txarrizain, -ña. Basuetan-eta, txarrixak zainketan dittuena. ‘Porquero’ *Sasue batian txarrixak, talde haundittan, basora eruaten ziran haztera txarrizain batekin./Ondo portaitten ezpahaiz, txarrizain bialduko haugu!*

Txartu, *txaarketan, txartzeen* (Araotz), **Txaartuko**. Gauzak okerrera egin, gaiztotu. ‘Empeorar’. *Gauzak txartzeen/txaarketan doiaz.*

Txatxala, -ia. Kaskala, lelia. Andrazkuakin ebalten da. ‘Tonta, zopenca’. *Txatxaliori!*

Txatxalakerixa, -ia. Ergelkeria. ‘Decir fatuidades, tonterías’. *Txatxalakerixak esan eta esan.*

Txatxur, -ra. *txik. txatxurtxo*, -ua. Umiaren lehenengo hagintxuak. ‘Dientes de leche’. *Agertu xako txatxurtxuak./ Txatxurak dako eta haginka egin xao.* Sin. **ttatturtxo**.

Txepel, -a. Ganorabagia, odolbagia. ‘Persona ligera de cascos, insustancial’. *Emakume / gizon txepela!* Ik. **epel**.

Txepetx, -a. HEGAZ. *Troglodytes troglodytes*. Gaztain koloreko txori txiki arrunta, buztan motz eta tentekua,

haitz artian edo txara artian haabixia egitten dauena. ‘Reyezuelo, chochín’.

Txerren, -a. Bihurrixa. ‘Malo, perverso’. *Mutiko txerrena./ Txerren baiño txerrenagua.* 2. Infernuko txerrena. ‘El diablo’.

Txidar. 1: Veza; cizaña; 2: arveja. Ik. **salga**.

Txiki, -xa, *ald. txikin*, -ña. Txikia. ‘Pequeño, -a’. *Txikiña gaiztuago da gaiztoz./ Zenbat eta txikiñagua eta gaiztuagua./ Sarramendi azpizan han dago txikin-itturri, uda partian agorketan dan itturixa.*

Txikita, -ia, -k. Egurra txipittu ondoren, sutarako (ekonomikarako) diran zatixak. ‘Pedazos de leña cortados para hacer fuego’. *Ekarri egizu banastatxokada bat txikita, faborez.*

Txiki-txiki. Txarrixari hots egitteko ebalten dan berbia. ‘Voz que se utiliza para llamar al cerdo, -a’. *Txiki-txiki, hator hona!*

Txiki-txiki egin. Birrinddu, xehe-xehe egin. ‘Hacer(se) añicos, destrozar, triturar’. *Berduria ondo garbittu eta txiki-txiki egin lapikora bota aurretik.*

Txikittu. 1. Txikixagua egin, apurtu, zatitu, xehetu. *Harrapau baneu, txipittuko ñuan/ñonan!* ‘Romper, despedazar, destruir’. 2. ‘Hacer leña.’ *Egurra txipiketara noia.* Sin. **txipittu**.

Txikopleittuan ekin, hasi, ibilli. Txik eta txik zirikaitten jardun. Eztabaidan, ika-mika. ‘Picarse, enfadarse, reñir’.

Txilibittero, -ua. Txortalarixa. ‘Fornicador, follador’. *Ha? Txilibitero galanta izan zuan/zunan bere denporan!*

Txilibitto, -ua. 1. Soiñua egitteko musika-tresnatxua. ‘Flauta pequeña’. 2. Pitiliña, zakilla, gizonezkuen sexua. ‘Pene del hombre’. Sin. **txistu**.

Txilin, -ña. Umiaren zakilla. 1. ‘Pene del niño’. 2. ‘Campanilla’. Sin. **pinpiliño**.

Txilindroi, -a. Kamiñeruak bidegintzaiarako ebalten dauen

zapalgaillu haundixa. ‘Cilindro, apisonadora’. *Kalietan galipota botaten zanian ume danak ikusten txilindroiak zela egitten eben lana.* Sin. **zilindro**.

Txilixo, -ua. Garrasixa, diarra. ‘Grito, alarido’. **Txilixoka**. Garrasika, garramistoka. ‘Gritando, chillando’. *Zeozar larrixa pasau da han, jente dana txilixo batian dabil-eta.*

Tximinixa, -ia. Tximinia. ‘Chimenea’. *Beheko suaren tximiñixia urtero garbiketetan dogu, bihar-biharrekua da-eta!*

Tximiño, -ua. ‘Mono’.

Tximista, -ia. 1. Relámpago; rayo. Oiñaztua baiño askoz gutxiago ebalixa. *Oiñaztua eta tximistia basuan!* Sin. **Oiñaztu; iñaztu** (Araotz).

Tximistiaren pare. Oso aguro. Oiñaztuaren pare. ‘Como un relámpago’.

Txinddurri, -xa. ZOMO. Inurria. ‘Hormiga’. *esap. Txinddurrixak erlabixuari: “Udaran birrin da burrun ta neguan eskian? Hiri limosnia emuteko etxagok/n inor etxian”*

Txinddurgorri, -xa. ZOMO. Txinddurri gorrixa. ‘Hormiga roja’.

Txinddurkixa, -ia. *ald.* **txinddurriskixa**, -ia. Inurri-pila. ‘Hormiguero’.

Txinddurtu. *ald.* **txinddurritu**. Gorputz atal bat odol zirkulaziño barik geratu, lo hartuta modura. ‘Dormirsele (un miembro)’. *Eskua txinddurrituta dakotenez, masaje batzuk emun bihar xaot. / Butakan etzindda, hankia txinddurritu egin xat.*

Txinga-eruale, -ia. Txinga-eruate herrikirolian jarduten dauena. ‘El o la que lleva las pesas de competición usadas en el juego popular vasco’.

Txingar, -ra. ‘Brasa’. *Txorizua txingarretan erreta gozua da jateko.*

Txingor, -ra. Kazkabarra. ‘Piedra, granizo’. *Ukabilla lako txingor-aliak jausi dira gaur.*

Txingor zaparrara, -ia. Kazkabarr zaparrada. ‘Pedrisco (chaparrón)’.

Txinparta, -ia. 1. Sutatik urteten dauen pindarra. ‘Chispa o ascua que salta del fuego’. *Tximiñixatik txinpartaren batek urten eta sukaldiak su hartu osten.* 2. Izakera bizikua. ‘De carácter vivo’. *Mutil ha txinpartia lakotxia zan gero, e!* 3. Famelixa baten gaitzizena: *Txinparta eta txinpartatarrak.* ‘Apodo familiar’

Txintxilkarixo, -ua. Zintzilikario. Txintxiliz daguen zerbait. ‘Colgante’. *Elizako txintxilkarixuak (argi-armiarmak)/ Orain gure kaliak txintxilkarixoz ondo hornittuta ageri dira.*

Txintxilikau, *txintxilikaitten,* *txintxilikauko.* Zintzilikatu. ‘Colgar’. Sin. **esegi**.

Txintxiliz. Zintziliz. ‘Colgando’. *Denporaldixan egon zan zapata pare bat txintxiliz abenidan.*

Txintxin, -ña. Itogina. ‘Gotera’. *Txintxinpeian gagozak eta alde egin degigun hemendik. / Teillatu zahar honek ittokiña besterik eztako.* Sin. **ittokin**, -ña.

Txintxiña hasi. Gaitzak etorri, gainbeheria hasi. ‘Comenzar la gotera (sent. fig.)’. *Txintxiña hasten danian...* Sin. **ittokiña hasi**.

Txintxirrintxika. Jolasa: neskatiak eskutik helduta korruan eta kantuan, txandaka hanka bat eta bestiaren gaiñian saltoka. ‘Juego infantil, normalmente de niñas’.

Txintxona, -ia. Ziburua. ‘Columpio’. Sin. **ziburu**.

Txio, -ua. HEGAZ. *Phylloscopus collybita*. Txio arrunta. Txori txikixa. ‘Mosquitero común’.

Txipirue, txipiroia. *ald.* **txipiroe**. ‘Chipirón’. *Gaur zer dakozue jateko? Txipiroiak.* Sin. **txibixa**.

Txipistin, -ña. *ald.* **txipristin**, -ña. 1. Zipristina. ‘Salpicadura, salpición’. *Ze gustora dabilten umiak uretan*

txipristinka! 2. **Txipistiñak atara.** Demanda egin, zarata batzuk atara. ‘Enfadarse, enojarse’. *Txipistin batzuk atara xuai/xonai! Hor dabiltz horreik txipistin batian* (bixak hasarre, demandan). 3. Petrala, zittala. ‘Mezquino, -a, despreciable’.

Txipittu. Xehetu, apurtu, zatixak egin. 1. ‘Romper, despedazar, destruir’. *Harrappau baneu txipittuko ñuan/ñonan!* 2. ‘Hacer leña’. *Egurra txipiketara noia.* Sin. **txiki-txiki egin; txikittu.**

Txipitzaille, -ia. ‘Jefe en las tiraderas o ferrerías pequeñas. Achicador’. Baserri izena: *Txipitzaillekua.* (Zubillaga auzoan)

Txipli-txapla. Plisti-plasta uretan ibiltia. ‘onom. de jugar en el agua’. *Txipli-txapla uretan, ze ederki zabiltzain!*

Txiribi, -xa. ‘Viruta’. *Sua egitteko artazi-kirtenen txiribixen modukorik! Pago egurrezkuak ziran-eta!* Sin. **txirbilla**

Txirikilla, -ia. Txirikilletan jolasian ebalten dan bi puntako makillatxua. ‘Estaca pequeña afilada por las dos puntas que se usaba en el juego del mismo nombre. La tala’.

Txirikilletan. *ald. txirikillan.* Umejolasa. Neskatiilla-mutikuak batez be garizuman egitten euen jolasa. ‘Juego de la tala, al cual jugaban los jóvenes sobre todo en Cuaresma’. Sin. **koótxetan egin.**

Txiripa, -ia. *ald. txiripada,* -ia. Kasualidade ona. ‘Suerte, chiripa; buena casualidad’. *‘Tremendako txiripadia egin eben./ Harek izan eben txiripia!’*

Txirrika, -ia, txirrikaak (pl.). Gurpil txikiña; poleak-eta. ‘Polea, rueda pequeña’. Ik. **txirrinka.**

Txirringilla, -ia. *ald. txirriketa,* -ia. Txirrinka. ‘Aro’.

Txirringilletan egin. Umetako jolasa, txirringillia makilla batekin bueltaka eruatia. ‘Juego de aros, carrera, etc.’.

Brinkolara txirringilletan/aruetan faten giñanian trena ikustera, orduan ezkiñuan/ezkiñonan hazurretake miñik!

Txirrinka, -ia, txirrinkaak. (pl.). Gurpila. Oñatin badogu ‘Txirrinka’ izeneko alkartia herriko bizikletazaliena. Polea, rueda pequeña’.

Txirripitin. *adb.* 1. Umien berbetan, disgustura. *Txirripitin xagok/n:* ‘está disgustado,-a’. 2. **Txirripitiña.** Umore txarreko eta gustua egin ezin xakon umia. ‘Caprichoso, -a, cascarrabias’. *Ume txirripitiña.*

Txirtau. Txertatu. ‘Vacunar’.

Txirtu, -a. Txertoa. ‘Vacuna’.

Txirula, -ia. Txirula. ‘Txirula, flauta’.

Txiselu, -a. *ald. txisalu,* -a. Zizeilua; sukaldeko jarleku luze eta fijua. Etxe batzuetan txiselu hori jasotekua be izaten zan. ‘Banco largo con respaldo fijo o plegable’.

Txistru, -a. Txistua. ‘Silbido, silbando’. *Pozik doia, txistru baten. / Hor fan da Koldo txistruetan.*

Txistru egin. ‘Silbar’. *Egixotzu txistru, ia ikusten gauen!* Sin. **txistu egin.**

Txistu, -a. Haize musika tresnia. ‘Chistu’

Txistulari, -xa. Txistua jotzen dauena. ‘Chistulari’.

Txitxil, -la. Zakila (gizon helduarena). Beste izen batzuk: *kirtena, begibakarra, anae txikiña, zakilla, miztua.* ‘euf. de pene o verga (de hombre maduro)’.

Txixa. Pixa. ‘Orina’. **Txixa egin.** ‘Orinar, mear’. *Odola egitten dau txixaan.*

Txixa-bedar, -ra. LAND. *Verbascum thapsus.* Apo-belarra. ‘Verbasco, gordolobo’. Lekuko batek *te, teia,* esaten xao.

Txixagura, -ia. Txixa egitteko gogua. ‘Ganas de orinar’. *Txixaguriak nago./ Txixaguriari ezin eutsitta nago./ Txixaguratuta zagoz?./ Txixaguria etorri xako.*

Txixaguriak erreten egon. Txixaguriari eutsi eziñik egon. ‘Ganas de orinar extrema’. Sin. **txixalarri** egon.

Txixara, -ia. Zizarea. *Txixarak batu bihar dittugu peskan egitteko*. ‘Lombriz de tierra’.

Txixatoki, -xa. Txixa egitteko lekua. ‘Urinario’.

Txixa-zarrara, -ia. 1: Txixaldi oparoa; 2: Txixa egin aldi bat ‘Meada’. *Txixa-zarrara bat./ Etxetik urten aurretik txixa-errekara bat egittera noia*. Sin. **txixa-errekara**, -ia.

Txofertza, -aia. Txoferraren ofiziua. ‘Conducción de automóviles, camiones, etc.’. *Txofertzan dihardu./ Aspaldi itzi otsan txofertzaia*.

Txokau. 1. Harrittu. ‘Sorprender’. *Gauza batek txokau ninduan harek esandakuetatik*. 2. Txoke egin. Talka egin. ‘Chocar, colisionar’. *Bi kotxek txoke egin euen, eta barruan xoiazen danak ospitalera eruan zittuain*.

Txolin, -ña. Buruarintxua, txatxala samarra. ‘Casquivana, ligera de cascos’. *Neskatilla txoliña./ Txolindduta dago./ Txolinkerixan ibilli*.

Txori mahats, -a. ‘Zarzaparrilla’. Ik. **hirustarbi**.

Txoriexxe geratu. Etxia hutsik eta abandonauta geratu. ‘Quedar vacío y abandonado un caserío o una casa’. *Zenbat etxe ikusten diran gaurko egunian txoriexxe geratuta! / / Aitta-amak fan ziran eta seme-alabak eztaue ezer jakin gura, azkenian txoriexxe!*

Txorimalo, -ua. Buruhaundixa. ‘Cabezudo’ (personaje de las fiestas). *Atzeko kaleko jaixetako txorimaluak urten daue./ Guazen txorimalotara!* Txorimalua tentaitteko esaten dana: **Txorimalo, katamalo, tirikititi, taukiri, sudur haundiri, berari!** edo baten bateri adarra joteko: **Txorimalo, katamalo, tirikititi, zeñeri? Beatrizeri!** ‘Estribillo que se canta para provocar al cabezudo, -a o para tomar el pelo a alguien’.

Txorimalo ibilli. Zelebre eta barregarri ibilli. ‘Andar a mal traer, revuelto, -a, desordenado, -a’. *Gabe danian txorimalo ibilli gara komunetik bueltaka*.

Txoritegi, -xa. Txori asko alkarketan diran lekua. ‘Pajarera’.

Txorixo, -ua. ‘Chorizo’.

Txorro-morro. Ume-jolasa. ‘Juego infantil’. **Txorro-morro-piku-tallo-ke** dira aukera ezberdinak. ‘Son las cinco opciones que hay en este juego’.

Txorro-morrotan egin edo **ibilli**. Txorro-morrotan jolas egin. ‘Jugar al txorro-morro’.

Txorta, -ia. Narrutia, narrutan egittia. *Goxo-goxo egingo xaot, ia txortarik lortzen doten*. ‘Tener una relación sexual’.

Txortan egin. Narrua jo. ‘Follar, joder’. Herriko futbol talde beterano baten izena *Txortan* zan

Txorten, -a. Sagar, marai eta besteren buztantxua, arbolako adarretik txintxiliz eusten xaona. ‘Pedúnculo’.

Txor-txor. Barriketiaren onomatopeia. ‘onom. del habla o conversación’. *Txor-txor, isilddu barik*.

Txortxorrio, -ua. Barriketia. ‘Parloteo, cotorreo’. *Horrek eukan txortxorriua!/ Txortxorrio baten*.

Txotxolo, -ua. Kaskala, lelua. Gizonezkuakin ebalten da. *em. txotxola*, -ia. ‘Majadero, -a, simple, insustancial’. *Txotxoluri!/ Txotxoliori!*

Txotxolokerixa, -ia. Ergelkerixia. ‘Estupidez, tontería, simpleza’. *Txotxolokerixak esan eta esan dabil*.

Txu, -a. iz. Txistua. ‘Saliva’. *Ez egizue txurik bota, mesedez!*

Txu egin. Txua bota. ‘Escupir’. *Txu egin otsain*.

Txutxurrutxu-eztul, -a. ‘Tosferina’.

Txutxurrutxuka. Burdixaren punta banatan jarrixaz egitten zan ume-jolasa. ‘Juego infantil’.

Tzo-tzo-tzo. Behixari, ardixari... nasaiketako, etorteko esaten xakona. ‘onom. usada para tranquilizar o llamar a las vacas, ovejas, ...etc.’. *Tzo-tzo-tzo...*

Ubide, -ia. Errekena, kanala. ‘Canal, acequia’. *Olateko zentrala lau ubidek alimentaitten daue: Aitzgaiñekuak, Saratxokuak, Jaturabekuak eta Zapatakuak.*

Uda, -ia. [uria] entzuten da sarritan. ‘Verano’. *esap. San Juanek ku ku, San Pedroz mutu.* ‘El cuco en esos pocos días, es decir la última semana de junio más o menos deja de cantar’.

Udabarri, -xa. [urabarrixa] be sarri entzuten da. ‘Primavera’. *esap. Apirillaren azkenian, orrixa haizkaiñian.* ‘A finales de abril el Aloña reverdecerá’.

Udaldi, -xa. Uda sasoia. ‘Temporada de verano, periodo estival’. *Gaztetan Burgosko lagunak hemen pasaitten zittuain udaldixak./ Udaldi zelebria doia.*

Udazken, -a. *ald. udaatzen, urazken, uraatzen*, -a. ‘Otoño’. *esap. San Andresetarako garixak ereindda.* (egun horretan zelebraitten dira Uribarri auzoko jaixak). ‘Para el día de San Andrés (fiestas del barrio de Uribarri) el trigo sembrado’.

Uge, ogia. Ohea. ‘Cama’. *ald. oge.* Oso gutxi ebalixa. *Ugeko aulmeda-azal eta izara. / Kostate xako ogetik jaikittia! Ik. uhe.*

Ugeseme, -ia. Ugaseme. Semeordia. ‘Hijastro’. *Hiru ume bizi ziran Jexusarenian: bi berriak; hirugarrena senarrarena, ugasemia*

Ugezaba, -ia. Nagusixa. ‘Dueño, patrón’. *Zein da ugezaba?/ Ugezaba ona euki neben./ Etxeko ugezaba.*

Ugezaitta. Ugazaita. Aittaordia. ‘Padrastra’

Ugezalaba, -ia. Ugazalaba. Alabaordia. ‘Hijastra’.

Ugezama. Ugazama. Amaordia. ‘Madrasta’.

Ugezanae, Ugazanaia. Anaordia. ‘Hermanastro’.

Ugezarreba, -ia. Ugazarreba. Arrebaordia. ‘Hermanastra’.

Ugezume, -ia. Euren ezkontzako umia eztana. Umeordia. ‘Hijastro, -a’.

Uhe, ohia. Ohea. ‘Cama’. *euf. bardinbero*, -ua. *ad. lok. Bardinberora fan.* Uhera fan. ‘Acostarse’. Sin. **uge**.

Uhe-azal, -a. ‘Sobrecama’.

Ui, -xa(k). Oi(ak). ‘Encías’. Ik. **hagin uixak**.

Ukabilkada, -ia. ‘Puñetazo’. *Ukabilkada bat emun. Ukabilkadia emun.*

Ukaondo, -ua. *ald. ukalondo*, -ua. Ukondoa. ‘Codo’. *Ukaondua hurrian, baiña ezin munik egin.*

Ukatu, *ukaketan*. 1. Zerbaitteri ezetz esan. ‘Decir no a algo’. 2. Lanian edo beste zeozertan jota, kantsau-kantsau egindda akabo. ‘Estar reventado, -a’. *Lanian ukatuta nator./ Ukatuta nago./ Etzarai zuek behinguan lanian ukatuko! / Ume hau ukatuta dago* (gaba dana eztulka pasau eta gero).

Ule, -ia. Ilea. ‘Pelo’. **Ulia tentetu**. Buruko ulia zutik jarri billurratik. ‘Ponerse los pelos de punta’. *Aittajunaren kontuak entzuten ulia tentetu xaten./ Maixua sartzen zanian, ha zuan ona ha, danak ulia tente!*

Ulefuan, -a(k). Ile-joana, soilunea. ‘Calva(s)’. *Kimiwarekin hasi danetik ulefuanak egin xako.*

Ulenabartu. Ulia erdi zurittu. ‘Encanecer’. *Ulenabartu da.*

Ulixa. ‘Fulano, tal’. *Ulixa ta bendixa* (edo *mendixa*). ‘Fulano y mengano’. *Ulixa lekutan.* Halako lekutan. ‘En tal lugar’. *Ulixa lekutan topau ei daue bihorra hildda.*

Ultze, -ia. Iltzea. ‘Clavo’.

Ultzezin, -ña. Iltzegilea. ‘Clavetero, -a’.
Orain eztago ultzegiñik. / Errementarixena eta ultzegiñena denpora bateko lanbiderik ugarixenak.
Sin. **ultzegilla**.

Ume, -ia. 1. Haurra. Animalixa baten kumia. ‘Niño, -a; cría de animales, cachorro, -a’. *Gaur zenbat ume etorri dira eskolara? Hamar ume.* 2. **Umia egin**. Ganaduak umia izan. ‘Tener crias un animal’. *Katuak umiak egin dittu.* **Umiak egin**. a) hamar milla pusketa egin. ‘Hacer(se) añicos’. *Umiari platera eskutan hartzen izten baxatzu, laister egingo dittu umiak* b) zaharketia, lizunketia. ‘estropearse, ajarse, morirse, (criar malvas)’. *Erropa honeik ondo jasoten ezpadittuzue, datorren udarako umiak egingo dittue.* 3. **Umia izan edo euki**. Erdittu, famelixia izan. ‘Tener familia, dar a luz’. *Ane umia/ama izan barri da, eta horregatik sei hillabeteko amatasun bajia dako.*

Umealdi, -xa. Animalixak umiak egitten dittuen aldi bakoitza. ‘Camada, lechigada’. *Bigarren umealdixa dau behi honek. / Konturatu barik beste umealdi bat agertu xaku.*

Umegin, -ña. Pertsonia edo animalixia umiak egitten ugarixa. ‘Fecundo, -a. Mujer fecunda’. *Oso umegin ona da bihorrau. / Oraingo emakumiak eztira umegin haundixak.* Sin. **umetsu**.

Umel, -a. Hezia, bustixa. ‘Humedo, -a’.

Umeske egon. Behixa susara egon. Erabillera gordiñian, emakumien gain be esaten da. ‘Estar en celo’. Sin. **ume eskealdixa izan, ume eskealdixan egon**.

Umetsu, -a. Ume asko egitten dittuen pertsonia edo animalixia. ‘Fecundo, -a. Mujer fecunda’. *Hartzen badok andra umetsua, faltauko xak hiretako pentsua.*
Sin: **umegin**

Umezain, -ña. Umiak zainketan dittuena. ‘Niñero, -a’. *Hamar urte orduko umezain faten giñan gure denporan!*

Umia egin. Erdittu. ‘Dar a luz, parir’

Una, -ia. *ald. une*, -ia. Leku bat, tarte bat. ‘Trecho, espacio pequeño’. *Hor una baten laban dakozue eta kontuz fan!*

Unain, -ña. Behi zaintzaillia. ‘Vaquero, -a’. *top. Unamendi* (Aloña eta Arantzazu arteko Duru aldeko mendizalien etxia), **Unaingua** (Garibai auzoko baserrixa).

Ungurruntzian egon. Edota **ingurutsik, ingurutsian egon**. Oñak edo eskuak estali barik euki, esaterako afraketak kaltzetin barik edo sartu barik ibilli, azken fiñian haragixa bistan eukittia. ‘Estar descalzo, -a, o con los pies o manos sin cubrir’.

Untzo, -ua. Txarrixaren hanka bakoitza, hau da, normalian sikaketako esegitta ikusten dogun ‘urdaiazpikua’ deitzen doguna. ‘Cada una de las cuatro patas del cerdo con su tocino y magra’. **Untzoko urdaixa**. Atzeko hanketako urdaixa. *Txarri-untzua. / Galiziarenian untzo ederrak agiri ziran txintxiliz, baita Goñirenian be sasue batian. / Mostradore osteko untzo horreik nunguak ete dira, kanpokuak ala bertakuak? / Eretsi untzo bat, oraintxe bertan probau bihar dot eta.*

Upa-atxur, -ra. Upaitzur. ‘Azuela’.

Upagin, -ña. Upelak egitten dittuena. ‘Tonelero, -a’. *top. Upaingua* (Zañartu auzoko baserrixa).

Upategi, -xa. Sotua, bodegia. ‘Bodega’.

Upatz, -a. *ald. aupatz, eupetz*. Korroskadia. ‘Eructo’. *Azia jaten doten bakoitzian upatz baten ibiltten naiz.* **Upazka**. Upatzak egitten/botaten. ‘Eructando’.

Upela, -ia. 1. Ardaia egitteko ontzi haundixa. ‘Tonel, barrica’. 2. Sagardaua egitteko sagar apurtuak botaten ziran kajia. ‘(la) caja donde se echa la manzana rota con su jugo (para hacer sidra)’. Sin. **kupela**.

Ur, -a. H₂O. Erateko likidua. ‘Agua’. *esr. Ur hotzetako zopia izan.* Txepela,

ganorabagia. ‘Ser un sinsorgo, -a’. *esr. Ez ur eta ez ardao izan.* Gusto barikua, eskas samarra. ‘Ni fu ni fa’ o ‘Ni chicha ni limoná’ *Kontziertua zer moduzkua izan zan, ba? Ez ur eta ez ardao!*

Uraldi, -xa. Uramilla. ‘Inundación, avenida, crecida, riada’. *Uraldi batek hondatu eben pistia.*

Uramil, -la. Uraundixa, uholdia. ‘Inundación, avenida, crecida, riada’. *Hor datoz uramillak! Oker honeik uramillen lanak dira.*

Urardao, -ua. Ura eta ardaia nahastuta. ‘Agua con vino’. *Inddarketako urardaua hartu!*

Uratz, -a. Ur sulfurosoa, Urrusulako errota ondotik urteten dauena, esate baterako. Legazpin, urbeltz. Uratsaz betik arrautza ustel usaiña dakola esan izan da. Zidarra baltziketan dau; urria, berriz, ez. Barruak garbiketan eta aupatsak botaten lagunketan dau. Azaleko gaitzak (ezemak, soriasia, erlakaiztenak...) osaketako be ondo etorten da. Erreumiaren kontra be erremedixo ona da. “Gerriko edo belauneko miña eukaiñak edo erreumiarekin egozenak etorten ziran. Orduan, lan haundixa egitten zan baserrixan, eta gerritik beherako miñak arinketara etozenak ziran nagusi”. ‘Agua sulfurosa’.

Urdabil, -la. ‘Ijada’. Berba hau ganaduakin ebalten da, behi, ardi eta abarrekin. *Urdabilla beteta.* ‘Con la ijada llena (se dice de vacas, ovejas, etc.)’.

Urdabilla hartu. Larregi jatiagatik ganadua beteten danian esaten da. ‘Llenarse el ganado por haber comido en exceso’.

Urdai, -xa. ‘Tocino’. *Eguneroko jatordua babia eta urdaixa, eta hori baeguen pozik! Urdai-ontzo.* Txarrixaren lau hankak urdaixa eta gixarrarekin.

Urdaiazpiko, -ua. ‘Jamón’. *Urdaiazpikua tomatiarekin da (eta) ondoren gaztaia. / Zer gurako zeke? 200 gramo urdaiazpiko, fin ebagitta, mesedez. Eta zer urdaiazpiko gura dozu, ba? Edonungua, baiña bihar dan moduan kurauta/onduta egon dedilla!*

Urdinddu. 1. Ulia zurittu. ‘Encanecer’. *Ulia dagueneko urdinddu xako.* 2. Sasoirik onena galdu. ‘Envejecer’. *Lagun hori be urdinketan hasitta dago.*

Urdinska, -ia. Apur bat grisera jotzen dauena. ‘Grisáceo, -a’. *Ardi urdinskia/ Bihor urdinskia./ Zaldi urdinskia.*

Urrjel. Urri, eskas, gutxi. ‘Escaso, -a, poco, -a, exiguo, -a’. *Urrjeltxo dago arbixa./ Han egurra urjel urtengo dau.*

Urkamen, -a. Urkatuta hiltia. ‘Ahorcamiento, morir ahorcado, -a’. *Urkamena merezi dau.*

Urkill, -ia. Zutabe edo enbor batetik urteten dauen bi adarrak ‘uve’ modukua egitten dauenak. ‘Horquilla’. *Urkilliagaz zabalketan da bedarra igartu dedin.*

Urmeldu, *urmelketan, urmelduko, urmelketia.* 1. Edurra kendu, lurmendu. ‘Desnevar (derretirse la nieve)’. *Asko urmeldu dau./ Hasi da urmelketan.* Ik. **lurmendu**. 2. Intxaurrairi azala kentzea. ‘Pelar las nueces’.

Urmeluna, -ia. Edurra kendutako unia, lurmenunia. ‘Trozo o pedazo de tierra sin nieve’. *Ardixak urmelunan dabiltz larraan./ Hor ezta agiri urmeluna bakarrik be.*

Uroillo, -ua. HEGAZ. *Gallinula chloropus.* ‘Polla de agua’. *Errekia garbittu ondoren uroilluak agertu dira uretan.*

Urontzi, -xa. Ura erateko ontzixa. ‘Vaso metálico para beber agua’. Sin. **uruntzi, antosin, antusin, edarra-katillu.** *Andaillusko itturrizan han dago urontzixa kateiarekin lotuta.*

Urre-eztei, -xa(k). ‘Bodas de oro’. *Aitta-amen urre-ezteixetara seme-alabok eta illoba guztiak fango gara.*

Urri, -xa. 1. Urria. ‘Octubre’. 2. ‘Escaso, que da poco de sí’. *Espinakia oso urrixa da.*

Urrin. Urrun. ‘Lejos’. *Australia hemetik urrin dago./ Lagun hori oso urriñetik etorritakua da.*

Urrusa, -ia. *ald. urrusaa*, urrusia. Bilddots edo txahal emia. ‘Ternerilla o corderilla’. Txahala jaixotakuan egitten dan galderia: *Zer egin dau urrusia ala iriskotxua?* Eta bildotsa jaixotakuan: *Zer egin dau urrusia ala aharitxua?*

Urtabera, -ia. *ald. urtebere*, *urtebee* -ia. Urte biguna, urte ona, uzta oneko urtia. ‘Año benigno’. *Urtabera ona./ Urtia beria doia, udabarrixa beria doia.*

Urteixera, -ia. Urteeria eta urtetia. ‘El lugar de salida y el momento de salida’. *Hemen urteixara txarra dakozue./ Urteixeran esan oskun laister bueltauko zala.*

Urten. Aditz honek *nork* edo *zerk* eskaketan dau. 1. Irten. ‘Salir’. *Patxik urten dau? Bai, aspaldi urten dau. / Bai, urtenik da./ Eguzkixak urten dau./ Eguraldi onak urteten badau, mendira buelta bat egingo dogu.* 2. Piztu. ‘Estallar’. *Mutikotan kalia gabilzela entzun geben Afrikan gerriak urten ebela.* 3. Hasi. ‘Comenzar’. *Politikiaren gaiñian urten xuan/xonan diskusiñuak.*

Urtu, *urtzeen*, *urtuko*. 1. Derretirse. *Edurrak hasi dira urtzeen; baxoiatzak/n urtzeen.* 2. Desagertu, hil. ‘Desaparecer, morir’. *Ezta behinguan urtuko hori!*

Urtxakur, -ra. ‘Nutria’. Ik. **igaribei**.

Urun, -a. Irina. ‘Harina’. *Gaurko egunian urun klase asko ebalten dira: urun zurixa, baltza, zahi gutxikua... eta abar.*

Usain, -ña. Usaina. ‘Olor’.

Usain egin. ‘Oler’.

Usainddu, *usainketan*, *usaindduko*. Usaiña bota. ‘Oler, desprender olor’.

Okelia hasi da usainketan/usaiña emuten. Sin. **usaiña emun**.

Usaka, -ia. *ald. uxaka*, -ia. 1. Izutia. ‘Espantadizo, -a’. 2. Aixarra, uxakia. ‘Animal que se mueve pronto cuando ve a alguien’. Sin. **usakor**, **uxakor**.

Usan, -a. ZOMO. Izaina, urbuztana. ‘Sanguijuela’.

1Uso, -ua. Erabilera. ‘Uso’. *Uso onian egon*. Ebalteko moduan egon. ‘Estar en buen uso’

2Uso, -ua. HEGAZ. *Columba palumbus*. ‘Paloma’. *Lehen baiño uso gutxiago ikusten dira plazan.* **Pagauso**. *ald. pago-uso*. *Columba livia*. ‘Paloma torcaz’. **Haitz-uso**. ‘Paloma bravía’. **Txoloma**. ‘Paloma zurita’. **Etxe-uso**. Etxian edo plazan ikusten dittugunak.

Ustau, -a. LAND. *Rumex sp.* Ahagoa, ahagorria. ‘Romaza’. Gure ortu eta soruetako bedarrik txarrena eta ezagunenetakua. Zuztar luze-luzia izaten dau eta ezta samurra atarateko. Sikatutakuan kolore gorrixa hartzen dau eta hazi mordua jalgitten dau.

Ustel, -a. ‘Podrido, -a’.

Usteldu. ‘Pudrirse’. *Uretan jare ezkeru, usteldu egingo lirake.*

Ustelkor, -a. Iraunkorra eztana. Berihala ustelketan dana. ‘Corruptible, putrescible’.

Uxakor, -a. Sustakorra. Iheskorra. Bilddurtixa. ‘Huidizo, -a’. *Hauxe oillo uxakorra!*

Uxarran egin. Muturka egin txarriak lurrian. ‘Hociquear’. *Txarriak uxarran ibilli dira eta etxe oste dana harrotuta itzi daue.* Sin. **induskatu**.

Uzkar, -ra. Uzkerria. ‘Pedo’.

Uztargille, -ia. *ald. uztarrigille*, -ia; **uztarrigin**, -ña. Uztarriak egitten dittuena. ‘Yuguero’. *Uztargilliak bi egunian hiru uztarri egin zittuan./ Uztarrigiñak oso estimauak izaten ziran.*

Uztarrigei, -xa. Uztarriak egitteko egurra edo materiala. Ondo

mantenitkeko uretan eukitten ziran. ‘Material para hacer yugos’. *Orainddiok be itturondoko gure askaan uztarrigeixak egongo dira.*

Xaguka-xaguka. Sigi-sagaka. Balantzaka. ‘Zigzagueando, serpenteando’. *Eta hamabixak aldera xaguka-xaguka uhera, bapo afaldu eta gero.*

Xakatz, -a. Hazten eztana. ‘Raquítrico, -a’. *Mutiko xakatxa; txahal xakatxa...*

Xatar, -ra. 1. ‘Desagradable’. 2. ‘Feo, -a’. Ik. **zatar**.

Xaxtar, -a. Txatxarra, eskaxa. ‘Pequeño, -a, diminuto, -a’. *Ortuan badakot tomate xaxtar batzuk... bota egin biharko dittut.*

Xehe, -ia. 1. Txikia. ‘Menudo, -a, diminuto, -a’. 2. Birrindua. Oso txikittuta daguena. ‘Tabaco de liar. Desmenuzado, -a, triturado, -a, rallado, -a’. *Tabako xehia hartuko neuke zigarro bat egitteko.*

Xehetu. Birrindu. Xehe-xehe egin. ‘Desmenuzar, despedazar’. Fig. Neka-neka egindda. ‘Extenuado, -a, exhausto, -a’. *Gaurkua lan gogorra izan da, xehetuta akabo dot.*

Xelebre. Arrarua. Oso berezixa. ‘Extravagante, peculiar’. *Juanito betik izanda xelebre samarra.*

Xelebretu. Xelebre edo arraro bihurtu. ‘Convertirse en extravagante, raro, -a, especial’.

Xemiko, -ua. Sei maraberiko txanpona, jatorriz. Bost xemikoko (pezetiarena) txanpona, garai baten. Gaur egun, berri, xemikua bapebe balixo eztauen gauziaren sinonimua da. ‘Céntimo’.

Xezpal, -a. ‘Astilla’. Ik. **zezpál**.

Xibitta, -ia. Makilla mehe eta malgua, joteko balixo dauena. ‘Palo fino y flexible’. *Hartzen badot xibittia! / Etaraten badot xibittia! (mehatxu tonuan). ‘¡Si cojo el palo!’.*

Xiku, -a. Zekena. 1. ‘Seco, -a’. 2. ‘Antipático, -a’. 3. ‘Tacaño, -a’. Sin. **siku, ximur**.

Ximel, -a. 1. Igarra eta malgua. ‘Marchito, -a’. *Makilla ximela.* 2. Pertsona argal eta gihartsuengatik esan ohi da. ‘Enjuto, -a, seco, -a’. *Agure ximela. / Korputz haundirik eztako, baiña bai ximela eta sendua.*

Ximur, -ra. 1. ‘Arruga’. 2. ‘Arrugado, -a’. 3. Zekena. Sin. **siku**

Ximurtu. Zimurtu. ‘Arrugar’.

Xixau, -a. Ahoskera berezi hori: oñatiarron berbetiaren ezaugarri nagusixenetakua, haundixena ezpada, dala esan leikiena. Hau da, berba barruko bokalen artian ‘x’ kontsonantia tartekaittia iXa, iXe, iXi... ahoskaitteko bai aittatutako testuinguruan eta bai beste zenbaitzuetan be. ‘Característica peculiar del habla de Oñati que consiste en introducir una ‘x’ entre vocales de una misma palabra y así pronunciar ixa, ixe, ixi... en ese y en otros varios contextos’. *esr. Oñatiarrok xik eta xok. Legazpiarrak hok eta mok. // Zer xagok/n, ba? / Xaguka-xaguka xoiak/n / Baxatozak, baxatozak goiko kaletik beheko kalera...*

Xixau egin. Xixauka berba egittia, oñatiarron erara. Hau da, berba barruko bi bokalen artian sartutako ixa kontsonantia dala eta, edota, beste testuinguru batzuetan be emuten diran beste arrazoi batzuegatik ixa hori ahoskauaz berba egittia. ‘Hablar pronunciando la consonante X que se introduce normalmente entre dos vocales de una misma palabra (ardixa, belarrixa, bixamona, gixajua, txixaguria, gehixenetan, goixenian, fruterixia, Ixiar, ixixa, ixo, aixo, baxagok/n, arraixua, gaixua, maixua, komunixua, txorixua, goxua, muxua...) o que se da también en otros contextos. (Xabalo, xakuat, xat, xatok/n, xao, Xebas, xelebria, ximeldu, ximurra, Xolonpo, xuabe, Felix...) Oñatiarrok xixau egitten xuagu/xonagu eta

*mondraguetarrak jijau egitten
xuai/xonai./ Oñatin xixau besterik
eztok/n entzuten!*

Zabal, -a. ‘Ancho’. **Zabaletara ifiñi**.
‘Poner a lo ancho’.

Zabald. 1. Eregi. ‘Abrir’. *Atia zabaldu
egiozue joten dabillen horri!* 2. Eguna
argittu. ‘Amanecer’. *Eguna zabaldu dau
ja./ Eguna zabalduen begira gegontzen
lanian hasteko.*

Zabalkuna, -ia. *ald. zabaluna*, -ia.
1. Toki zabala; zabaldia.
‘Ensanchamiento, ensanche’.
2. Lautadatxo. ‘Llanura, planicie’.
Urbixako zabalunia.

Zabar, -ra. Jareiña. Bestiari jarraiketan
eztosten ardixengatik be esaten da.
1. ‘Descuidado, -a’. *Jente zabarra
badabil munduan!* 2. ‘Perezoso, -a’
Muturbaltz hori zabarra da gero!

Zabarkerixa, -ia. Narraskerixia.
‘Abandono, desidia’.

Zahargarri, -xa. ‘Novio’. Ik. **gizongei**.

Zahi, -xa. Gari aliaren azala, ixotakuan
apartaitten zana. ‘Salvado’. *Zahi-zabala,
birzahixa eta uruna:* ixotako garittik
apartaitten ziranak. Lehenengua, zahi-
zabala, ardi, txarri, behi..., animalixairi
emuten xaten. Hurrengo pasarakuarekin,
birzahixarekin, basilloia egitten zan; eta
azkenarekin, urunarekin, ogixa.

Zail, -la. 1. Zaila. ‘Difícil’.
2. Erresistentzia haundikua, gogorra.
‘Muy resistente’. *Liñuzko ehuna zaila
izaten zan.*

Zailddu. 1. ‘Dificultar, ponerse difícil’.
*Entzunda nago aspaldixan zaildduta
daguela kotxiaren karneta ataratia.*
2. ‘Curtirse, hacerse fuerte’. *Zer uste
dozu, ba? Korredore ona izateko
gatzetatik zailddu bihar dozu.*

Zain, -ña. Zainketan dauena. ‘Cuidador,
-a, vigilante, guarda’. *Ume-zaiña,
ganadu-zaiña...; Kondiaren zaiñak;
zezenak zaiña eukitten euen;
Arantzazuko Ama Birjiña gure*

zaintzaillia. top. Txaiñena, San Anton
kaleko etxiajoku. Sin. **zaintzaille**.

Zain egon. Itxaron. ‘Estar a la espera’.
*Mirenen zain nago, ia laister etorten
dan.* Sin. **itxoin**.

Zainttu, zainketan, zainttuko. Zaindu.
‘Cuidar(se)’. *Zainttu katarro hori
haundixagora fan barik!*

Zaintzaille, -ia. ‘Cuidador, -a,
vigilante’. Ik. **Zain**, -ña.

Zaixo egon. Argi egon, erne egon.
‘Estar atento, -a, alerta’. *Erbixa
baxatok/n-eta, zaixo egon!* Sin. **erne
egon, arlet egon**.

Zakar, -ra. 1. Gozua eztana, gusto
txarrekoa. ‘De mal sabor para comer’.
*Zakarra benetan, ha ez eguen jaterik!/
Niretako eztago kipulia baiño gauza
zakarragorik.* 2. Itsusixa, bistarako, edo
gogorako, atsegiña eztana. ‘Feo, -a’.
*Kanpotik oso da zakarra./ Gaurko
partiduan oso zakar jokatu daue.*
Zakarrak. Hondarrak. Zikiñak, zaborra.
‘Basura’. *Zakarrak nora eruango
dittut?/ Ez jaurtiu zakarrak erredera./
Zakarrak atarateko egunak hiru dira
bakarrik.*

Zakarrontzi, -xa. 1. Zakarrak batzeko
ontzixa. ‘Recipiente de la basura’.
2. Oso zakarra. ‘Grosero, -a, incívico,
-a’. *Zakarrontzixori!*

Zaku-karrera, -ia. Hankak zakuan
sartuta egitten dan lasterketia. ‘Carrera
de sacos’.

Zalaparta. Iskanbila, zarata, prisa.
‘Jaleo, estrépito, bulla’. *Ha izan zan
sustua! Zalaparta batian alde geben
danok.*

Zalapartero, -ua. Zalaparta askoko
pertsonia. Prisaka ibiltten dana. *em.*
zalapartera, -ia. ‘Persona agitada,
estresada’.

Zaldi, -xa. ‘Caballo’. **Puestoko zaldixa**.
Etxian eukitten dana basora etara barik
bihorrak zaldiketako. ‘Caballo
semental’

Zaldittu. Zaldixak bihorra estali. ‘Cubrir la yegua’. *Zaldittu da.*

Zaldizko, -uak. Haiziak sortutako euri edo edur barrak, illaratan bata bestiarene atzetik etorten diranak. ‘Las barras de lluvia’. *Zaldizkuakin eurixa./ Zaldizkuakin edurra.*

Zan, -a. Zaiña. ‘Vena’. *Zanak ebagitta hil eben bere burua.*

Zan-bedar, -ra. *Plantago sp.* Zain-belarra. ‘Llantén’.

Zankalepo egin. Zamari (kaballerixa) baten gainian salto egitteruzkuan beste aldera jausi. ‘Al montar una caballería, caer hacia el otro lado’. *Salto egin egik/n bihor gainera, baiña zankalepo egin barik!*

Zankarranka, *zankarranketan.* Araotzen, *zankarrekan.* Hanka baten gainian ibilli edota jolas egin. ‘Andar o jugar sobre un pie (los niños, -as)’. *Zankarranketan egingo dogu? / Hiri irabazi? Baitta zankarranketan be! Baten bat pozik doianian be esaten da: zankarranka fan da!*

Zankazain, -ña. Belaunaren atzeko tendoia. ‘Músculos gastrocnemio y poplíteo. Tendones de bajo rodilla’ *Zankázaiñak.*

Zanko, -ua. Belaunetik oiñera bittarteko zatixa. ‘Pantorrilla’. Sin. **berna-zankua.**

Zanobatu, -a. Tendoiarene kontraziñua. ‘Encogimiento doloroso de nervios’. *Zanobatua egin xat.* ‘Se me ha contraído el tendón’.

Zantiratu, -a. Gihar baten bat-bateko distentsioa. *Zaintiratua egin xako.* ‘Esguince, torcedura o distensión violenta de una coyuntura o de un músculo’.

Zantsu, -a. Indartsua, nerbixoa haundikua. ‘Musculoso, -sa, vigoroso, -sa. Fuerte, vivaz. Forzudo, de mucho nervio’. *Morrosko formala, zantsua benetan!*

Zapaburu, -a. Txantxikuarene kumia. ‘Renacuajo’. Sin. **apapuski.**

Zapaldu. 1. Lurrian daguen zerbaiten gainian hankia jarri eta sakatu. ‘Pisar, prensar’. *Gaztaiñak koskoletik atarateko, koskola zapaldu egin bihar izaten da. / Mahatsa zapaldu. / Sagarra zapaldu. / Idixak hankia zapaldu nontan. Baltzuna ederra!* 2. *fig.* ideia, pertsona, herri, naziño bat... ostikopeian hartu. ‘Oprimir, reprimir, someter’. *Herri moduan zapalduta bizi gara*

Zaparrara, -ia. Zaparrada. ‘Chaparrón’. *Euri-zaparraria hasi baiño lehen mobiu gaittezen!*

Zapata-saltzaille, -ia. Zapatak saltzen dittuen pertsona. ‘Vendedor, -a de zapatos’. *Zapata-saltzailiak bai dendan eta baitta kalia be topauko dittuzu fiestetan.*

Zapaterixa, -xia. Zapatak saltzen dittuen dendia. ‘Zapatería’ *Zapaterixarik famauena Sillerorena, bi dendarekin, bat behian, Kale Zaharrian, eta bestia goixan, Kale Barrixan, herri guztia ondo zerbitteko.*

Zapatero, -ua. Zapatak konponketan dittuena. ‘Zapatero remendón’. *Kalia baziran zapateruak: Kale Zaharrian Lete eta Apitto; eta Kale Barrixan, Kayo.*

Zapatu, -a. Larunbata. ‘Sábado’. *Entzun dozue sekula 'sabado inglés' zer zan? Zapatu eguerdira arte lana egittia. Hori nobedade haundixa izan zan, hori baiño lehenago zapatuetan egun danian lana egitten zan-eta.*

Zapelaitz. ‘Busardo, ratonero’. Ik. **arraipardo.**

Zapi, -xa. Paiñelua, trapua. **Esku-zapixa. Buruko zapixa.** *Zapi zuri batekin jolasten gara (kantua)*

Zaragi, -xa. Zahagia. ‘Odre, pellejo’. *Zaragi-dantza*

Zarata, -ia. ‘Ruido’. **Zarataka.** *Zaratia etaraten. ‘Sacando ruido’. Zaratak atara.* *Zaratak egin. ‘Sacar ruido, meter bulla’. Ordu honeittan ez egizu zaratarik atara!*

1Zarbo, -ua. 1. Isillian beria egitten dauena. ‘El o la que las mata callando.’ 2. Mehe-mehe daguen txarrikumia. ‘Xarbo, xarbúa, se dice del cerdito desmirriado’. 3. Hazten eztan landaria edo mehia daguena. ‘Planta raquítica que no crece’.

2Zarbo, -ua. *Gobitis barbatula*. Errekako arrain txikiña, ezkailluaren tamaiña ingurukua, potologuagua eta fiñagua. ‘Barbo’ *San Pedroko Errotan zarbo-ezkaillu oso gozuak emuten zittuain*.

Zarramarra, -ia. 1. Hondakiñak, zakarrak. ‘Basura, desecho’. *Ura egon danaren lekuko, hondarreko zarramarrak*. 2. Litxarrerixa. ‘Chuchería, dulce’. *Oraingo umiak makiña bat zarramarra jaten dittue*.

Zarraparra, -ia. 1. Nahaste borrastea, zurrumurru nahasia. Garbixak eztiran gauza edo egoeren gaiñian esaten da. ‘Jaleo, estrépito, bulla, enredo’. *Hareik agertu ziranian han ibilli zuan/zunan zarraparria!* 2. Prisaka eta zalapartaka. ‘De prisa, corriendo’. *Han ikusi nittuan danak zarraparran!*

Zarrara, -ia. Zirrara. ‘Emoción, impresión’. Kontuz, ez konfundiu ‘sarrera’ berbiarekin! *Egoera negargarri ha ikusi nebenian, harek eragin nontan zarraria!*

Zarrau. *ald. zerrau*. 1. Itxi. ‘Cerrar’. *Ate danak zarrauta dagoz*. 2. Bata bestiaren onduan. ‘Cerrado, -a, apretado, -a, junto, -a, denso, -a o tupido, -a’. *Patatia zerrauégi sartu dozu*.

Zarrauts, -a. Zerrautsa. ‘Serrín’. *Egurrik ezpadago, zarrautsa bota bihar! / Zarrautsak be majo beroketan dau!*

Zarra-zarra. Eurixa ugari samar, baiña okerrik egin barik. ‘onom. de la lluvia constante’. *Aurten ezta bedar-faltarik izango, eurixa zarra-zarra da-eta.* / Legazpin: *euria arra-arra ari da*.

Zartakor, -ra. Apurkorra, puskakorra, zart aguro egitten dauena. ‘Quebradizo, -a, frágil’. *Pasabideko ispilluarekin*

kontuz ibilli, ikutu bat nahikua da zart egitteko, erreteko papela baiño zartakorragua da eta.

Zatar, -ra. *ald. xatar*, -ra. 1. Desatsegiña. ‘Desagradable’. 2. Itsusixa. ‘Feo, -a’.

Zati, -xa. Zatia. Pusketia. ‘Pedazo’. ‘Parte’. *Gurasuak hil eta gero anae bixak baserrixarekin bi zati egin euen, bakoitzandako beria*.

Zatikor, -ra. Samur zatiketakua. ‘Frágil, quebradizo, -a’. *Egur zatikorra. / Txokolate tabletia be zatikorra da*.

Zatittu. Zatixak egin. ‘Partir (hacer partes)’. *Baserrixa zatittuta konpondu ziran anae bixak*.

Zato, -ua. Zahatoa; ardaia eruateko botia. ‘Bota de vino (odre pequeño)’. *Ekarri egik/n ardau-zato hori eztatxirau pittin bat garbiketako*.

Zauli, -xa. Saloa, bizixa, jatuna. ‘Glotón, -a, comilón, -a’. *Ume zaulixa dakogu!*

Zazpi Izarrak. Zazpi Ahuntzak. Hartz Haundixa. Konstelaziño baten izena, bostoilluagaz eta beste bi izar haundixaguakin eratutakua. ‘Osa Mayor’.

Zaztada, -ia. Zistada. Gauza zorrotz batek eragitten dauen miña; arginddar kalanbriak emuten dauena... ‘Pinchazo, punzada; punción. Calambre’. *Hagin honek izugarrizko zaztadak jotzen dost*.

Zegamarra etorri. Umiak loguriak errendiuta dagozenian **Zegamarra etorri da** esaten da. ‘Venir el sueño’.

Zeken, -a. Sikua, ximurra. ‘Tacaño’. *Tximinixako kedarra baiño sikuagua. esr.* ‘Más seco (tacaño) que el hollín de la chimenea’. (dicho)

Zelai, -xa. ‘Prado, pradera’. *Ardixak beheko zelaixan dira. / Gure zelaittan akaso topauko dozu susaren bat*. Abizena edo deituria: **Zelaia**. Baserri-izenak: **Zelaakua** (Zañartu); **Barrenzelai** (zerria) eta **Kanpiazelai**

(Goribar); **Zelabarren** eta **Zelaikua** (Berezao)

Zelaikuna, -ia. Leku zabala eta launa. ‘Explanada, planicie’. *Urbixako zelaikunan udaberritik udazkenera ardi-bihorrak ibiltten dira, eta azkenaldixan behixak be bai./ Bi zelaikuna*

Zemendi, -xa. Azaroa. ‘Noviembre’. *Zemendixaren 30ian San Andres, Uribarriko jaixak.*

Zentzun, -a. Zuhurtasuna. ‘Juicio, sentido común’. *Zentzunik ba al dakoi horreik?/ Zentzunbageko jentia! / Zentzuna bihar da, zentzuna!*

Zeozzer. Zer edo zer. ‘Algo’. *Zeozzer jateko gogua dakot./ Badago zeozzer egitteko?*

Zepotz, -a. Txikiña, mehia, flakua. Landara eta ganaduen gain esaten da. ‘Endeble; raquíto, -a; esmirriado, -a’. *Aurten sagarrak oso zepotzak dagoz./ Hori behixori zepotz dago, zer pasau xako?*

Zerba, -ia, zerbaak (pl.). ‘Acelga’. *Zerbak patatakin ezta janari txarra!*

Zeren, -a. Pipia. Egurra jaten dauen harra. ‘Carcoma’. *Aramarixua zerenak janda dago; bota egin biharko dogu etxe danera zabalketia gura ezpadogu.*

Zeren-hauts, -a. Zarrauts fin-fiña, zerenak izten dauena. ‘Polvo de la carcoma’.

Zerra, -ia. ‘Sierra’. 1. ‘herramienta’. 2. ‘taller, fábrica’. *Barrenzelaikua, Igartuarena, Erretxingua... lehen zerra mordotxo bat bazan.*

Zerrapilla, -ia, zerrapillaak (pl.). ‘Cierre, broche’. *Zerrapillia jausi xat./ Ekarri zerrapillaak.*

Zerrau, -a. ‘1. Cerrar. 2. Cerrado, -a, apretado, -a, junto, -a, denso, -a, tupido, -a’. Ik. **zarrau**. *Gaba zarrau zan, tautik be etzan ikusten!*

Zertanbait (ibilli). Zerbaittetan, zeozertan. ‘Estar haciendo algo’. *Badabil hori zertanbait.*

Zertu, zertzen. Zera egin. Aditz zihatza eballi biharrian ebalten dan aditz komodiña. ‘Hacer eso, tal cosa, sin definir que cosa. Verbo comodín’. *Umiak zinera doiaz eta ni bixen bittartian buelta bat egittera. Bai, burua pittin bat zertu./ Ezin dot zertu (asmau, harrapau...).*

Zeru, -a. 1. Zerua. ‘Cielo’. *Zeruan hainbeste leku izango ahal dogu!* 2. ‘Mover, remover o revolver, Roma con Santiago’. *Zeruak eta lurak mobiu/jorratu.*

Zeruka, -ia. *ald. zeluka*, -ia. Babiaren lekia, zorua. Hazixak dittuen edozein lekarena, adb. baba gorrixarena, baba haundixarena, idarrarena... ‘Vaina (de legumbre)’. *Idarrak zerukan erosten dittugu, freskuaguak izatiarren.*

Zezen, -a. ‘Toro’. Behixak zezenketako ebalten dana. *Denpora batian Goribarren eukitten euen iriskua edo zezena eta hara eruaten ziran behixak iriskoketara.*

Zezendu. Zezenak behixa estali. ‘Cubrir el toro a la vaca’. *Zezenduta dago.*

Zezipal, -a. *ald. xezpal*, -a. 1. Egur pusketatxua. ‘Astilla’. 2. Pertsona eta famelixa gaitzizena. ‘Apodo familiar’.

Ziatz, -a. Tendoia, zurdia, zaiña. (herr.). ‘Tendón’.

Ziburu, -a. 1. Txintxona. ‘Columpio’. 2. Itxitura bateko alanbradia pasaitteko zurezko zubixa edo maillia (Urruxola). ‘Paso para personas en una cerradura’. Sin. **belauntes**.

Zidar, -ra. Zilarra. ‘Plata’.

Zihar. Zehar. ‘Por, a través de’. *Basuan zihar, hortik zihar, munduan zihar...*

Ziharo. *ald. zihero*. Erabat. ‘Totalmente, completamente’. *Txminixia garbiketan ziharo baltzittuta geratu giñan./ Oker zabiltz, zihero oker!*

Ziharrera fan. Uhera fan. ‘Acostarse, tumbarse’. **Ziharrian egon**. Ohian egon. ‘Estar en la cama’.

Ziheztu. Zehazki. ‘Detalladamente’.
Ziheztu batu. Dan-dana batu.
‘Completamente’. *Jausitta dagozen
intxaurrek ziheztu batu, ale bakarrik itzi
barik!*

Zikirixo, -ua. ‘Centeno’. Sin. **zekale**.

Zil, -la. ‘Ombligo’. Sin. *ume ber.*
txirriñ, -a.

Zilbor, -ra. Pertsonen tripa haundixa.
‘Barriga humana de consideración’. Sin.
zilbot.

Zintta-karrera, zintta-karrera. Atzeko
kaleko fiestetan, Juan Zubiaren
denporan, antolaketan zan karrera.
Bizikleta-karrera zan eta
txirrindulariak eskuetan makiltxo bat
eroiela buelta bakoitzian zintta bat hartu
bihar euen, eta hamar bueltetan-edo
zintta gehixen hartzen ebenak sarixa
eruatzen eben. ‘Carrera de cintas’.
*Zintta-karrerako sarixa urdai-untzo bat
eta bi botella ardao izango da.*

Zintz egin. Mokuak kendu inddarra
egin. ‘Sonarse’. *Hartu paiñelua eta
zintz egin./ Aber, egin zintz sudurrok!
ume ber. txist egin.*

Zintzel, -a. ‘Cinzel’. *Daratulua izan
ezian, maillukiagaz eta zintzelagaz egin
biharko dittugu hemengo lanok.*

Zintzo, -ua. Esanekua, formala, leiala.
‘Honesto, -a, honrado, -a, bueno, -a’.
*Mutiko zintzua. / Tiarenian/izekorenan
zintzo asko portau da*

Zipistin, -ña. Petrala, zittala.

Ziraun, -a. *ald. zireun*, -a. Narrastixa.
Anguis fragilis. Subiaren antzekua da,
baiña pozoia bagia. ‘Lución’. *Ziraunak
erdiitsuak dirala askotan entzun izan
da.*

Zirin, -ña. Hegaztixen eginkaarixa.
‘Excremento de ave’ **Ziriña darixola
ibilli**. Beherakarekin egon. ‘Tener
diarrea’. *Hemen ñabilk/n ziriña darixola
batetik bestera.*

Zirkinzulo, -ua. Leku ezkutua,
ezustekua. 1. ‘Lugar no común,
vericuetto’. 2. ‘Escondite’. *Hareik*

*zirkinzulo danak ezaguketan dittue!/
Zirkinzulo baten egozen gordeta.*

Zirri, -xa. Asmo erotikarekin
egindako ikutu labur eta ezkutukua.
‘Tocamiento, caricia, achuchón’. **Zirri
egin.** / **Zirrika ibilli**. Zirrika
jardun. ‘Tocar, acariciar’. *Sarri, sarri,
zirri, zirri!* (txintxin egitterunzkuan
botatako garramistua)

Zirriki-murruku, -a. Zaratia,
burrundaria atarateko zeozer: lapiko
zahar, bidue... Iparraldian “eltzegorra”
esaten xae. ‘Zambonba, bramadera’.

Zirrindara, -ia. Zerrendia. Lur-sail edo
landare-ilara luze eta estua. ‘Franja,
longuera’. *Arto-zirrindaratxo bat erein
dogu./ Gazako zirrindaria xehetuta itzi
daue israeldarrak.*

Zirriztu, -a. ‘Rendija, ranura, resquicio’.
*Hobeto lo egitteko itzi bentania zirriztu
batekin.* Ik. **irrizto**.

Zirt edo zart egin. Erabagi, burubide
bat emun. ‘Decidir, resolver’. *Ezin dogu
eztabaiketara jarraitu, zirt edo zart egin
bihar dogu, atzera edo aurrera.*

Zirti-zarta. Aguro, di-da batian. ‘En un
santiamen’. *Zirti-zarta, harek aguro
egin zittuen hemen egin biharrekuak.*

Zirti-zartia izan. Bixkorra izan, eta
lana egittiari billurrik etxaona. ‘Ser de
mucho arranque y determinación’.

Zittal, -a. Jenixo gaiztokua, betik beria
egin biharrekua, edozeñeri gaizki gura
xaona. ‘Despreciable, ruin, mezquino,
-a’. *Ezparia (eltxua) baiña zittalagua.*

Zittalkerixa, -ia. Zittalaren egittia.
‘Mezquindad, ruindad, perversidad’.
*Baebillen han euren artian zittalkerixa
eta ikusieziña!*

Zizpuru, -a. Arnas-estuka egitten dan
negarra. ‘Suspiro’. *Gure Maribel
zizpuru batian aillegau zan etxera.*

Zizpuruka. Suspiroka. ‘Suspirando’.
*Umia zizpuruka dago. Zer pasau ete
xako?*

Zohi, -xa. 1. Goldia edo laixiagaz
ataraten dan lur pusketa osua. ‘Terrón’.

2. Txabolen teillatu gainetan ifintten ziran lur pusketak teillen ordez, teillatuaren babesgarri. ‘Tepe’

Zoko egin. 1. Txirikilletan txirikillia ez jaurtittia bota bihar zan gutxieneko lekuraiño be ez, eta horregatik jokua itzi bihar izatia. ‘No lanzar ni hasta el mínimo lugar la tala en el juego de la tala, y por lo tanto tener que retirarse del juego’. *Zoko da eta kalera fan bihar da.* 2. Edozein asuntotan kale edo porrot egittia. ‘Fracasar en cualquier asunto’. *Zoko egin dau esne-behixakin.* Sin. **porrot egin**

Zopizaartu, zopizaarketan, zopizaartuko. Lurra axal-axal jorratu. Zopizarrian egin edo ibilli. ‘Escardar’. *Segiarekin bedarra ebagi eta gero atxurragaz zopizaartu, hau da, lurraren azala kendu, bedar eta guzti.*

Zorna, -ia. Bestiak beste, puxunxautako zauriak botaten dauen likido horixa. ‘Pus’. *Zaurixa zornia darixola dako.*

Zorna-bedar, -ra. Zorne-belar. *Senecio vulgaris.* ‘Hierba cana’. Bide baztarretan eta labore freskuetan urteten dau, eta bedar txartzat hartzen da. Arto-landaketai, ortuko jeneruari eta abarrei kalte haundixa egitten doste. Emakumien miñak arinddu edo leunketako ebalten da. Kontuz baiña! Larregi hartu ezkerro zirrosixa eragin leike-eta.

Zoro-haize, -ia. Zorakerixak egitteko gogua edo gorputzaldixa. ‘Ventolera (fig.)’. *Harek eukan zoro-haizia! / Zoro-haiziak jo eta dantzaz hasi zan plaza erdixan.*

Zorri, -xa. 1. ‘Piojo’. 2. Maltzurra, gaiztua. ‘Malvado, -a, cabrón, -a’. *Aguazil hori zorrixa da gero!*

Zorrotz, -a. 1. ‘Afilado, -a’, *Artaazi zorrotzak biharko dittuzu hori ondo ebagitteko.* 2. ‘Mordaz’. *Haren mingaiña zorrotza da gero!* 3. ‘Estricto’. *Maixu zorrotza euki geben, zorrotza bai gero!*

Zorrotzaille, -ia. Zorrozketan dauena. ‘Afilador, -a’. *Aizkora-zorrotzailliak. / Segaz-zorrotzaille bikaiña da osaba.*

Zorroztarri, -xa. Tresnak zorrozketako harri berezixa. Hankakin mobitten dana **destera,** -ia da. ‘Piedra de afilar. Destera’.

Zotz, -a. Makilla mehe eta ez oso luzia. ‘Palillo, palito, ramilla’. *Eskatu zotzak, mesedez!*

Zotz egin. Zozketa egin. Bi zotz luzera ez bardiñekuak aukeran ifiñi eta bat hartuaz erabagi. ‘Sortear, echar a suertes’. *Nik neuritari eusten notsan, harek beriari; azkenian zotz egindda erabagi bihar izan geben.*

Zozo, -ua. *Turdus merula.* ‘Mirlo común, tordo’.

Zozo-zuri, -xa. Ezta espezie bat, ezta hegazti klase bat be, noizian behin suertau leikien aldaketa genetiko bat baiño (albinismua). Animalixa askotan ikusten da: katamixar zurixa; bela zurixa; buztanikara zurixa, etab. ‘Mirlo blanco, tordo blanco’.

Zulkama, -ia. Zúrezko ohia. ‘Cama de madera’.

Zumataitz, -a. Bidietan alde batetik bestera trabesian ifintten dan egurra, ura bidetik atarateko. ‘La madera que se pone a través del camino para desviar el agua’. **Zumatitza etara.** Bidian arekia edo erretena etaratia, ura bidetik atarateko. ‘Hacer la zanja en el camino para desviar el agua’.

Zun, -a. Lurra boldaitterunzkuan jarraiketan dan arraia. ‘Linea que se sigue al labrar la tierra’ *Zuna zuzendu. / Zun hori etxagok/n zuzen!*

Zurda, -ia. 1. Antzigarra. ‘Escarcha, cencellada’. *Aloña aldian zurdia daguela emuten dau, hango arbolak zuri-zuri dagoz eta.* 2. Zaldixen edo basaurdien ule gogorra. ‘Cerdeja, crin’.

Zurgu, -a. Bi lursailen arteko mugia; mugarrixen arteko arrae birtuala. **bat. surgu,** -a. 1. ‘La línea divisoria de dos

terrenos'. 2. 'Linea virtual entre los mojones'. *Iria zurguan zuzen ebagi.*

Zuri, -xa. 1. 'Blanco'. *Badakozue ardi baltzik? Ez, danak zurixak.* 2. Nagixa, lanari iges egitten xaona. 'Vago, -a, holgazan, -ana'. *Kamiñua egitten dabiltzen langilliak zuri samarrak ete diran, eztakoi itxurarik lana behinguan akaboko daueñik! / Mutiko hori zurixa dok/n, zurixa!*

Zurika, -ia. *ald. zurixka*, -ia. Zurira joten dauena. 'Blanquecino, -a, blancuzco, -a'. *Behi zurikia.*

Zurittu. 1. Zuriz pinttau. 'Emblanquecer, blanquear'. *Kuarto honek zurittu bat hartuko leuke, ba!* 2. Ortuari edo fruta bateri azala kendu. 'Pelar, mondar, deshojar'. *Dendara noian bittartian, zuk patatak zurittu* 3. Justifikau, onartu, ametiu. 'Justificar, aprobar, admitir'. *Ekintza horreik ezin dittugu iñola be zurittu!*

Zuritzaille, -ia. Etxia edo paretak zuriketan dittuena. 'Pintor, -a'. *Gaur gurera zuritzailliak dira etorteko.*

Zurrut egin. 'Sorber'. *Zurrut eta putz ezin dira batera egin esap.* 'Sorber y soplar no se pueden hacer a la vez'. (dicho)

Zurrutaka edan. 'Beber a sorbos'. *Eran egizu zurrutaka, bestela itto egingo zara-eta.*

Zuza, -ia, zuzaak. *Tricholoma georgii*. Ziza, udabarriko perretxikua.

Zuza, -ia, zuzaak (pl.). *Tricholoma georgii*. Ziza-zuria. Udabarriko perretxikua. 'Seta de primavera, seta de San Jorge'.

Zuzen, -a. Arteza. 1. 'Justo, recto, derecho'. *Gizon zuzena da, iñun zuzenik bada.* 2. 'Directo' *Hara fateko biderik zuzenena zein da?*

Zuzendu. 1. Oker daguena bihar dan moduan ifiñi. 'Enderezar, corregir'. *Poste hori zuzenketan ezpadogu, teillatua behera etorriko da./ Han zuzenduko zaue zuek.* 2. Norabait mobiu. 'Dirigirse hacia'. *Begirolatzara (Bellotzara) zuzendu giñan.* 3. Lortu, eskuratu, topau. 'Conseguir, agenciar'. *Zuzendu dozue bixamon egunerako erroparik?*

Zuztar, -ra. Sustraia. 'Raíz'.

Zuztarra etara. Zerbaitten barri jakin, deskubriu. 'Averiguar, encontrar el porqué'. *Etara dozue horren zuztarrik?*

Zuztarra hartu. 1. Betiko geldittu nunbaiten. 'Tomar o echar raíces (fig)'. *Bueno, guazen etxera, bertan zuztarrak hartu barik.* 2. Bertako egin. 'Tomar o echar raíces, hacerse de un lugar'. *Urtetxo batzuk badoiat hemen; horregatik, ba, hemen zuztarrak hartuta naguela esan neike.*

BIBLIOGRAFIA

- Altuna, R.; Elortza, K.; Zumalde, K. 2014. *Oñatiko euskeria. Ezagutu, aztartu, egin*. Oñatiko Udala.
- Elexpuru, J.M. 2005. *Bergarako aldeko hiztegia. Leintz-Aramaio, Oñati eta Eibar inguruko berbeekin osotuta*. Bergarako Udala.
- Elhuyar Hiztegia.
- Euskaltzaindiaren Hiztegia
- Garate, Gotzon. 1988. *Erdarakadak*. Gero. Ed. Mensajero.
- Izaguirre, Candido. 1994. *El vocabulario vasco de Aranzazu-Oñati y zonas colindantes*. Índice inverso: Gerardo Markuleta.
- Labayru Hiztegia.
- Lizarralde, A. 2025. *Araoztarrak (I)*
- Moliner, Maria. 1974. Segunda edición. *Diccionario de uso del español*. Ed. Gredos.
- Orotariko Euskal Hiztegia. Euskaltzaindia.
- RAE. *Diccionario de la lengua española*.
- WordReference.com